

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2005, 1
50. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net
web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua: Andres Maria Urrutia Badiola

Kideak: Beñat Oihartzabal
Xabier Kintana
Jose Luis Lizundia
Henrike Knörr
Andres Iñigo
Jose Antonio Arana Martija
Adolfo Arejita
Pello Salaburu

Eragile eta idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposizioa: Rali. Particular de Costa, 8-10, 48010 BILBO

Publimail 2000. Gorbeia, 1 - 48004 Etxebarri (Bizkaia)

Aldizkari hau beste agerariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

ANDRES MARIA URRUTIA BADIOLA, EUSKALTZAINBURU BERRIA, ERAKUNDEAN KARGU-HARTZEA

Euskaltzaindian kargu-hartzea, <i>Jean Haritschelhar</i>	11
Euskaltzaindian kargu-hartzea, <i>Andres Urrutia Badiola</i>	15
Euskaltzainburu berria, Andres Maria Urrutia Badiola jaunaren kargu- -hartzea, <i>Juan Jose Ibarretxe</i>	21

EUSKALTZAINDIAREN XIV. BARNE-JARDUNALDIAK

XIV. Barne-Jardunaldiak, <i>Andres Urrutia Badiola</i>	25
Euskaltzaindia Frantziako legedian, <i>Beñat Oyharçabal</i>	31
Euskal gramatika orotarikoa, <i>Pello Salaburu</i>	39
Euskal Corpus onomastikoa, <i>Andres Iñigo Ariztegi-Patxi Galé García</i> . .	49
Arautegi eta Barne Erregeletarako onartutako aldaketak	107
XIV. Barne-Jardunaldien <i>kronika</i> , <i>Pello Telleria</i>	115

JOAN PEREZ LAZARRAGA (1550-1605) IDAZLEAREN IV. MENDEURRENA: 1605-2005

Joan Perez Lazarragarren IV. mendeurrena, <i>Andres Urrutia Badiola</i> . .	123
La familia Lazárraga en la Llanada Alavesa, <i>Joan Vidal-Abarca</i> . .	125
Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak, <i>Xabier Kintana Ur- tiaga</i>	129

Joan Perez de Lazarraga, familiaren kronista, <i>Henrike Knörr</i> . . .	161
Joan Pérez de Lazarraga, <i>José Ángel Segura</i>	169

IKER SAILA

ONOMASTIKA

Gipuzkoako herri izendegiaren aurkezpena, <i>Andres Iñigo</i>	175
Gipuzkoako eskualde izenez ohar zenbait, <i>Jose Luis Lizundia</i>	179
Irizpenak, <i>Mikel Gorrotxategi</i>	183
Sanmigelgaña, <i>Andres Iñigo</i>	185

LANKIDETZA

Euskaltzaindiaren ekoizpen zientifikoa Inguma-n: Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basearen aurkezpena Euskaltzaindian, <i>Karmele Artetxe Sánchez</i>	189
--	-----

JAGON SAILA

Ekuadorko jatorrizko hizkuntzen akademia antolatzeko II. lan-minte- giari buruzko txostena, <i>Xabier Kintana</i>	207
--	-----

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIA (VII)

Euskaltzaindiaren barne-historiaz, <i>Xabier Kintana</i>	213
Pierre Lafitten gutundegia, <i>J.A. Irigaray - P. Andiazabal - P. Xarritton - P. Gartzia</i>	215
A. Irigaray / P. Lafitte (1947-1964), <i>J.A. Irigaray - P. Andiazabal - P. Xarritton - P. Gartzia</i>	217

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Bilbon, 2004.eko abenduaren 16an eta 17an	279
---	-----

Euskaltzaindiko Zuzendaritzako karguak hautatzeko batzar bere- zia: 2004-XII-17	281
Ageriko bilkura: 2004-XII-17	283
Bilbon, 2005.eko urtarrilaren 28an	285
Donostian, 2005.eko otsailaren 25ean	287
Bilbon, 2005.eko martxoaren 18an	288
Donostian, 2005.eko apirilaren 22an	290
Ageriko bilkura: 2005-IV-22	292
Argomaizen, XIV. Barne-Jardunaldiak: 2005.eko maiatzaren 27 eta 28an	294
Ageriko bilkura: Barrundia haraneko Udaletxean, 2005-V-28 . . .	298

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

143. - <i>Erri(a)</i> osagaia gaurko toponimian	303
144. Hiztegi Batua	309

ADIERAZPENAK, HITZARMENAK...

Euskaltzaindia eta Iruñeko Udalaren arteko hitzarmena	351
Ayuntamiento de Pamplona, Área de Cultura	352
Nafarroko Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean 2005. urterako egindako hitzarmena: 2002ko ekainaren 27an sinaturiko esparru-hi- tzarmenaren eranskina	357
Acuerdo entre el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia para el año 2005: anexo al acuerdo marco firmado el 27 de junio de 2002	360
Euskaltzaindia-Topagunea	363

BERRIAK

Euskaltzaindiaren 2005eko batzar-egutegia, <i>Pello Telleria</i>	369
Bitoriano Gandiaga zenaren koadroa Euskaltzaindiari eskaintzean . . .	373

<i>Manuel Lekuona</i> saria Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiari	375
<i>Lekuona</i> saria, Jean Haritschelhar	377
<i>Manuel Lekuona</i> saria, Emile Larre	380
Olentzaro, San Nikolas eta beste, Henrike Knörr	382
Mikel Zarateren <i>erregenez</i> , Patxi Oroz Arizcuren	387
Euskararen inguruko Jardunaldiak egin dira Oñatin	391
Euskara, euskalkiak, zentzua, Henrike Knörr	392
<i>Etxepare</i> literatur sariak banatu dira Iruñean, Xabier Kintana	394
Euskaltzain ohorezko berriei diplomak ematea	396

AURKEZPENAK

Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: <i>Literatura sariak / Premios literarios: 1958-2003</i> liburukiaren aurkezpena	401
<i>BBK-Euskaltzaindia</i> sariak liburuaren aurkezpena, Jean Haritschelhar	403
<i>BBK-Euskaltzaindia</i> sariak liburu aurkezpena, Gorka Martínez . . .	405
<i>BBK-Euskaltzaindia</i> literatura sariak: 1958-2003, Aitor Arana . . .	407
<i>BBK-Euskaltzaindia</i> literatura sariak: 1958-2003, Jose Ramon Bilbao	410
Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: Literatura sariak: 2004	412
<i>BBK-Euskaltzaindia: R. M. Azkue</i> literatura sariketa: 2004	415
<i>Zaldutik Zaldibarrera</i> , Onomasticon Vasconiae, 24	419

HIL BERRIAK

Jose Mari Larrarte eta Jose Garmendia gogoan	425
Jose Mari Larrarteren heriotzean, Henrike Knörr	429
Jose Mari Larrarte (1926-2004), Jose Antonio Mujika	431
Jose Garmendia Arruebarrena (1925-2005), Jose Luis Lizundia	437

**ANDRES MARIA URRUTIA BADIOLA,
EUSKALTZAINBURU BERRIA,
ERAKUNDEAN KARGU-HARTZEA**

Bilbo, egoitza, 2005-I-27

EUSKALTZAINDIAN KARGU-HARTZEA

Jean Haritschelhar

Lehendakari Jauna,
Excelentísima Señora Ministra de Educación,
Agintari agurgarriak,
Euskaltzainburu jauna,
Euskaltzainkideak,
Jaun-Andereak, arratsaldeon.

Urteak iragan dira: 42 Euskaltzaindian enetzat, haietan 38 zuzendaritzan, 22 euskaltzainburuorde eta 16 euskaltzainburu. Etorria zen karguaren uzteko ordua. Zaharrena izanez Iratzederekin, izendapenaren arabera (1962ko uztailaren 27an izendatua izan ginen) azken lau hamarkadetan Euskaltzaindian egin diren lanak nahi nituzke aipatu.

Arantzazuko biltzarra da Euskaltzaindiarentzat bihurgune nagusia, orduan erabakitzen delakotz euskara batuaren alde jokatzeari. *Urre ezteiak* ziren eta haiek ospatzeko nola ez obra, kazetari, idazle, irakasle eta euskaltzain batzuen artean bazebilen ideia nagusia: euskara batuaren beharra. Giro berri bat sortzen ari zen, bereziki Hegoaldean, ordua zen lanean hasteko eta gauzatzen lehenbiziko euskaltzainen ametsa, hastapen bat ukan zuela 1920.ean Campion, Broussain-en txostenarekin.

Zertan gaude orain?

Arantzazuko Biltzarrean argiki urratu zuen bidea Koldo Mitxelena euskaltzain zenak, erakutsiz Euskaltzaindiaren eginbidea zela gidari izatea, bide erakuslea, batasuna lortuz azaleko auzietan lehenik, hasiz ortografiarekin, segituz morfologiarekin eta azkenik joskerarekin.

Ortografiarena egina aspaldi honetan, morfologiari doakonez batasuna lortua dabere ñabardurekin, bai izenen deklinabidean, bai erakusleetan bai eta ere adizean, izan dituen aditz laguntzaileak edo aditz trinkoak, aherentzi gabe hitanozko formak, Joskeraren garaia etorriko da segitzen baitu Euskaltzaindiak normalizaziorako bidea.

Ez zuen aurre pausu hori emanen Euskaltzaindiak ez balitz sartu, denbora berean, lan sakonetan bere bost batzorde nagusiei esker. Euskara idatziaren altxorra *Orotariko Euskal Hiztegia*n daukagu, osoki bukatua baita, XVI. libu-

rukia editoreen eskuetan dagoela duela hilabete bat baino gehiago. Horri esker hiztegi batuko lehen itzulian 23.000 hitz erabakiak izanak dira.

Bigarren altxorra ahozko euskararena Atlaseko inkestei esker (2.800 galdera 145 herritan) pentsatuz ere lekukoak mintzatu direla laxoki, ixtorio konda, egiazko euskalkiaren hiztegia eta gramatika sartzen direlarik solas horietan, bai eta ere ahoskera eta azentua. Hori da Dialektologia batzordearen emaitza.

Gramatika batzordeak sei liburuki agertu ditu, zazpigarrena bukatua, Argitalpen batzordearen eskuetan dela. Joskeran sartua da, segitzen du bere lana behar duen bezala finkatzeko egun batez euskara batuaren joskera.

Onomastikako batzordeak kaleratu ditu *Euskal izendegia*, gizasemeen izenena eta ponte izenena, herri eta herritarren izenenena Euskal Herri guztian, ahantzi gabe euskal deituren izendegia Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaur-laritzak babesturik agertua.

Literatura batzordeko kide nihaur izanez eman dezaket nire lekukotasuna. Bukatutzat ematen da Literatura kritika hiztegia, jakinik ere kide guziek parte hartzen dutela kongresuetan lan, txosten, mintzaldiak azalduz euskal literatura idazleei buruz izan dituen Iparraldekoak hala nola Etxepare, Oihenart, Elizanburu, edo Hegoaldekoak Larramendi, Kardaberaz, Lizardi, Orixe eta aurtun Lauaxeta.

Lan sakonak horiek guziak, lan ixilak ere eguneroko lanak euskaltzainek, urgazleek, batzordekideek (gehienak Unibertsitateko irakasleak) gogotik eskainiak, baitakite denek euskararen onerako lanean ari direla. Lan sakon, lan ixil horiek nahi ditut gaur goraipatu kargu aldaketa honetan, eskertzen ditudalarik, denbora berean, batzorde guztietan parte hartu eta hartzen duten ikerle guziak, haien artean zendu direnak gogoan ditudala.

Eguneroko lana, lan xumea baina emankorra, Euskaltzaindiaren egoitzan eta ordezkaritzetan langileek egiten dutena, jendearen galdeei erantzunez, haien zerbitzari leialak izanez, zabalduz Euskaltzaindiak hartzen dituen erabakiak bai ere agertzen dituen liburuak. Eskertzen ditut bihotzez ordezkariekin batean zabaltzen dutelakotz Euskaltzaindiaren irudi ona Euskal Herri osoan, mugaz gainetik euskaldun guztien artean lokarri bat baita Euskaltzaindia eta zaintzen duen hizkuntza gure hizkuntza maitea.

Eta orain, zuei mintzo natzaizue agintzari agurgarriok. Zuri lehenik, Lehendakari jauna: bai zuk eta bai Eusko Jaur-laritzak beti harrera ona egin diozue Euskaltzaindiari, ez diozue sekulan diru-laguntzarik ukatu, bereziki eza-gutu dituen garai latzetan, bultzatu, aldiz, sar zedin orainaldian informatika eta tresneria berrien erosteko laguntza eskainiz, hala hedatzen baita mundu zabalera Euskaltzaindiaren emaitza, Interneten egiten diren bisitak direla lekuko.

Bizkaiko Foru Aldundiari zor diogu gure egoitza eta gero Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiak bildu dira egoitza hori ederki apaintzeko. Inauguratu zen eguna egun ederra eta ezin ahantzizkoa izan zen Euskaltzaindiarentzat.

Hitzarmen batek lotzen ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundiak eta Euskaltzaindia, hitzarmen berri bat sinatuko delarik laster; nola ez dut baliatuko gaurko eguna, denak bilduak zaretelarik hemen, eskerrik beroenak eskaintzeko zuri eta hiru diputatu nagusiei orain arte erakutsi diguzuen atxikimenduarengatik, egin duzuen diru-laguntzarengatik eta, geroari begira, eginen duzuenarengatik baitakigu atzo eta egun bezala bihar ere zuekin konda dezakegula.

Ez ditut ahanntzi nahi Nafarroako Gobernua ez eta ere Iparraldeko agintariak. Nafarroarekin badugu hitzarmen bat; Iparraldean hitzarmen bereziari esker, frantses Kultura Saila, Akitaniako Kontseilua eta Departamenduko Kontseilu Orokorrengatik Euskaltzaindiak diru-laguntza badauka urtero. Har dezatela denek Euskaltzaindiaren izenean ene eskerrik beroenak. Madrilgo Gobernari eta orain hemen dagoenez gero Ministra andere agurgarriari doa mila esker handi bat.

* * *

Excelentísima señora, le agradezco mucho su presencia en este acto y también la ayuda financiera que aporta su Ministerio.

* * *

Argi eta garbi daukagu gogoan ez zuela Euskaltzaindiak egin duen lana eta emaitza eginen ez balu denen sostengu nasara ukan.

Duela 16 urte kargu aldaketa Aita Villasante eta ene artean egin zen Bizkaiko Foru Aldundian Ardantza jauna orduko lehendakariaren eta Pradera diputatu nagusiaren aintzinean Mari Carmen Garmendia Lasa zela, ene ustez, bestaren asmatzailea. Orduan sortu zen ohidura berri bat, ofizialki agintari guztien aurrean eginez kargu aldaketa. Ohidurak segitzen du gaur, orain gure egoitzan, beste ohidura berri bat plazaratzen dugularik. Erakusteko euskaltzainburua dela *primus inter pares* lehentasunaren lekuko hona euskaldun makila Andres Urrutia Badiola euskaltzainburu berriari eskaintzen diodana. Doala euskaltzainburuz euskaltzainburu hemendik aintzina, ene zorionik beroenak hartzten dituela euskaltzainburu *primus* delakoak ni sartzen naizela berriz *pares* delakoen artean.

EUSKALTZAINDIAN KARGU-HARTZEA

*Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburu berria*

Joan den urteko abenduaren 17an, Euskaltzaindiak, bere historian hainbat aldiz egin duen bezalaxe, zuzendaritza-karguak berriztatu zituen. Beste behin ere, Euskaltzaindiak erakutsi zuen instituzioa dela, hain zuzen, euskararen instituziorik gorena.

Egun hementxe gara horren testigantza emateko, eta, beharbada, Xabier Kintana idazkari eta fedemaileak irakurritako aktaren hitzei, espiritua eta ari-ma emateko, behar den moduan girotzeko.

Egun ere agur esaten dio karguari urteetan gure buru izan denak, Jean Haristchelhar jaunak. Zure aurretik, Jean, halako arduretan izan ziren Resurreccion Maria Azkue, Ignazio Maria Etxaide, Jose Maria Lojendio, Manuel Lekuona eta Luis Villasante. Haiengandik jaso zenuen lekukoa gaur ematen



duzu, gure aurrean. Ohore zuri, Jean, beti gidatu duzulako tinko eta fermu, esku onez eta trebez, Euskaltzaindiaren norabidea eta ibilbidea.

Zuregandik ikasi dugu Euskaltzaindiaren izena eta izana aurrera eramaten, egoki zertzen. Zuregandik ere, egoera korapilatsu zein erosoagoetan, irtenbideak bilatzen eta euskaldunei euren euskararen harrotasuna erakusten, berez dituzun dohainak eta eskarmentuz zureganatu dituzunak eskuzabal eskaini dizkiezula gure instituzioari eta euskaltzain guztioi, ohorezko, oso nahiz urgazle izan. Zer esanik ez, etxeko behargin eta langile prestuei ere.

Lausenguak eta losintxak baino, beti maite izan dituzu lana eta ekina. Badakigu kargua uzten duzula, dakigularik euskaltzain oso moduan zure ekarriak eta jakituria aurrerantzean ere gure esku izango ditugula, halako esperientzia handiko maisuak hasiberriko urdurari dion harrera eta arreta artatsu berberarekin.

Lana behin baino gehiagotan aipatu duzu zure hitzaldi, agerpen eta plazaratze uneetan. Euskaltzaindiaren lana, bereziki. Lanerako gonbita egin zenuen 1989. urtean, Aita Villasanterengandik euskaltzainburutza eskuratu zenuenean. Orduko zure hitzak, orduko zure esanak ditut gaur nik gidari, Euskaltzaindiaren nondik norakoak eta egitekoak zehazteko.

Lanak hasiak dira, behar dira bururatu.

Hona, hitzez hitz, orduko zure esamoldea. Gaur, oster, orduko lan hasi berriak bururatu direla, neurri batean bederen, ezin uka. Horra hor *Orotariko Euskal Hiztegia*, bukatua, horren azken liburukia aurki argitaratuko dela. Horra, *Atlasa*, amaitzeko tenorean jarrita, laster ere horren fruituak bistaratuko ditugula. Horra, *Hiztegi Batuaren lehenengo itzulua*, euskarari, prestutasuna ez ezik, erreferentziak ere eman dizkiona.

Bururatu aditza erabili zenuenean, ez zinen desbideraturik ibili. Izan ere, euskararen lanek egunero-egunero, aldiro-aldiro, bestelako, osterantzeko eskakizunak sortzen baitituzte. Bizirik dagoelako seinale zalantza gabekoa.

Euskara batuaren moldaketa zen garai hartako erronka nagusia. Hamabost urte geroago, begien bistakoak dira orduko ekinaren ondorioak. Euskara batua abian dugu; euskara bera, kodeketa eta estandarizazio horren bitartez, egunerokotasunerako tresna bihurtu da unibertsitateetan, irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan.... Oro dira horren erakusle, eta gure akulari eta zirikatzaille fin eta zorrotzak, bekoz beko errealtate ezohikoak jartzen dizkigutenak euskararen esparruan.

Sarea, informatika, baliabide elektronikoak... badira, gure artean ere, ezin besteko osagaiak hizkuntzaren geroari egoki eusteko. Hor ditugu lanabes berriak, euskarak nahitaez behar dituenak.

Lanabesak, hala ere, hutsalak eta arima gabekoak dira, baldin eta egitasmo eta proiektuak artean ez badira. Euskaltzaindiak baditu halakoak, hain justu ere, Euskaltzaindia bera XXI. mendean jarri behar dutenak.

Euskal Gramatika Orokorra, Hiztegi Batuaren definizioak, hiztegitzintza-ren ikerketak, Euskal Corpus Onomastikoa, Euskal Literaturaren azterketak... Horiek dira jendaurrean plazaratu beharrekoak, horiek osatzen baitute, gure iritziz, osterantzeko gogoia, behinola egindako euskara batuaren kodeketari gure belaunaldiak ekar diezaiokeen eite edo tankera berezia.

Behar dugu, orobat, euskara zabaldu eta euskaldunen arteko ahozko erabilera jagon, jakinik, hori bai, euskara guztiona dela, berriz diot, guztiona, egongela honetan eta euskal gizartean diren ideia, sentsibilitate, iritzi eta aburu desberdinena, euskarak berak guztion ahalegina eta konpromisoa behar duelako.

JAGON zeregin horren zerbitzuko dauka Euskaltzaindiak JAGONET sistema. Horren bidez, gizarteari eskaintzen zaiona baliotsu eta esanguratsua da, eta, are gehiago, hobetu beharrekoa. Euskararen erabilerak ere kezkatzen du Euskaltzaindia, hizkuntzak berez duen komunikagarritasuna babestu beharrean dagoelako, batez ere, beraren bizi iraupena bermatu behar duen euskara moduko hizkuntza batean.

Badaki Euskaltzaindiak herrialde euskaldunen egoerak desberdinak direla, antolakuntza politiko eta administratiboaren aldetik. Leku batzuetan ofizialkidea da euskara gaztelaniarekin batera, lurraldez mugatua bada ere ofi-



zialkideetasun hori beste leku batzuetan. Bada, bestalde, ofizialtasun bat ere ez duen euskal lurraldea.

Europa dugu ate joka. Hara goaz eta hark jarri dizkigu, dagoeneko eta larregi konturatu gabe, jokamolde berriak, guretzat, sarri askotan, ezezagun direnak. Hark ere baldintzatuko du euskararen etorkizuna, hur-hurretik begiratu beharko diogula prozesu horri.

* * *

El euskera, sin embargo, no es sólo una cuestión de la Comunidad Autónoma Vasca o Navarra. El euskera es algo vivo, también uno de los símbolos de identidad de España, y una de sus riquezas culturales, proclamada por la Constitución en el artículo 3.3 donde se afirma que «la riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección».

La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia surgió en 1918 de la iniciativa de las cuatro Diputaciones Forales de Araba/Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra/Nafarroa. Su personalidad jurídica y su naturaleza consultiva oficial, con un ámbito de actuación que se extiende a los cuatro territorios, nos pone de manifiesto una vez más su carácter institucional, ya establecido por el Decreto 573/1976, de 26 de febrero, de reconocimiento de su personalidad, confirmado posteriormente por el Real Decreto 272/2000 de 25 de Febrero, de modificación de sus Estatutos en su artículo 1.j): «Como institución consultiva oficial en materia de lengua, expedir los oportunos certificados, informes y dictámenes».

Por eso hoy la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia quiere recordar, en presencia de los representantes de las diputaciones fundadoras, del Gobierno de Navarra como continuador de la Diputación Foral de Navarra, del Gobierno Vasco y del Gobierno de España, su profunda convicción de que la lengua vasca es algo en lo que todos y cada uno de ellos debe implicarse. Esperamos sinceramente que todos ellos, sin exclusiones y con independencia de adscripciones ideológicas concretas, sean un factor importante en el desarrollo y financiación de los trabajos que esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia realiza en torno al euskera, una lengua que nosotros, sus hablantes, no queremos arcaica, ni objeto de exposición en una vitrina de un museo, sino de utilización diaria en todos los ámbitos de la vida social y con una presencia europea significativa.

Un saludo a los hablantes de las lenguas castellana, catalana, gallego-portuguesa, aragonesa, asturiana y aranesa-gascona-occitana, que son, como los hablantes de la lengua vasca, miembros de una comunidad cultural acrisolada por siglos de convivencia.

* * *



Il faut continuer à travailler afin de rendre la langue basque officielle de la même façon que la langue française dans les territoires de Lapurdi, Nafarroa Beherea et Zuberoa.

Basque language, literature and culture must be known and have to be translated into the largest written and spoken languages all around the world. Euskaltzaindia/the Royal Academy for the Basque language will promote the work of spreading Basque language through international scientific fields of research and development.

* * *

Kanpoan diren euskaldunak ere ez zaizkigu arrotz, senide eta etxeko baino. Beti izango dute Euskaltzaindian abegi amultsu eta beroa.

Baliabide handiak behar dira halako proiektuei eusteko. Baliabide material eta pertsonalak, Euskaltzaindiak administrazio publiko eta gizabanako nahiz pertsona juridiko desberdinengandik jasotzen dituenak. Eskerrak, beraz, zuei, gure lana egingarri egiten duzuenoi. Zin-zinez eskerrak, eta aurrerantzean ere horrela jarraitzeko deia luzatu.

Diru publikoa darabil Euskaltzaindiak. Badaki diru publikoa erabiltzeak berebiziko erantzukizuna dakarrela, guztion sosak baitira hor tartean dabiltzanak. Izatez, Euskaltzaindiak badu berebiziko betebeharra, bere proiektuak adin onez, taxuz eta artez egiteko, eta bere buruari ere berak gizarte eta agintari publikoei eskatzen dien eskakizun-maila berbera ezartzeko.

Barne antolakuntzari buruzko arautegiak ere behar ditu gaurkotu eta eguneratu Euskaltzaindiak. Malguago jokatu, euskaltzain urgazleak berbizitu, akribatu, euskaltzain osoengandik gertuago jarri. Datozen urteetan, andrazko zein gizonezko, euskalgintzaren hamaikatxo aditu, jakitun, sortzaile, eragile... bertaratu beharko dira, euskaltzain oso zein urgazle izateko. Horretarako, bistan da, Euskaltzaindiak euskalgintzaren gune erkide behar du izan, bertara biltzen baitira bateko eta besteko euskaldunak, mugaz, ideologiaz, pentsaeraz... bereiz direnak, baina euskara lokarri dutenak.

Hor dira unibertsitateak (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustukoa, Arrasatekoa, Nafarroako Unibertsitatea eta Unibertsitate Publikoa, Bordeleko eta Pabeko unibertsitateak); hortxe ere, euskararen inguruan diharduten hainbat talde, elkarte, federazio, terminologia-ikergune eta zentro, enpresa eta komunikabide. Horietako batzuek, dagoeneko, ageriko loturak dituzte Euskaltzaindiarekin. Beste batzuk ere, hurrengo urteetan ekarri beharko ditugu gure arlora, eta eurokin hitzarmenak egiteko bidean jarri. Hartara, Euskaltzaindiak, lehendik dituenak ez ezik, areagotu ere egin beharko ditu horiekiko harremenak. Paper hutsezkoak baino, errealitateak eta fruitu berriak ekarri beharko dituzte horiek.

Bada, hortaz, nekea non hartu Euskaltzaindiaren sailetan. Neke-lor horietan bete-betean jarduteko euskaltzain osoek aukeratu dute zuzendaritza berria, hemen hitz egiten dizuena horren buru dela. Talde moduan gatozkizue, helburu zehatz batzuen asmoarekin. Aukera hori baliatuko dugu, eta eginbeharrekoa, zilegi bekit hala esatea, onartzen dugu, oraingo honetan ni neu neu-re zuzendaritza-kideen ordezkari naizela.

Ordua da neke eta lorrerako. Lanak hasiak dira, behar dira bururatu. Halaxe esan zuen Jean Haristchelhar euskaltzainburuak kargua hartu zuenean. Gure lanak gaur hasten dira; gure lanen zerrendan gaur irekitzen dugu lehen orri zuria. Hura lerro zuzenez moldatzeko, guztion laguntza beharko dugu. Zuengandik eta euskaldunengandik halakoxea eskuratuko dugulakoan, gurea behintzat, gogotsu letorke, harako *Ekin eta jarrai* haren bidetik, XXI. mendean gauza bera beste modu batez esateko eta egiteko, alegia, *ekinean jarrai*.

Mila esker

**EUSKALTZAINBURU BERRIA,
ANDRES MARIA URRUTIA BADIOLA JAUNAREN
KARGU-HARTZEA**

*Juan Jose Ibarretxe,
lehendakaria*

Euskaltzaindia bezalako erakunde baten premiaz arduratu zirenak garai hartako euskaltzale gorenetarikoak izan ziren. Euskarari zor zitzaion erakunde bat sortzen asmatu zuten. Garai hartan –duela 86 urte– egin ahal izan zena egin zen, Orduan euskara mundu akademikotik urrun zebilen. Urrun zebilen literatura mundutik ere, Baina izan ziren pertsona batzuk, eta erakunde batzuk, ohartu zirenak gure hizkuntzaren balioaz eta garrantziaz. Gaurko begiekin ikusita, hasiera apala izan zen, baina, dudarik gabe, Euskaltzaindiaren sorrerarekin urrats handi bat eman zuen Euskal Herriak eta euskarak berak geroari begira.

Euskaltzaindiaren helburu nagusia eta izateko arrazoiak euskara estandar bat sortzea zen. Literaturarako balioko zuen euskara proposatu behar zuen. Horretarako, arauak (hiztegia, gramatika,...) proposatu behar zituen.

Denok dakigu, euskararen batasuneranzko bidea oso luzea izan dela. Hasi-eran, eginkizunaren zailtasunak jendea atzera botatzen zuen. Ez zen adostasunik ikusten. Baina azkenean, 1968. urtean, Arantzazun, ezarri ziren hizkuntza idatzi batuak behar zituen oinarriak eta ordutik hona Euskaltzaindiak oso urrats handiak egin ditu bide horretan. Euskara batua izugarrizko lorpena izan da eta lorpen horren gauzatzailea Euskaltzaindia izan da. Euskal Herriak eta euskalgintzak Euskaltzaindiarekiko zor izugarria du eta hori aitortu beharra dago.

Gainera, Euskaltzaindiak halako autoritate bat, (edo itzala esango genuke euskaraz) irabazi du euskaldunon artean. Eta hori inportantea da. Are gehiago gurea bezalako Herri batean, non ez ditugun erraz onartzen batasun bideak, diren motakoak direla. Euskaltzaindiak Euskal Herri osora zabaldu du bere itzal hori. Euskal Herri osoan onartua den erakunde gutxietakoa dugu, hain zuzen, Euskaltzaindia. Horregatik, eskerrak bene-benetan, Akademiari euskalgintzan lortu duen rol hori lortu ahal izan duelako.

Gauzak horrela, gizarte erakundeek eta herri aginteez erabateko laguntza eta babesa eskaini eta eskaintzen diogu geure Akademiari. Euskal Herriko diputazioek sortu zuten. Gaur diputazio horiei Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritza ere batu zaie eta denon artean saiatzen gara Euskaltzaindiari behar

dituen baliabideak eskura jartzen. Saiatzen gara Euskaltzaindiaren lana errazten eta duintzen. Eta hala segitzeko borondatea dugu.

Garaiak asko aldatu dira. Euskaltzaindiaren zeregin nagusia euskara batua lantzekoa baldin bazen ere, Euskaltzaindiak sorreratik beretik euskararen «jagotea» ere bere gain hartu zuen. Hala beharko, zeren garai hartan ez zen inongo erakunde administratiborik euskararen «estatus»-az arduratuko zenik. Azken batean, Euskaltzaindiari egotzi zitzaion EUSKARA ZAINTEKO ardura.

Denboran zehar, gauzak aldatuz joan dira eta Euskaltzaindiak berak ere jakin du garai desberdinetara egokitzen: lehen jaialdiez, bertso saioez, euskaraz irakasteko tituluez, eta abarrez arduratu beharra izan zuen. Hori zen garai hartan euskal gizarteak eskatzen ziona. Eta Euskaltzaindiak ez dio orain arte entzungor egin gizartearen eskariari. Gero, zorionez, gauzak aldatuz joan dira. Orain baditugu lehen ez bezalako egitura politiko-administratiboak. Orain euskarak aitortua du bere ofizialtasuna Euskal Herriaren parte handi batean behintzat. Gauzak ez dira, horrenbestez, lehen bezala. Eta euskararentzat ere ez. Hori ongi ulertu du Euskaltzaindiak, nik uste.

Euskaltzaindiaren osaerari erreparatzen badiogu eta lehengo garaiak oraingoekin alderatzen, argi ikusten da hor ere gauzak zenbat aldatu diren. Lehen ez zen unibertsitaterik, orain unibertsitateetan beretan hainbat ikerketa eta lan egiten dira euskararen gainean. Eta Euskaltzaindian bertan ere begira zenbat kide diren unibertsitate mundukoak! Euskaltzaindiaren batzordeetan ere beste horrenbeste.

Gaur lehen ez zituen zenbait erronkari egin behar dio aurre Euskaltzaindiak Eta zilegi baldin bazait esatea, Euskaltzaindiak bere lekua egin behar du akademi-munduan. Euskal Herriak hala eskatzen dio. Eta orain arte asmatu duela esan dezakegun bezala, hemendik aurrera ere asmatuko duzuela iruditzen zait. Zuzendaritza berria duzue. Espero izatekoa da behar bezala gidatuko dituela Akademiaren pausoak.

**EUSKALTZAINDIAREN
XIV. BARNE-JARDUNALDIAK**

Argomaiz (Araba), 2005-V-27 eta 28a

XIV. BARNE-JARDUNALDIAK

*Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Egunon eta ongi-etorriak, euskaltzainkideok!

Gaur eta bihar egingo ditugu Argomaizen gure Barne Jardunaldiak. Urte birik behin hala egiten dugu, Euskaltzaindiaren norabideak aztertzeko, ikuskatzeko, eta, hala balitz ere, zuzentzeko eta eraberritzeko.

Egia esan, azken aldian, Hernanin batu ginenetik, ageriko aldaketak izan dira gure artean. Bateko, orduan euskaltzainkide oso genituen Josemari Sastrategi eta Andolin Eguzkitza herioaren atzaparrak kendu dizkigu. Besteko, Jose Luis Lizundia eta Adolfo Arejita euskaltzainkide berriak ditugu, Euskaltzaindiari euren jakite eta ahalmenak ekartzeko prest. Aipua eta eskerrak, hortaz, hildakoei, eta ongi-etorri eta ahalegin bizia kide berriei.

Badira, bestalde, gure arteko aldaketak, akademiaren gobernuari dago-kionez. Izan ere, Zuzendaritza Batzordeak bere kargu-aldaketak egin ditu joan den urteko abenduan, eta Jean Haritschelar buruak gobernu-kezkak utzi ditu, hamasei urte oparoren ondoren. Berari ere aitortza eta eskertza, gurekin batera lanean jarraitzeko deiarekin batera.

Artean, Euskaltzaindiak arnas luzeko egitasmoak ondu eta bukatu ditu, hala nola, *Literatura Hiztegia*, Literatura Batzordearen eskutik, edota *Orotariko Euskal Hiztegia*, Ibon Sarasolaren gidaritzapean. Laster ere *Atlas* proiektuaren lehen liburukia esku artean izango dugu. Horrekin, bistan da, gure Akademiak beste behin berretsi ditu ikerketarako eta euskararen aitzinamendurako duen bokazioa.

Bi urteko tarte hori, dakizuenek, ez da tarte luzeegia izaten erakunde baten joan-etorrietan. Bai, ordea, gure garaian, etengabe ari baitira, tiraka eta bultzaka, mundu modernoaren eskakizun eta premiak, euskara moduko hizkuntza batek egoki zertu beharko lituzkeenak. Izatez, hizkuntza guztiek, eremu urrikoak izan nahiz zabalekoak izan, bateratsu jokatu behar dute, euren bizirau-pena bermatu nahi badute.

Argi dago, hortaz, Euskaltzaindiak bere buruari planteatu behar diola os-terantzeko ibilbidea. Bide horrek, alabaina, ez du ekarri behar, hurrengo bi ur-

teetan, aurretiaz egindakoarekiko haustura eta urraketa, egokitzapena eta mol-daketa baino.

Lautan bereiziko dut nik gure zeregina, esku artean duzuen agiritegian ongi nabarmentzen denez:

Estatutuen aldaketa
Egitasmo berriak abiaraztea
Euskalgintzaren eragileekiko harremanak
Ekonomia eta barne kudeaketa
Sail desberdinetakoak

Lauok erro-errotik loturik daude, lauok biribiltzen baitute halako batasuna, lan egiteko tankera propio baten jabe egin gaitzakeena. Horretara joan nahi du zuzendaritzak, eta horretarako pausoak emateko prest dago.

A) Estatutuen aldaketa

Has nadin lehendabiziko puntu honetatik. Begien bistakoa da guztiontzat azken urteetako egoera arras kezagarria dela Euskaltzaindiarentzat. Behin baino gehiagotan egon gara bilkura osoan gutxieneko euskaltzain-kopurua betetzeko estuasunetan; sarri-sarri falta ditugu euskaltzain osoak batzorde eta egitasmoetan lan egiteko... Hamaikatxo adibide jar daitezke horri buruz, aspalditik dugun egoera honi konponbidea bilatu behar horretara eraman beharko gintuzketenak.

Uste horretan eman zion agindua Zuzendaritzak Jose Luis Lizundia diruzainari, bera, etxe honen gorabeheren jakitun izan eta gure eskuetara ekar zezan zirriborroa, geroa zer-nolakoa izan dezakegun azaltzeko. Egunotan eztabaidatuko dugu hori, eta guztion artean batera edo bestera ekarri. Irtenbideak, hala ere, hiruzpalau irizpide nagusi bildu beharko lituzke: lehena, premiazko dugula euskaltzain oso berrien sarrera, adinez aurreraturik eta zereginenez itota gaudenon laguntzaile eta aringarri; bigarrena, euskaltzain oso horiek, andrazko izan zein gizonezko izan, merituen arabera aukeratu behar ditugula; hirugarrena, gure artean diren andrazkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun-politikak aintzat hartu beharko ditugula; eta, laugarrena, euskaltzain oso berri horien nondik norakoak, lanaren eta ahaleginen bidetik asmatu behar ditugula, Euskaltzaindiaren barruan makina bat eginkizun baitago euskaltzain osoren esku. Deia, beraz, lanerako da, ohore eta deduetarako baino.

Zuzendaritzak aurreko horiek ahalbidetzeko formulak asmatu ditu. Bera-ri dagokio zeregin hori, eta, gure ustez, egokiak dira formulok premia horiei erantzuteko. Horretarako, inguruan ari diren beste akademien eskarmentuak ere aintzat hartu dira: gaztelaniarena, katalanarena, galizierarena... Orain, guk dugu hitza. Zentzuz eta zuhurtziaz joka dezagun!

B) Egitasmo berriak abiaraztea

Hona hemen Zuzendaritzaren beste ardura nagusi bat, hain justu ere, dagoen bi urteetan gordin-gordin bistaratuko duguna. Orain artekoan Euskaltzaindiaren lana batzordeen bitartez egin da, eta oraintxe bertan ere hala egin da. Egitasmo berezituak izan badira ere (*Orotariko Euskal Hiztegia* zein *Atlas*), beti-beti batzordeek egitasmo horiekin batera jokatu dute edota hurbilhurbiletik jarraitu, nabariak baitira bi errealitate horien arteko harremanak eta loturak.

Bada garaia, aldiz, egitura horri zerbait eranstea eta Zuzendaritza honen helburuen artean iragarri zena gauzatzeko, alegia, egitasmo-moldeetan ageriarazteko lan egiteko.

Zer-nolako egitasmoak? galdetuko duzue berehalakoan. Ezagun zaizkigun aurreko horien tankerakoak, bai... baina zertxobait desberdinak. Arian ere, arratsaldean entzungo ditugu proiektu berri horien xehetasunak, euren zuzendari izan behar dutenen aho eta hitzetan. Hartara, Orotariko Euskal Hiztegia bukatuta, hiru proiektu berri abiaraziko ditugu: *Euskal Gramatika Orokorra*, Pello Salabururen zuzendaritzapean; *Euskara-euskara* hiztegia, Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean; eta *Euskal Korpus Onomastikoa*, Andres Iñigoren zuzendaritzapean.

Hiru horiek dira, oraingoz, abiatu beharrekoak. Hiruotan eta ATLAS egitasmoaren barruan ere, ibilbidearen prozesuak bestelakoa izan beharko du, bestelakoak baitira egun Euskaltzaindia diru publikoaz hornitzen duten botere publikoen eta gizartearen eskakizunak.

Hasteko, zuzendariaren ardurapeko egitasmoak izango dira horiek, hau da, zuzendariak bermatu beharko du proiektu horren egitea eta gauzatzea, egitasmoari dagokion epean. Orobat, proiektu horien erritmoa eta kronograma, aldian-aldian zer egin den ziurtatuz eta garatuz. Bestetik ere hura izango da, proiektu horretan ari diren pertsona kontratatuen zuzendari nagusia, eta gai horretan ari diren batzordeekiko harremanak bideratu beharko dituenak. Horrek ekarriko du, ez bairik gabe, zuzendari horren lanariak ordaintzea, eta ikerketarako taldeak sortzea eta finkatzea, gure organigraman ere agertu behar direnak, egitasmo eta eginkizun gisa.

Horrek ez du zaildu behar batzordeek orain arte egin duten lana, eurekin koordinatuta lan egin behar baita (kontsultak, aholkuak, iradokizunak...). Bitzuen arteko elkarrekikotasuna, beraz, horretan datza, eta ez bestelakoetan.

Guztiok jakin behar dugu batzordeen lana batetik doala eta egitasmoaren bestetik. Bi-bion arteko harremanak ezinbestekoak badira ere, bakoitzak bere ari eutsi behar dio, lehendik ezarritako helburuen arabera, arrazoi gabeko eskusartzeak eta etenak saihesturik.

C) Euskalgintzaren eragileekiko harremanak

Luze joan da, dagoeneko, Euskaltzaindiak ondu duen araugintza. Aldi desberdinetan eta modu ugarietan gizarteratu da hori; batzuetan arrakastatsu, besteetan ez hain argi. Horrek ere bere zinak eta minak izan ditu historian zehar, eta, hala izatea ere, neurri batean bederen, ulertzeko modukoa izan daiteke.

Bada, zernahi gisaz, Euskaltzaindiari dagokion arloa, zuzendaritza honek landu eta sakondu nahi duena. Ari naiz, ari ere, euskalgintzan diharduten eragileekin izan beharreko harremanez. Inoiz leporatu zaio Euskaltzaindiari erre-alitateari muzin egin eta bolizko dorrean bizi dela. Topiko samar izan arren halakoa, ezin ahaztu euskalgintzan ari diren erakunde anitzekin zuzeneko harremanak behar ditugula, hitzarmen bidez nahiz beste formula batzuen bidez, elkarren berri jakin dezagun eta gure aldetik ere bestelako helburuak eskura ditzagun, besteak beste, gure arauak eta gomendioak zabaltzea, eta eragileok guregana ditzaketen iritzi, ohar, iradokizun eta abarrekoak jasotzea, gure lanaren ongari eta akuilu izan daitezen horiek. Geroenean, esan beharrik ere ez dago, horiek izan daitezke baliabide egokiak, jardunaldien bidez nahiz gaineko molde batzuen bidez gure emaitzen fidagarritasuna frogatzeko.

Bide horretan goaz, eta bide horretatik segitzeko asmoarekin ari gara, betiere, bestelako erakundeak, batez ere unibertsitateak eta jakintza-arloko entitateak alboratu gabe. Esan dezadan, hari beretik ere, ahaleginak egin behar ditugula horiekin ditugun estekadurak gero eta tinkoagoak izan daitezen.

D) Ekonomia eta barne kudeaketa

Ibilbide luzetxo honetan bada, hala ere, aho biko ezpata, aldi berean mintzatsa edo gozoa izan daitekeena. Guretzat, esan dezadan bidenabar, neke eta atsekabe askoren iturria. Behin baino gehiagotan entzun diogu Xabier Kintana idazkariari denbora larregi galtzen dugula sosen bila, gure zeregin akademikoetan jardun beharrean.

Zuzendaritzaren eginkizuna da diruaren berri zuei ematea, egoera beltzetan nahiz argitsuagoetan. Egun ere, bi urte luzetan izan dugun amaigabeko prozesu baten ondorioz, badirudi aurki ikusiko dugula onartua, eta aurtan ere sinatua, gure ekimenaren oinarri ekonomikoa ekarriko duen hitzarmena, Eusko Jaurlaritzarekin, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiekin hitzartutakoa. Horrek ahalbidetuko du, gure ohiko barne ibilbidearekin batera, proiektu berriak ere abiaraztea.

Dirua, haatik, beti eskas, eta Zuzendaritzak beste diru publikoen iturriak izango ditugula agerian utzi nahi du: lehena, Nafarroarena, aurtengo protokoloa sinatua izan delarik; hurrena, Iparraldekoa, *Office de la Langue Française* sekin protokoloa sinatu eta Iparraldetik eskuratzen den dirua batera kobratzea

ekarriko duena; eta, azkena, Madrileko Gobernuarena, hor ere, itxaropen eta igurikimenak indartsu datozela, ea hilabete hauetan egin diren kudeaketa-lanak onuratsu suertatzen diren.

Hitz batez esateko, ekonomia oreka batera eramateko moduan egon daiteke akademia, betiere ez dugula ahanzi behar Fundazioaren asmoa ere hortxe dagoela, ustezko diru-iturri gisa. Heldu den urtebiko horretan bideratu beharko da Fundazioarena, Jean Haritschelhar-ek azaldutako ildotik. Hari beretik, Fundazioa izan daiteke egun bor-borreen datorren euskarazko mundu sozio-ekonomikoa aintzat hartzeko eta gure lanarekin koordinatzeko lana-besa.

E) Sail desberdinetakoak

Aurretiaz esanak jardunaldi hauen hezur-mamiak badira ere, ezin alboan utz kezka gai ditugun beste batzuk ere:

Lehena, Euskaltzaindiaren *web* orria eta *JAGONET* zerbitzua, bidenabar erakusten dutenak amaraunean jarritako produktuen arrakasta. Pentsatzekoa da laster batean komunikaziorako tresna baliotsu hauek bultzatu eta sustatu beharko ditugula, buletin elektroniko labur baten bidez. Buletin hori aldiro-aldiro agertu eta gure berriak zabalduko ditu, Internet delakoaren bidez.

Komunikazio eta prentsari dagokionez, gogoratu behar Euskaltzaindiaren prentsa-zerbitzua erakundearen zerbitzupean dagoela, eta erakundeari dagozkion lanetan eta proiektuetan komeni dela prentsa-zerbitzuaren bidez koordinatzea jendaurrean egin beharreko agerraldiak.

Euskaltzaindiarentzat kezkarri dira beste gertaera batzuk, euskara baturaren grafia ezabatzen edota beheratzen dutenak. HIZTEGI BATUA lana urte askoren emaitza bada ere, ezin kareletik bota neke horiek, inora ez garamatzan grafia-anabasa baten mesederako. JAGON Saileko euskalkien lantaldeak badu hor zeresana, Lezaman onetsi genuen adierazpenaren garatze-bidean.

Orobat euskalki lantaldeak, HIZTEGI BATUAren bigarren itzulira euskalkien hainbat esamolde eta esapide erakartzeko, euskara baturako ere baliagarri direlakoan. Sail bereko CORPUSek ere lanean dihardu, euskararen estrategia komunikatiboak aztertu nahian, egunotan barra-barra dabilen kalitatezko euskararen perskizan.

Beti esan dugu politika ez dela Euskaltzaindiaren zeregina. Horretan jarraitzea ere, begien bistakoa, euskara bera ez baita batzuena eta besteena, guztiona baizik. Hala ere, Euskaltzaindiak hitza gorde behar du, euskararen erakunde aholku-emaile ofiziala den aldetik, euskararen egoera hobetzeko eta sustatzeko, horretan protagonismo berezia duela SUSTAPEN Batzordeak.

Bihar goizean xehe-xehe aztertuko dituzte Xabier Kintana idazkariak eta Pello Telleria idazkariordeak, Hernanitik gaur arte eta hurrengo bi urteetako epean Euskaltzaindiaren eginak eta eginkizunak. Horien bidez, jakingo dugu Euskaltzaindiak arian-arian sortzen dituen emaitzak, eguneroko lan eskerga, sarri-sarri, proiektu berrien distiraren parean itzal eta sona gabekoa geratzen baita. Horretan ere, gure erakundeak kontu-arrazoiak eta errendapenak zehatz eman ohi ditu beti, eta ematen ditu egun ere, laster entzungo duzuenez.

Besterik ere bada eginkizunetan. IKER sailekoak Henrike Knörr-ek azalduko ditu labur-mamitsu.

Askotan entzun didazue Euskaltzaindia erakundea dela. Hala izanik ere, nahitaezko zaio barnean duen estatutu juridikoaz argitasun zenbait egitea. Beñat Oyartzabal euskaltzainburuordea mintzatuko zaigu horretaz, premiazkoa baita, Europari eta Iparraldeari begira, Euskaltzaindiak dituen bi molde juridiko horiek batera ekartzea. Horiek gainditzeko konponbideak landu beharko dira, gure kon-tuak eta harremanak bateratsu joan daitezen mugaren bi aldeetan.

* * *

Labur-zurrean esanda, horiek dira Zuzendaritzak bultzatu nahi dituen egi-tasmoak. Horiek ere, esan gabe doa, guztion adostasunik gabe ezin aurrera ate-ra. Adostasuna eskatzea, edozein modutan, erraz samarra izan daiteke. Hala-koa praktikatzea, ordea, hagitx gaitzagoa edo korapilatsuagoa.

Adostasunarekin batera, erakundearekiko leialtasuna ere behar-beharrez-koa da, datozen urteetan gure etorkizuna moldatu behar duen eraberritzea bai-tago jokoan.

Leialtasun eta adostasun horren ildotik argi dago Zuzendaritzak berak eman behar duela lehen pausoa. Hor daukazue gurea, zuen oharrak, iradoki-zunak eta aholkuak entzuteko, zuzendaritzarenak ez ezik, guztionak baitira Euskaltzaindiaren erantzukizuna eta eginkizuna.

EUSKALTZAINDIA FRANTZIAKO LEGEDIAN

*B. Oyharçabal,
euskaltzainburuordea*

Zuzendaritzak eskatu dit Barne-Jardunaldi hauetan zenbait argitasunen ekartzea Euskaltzaindiak Iparraldean duen gaur egungo izaera juridikoaz, ondotik denen artean ikusteko ea legezko egoera hori, beharrez, hobe daitekeen, eta zer gisaz. Beraz, aurkezpen honek ez du deus berririk ekarriko, ez eta deus berririk erakatsiko Iparraldeko egoeraren berri jadanik zekiten euskaltzainei, haren helburua baita zertan gauden azterkatzea, eta hobekuntzarik egin badaitenke, nondik abiatzekoak garen gogoratzea.

HISTORIA PISKA BAT

Euskaltzaindiak Frantziako legediaren arabera izaerarik ez zuen garaia (1918-1987)

Lehenbiziko puntua gogoan izatekoa dena da kasik hirurogeita hamar urtez Euskaltzaindiak ez duela batere legezko izaerarik izan Frantzian, eta duela hogeitaz urte ere ez duela oraino.

Denek dakigun bezala, Hegoaldeko lau herrialdeetako erakundeek sortu zuten Euskaltzaindia, eta haste-hastetik Iparraldeko euskalkien ordezkariak erakundearen barnean izan behar zirela pentsatua izan bazen ere, Espainiako legeen arabera eratu zen erakundea, eta hala bakarrik, garai hartan, mila arrazoiengatik, nekez besterik gerta baitzitekeen.

Luzaz Euskaltzaindiak ez du izan Iparraldean denborarekin, eta bereziki hirurogeiko hamarkadako urteen ondotik, izanen zuen itzal eta eragina. Gerla aitzinean eta ondoan, Euskaltzaleen Biltzarra zen Iparraldean eta Frantziako legedian euskaltzaleak biltzen zituen erakundea eta euskararen kontuetan onespen zabalena zuena. Ez pentsa, halere, bi erakunde horiek mugaz bi parteetan

lan bera egiten zutela. Batere ez baitzen hala. Ezen, Euskaltzaindia erakunde akademikoa izan da hastapenetik, eta Eskualtzaleen biltzarra berri, ez (1).

Frankismoa erortzearekin, Euskaltzaindiak legezko izaera berria Erret-Akademia bihurtuz erdietsi zuenean, euskararen eremu osoan, Iparraldean ere, hedatzen zela adierazi nahi izan zen haren araudietan, ordezkaritza bat Baionan izanen zela zehaztuz. Ordea, Madrilgo legelariak jakinarazi zuten ezin agerian aipa zitekeela araudi haietan Espainiatik kanpoko eremurik. Jokutria ttipi bat asmatua izan zen orduan, agerian ezin egin zitekeena isilka bezala bideratzeko: Euskaltzaindiak bere ordezkaritzak euskal herrialdeetako hiriburuetan jarriko zituela erranez, beste xehetasunik eman gabe, ez zen baztertzin ordezkaritza horietako bat Frantziako lurraldean izatea, nahiz ez zen argiki erraten ere. Soluzio hori guztiz baliagarria izan zen urte haietan. Izan ere, bai Euskaltzaindiak eta bai euskarak berak ere, Hegoaldean baitziztuzten indar gehienak, arras egoki izan zen aterabide hau gure erakundearentzat bere lanen Euskal Herri osoan zabaltzeko.

Haatik, Frantziako legeen arabera, Euskaltzaindia Espainiako erakunde bat zen beti, eta ez zuen legezko izaerarik Frantzian. Egia erran, euskara eza-gutza ofizialik gabe izanik, eta maila guzietan agintariak gogo guti izanik euskararen laguntzeko, ez zuen horrek ondorio handirik.

Iparraldeko Euskaltzaindia 1901eko elkarte gisa deklaratu (1987an)

Bizkitartean, 1980. urteko hamarkadan giroa piskanaka aldatzen hasi zen, eta gure akademiak gero eta argiago ikusi zuen Euskaltzaindiari Frantzian ere legezko gorputz baten emateko beharra. Nola egin, ordea? Euskaltzainburordeak frantses hiritartasuna zuen orduan, eta orduko suprefetarekin harremanetan jarri zen kontu horren aztertzeko. Ideia izan zen orduan Euskaltzaindiaren Iparraldeko ordezkaritzari legezko izaera zerbait ematea Frantzian, aitzinetik jakinik gisa guztiez, euskarak eza-gutza ofizialik ez izanki, ez zitekeela izaera hori Espainian kasik hamar bat urte lehenago erdietsi zuenaren heinekoa. Horrela 1987an Baionako erakustokian egin zen biltzar batean (1987/08/12) Iparraldeko euskaltzainek deliberatu zuten 1901eko legearen araberrako elkarte bat deklaratzeari, haren araudiak argi uzten baitzuen i) kideak Iparraldeko euskaltzainak zirela, eta ii) elkartearen xede soziala Euskaltzaindia Frantzian ordezkatzeari zela.

Elkartearen legezko sorrera Errepublikaren Kaseta ofizialean 1987ko irailaren 9an egin zen. Horren ondorioz, handik aitzina zenbait urtez, Euskal-

(1) Eskualtzaleen Biltzarrak mende hastapenean sortu baino anitzez geroago, 1927an, hartu zuen legezko izaera Frantzian, bere burua 1901eko legearen araberrako elkarte gisa deklaratzuz. P. Charritonek jakinarazi didanaz, J. Etchepare medikuak eginarazi zion urrats hori Eskualtzaleen Biltzarrari.

tzaindiko Iparraldeko ordezkariak frantses elkarte arrunt baten izaera izan zuen, gisa horretan diru laguntza publikoak ere eska zitzakeelarik.

Euskaltzaindiari Onura publikoko elkarteen izaera aitortzen zaio (1995ean) (2)

1987an sortu egoera horrek zenbait urte iraun zuen. Alabaina, 1990eko hamarkadan, egoera piska bat hobeturik, Elkartea Onura publikoko elkarte gisa ezagutua izateko aukera ikusi zuen Euskaltzaindiak. Jakiteko da legeen arabera hori dela Frantzian irabazterik egiteko xederik ez duen elkarte pribatu batek izan dezakeen ezagutza mailarik gorena, eta horretaz, Euskaltzaindiak nahi izan zuen Frantzian haren ordezkari zen elkarte bereziak delako Onura publikoko izaera hori erdiets zezan, kontuan harturik, bereziki, zenbait abantaila ere ematen dituela ezagutza horrek (adibidez, enpresa batek edo norbaitek emaitzak egiten badizkio holako elkarte bati, zerga oinarria zerbaitez gutitzen zaio).

Aldaketa horren prestatzen hasi zelarik Euskaltzaindia, orduko suprefetari (3) adierazi zitzaion Europaren garaian ez zuela itxura handirik, Euskaltzaindiak Frantzian legezko izaera izateko, beste Euskaltzaindi bat, bestetik desberdina, sortu beharrak, jakinez praktikan hartan frantses hiritartasuna zuten euskaltzainak bakarrik biltzen zirela. Euskaltzaindiaren barnean horrelako bereizkuntza egitea guztiz desagoki zela azalduz, harekin aztertu zen zer egin zitekeen makur horren zuzentzeko.

Suprefeturan Europak eskaini bideak ikertu ziren, baina laster argi geratu zen (garai hartan, erran nahi baitu, 1992an edo) Europa mailako elkartegorputzik ez baitzen EBko legedian, bide hori hetsia zela, hau da Estatuon gaineko edo estatuen arteko elkarte europarrak ez zitekeela era.

Halere, beste bide bat ikusi zen erakundearen bikoiztasunaren gainditzeko: erakunde bakarra izanikan ere, hari legezko bi izaera ematea, bata Frantzian eta bestea Espainian, Frantziakoaren helburu soziala Espainiakoren Frantzian ordezkatzeara izanik. Proposamen hori egina izan zitzaizen Euskaltzainei (*erakunde bakarra bi nortasun juridikorekin*) eta horrela onartu zen.

Egia erran, proiektua suprefetarekin prestatu izan bazen ere, Estatu Kontseiluak denbora luze eman zuen araudi berrien onartzeko. 1992ko irailean utzi ziren araudi berriak eta Onura publikoa ematen zuen dekretua 1995ean argitaratu zen Frantziako Kaseta ofizialean (1995/02/20).

(2) 1901eko elkarkeak legez deklaritzen badira (ez onesten); haatik, onura publikokoa izatea Barneko Ministroak hartu dekretu baten bidez baizik ez dute erdiesten elkare horiek, haien araudiak Estatu Kontseiluak azterkatu eta ontzat eman ondoan.

(3) Euskaltzaindiaren izaera juridikoa finkatzera lagundu duten bi suprefetak Perrier (1987an) eta Sapède (1992an) izan dira

Badu hamar urte beraz Euskaltzaindia, osatua den bezala, bere osoan beraz, Frantzia onartua dela, nahiz haren araudiak Frantzia, Espainian ez bezalakoak diren.

EUSKALTZAINDIAREN LEGEZKO IZAERA FRANTZIAN GAUR EGUN

Frantzia Euskaltzaindiak duen erabidea 1995ean onartu zen elkarte horretako estatutuek mugatzen dute. Hona zein diren puntu garrantzizkoenak:

Onura publikoko elkarteak da Euskaltzaindia Frantzia.

1987az geroztik, bada Frantzia *Euskaltzaindia* izeneko 1901eko legearen arabera elkarte bat, eta 1995az geroztik elkarte horrek onura publikoa dakarren elkarte gisa ezagutua da (4). Helburu horiek araudietan zerrendatuak dira.

Frantziako elkartearen xede soziala: Euskaltzaindiaren ordezkatzeara. 1995eko araudiaren arabera elkartearen helburu soziala hau da: *1918an sortu zen eta egoitza Bilbon (Bizkaia) duen Euskararen Akademia, Euskaltzaindia, frantses lurraldean ordezkatzeara eta indarrean jartzeara* (1. artikulua). Bestalde, elkarteak bere araudian adierazten du *Euskaltzaindiaren, araudiak eta helburuak onartzen dituela*. (1. artikulua)

Frantziako elkartearen kideetasuna jatorrizko Euskaltzaindiak ematen du, eta beraz Euskaltzainak dira Frantziako elkartearen kideak, eta bakarrik haiek. Honela dio araudiak: *Elkartearen kide titularrek, ohorezkoak eta urgazleak osatzen dute. Elkartearen kideak, Bilbon 1918an sortu Euskararen Akademiako, Euskaltzaindiko kide titularrak, ohorezkoak eta urgazleak dira. Bakoitzak elkartearen kide kideatasun mota, euskaltzain gisa daukan ezagutza motak ematen dio* (3. artikulua).

Ez da hiritartasunari datzekion mugarik aipatzen araudietan.

1995an onartu araudiaren arabera deusean ez da aipatzen kideen hiritartasuna. Horrela 1995etik 2004 arte Euskaltzaindiko lehendakariak frantses hiritartasuna bazuen, Euskaltzaindian gertatu lehendakari aldaketak gertatuz geroztik, Espainia hiritartasuna du.

Elkartearen bizia (Frantzia) Biltzar nagusian hautatu bulego batek eramaten du.

Araudiak garbiki dio: *Elkartearen Biltzar Nagusia euskaltzain titularrek (=osoek) osatzen dute. Biltzar nagusi hori urtean behin gutietatik biltzen da* (8. artikulua). Horrek segurtatzen du lege Euskaltzaindia egiazki ba-

(4) Horregatik kideek urtesaria ordaintzeko obligazioa dute. Araudien arabera 15 eurokoa da gaur egun urtesari hau. Urteko kontuetan sartze hori nahitaez agerrarazi behar da.

karra dela (5). Elkarteko buruzagiak biltzen dituen *bulegoa burulehenak, hiru buruordek, idazkari batek eta diruzain batek osatzen dute* (5. artikulua) (6).

Elkartearen legezko eginbideak.

Legeak elkarteari ematen dizkion betebeharrak bakarrak prozedurazkoak eta kontuei buruzkoak dira. Adibidez elkartearen bulegoak hartzen dituen erabakiak orriak zenbakituak dauzkan eta zuriunerik eta oker-marrarik ez duen akta-kuaderno ofizial batean jaso behar dira (6. artikulua). Halaber, elkarreak bere kontuak atxiki behar ditu eta urte guztiez aitzineko urtean Frantzian jaso diru laguntzen baliamoldea azaldu behar die Prefetari, eta Barneko, Kulturako eta Hezkuntzako ministroei (15. artikulua).

ELKARTEAREN GAUR EGUNGO FINANTZABIDEA

Euskaltzaindiak legezko izaera duen puntutik diru-laguntzak jaso ditzake Frantzian, hango elkartearen bidez. Franko luzaz oso tikiak izan dira laguntza horiek eta ez zuen horrek ondorio handirik. 2001az geroztik ordea, gauzak zer-bait aldatu dira eta azken urteetan urte guztiez Frantziako elkarreak 128 000 euro jasotzen ditu *Euskal Herriko Hitzarmen berezia* deitzen den programa bati esker (2006 arte irautean duena). Hortik ateratzen du elkarreak Frantzian diru gehiena (7).

Iazko urtea arte Euskaltzaindiak diru hori hiru administrazioarengatik jasotzen zuen, galdeak bakoitzari bederazka zuzendu ondoren: Departamenduari, Herrialdeari, Estatuari (Kulturako ministerioari). Beti oso berandu eta paper asko ibili ondoren heldu ziren laguntza horiek. Aurtendanik gauzak aldatu

(5) Praktikan Euskaltzaindiarentzat berarentzat, Frantziako legeen arabera Euskaltzaindi hori Iparraldeko ordezkari batzuek ez da, eta biltzar nagusiaren egiteko, elkarteko bulegoak, aurreko ohiturari jarraituz, urte guztiez Iparraldeko kideak biltzar batera deitzen ditu, urgazleak eta ohorezkoak ere gomiatuak izanik, eta baita laguntzen duten erakundeetako hautetsiak, Euskaltzaindian egiten diren lanen berri emateko, eta Frantziako elkartearen kontuak aurkezteko.

(6) Urtarrilaz geroztik, burulehena euskaltzainburua da eta bulegoko beste kideak Iparraldeko euskaltzainak: euskaltzainburua (Frantzian, buruorde eta diruzaina), Iparraldeko ordezkaria (Frantzian buruorde eta idazkaria), Jean Haritschelhar (Frantzian buruorde). Araudiaren arabera hilabetearen behin gutienik biltzen da.

(7) Dakigun bezala Euskaltzaindiak, ahal den neurrian, Erakunde publikoek eskaini tokietan jartzen ditu bere ordezkarietarako egoitzak. Ordea, bere egoitza berezkoa Iparraldean izan duenaz geroztik, Euskaltzaindiak hura alokatu behar izan du, nahiz, duela zortzi bat urte edo, Baionako alkateak Euskaltzainburuari hitz eman zion toki bat emanen ziola obrak egitekoak ziren Gaztelu Berriko Ingeles dorrea deitu baziz. Zorigaitzez geroztik toki hartan obrak egiteko dirurik ez baita bozkatu, promesa hori ele onetan gelditurik egon da. Halere, berriketan galdea berriaz egin zaio alkateari zerbait gisaz hitz eman zuena ez ote zezakeen obra. Baietz jakinarazi du. Badirudi, beraz, datorren urtean egingen direla Gaztelu berriko beste toki batean obra batzuk, Euskaltzaindiari 100 m²ko egoitza baten eskaintzeko gisan. Gauzak ongi badoaz, 2006ko udan edo udazkenean sartu behar luke Euskaltzaindiak Baionako Herriko etxeak utzi egoitza berrian.

behar lirateke. Alabaina orain sortu berria den **Euskararen Erakunde Publikoa** (EEP) deitzen den erakunde batek zuzenduko du euskarari buruzko politika publikoa, eta hark banatuko ditu diru-laguntzak (8).

Euskaltzaindiak harekin duen aurtengo hitzarmena berrikitan izenpetua izan da. Datorren urtean beste bat izanen da, honen idurikoa, eta gero ondoko hiru urteentzat segur aski negoziazio berriak egin beharko dira.

Oraingo izaera juridikoa aurrekoa baino anitzez egokiago bada (diru-laguntzak hartzeko, eta Euskaltzaindia bere osoan ezagutua izan dadin Frantzia), halere, ez da nahi genukeen bezalakoa, bikoiztasun juridikoa hor baita beti. Itxura guzien arabera, Estatuaren arteko hitzarmen bilateral berezirik egiten ez bada behintzat, bikoiztasun hori hor izanen dugu beti, eta, Europa mailako elkarte lege berririk onartzen ez bada, haren arabera jokatu behar dugu nahitaez.

Egoera horretan kontuetako harremanak honela bideratuak dira:

- Elkarateak Frantzia dituen kontuak Administrazioak onetsi kontulari berezi batek onartu behar ditu urte guzietan. Elkarateko diruak Frantzia egiten diren xahutzeen ordaintzeko baliatzen badira gauzak argi dira, eta ez da arazorik. Adibidez, gaur egun, ordezkartzaren egoitzako gastuak, edo IGNko toponimiako lanetako xahutzeak, Frantzia zuzenean egiten baitira, erraz da haien zuzitzea. Baina nola agerraraz gure kontuetan, Iparraldeko ordezkartzak batzordeetako lanentzat egiten duen ekarpena, diruketa hori Espainiaren aldeko erakundeari bidaliz egiten denaz gero? Egia da diruketa hori araberan zerbait sinbolikoa dela, baina gisa guztiez, ttipi ala handi, kontulariak haien zuzitzeko modua behar du.
- Aurkezpen txostenetan beti argiki adierazten da, ikerketa proiektuentzat emanak diren diruak Frantziako parteak proiektu orokorrari egiten dizkion ekarpenak direla (portzentaia adierazten da) (9), gisa horretan ongi azpimarratzen delarik Euskaltzaindiaren ikerketa proiektu handiak eta batzorde lanak bat direla mugaz bi aldeetan. Kontulariak, haatik, ezin dezake holako oinarriak erabil bere kontuetan (10): hark obligatuzki erran behar du Frantziako Euskaltzaindiak lan batzuk manatzen dizkiola Espainiako jatorrizko Euskaltzaindiari, eta honek Iparraldetik manatzen zaizkion lanak fakturatzen dizkiola.

(8) Euskaltzaindia EEPren Aholku Batzordeko legezko partaide da.

(9) Baionako ordezkartzako gastuak kanpo, portzentaia hori informalki ikerketa proiektu orokorren kontuetan %10ekoa izan dadin nahi lukete Iparraldeko Euskaltzainek. Ordea, gaur egun, urrun gaude hein horretarik (portzentaia hori %6koa da aurtengo aurrekontuetan).

(10) Arrazoia hau da: Frantzia elkarte batek legez debekatua du beste elkarte bati (izan dadin Frantziakoa edo beste estatu batekoa) diru laguntzarik ematea. Nola Espainian Euskaltzaindia beste nortasun juridiko bat baitu, hari ematen zaizkion diruak faktura baten bidez xuritu behar dira beti, faktura hartan manatu lan baten ordainketa zehazten delarik.

GOGOETA BATEN OINARRIA

Horra laburzki adierazirik nola agertzen zaigun Euskaltzaindiaren egoera Iparraldean. Dударik batere gabe azken hogeï urteetan hobekuntza handiak izan dira, eta gaur egun

- Diru harreman horien errazteko bi entitateren artean Ekonomiazko Multzo Europar baten eratzea, edo horrelako bideak, ikertzeko xedea izan zuen Euskaltzaindiak, eta P. Zabaletaren eraginik, txosten bat ere egin zuen aditu batek horri buruz duela zenbait urte. Halere orain arte txosten hori ez da eztabaidatu Euskaltzaindian, eta ez obratu. Orain dugu parada.

EUSKAL GRAMATIKA OROTARIKOA

Pello Salaburu

SARRERA

Euskaltzainburuak hala eskaturik aurkeztu nahi dut zuen aitzinean Gramatika batzordeak aurrera atera nahi duen egitasmo berria. Proiektu hau, gure artean EGO gisa aipatzen duguna, aspalditik ibili da joan-etorrika, baina, arrazoi bat edo bestea dela eta (luze joko luke arrazoiak argitzea, eta aspergarri), ez dugu izan aukerarik patxadaz aztertzeke orain arte. Patxadaz eta, batez ere, aitzinat joko duelako itxaropenarekin, bai baitirudi behin eta berriz abian jartzeko izanik ere, baraturik gelditu dela.

Jakina den gisan, Gramatika batzordea, orain duen tankerarekin, 1980an sortu zuen Euskaltzaindiak. Lehenago, jakina, bestelako batzordeak ere aritu izan dira Euskaltzaindiaren barruan gramatikagintzan (aditz batuaren proposamena landu zuen batzordea, esate baterako); baina euskara batu gisa ezagutzen den hori osatzen duten gramatika arlo zehatzez gain (ortografia, izen eta aditz morfologia, etab.), beharrezko ikusi zuen Euskaltzaindiak bere gramatika erabatekoa eta osoa lantzen hastea. Horretarako izendatu zuen Gramatika batzordea.

Gramatika batzordeak bere hogeita bost urteko ibilbide luzean oso aldaketa gutxi izan ditu. Kideak, euskalki desberdinetakoak ditu: gipuzkoarrak, nafarrak, lapurtarrak, bizkaitarrak... Eta euskalki desberdinetakoak ez ezik euskara batua eta gainerako euskalkiak eta testuak ongi ezagutzen dituenak da batzorde-lanetan jardun duen eta diharduen jendea. Hasieran, buru, Piarres Lafitte izan zen. Ondoren, J. Haritschelhar, eta azkeneko urteotan, P. Altuna.

GRAMATIKA BATZORDEAREN LANAK

Gramatika batzordeak era desberdineko lanak egin ditu urte hauetan zehar. Behin eta berriz etorri izan dira, eta orainik ere etortzen dira, handik eta hemendik irakasleek, batez ere, nahiz bestelako gizabanakoek, egiten dituzten galderak, dituzten zalantzak norbaitek argituko dizkielakoan. Galdera horiek Euskaltzaindiaren *Jagonet* zerbitzuaren bitartez etorri zaizkigu, eta han daude

bilduak. Horrek anitz lanordua eskatu izan dizkigu, eta bilera gehienetan gure ahaleginak egin ditugu galdera horien erantzun egokia eta zuzena, batere erraza ez dena, aurkitzen. Lan hau, euskararen egoera zein den kontuan izanik, uste baino zailagoa izaten da.

Aldi berean, Gramatika batzordetik atera dira, proposamen gisa, Euskaltzaindiak bere osoko bilkuran eztabaidatu eta adostu dituen arau eta gomen-dio asko ere, lan hau azken aldiotan geldituxe baldin bada ere. Baina zalan-tzarik gabe, egin duen lanik handiena gramatikaren inguruko liburu bildumak eskaintzen du. Liburuki hauek *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izena har-tu zuten hasieratik (oker ez banaiz, izen hau P. Altunari zor zaio) eta gero, ar-gitaratu izan diren arabera, izen horrek beste zehaztapen batzuk izan ditu, li-buruki bakoitzean, liburuaren barnean zer zetorren jakinarazi dutenak. Denetara 5 liburu argitaratu dira, eta seigarrena egun hauetan aterako da, as-paldi eraman baikenuen inprentara. Gramatika batzordeak 2.500 orrialdetik gora argitaratu du arlo honetan. Hauek dira, labur esanik, liburuak eta libu-ruen edukiak banan-banan.

- 1985, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. Liburu hau, eta geroago ar-gitara emandako liburukiak 1991n argitaratu zen *Euskal Gramatika. Le-hen Urratsak-I* liburuan bildu ziren. Lehenbiziko liburuki honek beste bi eranskin izan ditu, bata 1987an argitaratua eta bestea 1988an. Eus-kaltzaindiaren X. Biltzarrak lan hau «aitzin urrats handitzat» eman zuen eta berau hartuko zuela oinarritzat esan zuen aurrerantzean euskal gra-matikari begira erabakiak hartzerakoan. «Izen sintagma» zen hemen landu zen gairik garrantzizkoena.
- 1987, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Hemen «Aditza» landu zen.
- 1990, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*. Diskurtso mailako lotura hitzak landu ziren
- 1994, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV (Juntagailuak)*. Liburuki honetan koordinazio edo juntadura izan zen gai nagusia.
- 1999, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (mendeko perpausak-1)*. Mendeko perpausak hasi zen lantzen batzordea liburu honetan: aditz jo-katuduna duten perpaus osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak eta on-dorio perpausak.
- 2005, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-VI (mendeko perpausak-2)*. Liburuki honetan lantzen dira baldintza perpausak, denborazkoak, hel-buruzkoak, kausazkoak, kontzesio perpausak eta moduzkoak. Betiere aditz jokatua duten perpausak. Liburuki hau, dagoeneko idatzia da, eta inprentara entregatua ere. Inprenta probak, oker ez banaiz, lau aldiz zu-zendu ditugu. Aurki egonen da kalean, gure asmoa baita ekainaren 9an aurkeztea.

Gure buruari galdetu beharko genioke, honetara iritsirik, nola baloratzen dugun egin lan hau. Bere garaian R. de Rijk hizkuntzalari holandarrak «Zer dut EGLUren kontra?» (Areatzan, 1998-07-24n irakurria, Gramatika Jardu-naldi batzuetan) izeneko txosten bat idatzi zuen, Gramatika batzordeak hala eskaturik. Zer zuen kontra, hori zen jakin nahi genuena. Hasieratik adierazten zuenez, gauza asko zuen alde, nahiz ezezko puntuak bakarrik aipatu zituen, hurrengorako gure lanek hobera joko luketelakoan hola. Guk, egileok, zer esan ez, gauza asko dugu alde. Eta uste dut baditugun horretarako arrazoi argiak. Batzuk bakarrik aipatuko ditut hemen:

- Lan honetan, batez ere hirugarren liburukitik aitzinat, hainbeste gai ukitzen dira, gure ustez oso azaletik aztertuak izan direnak euskal gramatiketan liburuki hauek argitaratzen hasi garen arte. Zenbait kasutan aipatuak ere izan ez direnak ohiko gramatiketan. Modu sistematiko batean, nahiz beharbada ez bere osotasunean, gure gramatikan –izenak berak dioten gisan, lehen urratsa baizik ez baita–, lehenbiziko aldiz ikertu dira orain.
- Lan hau euskalki desberdinetako espezialistek egin dute, lehen esan dudan bezala. Baina egite horrek beste berezitasun bat ere izan du, guztiz aipagarria: lan egiteko prozedura, ororen gainetik talde lana baita, hitz horiek izan dezaketen bere esanahirik itxienean. Nola egin da lana? Behin liburuki bakoitzeko eskema orokorra zehaztu ondoren, eskema hori kide batzuen artean banatzen da, eta bakoitzak bere txostena egiten du. Txosten hori pasarte pasarte lantzen da, esaldiz esaldi eta hitzez hitz. Den-dena irakurtzen baitu egileak bere kideen aitzinean, gero eztabaida sortzeko. Prozedura hau ez da behin bakarrik egiten, zenbait kasutan hiru eta lau aldiz ere egin behar izan da: batzordekideek beren oharrak egiten dituzte, hasierako egileak oharrak hartu eta testuan txertatzen ditu, berriz ere testua berridatzi, kideen aurrean irakurri eta kideak bat etorri izan ez diren arte egileak ez du argi berdea ikusten. Berraz, kapitulu bakoitzak bertsio asko izan du.
- Lan hau egin dutenak espezialistak dira. Gehienak unibertsitateetako irakasleak dira edo gara, lan hau espezialisten lanaren emaitza baita. Gure lan orduak horretan ematen ditugunon emaitza. Hau azpimarratu behar da. Bai baita jendea orainik Euskal Herrian hizkuntza kontuetan orain dela berrogeita hamar urte bezalatsu gaudela pentsatzen duena. Baina hizkuntzalaritzak urrats handiak egin ditu urte hauetan, eta borondatea bakarrik, hoberena izanik ere, ez da ez nahiko ez aski, zerbait serio egin nahi bada hizkuntzaren azterketaren inguruan. Egia da gramatikaren itxura ezin ohikoago dutela liburuki hauek hainbeste puntutan. Baina idatzi den hori idatzi ahal izateko maila jakin bateko eztabaidak gertatu dira gure artean, horretan ez dabilenak nekez ulertuko litzukeenak, eta horrek egin du posible gero idatzi den hori modu horretan idatzia izan dadin. Puntu asko utzi ditugu bazterrean, praktikan gure ezjakituria handiagoa baita zerbait egokia esateko izan genezakeen gaitasuna baino.

- Lan hau egiteko inoiz ere erabili izan den informazioa erabili ahal izan dugu. Izan zen garai bat euskalarien artean non «halakok hau esan du» edo «forma hau halako idazleak erabiltzen du» esaten baitzen, gutxiak genekielako hori hala zen edo ez, behin baino gehiagotan aipamenak ere buruz egiten baitziren, liburuko orrialdea ahazturik. Gure kasuan ez: batez ere hirugarren liburukitik aitzinat informazio handia izan dugu, behar bezala informatizatua *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren corpusak eskaini diguna. Dagoeneko, kontua ez da «halakok hau esaten du», baizik «idazleek hau hola erabili dute». Hori jauzi ikaragarria izan da. Oraingo honetan ez gabiltza usteka, baizik informazio fidagarriarekin. Informazio hori sarean aurkitzen ahal diren beste iturri baliagarri batzuekin osatu dugu.

Hala ere, nahiz eman ditudan arrazoi hauek aski pisuzkoak diren, nire usetan, ez da inolako zalantzarik lan guztiak hobetu daitezkeela. Gurea ere. Eta horretarako, besteak beste, elkartu gara hemen. Gure buruari egin behar diogun galdera da, bada, nola hobetzen ahal den orain arte egindako lana, gramatika idaztea eta euskararen egiturak erakutsian uztea baita Euskaltzaindiaren zereginetako bat Akademia sortu zenetik beretik. Ez gara, gainera, ez bakarrik ez lehenbizikoak holako lanetan sartzen garenak. Mundua ez da atzo goizean asmatu, eta munduan diren gauzak ere ez dira bart gauekoak: hizkuntza anitzeko hizkuntzalariak idatzi dituzte eta idazten ari dira haien gramatikak. Gure kasuan bada aipatu behar den beste arrazoi bat ere: *EGLU* lantzen hasi ginenetik argi genuen behin dena idatzi ondoren, gainetik behera hartu behar genuela berriz ere lan hura, eta beste modu batera moldatu, lan egiteak eta lana burutzeak berak emango ligukeen ikuspuntu zabalagoaz baliatuz.

NOLAKO GRAMATIKAK EGIN DAITEZKEEN

Esan bezala, hizkuntzek beren gramatikak dituzte. Eta aski desberdinak dira, gainera, elkarren artean. Gramatika batzuen helburua pedagogikoa da: ez dira espezialistentzat eginak, baizik hizkuntza ikasi nahi dutenentzat, eskola edo institutuetakoa ikasleentzat, kontsulta bat egin nahi dutenentzat, eta abar. Gramatika hauek, arruntean, ez dute ekartzen, hizkuntzaren ikerketaren aldetik, deus berririk eta egileek egin nahi dutena izaten da lehendik espezialistek bazekitena beste modu errazago batean antolatu. Holakoak ere badira euskararen kasuan.

Beste gramatika batzuen helburua sintaxi mailakoa izaten da, teorikoa goa. Hizkuntzalariak aspaldi ohartu ziren sintaxia dela, ororen gainetik, hizkuntzaren ezaugarri funtsezkoena, eta sintaxi egiturak ematen duela gizakiok ditugun gaitasun unibertsal batzuen berri. Hori da hizkuntzalari askok, neurologoekin, psikologoekin, informatikariekin eta biologoekin batera defenditzen

dutena, eta horretarako hizkuntza askotako adibideez baliatzen dira. Azkene-ko urteetan sintaxi lanek iraultza osoa ekarri dute hizkuntza mundura, eta han- hemenka espezialista anitz ari da lan horretan. Holako gauzak, neurri apalago batean, egin izan dira euskal hizkuntzalaritzan. Helburua, hizkuntza jakin bat aztertzea baino gehiago, gure kasuan, euskara aztertzea baino gehiago esan nahi dut, gizakiak duen hizkuntzaren gaitasun harrigarri hori aztertzea da, hiz- kuntzaren gaitasuna hartzen baita gizakiaren ezaugarri funtsezkotzat. Bi mai- la hauek, ezinbestean, arras loturik daude, jakina, elkarren artean. Euskal- tzaindia urrun dago mundu horretatik, eta Euskal herrian arlo honetan lanean egon daitezkeen lagun gutxi horiek lotura ahulak dituzte gure erakundearekin, haien harremanak batez ere nazioartekoak baitira.

Badira beste gramatika mota asko: historikoak, batez ere hizkuntzaren historian oinarritzen direnak; arloko gramatikak, hizkuntzaren parte bat baka- rrik aztertzen dutenak; arauemaileak, batez ere zer den egokia eta zer ez, zer den zuzena eta zer okerra azpimarratzen dutenak, eta abar.

* * *

EGLU zer den zehaztu nahi badugu, gramatika deskriptiboa dela esango genuke. Gramatika deskriptiboek egitura nagusien ezaugarriak aztertzen dituz- te, eta egitura horiek osatzen dituzten hitzen ezaugarriak: hitz motak, egituren erregulartasunak, salbuespenak, eta abar. Gramatika deskriptiboak gramatika kategorien sailkapen eta haien arteko erlazioen arauen berri ematen du, barne- ko egiturak zein diren erakusten du, eta hitz kateetan gertatzen diren harreman morfologiko, sintaktiko edo semantikoak aztertzen ditu. Hori dela eta, lege oro- kor horien berri ematen duten datu adierazgarrienak uzten ditu erakutsian. Ba- tzuetan, gramatika deskriptiboak sinkronikoak direla esan ohi da, nahiz hau ez- tabaidagai izan daitekeen. Ez da esan beharrik, gramatika mota guztiak, direla deskriptiboak, historikoak edo teorikoak, elkarren osagarri direla.

Egia da, zernahi gisaz, gramatika guztiak direla deskriptiboak, modu ba- tean edo bestean. Baina deskriptiboak izateaz gain, batzuek izen hori hartzen dute, eta sail horretan kokatzen ditugu zuzenean. Hori da *EGLU*-ren kasua. Kontua da, ordea, non jartzen den deskripzio maila hori, deskripzioak ez bai- tira inoiz ere neutroak: ikusten dugun guztia azterketa baten ondorioa da, ez da aurrean dugunaren deskripzio neutroa, ez baita deskripzio neutrorik mun- duan. Baina deskriptiboak direla diogunean, esan nahi duguna da gramatika batzuen helburua «axaletik» ikusten denaren berri ematea dela, eta horretara- ko onartzen direla gehienentzat balio dituzten gutxieneko paradigma deskrip- tibo orokor batzuk. Gure kasuan, konparazione, izen sintagma edo aditz sin- tagmaren existentzia, deklinabideko kasuak, eta abar. Jakina, anitzetan gerta daiteke, eta hala gertatzen da *EGLU*-ren kasuan ere, delako gramatika batean zalantzan jarri gabeko paradigmak ageri direnean, paradigma horiek gramati- kak idazteko tradizio handiagoa duten hizkuntzetatik hartzen ditugula, kopia- tu egiten ditugula, konturatu gabe beharbada ez direla egokienak beste hiz-

kuntza baten deskripzioa egiteko. Euskararen kasuan gure inguruko gramatikez baliatu gara, latinezkoetatik hasita. Azkueren lanak, Lafitterrenak eta *EGLU* bera ere, tradizio horren zordun dira. Agian, gure buruari galdetu beharko diogu paradigma horiek diren egokienak euskararen berezitasunak deskribatzeko.

Aitzineko urteetan gertatu denarekin konparaturik, beste fenomeno bat gertatzen ari zaigu euskaltzaleen munduan, eta hemen aipatu nahi nuke: orain dela urte batzuk, euskaraz argitaratzen zen guztia irakurtzen zen, eta gramatikek ere sekulako arrakasta izaten zuten. Jendeak erosten zituen, eta irakurri, edo irakurtzen zuela esan. Lehenbiziko *EGLU* atera zenean ere hori gertatu zen, eta jendeak berehala erosi zuen. Baina ondokoekin, batez ere laugarren liburutik aitzinat, ez da hori gertatu, eta ez dira hain ongi saldu. Zergatik? Bi arrazoi daude, nire ustez: batetik, jendeak aukera handiagoa du orain euskaraz irakurtzeko, eta bestetik, gramatika gaiak joriak eta zailak dira. Jendeak ez du horren beharrik sentitzen. Hau ez da euskararen kasua bakarrik, hizkuntza gehienetan gertatzen da. *Orotariko Euskal Hiztegia* kontsulta liburua da, eta *EGLU* ere hori da: behar denean kontsultatzen den zerbait. Segur naiz **EGO** ateratzen denean oso ongi salduko dela. Hori gertatuko da lehenbiziko argitalpenarekin, lan osoa batera aterako baita, liburu batean edo bitan edo behar direnetan, baina gero hortxe bukatuko da kontua, pentsatzen dut. Eta ondoren, kontsulta liburua izanen da ororen gainetik. Eta *EGO txikia* ere pentsatzen dut batere arazorik gabe salduko dela, Euskaltzaindiaren marka baldin badarama.

NOLAKO GRAMATIKA EGIN NAHI DUGUN

Eta orain, aurkezten ari naizen **EGO** proiektua-dela eta, honetaz guztiaz pentsatu beharko da, zeren, behin *EGLU* osoa kalean dagoela, nola nahi du Euskaltzaindiak segitu lanean? Zer egin nahi du? Zeren, adibidez, elkarren ondoan jarriko bagenitu *EGLU*, Rudolf de Rijkek idatzi baina argitaratu gabe dagoen gramatika mardula, edo Jose Ignacio Hualdek eta Jon Ortiz de Urbinak atera duten askoren arteko *A Grammar of Basque* izeneko liburu lodia, berehala konturatu gara hiru eredu desberdin segitu direla hor.

Segur aski ere, tarteko zerbait egin beharko du Euskaltzaindiak: batetik, *EGLU*-n egindakoa aztertu beharko da; zuzendu, zuzendu behar dena; osatu, osatu behar dena, eta kendu, kendu behar dena. Beharbada, orain arte erabili ditugun paradigmak ere zalantzan jarri beharko dira, hori egitea egokia dela ikusten baldin badugu.

Hasiera batean Gramatika batzordeak uste zuen behin zazpi liburukiak kalean paratu ondoren egokiena izango litzatekeela haien laburpen zabal bat egitea, han gerta litezkeen kontraesanak baztertu eta koherentzia osoko lan berria idaztea. Baina hau ez dut hain argi ikusten, lehenik ongi definitu beharko baitugu zer egin nahi dugun.

Har ditzagun, esate baterako, hiru gramatika hauek: oraintxe aipatu dudan Hualde eta Ortiz de Urbinaren Euskal Gramatika, ingelesez idatzia; Real Academia Española-k atera duen Ignacio Bosque eta Violeta del Monte gramatikarien *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, eta katalanez atarra den *Gramàtica del català contemporani*, Maria-Rosa Lloret, Joan Mascaró eta Manuel Pérez Saldanya-k idatzia. Hiru gramatika hauek badituzte zenbait puntu komun elkarren artean.

Hasteko, *EGLU*-rekin ere gertatzen da hau, egile askorenak dira: ingelesez idatzitako euskal gramatika hori 9 lagunen artean atera dute, haietako bi ageri badira ere zuzendari eta arduradun gisa; gaztelaniazkoa 73 egileren lanari zor zaio, ardura osoa bi lagunek hartu badute ere; katalanari buruzko gramatikak 4 zuzendari eta laguntzaile bat izan ditu, baina 58 lagunen artean idatzi dituzte kapituluak. *EGLU*-n ere, azken liburukia hartzen badugu, 20 lagun ageri gara batzordekide gisa, eta horien artean 9 gara txostengile. Bada, hala ere, beste gramatikekin konparatuta, desberdintasun handi bat: gramatika haietan kapitulu bakoitzak egilearen sinadura darama. Hau da, talde lana izanik ere, eta lan osoak bere arduradunak izanik, kapitulu bakoitzak bere jabea du. Horrek baditu bere alde on eta txarrak, agerian uzten baitu norberaren erantzukizuna, baina, aldi berean, galduago bezala ageri da talde lana.

Gure asmoa zen, hasiera batean, zerbait laburragoa egitea, hau da, denera, azken liburukia (*EGLU* VII) barne, izan daitezkeen 3.000 orrialde horiek lan laburrago batean biltzea. Baina aipatzen ditugun beste gramatika horiek ikusten baditugu, euskarazkoa da txikiena. Hala ere, Hualderen eta Ortiz de Urbinaren lanak 950 orrialde baditu, gure *EGLU*-ko orrialdeak baino hobeki aprobetxatuak. Gurean, gainera, paradigmek hainbeste orrialde hartzen dituzte. Espainolaren gramatikak 5.350 orrialde ditu, letra txikiagoan emanak. Katalanak, azkenekoz, 3.500. Beraz, hauek lan zabalak dira. Eta, horrenbestez, badirudi EGOK ere zabala beharko duela izan.

Antzekotasunak eta desberdintasunak ez dira horretara mugatzen. Gaztelaniaren gramatikak eta *EGLU*-k, funtsean, aski antzeko gaiak ukitzen dituzte, nahiz gaztelaniakoak baduen karga teoriko handiagoa, morfologiaren eta sintaxiaren arteko harremanak aztertzen direnean, edo morfologiaren eta fonologiaren artekoak eztabaidatzen direnean. Gaztelaniaz, bestetik, eratorpena aztertzen da, gure gramatikak ezer gutxi aipatzen duena (jakina denez, hau LEF batzordeak lantzen du. Badirudi han esaten diren gauzak gure gramatikari barneratu beharko ditugula). Azkenik, gaiak xehetasun handiagoarekin aztertu dira, duda gabe, gaztelaniaz. Izenaren inguruko gorabeherak aipa daitezke, adibidez.

Gure gramatika katalanarekin erkatuz gero, desberdintasunak handiagoak dira: ez da bakarrik xehetasun kontua, eta teoriari dagokiona. Hemen ere, nahiz karga teoriko handiagoa atzeman daitekeen (ikusi, esate baterako, kuantifikazioaren eta ezeztapenaren inguruko kontuak, edo elipsiari dagokiona), esan be-

har da lehenbiziko liburukiaren erdia fonetika eta fonologiako kontuak aztertzeko erabiltzen dela. Hualderen eta Ortiz de Urbinaren gramatikak ere orrialde asko eskaintzen dizkio fonetika-fonologiari, eta sarrera batean datu soziologikoak ere ematen ditu euskararen ingurukoak, euskalkiei buruzkoak, eta abar.

Gramatikak nola egin daitezkeen ikusteko, badira beste eredu batzuk ere. Ingelesezt, konparazione, alde batera uzten baditugu teoriari estu-estu loturik dauden gramatikak, batez ere sintaxia hartzen dutenak aztergai, Quirk, Greenbaum eta Svartvik-en *A Grammar of Contemporary English* (Longman, 1972), eta Declerck-en *a Comprehensive Descriptive Grammar of English* (Kaityakusha, Tokyo, 1991) ikus daitezke. Bigarrena egon daiteke hurbilago guk egin nahi izan dugunetik. Lehenbizikoak ingeles dialektoak aztertzen ditu, eta fonetikari ere bere tokia ematen dio. Gainera, pasarte osoak ditu sintaxi teoriatik hurbilago daudenak eta beste ohar asko argigarriak direnak hizkuntza-ren inguruan: ingelesaren «lingua franca»-ko izaera, edo nazioartean duen pisuari buruzkoak, adibidez. Badira beste gramatika batzuk ere, baina uste dut hona ekarritako adibide hauekin aski dela oraingoz.

Zer dela eta, aipatzen ditut hemen eta orain gramatika hauek? *EGO* bezalako proiektu bat bultzatu nahi bada, ezin dugu holakorik egin gure inguruan zer dagoen kontuan izan gabe. Eta eman ditugun adibideak kontuan izanik, berehala konturatzen gara *EGO* eta *EGLU* proiektuak elkarren artean erkatzean bi gauza desberdin egin behar direla: batetik, *EGLU*-n esandakoa birmoldatu, kontraesanak kendu, terminologia finkatu, adibideak gaurkotu, eta abar, eta, bestetik, *EGLU* osatu. *EGLU* osatzeko bi bide erabili behar dira: han ukitutako gai batzuetan sakondu behar da. Ez da dudarik Gramatika batzordeak ere material desberdinak erabiltzeko aukera izan duela hasieran eta amaieran, hasieran ez baikenuen inolako corpus informatikorik. Horrek, noski, tratamendu desberdina emanarazi die gai batzuei eta besteei. Horra zergatik sakondu behar diren gai batzuk, batez ere lehenbiziko liburuei dagozkienak. Bestetik, beste gai batzuk osatu beharko direla dirudi, kontuan hartzen baditugu orain arte egin ditugun oharak.

Zer egin euskarari buruzko datu soziologikoekin, euskalkiekin, gaur egun batasuna dela-eta, sortu zaizkigun hiztunen belaunaldi berrieekin? Zer egin fonetika-fonologia mailako gaiekin, hizkera doinuarekin, eta abar? Holako gaiak sartu behar dira edo ez? Zenbateraino osatu behar dira lehendik sakontasun aski izan ez duten gaiak? Teoriaren inguruan zerbait esan behar da? Zer egin *EGLU*-n ageri diren adibide horiekin guztiekin, ez baitaude batuan eta batzuetan nekez baitabil irakurlean horiek irakurri nahi dituenen? Aitortu behar da beste hizkuntzei buruzko gramatiketan ez dela arruntean holako adibiderik aurkitzen.

Baina ez dira hor bukatzen galderak: neurri batean gramatika arau emalea nahi dugu? Bildu behar ditu gramatika honek Euskaltzaindiak eman dituen

arau nagusiak? Zenbateraino? Bildu behar dira hemen Gramatika batzordeak behin eta berriz, *Jagonet* dela eta, ematen dituen erantzunak? Kontuan izan behar dugu gramatika hau kontsulta liburua izango dela, ororen gainetik, irakasleek-eta zalantzak dituztenean gauzak behatzeko toki segurua edo, gutxie-nez, seguruen.

Horiek guztiak galderak dira, oraingoz erantzunik gabeko galderak. Hala ere, horri guztiari ekin nahi dio *EGO* proiektuak. Beraz, nolabait ere laburtu nahi baldin badugu honaino esandakoa, esan dezagun *EGO* proiektuak (bide batez, izena bera ere aldatuko nuke, ez *Euskal Gramatika Orotarikoa* baizik *Euskal Gramatika Orokorra*), *EGO* proiektuak, diogu, helburu bikoitza du: batetik, *EGLU* bildu eta birformulatu, eta, bestetik, *EGLU* osatu, terminologia gaurkotuz eta batuz, gai zerrendak osatuz, eta abar.

Baina *EGO*rekin batera kontuan hartu nahi dugu beste gauza bat ere. Gramatika batzordeak orain dela hainbeste urte atera zuen *Euskal Gramatika Laburra* izeneko liburua, perpaus bakunari dagokiona. Batzordeak uste du berak egin behar duela *EGO*ren laburpen fidagarria, besteren eskuetan utzi gabe, besteak beste, beti izan baitu inpresioa batzuetan kanpoko jendeak aprobetxatzen duela batzordekideek aurretik egindako lana. Hori egiteko ere asmoa du, *EGO*-rekin batera.

EGO proiektua garatzen berehala has bagaitezke ere, ezin dugu ahaztu hurrengo hilabeteetan *EGLU* bukatu behar dela. Jadanik azkeneko liburukia-ren eskema egina da eta lehenbiziko lanak eztabaidatzen hasiak gara. Beraz, esan behar da hiru gauza batera ditugula mahai gainean, hiru alderdi dituela gure egitasmoak: *EGLU VII*, *EGO* eta *EGO txikia*.

LANA EGITEKO BALIABIDEAK

Zernahi gisaz, proiektu hau aurrera ateratzeko ez du Gramatika batzordeak gehiegi eskatzen. Batetik, Hezkuntza sailak eta EHUK eskaintzen duen laguntzari esker, batzordekide bat, orain hitz egiten ari dena, lan horretan ari-tuko da, nahiz EHUKo Euskara Institutuaren inguruko kontu batzuk ere bul-tzatu beharko dituen aldi berean. Horretaz gain, bere garaian aurkeztu txoste-na kontuan harturik, teknikari bat-edo beharko litzateke, batez ere egin behar diren lan automatiko guztiak aurrera atera ahal izateko.

Orain arte erabili dugun prozedura ez da, hala ere, sobera aldatuko, lanak, azken batean, batzordeak berak eztabaidatu behar baititu, eta ezin baita inola ere lagun baten ardura izan. Edo eredu hau aukeratzen da, edo beste gramati-kek egin dutena, baina orduan jende asko kontratatatu beharko litzateke, gauzak hobeki egingo diren segurtasunik izan gabe gainera. Gure ustez, hala ere, ko-menigarria litzateke parte hartzea eskatu duen Beatriz Fernandez irakaslea le-henbailehen sartzea taldean. Batzordeak ezinbestekoa du holako jendea.

Batzordeak orain dela hilabete batzuk aurkeztu zion proiektua Euskaltzaindiari, eta proiektu horrek bere horretan dirau. Hemen jartzen ditugu xehetasunak, baina laburtuak, txosten osoa ez errepikatzeagatik, urterik urte. Bi hitzetan esateko, 2007an aterako litzateke *EGLU-VII*, eta 2012an *EGO* eta *EGO txikia*.

2005

Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (VII). Eskema orokorra eztabaidatu eta lehen kapituluaren lehenbiziko idazketa

EGO: Eskema nagusia eztabaidatu, metodologia zehaztu eta lana zedarritu

2006

Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (VII). Kapituluaren bigarren idazketa.

EGO: aztertutako gai berriak lantzeko lehenbiziko lanen idazketa

2007

Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (VII) Hirugarren idazketa egin eta **argitaratzeko entregatu**

EGO: Lan berriak eztabaidatu eta erabakiak hartu. Aurretik landutako gaiak osatu

2008

EGO: Adibide guztiak aztertzen hasi. Estilo kontuak eztabaidatu

EGO txikia: Lokailuei eta juntadurari dagozkion gaiak idatzi

2009

EGO: Perpaus bakuna berriedatziaren lehenbiziko bertsioa eztabaidatu. Ikusi nola osa daitekeen

EGO txikia: Menderakuntza idatzi. Lokailuak eta juntadura eztabaidatu

2010

EGO: Lan guztiaren lehenbiziko erdia eztabaidatu oso-osorik. Euskaltzaindiari eskatu behar zaizkion arau berriak eskatu.

EGO txikia: Perpaus bakunari dagokiona idatzi

2011

EGO: Lan guztiaren bigarren atala idatzi eta eztabaidatu. Euskaltzaindiari eskatu behar zaizkion arau berriak eskatu

EGO txikia: Lanaren bertsio osoa lehenbiziko aldiz eztabaidatu

2012

***EGO*: Osorik entregatu**

***EGO txikia*: Osorik entregatu**

Hau da Gramatika batzordeak aurkeztzen duen lan egitasmoa, kontuan izanik, Euskaltzaindia sortu zenetik izan dela Akademia honen helburu nagusia Gramatika lantzea.

EUSKAL CORPUS ONOMASTIKOA (*)

*Andres Iñigo Ariztegi,
zuzendari akademikoa*

*Patxi Galé García,
arduradun teknikoa*

0. ATARIKOA: EGITASMOA

Duela zenbait urte, Onomastika batzordeak aurrera eraman behar izaten dituen lanetan, ahalmena eta kalitatea hobetzeko asmoz, mahai gainean jarri genuen honako egitasmo hau berau. Gure *Euskal Corpus Onomastikoaren* helburua, funtsean, Onomastika alorreko ikerketa, txosten, irizpen, gomendio eta arauak eman aurretik, aztertu behar diren lekukotza dokumental guztiak datutegi bakar batean biltzean datza. Dokumentazio fondoa hornitzeko, lan ugari osatutako iturrien multzo ireki bat erabiliko dugu esku artean. Oinarritzko agiritegi horretatik, Corpus onomastikoa elikatzeko balio izan dezaketen «izen» guztiak erauzi eta behar bezala jasotzea da lehenengo eginbeharra. Eta «izen-na» esaten dugunean, jakina, ponte-izen, deitura, toponimo nahiz exotoponimoa adierazi nahi dugu, horiek izango baitira Corpusaren lau atal nagusiak. Bada, jasoko diren era horiek guztiek beteko dute egitasmoaren oinarrian egongo den dokumentazio fondoa eta horretatik abiatuta hartuko dira, besteak beste, Akademiaren onomastika alorreko ondorengo arautze erabakiak.

Datutegiaren egitura nagusiak dagoeneko eraikirik daude eta toponimia alorreko datu batzuk ere jaso dira egitura horietan. Honela, etorkizunean sistematizazio lanetan jarduteko beharko diren tresna batzuk ere dagoeneko diseinatu ahal izan ditugu, aplikazioa bere osotasunean frogatze aldera. Hortaz, egitasmoa abian dela esan daiteke. Hala ere, datutegiaren egiazko neurriaz ohartuta, lanak aurrera egingo badu, behar diren baliabideetan jauzi nabarmena eman behar dela inoiz baino argiago dugu orain. Bereizi, jaso, erlazionatu eta aztertu behar den erregistro kopurua hainbeste hazi da, ezen une honetan esku artean dugun frogamoduko datu basean bertan, ezinezko bihurtu baita zaletasun hutsaren mailan errentagarritasunez lan egitea.

(*) Proiektu hau Euskaltzaindiak 2005. urteko maiatzean Argomaizen egindako XIV. Barne-Jardunaldietan onartu zuen.

Esan dugun bezala, Corpora osatzeko abiapuntua, erauzi beharreko agiritegi zabal bat izango da. Aztertu eta erauziko diren lan horiek izaera desberdinekoak izango dira, pertsona eta lekuen izenak agertzen direneko testumotak oso direlako heterogeneoak. Hala ere, duten omenagatik eta segur aski ekarriko duten emaitzen oparotasunagatik, lan dokumental, historiko, etnografiko, kartografiko eta zientifikoak izango dira batez ere. Iturrien corpus hori ezin da, inola ere, zerrenda itxitzat hartu. Kontrara, argitara atera litekeen, edo eskuetara heltzen zaigun beste edozein lan interesgarri, geure multzora gaineratzeko ez dugu inolako beldurrik izan behar.

Hori horrela izanik ere, lan horien erauzketa erraztuko lukeen edozein baliabide ongi etorria izango litzateke, izugarritzko aurrezkia izan daitekeelako guretzat lan horren bertsio digitala edo aurkibide onomastiko zehatza edukitzea. Horrelakorik gabe, ikertzaileen lan-metodologia aspergarri eta geldoa besterik ez zaigu gelditzen, hots, lanaren irakurketa lasaian aurkitzen diren pertsona nahiz leku izen guztiak banan banan jasotzea. Zeregin hauetan lagungarri izan daitezkeen burubideak jarri behar dira abian, hala nola, bekak, itunak, administrazioen langileen zerbitzu-eginkizunak, behin-behineko kontratazioak, unibertsitateko irakasleen parte hartzea... Era honetan, emaitzak ugaritzen laguntzeaz gainera, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen inguruan alor honetako ikertzaile-sare handi bat osatzen lagunduko genuke, Euskal Herrian egiten eta egingo diren ikerketa lanen irizpide-batasuna eta eztabaida zientifiko beharrezkoa bultzatuz.

Jasotze lan horiek egiten diren heinean, dagoeneko handi samarra den gure dokumentazio fondoa hazten joango litzateke, baina ez dira hor amaitzen onomastikaren alorreko ikerketak. Bildutako era horiek guztiak, gaur eguneko pertsona-izen, deitura edo leku zehatzei dagozkie. Datu basearen kudeaketan, zereginik zail eta iraunkorrena, baina aldi berean emaitzetan guretzat interesgarriena, jasotako datuen sailkatze lana izango da. Eginbehar honetan, datu basearen kudeatzaileek, dokumentazio fondoko era ugari horiek gaur eguneko datuekin erlazionatu beharko dituzte. Eta erlazio horiek datuak banan-banan hartuta ezarri behar dira, kasu bakoitza arretaz aztertuz, beste iturri osagarriak kontsultatuz, mapa zehatzetan lekuak kokatuz eta abar. Bistan da, ikerketa lan interesgarri, oparo eta emankor bezain aspergarri, astun eta amaigabea izango dela. Akademiarentzat saihestezina, ordea, halakorik gabe hartutako erabakiak nekez izango baitira behar bezain zuzenak, ezta erabiltzaileek eskatzen dituzten bezain ugariak eta azkarrak ere. Eginbehar honetan teknologia berrien laguntza ezinbestekoa izango da eta, noizean behin, tresna egokien diseinuan edo iturri bereziki oparoen datuen migrazioan, espezialisten laguntza beharrezkoa izan daiteke.

Lan horien ondoko emaitza, datuez hornituko den datu base haundi hori, Onomastika batzordearen tresna nagusi bihurtuko da. Argi dago, dokumentu fondo ugaria horretan oin hartuta emango diren irizpen, txosten, gomendio, erabaki zein arauak, askoz ere berme sendoagoa izango dutela eta, ezbairik

gabe, ondorengo zuzenketen arriskua nabarmen gutxituko dutela. Datutegiak, halaber, Akademian izen onomastiko batez inoiz hartutako erabaki guztien berri jasoko du. Honela, izen horien arautze-prozesuan gertatutako gorabehera guztien historia bistaratuko dugu begi-kolpe batez eta, ondorioz, haietaz emango diren ebazpen guztiak zehaztuagoak, bermatuagoak eta zuzenagoak izango dira.

Ondoko eranskinetan, hemen azaletik deskribatu dugun egitasmo honen berri zehatzagoa eskaintzen dugu. Eranskin horietan, *Euskal Corpus Onomastikoaren* ezaugarri nagusiak ematen dira ezagutzera, nahi duenak sakonago irakur eta azter ditzan. Horrela, egitasmoan arituko direnei beren egitekoa gidatzeko eta zehazteko ere balioko dielakoan gaude. Asmo horrekin idatzi dugu txostena eta helburu horrekin aurkezten dugu Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren aurrera.

Patxi Galé batzordekideak proposatua eta
Onomastika Batzordeak, bi mila lauko ekainaren bian onartua.

1. EGITASMOAREN HELBURUAK

Zenbait urte dira Euskaltzaindiak teknologia berrien aldeko apustu argia egin zuela. Horren ondorioz, bere zerbitzu eta lan-sail gehienak informatizatu zituen orduan eta modernizatze horrek ekarri dituen abantailak gaur egun erraz antzeman daitezke, batik bat egitasmoen tamainan eta berauen emaitzen aberastasunean.

Onomastikaren alorrean ere, urrats sendoak eman dira ildo horretan aurrera. Lan esparru honetan aritu diren ikertzaileak, apurka-apurka, beren lanetarako tresnak finduz eta zehatzuz joan dira. Hala ere, bakoitza bere aldetik ibiltzearen ondorioz, kontsultagai egon litezkeen hainbat datutegi aberats eta interesgarri, sistema eta formatu heterogeneoetan antolatuta dauzkagu oraindik. Datutegi horietatik aipu edo testigantzaren bat bilatu nahi duen ikertzaileak, eskueran dituen baliabide tradizionalak erabiltzera behartuta dago: berak darabilen sistema edo aplikazio informatikoko datutegiak kontsultatu, bilaketa luzeak egin, jatorri diren liburueta jo... Azken batean, euskarri digitalean dauden lan asko ezin erabil ditzakegu, formatu desberdinetan daudelako edo, askotan, ez daukagulako haien berririk.

José María Jimeno Jurío zenak zuzenduta, hainbat liburukitan argia ikusi zuen *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* izan zen Euskal Herrian eginitako lehenbiziko toponimia-lan exhaustiboa, esparru jakin bat hartzen zuena. Ondoren, Eusko Jaurlaritzak Nerea Mujika Deustuko Unibertsitateko irakasle-ari enkargatu zizkion, Autonomia Erkidegoan herrialdez herrialde antzeko lanak, gaur egun birbegiratzeko ari direnak. Azkenik, badirudi Frantziako Geografia Institutu Nazionala ere urratsak ematen ari dela, alde hartako herrien

leku-izenak euskarazko grafia propio arautuaz errotulatzeko eta lan hori abian omen dago. Beraz, antzeko zehaztasun mailako lanen bitartez, Euskal Herri osoa edukiko dugu epe ertainean ikertua.

Beste alde batetik, azken bolada honetan udaletan pizten ari den toponimiarekiko interesa espresuki aipatu behar dugu. Hauen artean, aipamen berezia merezi du Gasteizko udalak bultzaturik, Henrike Knörr euskaltzainaren zuzendaritzapean, Elena Martinez de Madina Onomastika Batzordeko kidearen lan-taldea egiten ari dena. Gasteizko udalerria oso zabala delako –Arabako Lautada ia osoa hartzen du– eta oso dokumentazio ugaria erauzten ari delako, erregistro kopuru izugarria biltzen ari dira ikertzaile hauek eta aurki lan eredugarri bat izango dugu esku artean. Beste herri askotan monografia interesgarriak egiten ari dira, bertako toponimia txikia gorago aipatu ditugun lan orokorretan baino zehaztasun handiagoz bildu eta aurkeztu nahirik. Tamalez, ekinbide hauek ez dira beti ondo bideratzen eta arian-arian trebatzen diren zaleen esku utzi ohi dira, isolaturik jardun eta inolako laguntzarik nahiz aholkurik eskatu ez eta, batzuetan, onartu ere egiten ez dutenak. Ondorioz, kalitate, neurri eta zehaztasun oso desberdineko lanak ari dira nonahi plazaratzen.

Azkenik, piztu den interes horrek, iturri historiko eta dokumentalak kontsultatzeko beharra ere ekarri du. Beste garai batzuetan gai hauek pizkunde xumea ezagutu zuten, baina zokoraturik egon dira hainbat urtetan eta gaur egun, ikertzaile askoren eskariz, haien behar nabaria dago gure artean. Era honetako iturriak kontsultagai jarri beharrak ezinbestez eramaten gaitu teknologia berrien eremura.

Euskaltzaindia ere aritu da onomastikaren alor horietan argitalpen mailan aktiboki parte hartzen, *Onomasticon Vasconiae* bildumako liburukiek ezin hobeto erakusten duten moduan. Bilduma honetan bertan, ezin ditugu aipatu gabe utzi, ikerketa onomastikoen metodologiaren inguruan plazaratutako bi liburukiak, beste hainbeste kongresuren emaitza direnak.

1999an Onomastika Batzordean abiatu zen *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bildumako corpusa kontsultagai jartzeko sistema informatiko baten diseinua (*Euskal Onomastika Datu basea, EODA*) eta gaur egun erabilgarri dago. Euskaltzaindiarekin harreman zuzenean jarri diren ikertzaileei, diseinu berean edo antzekoan lan egiteko aholkatu zaie, tresna egokiak emanez eta beraien beharrezan egokituz, etorkizunean beraien lanen emaitza gure datu basean integratzeko arazorik egon ez dadin. Bitarte honetan, Nafarroako datu base mardul haren txukuntze lanetan jardun du Patxi Galé batzordekideak eta horren ondorioz, toponimia nagusia eta beste zenbait atal ikusgai jartzeko moduan daude. Eusko Jaurlaritzak aginduta, duela urtebete, Deiker institutuak Bizkaiko toponimiaren bigarren azterketa amaitu zuen eta batzordekide honek parte hartu zuen lan horretan ere. Lan honen emaitza plazaratzen denean, gure datu basean Autonomia Erkidegoko datuak gaineratzeaz ekingo diogu. Ara-

ba eta Gipuzkoa herrialdeetako toponimiaren bigarren azterketa ere Deikerrek egingo omen du aurki. Gasteizko toponimia ere laster jasotzeko prest egongo dela uste dugu. Iparraldea beranduago etorriko delakoan gaude...

Datu-iturri interesgarri izan litekeen hainbat ikerlanek argia ikusi bai, baina formatu bibliografiko hutsean ditu gaur egun erabiltzaileak eskueran. Pentsatzen dugu honelako iturriak, batez ere masiboak diren haiek, formatu digitaletan lortzea edo hartara isurtzea, aurrerapauso handia izango litzatekeela, betiere urrats hori egile, biltzaile edo jabeekin itundu ondoren ematen bada, jabetza-eskubideen urratze bezala inola ere ulertua izan ez dadin.

Duela gutxira arte datu kopuru masiboen kudeaketarako teknologia informatikoa, gutxi batzuen eskuetan zegoen tresna izan da. Gaur ordea, informatikaren merkatua zabalduz joan den neurrian, lehen pentsaezinak ziren lanabesak erabil ditzakegu etxeko konputagailu arruntetan. Gure corpus hau, onomastikaren ikerkuntzan egin diren eta aurrerantzean ere egingo diren lanetako datuen bilduma trinkoa izateko dago pentsatua. Alde batetik, ikertzaileek aztertu nahi duten leku-izen batez, beste batzuek eginiko lanak nahiz Akademiak harturiko erabakiak, begi aurrean kolpe bakar batez begiztatzen ahalko dituzte. Modu honetan, ahaleginak ez dira alferrik galduko eginbeharrekoak behin baino gehiagotan eginez eta, era berean, lehendik araututa dauden izenen edo grafien gainean ez dira eztabaidak berpiztuko. Bestetik, kartografoek, topografoek, geografia ikertzaileek, autonomia, foru eta udal administrazioek eta abarrek, edozein unetan beharrezko dituzten zerrendak kontsultatzen ahalko dituzte, izen horietaz ezagutzen diren datu guztien bermeaz.

Akademiaren ikuspuntutik behatuta, pentsatzen dugu ekimen hau interes berezikoa izan daitekeela, neurri nabarmenago batean, hiru motatako erabiltzaileei begira:

- 1.1. **Ikertzaileentzat:** Etorkizunean interesgarri izan litezkeen ikerketak bultzatze aldera, zeren tresna honek agerian utzi beharko bailuke orain arte egindako lanek zeintzuk hutsune laga ote dituzten oraindik aztergai. Lehenik, erauzi behar diren iturrien lerrokada exhaustiboa (albait exhaustiboena, esan nahi da) osatu behar genuke. Haietarik batzuetako datuak eskueran jarri dizkigu ikertzailearen batek eta besterik gabe, datu basera isuri beharko genituzke. Aitzitik, beste iturri interesgarri asko eta asko ez da oraingoz onomastikaren helburuarekin ikertu (zenbaitetan, ezein helbururekin ere ez). Hori guztia zahaztu eta agerian jarri beharko litzateke iturri bakoitzaren fitxan, bakoitzari nola ekin behar zaion jakiteko. Nola edo hala, egiteko dauden erauzketa-lanak zeintzuk diren jakingo dugu era honetan eta ikerketan aritzeko interesa izan lezakeenari eskaini lezikioke benetako errentagarritasunaz. Aztertze iturriak iradokitzeaz gainera, datuak biltzeko sistema bateratua ere eskainiko genioke ikertzaile po-

tentzialari. Hau da, etorkizunean egingo diren erauzketa onomastikoak, iturri dokumentalenak nahiz ahozkoenak, patroï bateratu baten araberrako datuak bildu beharko lituzkete, besteak beste Akademia-ren datu base honetan ahalik eta erarik errazenean jaso ahal izateko.

- 1.3. **Euskaltzain oso nahiz urgazleentzat:** Euskal onomastikaren erre-kurtsoen arautze iskanbilatsuaren bidean, hala proposamenak egin behar dituztenek nola erabakiak hartuko dituztenek, ordura arte bil-du den informazio guztia, une bakoitzean komeni den itxurarik eta egiturarik egokienean ikusten (eta inprimatzen) ahalko dute eta be-raien lana izugarri erraztuko da. Horretarako, ikusi nahi diren for-mularioek edo inprimatu nahi diren txostenek, zeintzuk erregistro (oronimoak, hidronimoak, herriak, oikonimoak...) eta haietaz zer-no-lako datuak (dokumentazioa, kokapena, izen ofiziala...) agertu behar diren erabakitzea aski da, datu basearen kudeatzaileak eragiketa sin-ple batzuen bidez, nahi dugun eskaera egin diezaion aplikazioari. Era berean, Euskaltzaindiaren Argitalpen Zerbitzuak erabilgarri izango luke onomastika datu basea, atal horretako edozein argitalpen egu-neratu nahi duenean. Datu basea gaurkotuta edukiz gero, datu taule-tatik edozein unetan atera litezke, liburu batean jarri nahi diren da-tuak paper euskarrian paratzeko era egokian, argitaratze-lanak ere izugarri erraztuz.

- 1.4. **Onomastika Batzordearentzat:** Datu basearen helburua, euskal onomastikaren atal desberdinen bilduma al bait osatuena biltzea li-tzateke. Datu kopurua handitzen den neurrian, hor barna barreiatu-rik dauden hainbat eta hainbat argitalpen eta ondare dokumentalen datuak leku bakar batean eta behar bezala erlazonaturik kontsulta-tzeko aukera izango genuke beraz. Honen ondorioz, Batzordeari hel-tzen zaizkion eskariak, berme dokumental egokiaz aztertzen ahalko dira eta emango diren irizpenek segurtasun maila altuagoa izango dute. Halaber, Batzordeak –eta orobat Euskaltzaindiko Osoko Bil-kurak– hartuko lituzkeen erabakiak, irizpenak, gomendioak, arauak eta abar, datu basean gaineratuz joan beharko lirateke. Datu basea ondo eguneratuta mantenduz gero, Onomastika bulegoarentzat ere izugarrizko lan-tresna bihur liteke.

Esandakotik aurreikus daitekeenez, helburuak bereizirik datu baseak eskainiko dituen tresnak bi eratakoak izango direla dirudi. Alde batetik, da-tuak era estandar batean kontsultatzeko formularioak edo txostenak izango genituzke beti prest, datu basearen baliabide finko legez. Baliabide hauek erabilia, edozein unetan kontsultatzen ahalko dira edozein ponte-izenen txosten osoa, deitzen grafia edo forma euskaldunen zerrendak, herrialde oso bateko lekuen fitxak, udal bateko toponimo guztien fitxak, objektu ge-ografiko zehatz baten zerrenda osoa (mendiak, errekek, udal guztiak...), itu-rriz zehatz batetik jasota daukagun dokumentazioa, erauzteko dauden iturrien

zerrendak, deitura baten euskal idazkera posibleak eta abar. Beste alde batetik, kontsulta bereziak egitea ere posible izango da, esan bezala, une bakoitzeko beharretara erantzuna emateko tresnak diseinatuz gero. Bide hau segitu beharko dugu edozein izendegiren argitalpen eguneratua egin nahi denean, udal batek bere toponimia osoaren txosten bereziren bat eskatzen duenean, errolda-zerbitzu batek izen edo deituren zerrenda gaurkotua behar duenean eta abar.

Aurkezpen hau amaitzeko, datu basearen neurriaz zenbait ohar egiteari ere komenigarri deritzogu. Osa daitekeen corpus honen egiazko heinaz ideia bat egiteko, esan dezagun orain arte *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* lanaren datu basetik jaso ditugun erregistroak 100.646 leku eta 235.770 era (toponimo nahiz grafia) direla. Eta hauei, «kokatu» gabeko beste 71.124 era gehitu beharko zaizkie berehala. Era horiek jasotzeko, egileek 585 iturri desberdin kontsultatu dituzte neurri azalekoago edo sakonagoan. Bigarrenik, Deiker institutuak egindako Eusko Jaurlaritzaren datu baseak, 570 iturri dokumental nahiz kartografiko kontsultatu ditu eta 109.142 leku izendatzeko ahozko 254.992 era jaso zituen, dokumentatutako 192.083 testigantzez gainera. Bizkaiko datu basearen birpasa egin da eta franko handitu dira kopuru hauek herrialde horretarako. Iparraldeaz ez dugu oraindik datu zehatzik. Exotoponimia datu basearen oinarria, Euskaltzaindiak orain arte plazaratutako zerrendak eta arauak izango dira, segur aski corpus honen atalik txikiena osatuko dutena. Toponimiaz gainera, Euskaltzaindiak argitara ateratako ponte-izenen zerrendan, *Euskal izendegia* delakoan alegia, 2.266 sarrera daude, haien datu argigarri, itzulpen eta elkarrekiko erlazioekin, eta han-hemenka barreiatutik, berauei dagozkien datu dokumental batzuk ere jasoko dira. Azkenik, Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekin eta Espainiako Justizia Ministerioarekin batera argitara ateratako *Euskal deiturategia* izeneko liburuan, 10.000 deitura jasotzen dira, hizkuntza ofizialen baliokidetzekin batera. Horiek ere modu azkarrean jasotzeko moduan daude, dokumentaturiko erekin erlazioak ezartzea lan astun eta luzeagoa geroago etorriko bada ere.

2. CORPUSAREN ATAL NAGUSIAK

Egitasmo beraren barruan lau atal nagusi desberdinetako datuak bildu nahi dira, onomastikaren alorreko ikerketen objektu direnak, hain zuzen ere. Horretarako, antzeko egitura izango duten lau datu base nagusi eraikiko dira, taula egokietan izaera desberdineko datuak bildu eta haien artean behar diren erlazioak ezartzeko:

- 2.1. **Toponimia:** Euskal Herriko leku-izendegi orokorra izango litzateke, bai toponimia nagusia eta bai txikia bilduko duena. Abiapuntu bezala, leku eta toponimo errolda nagusi diren beste lan batzuk ja-


sotzen hasiko gara, zehazki, Nafarroako Gobernuak *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* proiekturako enkargatu zuena –izenburu horrekin argitara atera zena–, eta Eusko Jaurilaritzaren ekinbidez Deiker institutuak egindakoa –Autonomia Erkidegoa biltzen duena–. Zehaztasun maila horretaraino helduko litzateke beraz, hasierako bilduma, baina hori ez litzateke oztopoa etorkizunean hiri-toponimia, oikonimia, mikrotoponimia... ere gaineratzen joateko. Iparraldeko toponimiaren abiapuntua, dudarik gabe, IGN delakoa-ren 1:25000 eskalako mapetako leku bilduma izango da, ordea, hori jasotzeko modua argitu beharko da jabetza-eskubideen urraketarik gerta ez dadin.

- 2.2. **Pertsona izendegia:** Abiapuntu legez, Euskaltzaindiak berak 2001ean argitara ateratako *Euskal Izendegia (Ponte-izendegia)* edukiko genuke. Atal hau litzateke agian «biziena», errolda zerbitzuetatik ia egunero datu berriak jaso bailitezke eta gurasoek liburu hartan agertzen ez diren izenen ziurtagiriak eskatzen baitituzte maiz. Eskari horietarik askori bidea irekitzen zaie, haien atzean benetako tradizio onomastikoa dagoela frogatzen delako, baina Euskaltzaindiaren izen onaren kaltetan, maiz gertatzen da datu faltagatik ezin izaten dela inolako erantzunik eman. Jaio berri den haur bati izena jartzea premiazko gauza da eta egoera horretan dauden gurasoek nekez ulertzen ahal dute gabezia hori. Datutegi hau lekukotza dokumentalez ondo hornitua eta eguneratuta edukiz gero, izugarritzko tresna erabilgarria izango litzateke Onomastika bulegorako, bai kontsultak erantzute aldera, bai aldikako argitalpenen eguneratzeari begira.
- 2.3. **Deiturategia:** Hasierako datutegia Euskaltzaindiak Espainiako Justizia Ministerioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailarekin 1998an argitara ateratako *Euskal deituren izendegia* delakoa izango litzateke. Hala ere, liburu horretan agertzen den zerrenda mugatu samarra denez gero, hiritar gehiagoren eskariak etengabe heltzen dira Onomastika bulegora, erroldetan «ofizial» gisa hartutako zerrenda horretan agertzen ez diren beren deituren grafia euskaratu nahian. Hain eskari premiazkoak ez diren arren, kasu askotan ezezkoa ematen zaie, Bartzordeak ez dituelako euskal deituratzat jotzen, nahiz eta askotan irizpide horiek oinarri duten datu dokumentalak oso urriak diren. Datutegi hori ere, lekukotza dokumentalez ondo bete eta ematen diren irizpide guztien berri jasoz gero, deiturategiaren datu baserik ugariena bihur liteke aurki. Euskaltzaindiko Onomastika bulegoarentzat benetan tresna baliagarria izango litzateke eta, horrez gainera, bigarren deitura izendegiaren argitalpena prestatzea errazago izango litzazuke.


2.4. **Exotoponimia:** Hainbat testu-liburutan euskaraz agertu beharreko kanpoko tokien izenen premiagatik batik bat, Exotoponimia Azpibatzaordeak ekin dio lan honi eta zenbait arau ere eman ditu Euskaltzaindiak. Arautze horien oinarrian, euskal literaturan dauden lekukotzak, beste hizkuntzetan jarraitzen diren bideak eta beste Akademia batzuekin izandako harremanak daude. Datu horiek guztiak ondo bilduta eta Euskaltzaindiak arau gisa, atal honetan emandako zerrenden berri jaso beharko lirateke datu base honetan, egingakoa ondo finkatuta gera dadin eta eginbeharrak zeintzuk izan litezkeen argiagi ikusi eta ondorengo ahaleginak ere, egiazko beharrianen arabera izan daitezten.

3. DATU BASEAREN ESKAINTZA

Modu grafikoan zer-nolako informazioa eta zein eratan bistaratu gene-
zakeen ohartzeko, hona hemen *Toponimia* datu baseko erregistro baten fi-
txa eredu bat. Gaur egun datutegian jasota dagoen informazioa oso iturri
urri batzuetatik bakarrik atera den arren, emaitza interesgarri samarra dela
bistan da:



Lekukotza dokumental nahiz ahozkoen aipamenetako erreferentzietan agertzen diren laburdurak ez ezagutzekotan, eskuinaldeko botoiari sakatuta, dagokion iturriaren fitxa agertuko litzaiguke argigarri:



Antzeko sistema jarraitu da ponte-izenak, deiturak eta exotoponimoak landu eta erakusteko fitxetan, esparru kopuruaren aldetik askoz sinpleagoak direnak, eta beren izaera propio bakoitzari egokitutako egitura dutenak (ikus beheago datu baseen egitura). Datu basearen erabiltzaileak izaera anitzekoak izanik, hor bildurik daukagun informazioa bistaratu edo erabiltzeko hiru maila ere ezarriko genituzke:

- 3.1. Sare publikoan (Internet) periodikoki jar litezke datu baseko erre-gistro zerrenda batzuk ikusgai. Kontsulta-maila honek arautze-lanean azkeneko emaitza erakutsi beharko luke bakarrik, zergatietan edo oi-narri dokumentaletan gehiegi sartu barik.
 - Araututako izenen zerrendak (herri-izenak, mendi-izenak, ponte-izenak, deituren idazkera zuzenak...).
 - Araututako ponte-izen zehatz baten gaineko oharrak.
- 3.2. Bigarren maila batean (Intranet) Euskaltzaindian, nahiz Euskaltzain-diaren babesean, lanean diharduten ikertzaileak izango lirateke, eus-

kaltzainak berak barne. Maila honetan corpus dokumentaleko datutegi osoa bistaratu liteke, baina datu basearen egituran edo erregistroetan aldaketak egiteko biderik eman gabe.

- Iturrien zerrenda (erauzitakoak, erauztekoak...)
- Erregistro baten fitxa osoa (leku bati buruzko datuak, ponte-izen bat, deitura bat...)
- Bilaketa aurreratuak (herrialde bateko lekuak, udal bateko mendiak, herrialde bateko errekek, atzizki bat duten toponimoak, lexema bat duten deiturak...)

3.3. Aurreko kontsulta horietarako bidea zabalik dagoen bitartean, datu basearen kudeatzaileek jatorrizko bertsioan jarraituko lukete lanean, datuak gaineratuz eta eguneratuz. Horretarako, datu basearen kudeatzaile hauek beste tresna batzuk erabil edo sor litzakete eskuetatzen zaizkien datuak jorratu eta gaineratzeko. Datu basea gordina erabiliko lukete eta aukeratutako sistemak eskaintzen dituen baliabide guztiak edukiko lituzkete eskueran. Datu basearen kudeaketa honetarako bidea, bistan da, ezin dela irekia izan, hau da: pertsona jakin batzuek bakarrik edukiko lukete maila honetako eskuartzerako sarbidea. Eta hau, ez sekretuan gorde beharreko datuak direlako, esku askok eginiko aldaketek sekulako anabasa sor lezaketelako baizik. Nolanahi ere, bi maila desberdinetako tresnak aipatuko genituzke datu basearen kudeaketa maila honetarako:

a) Datu berrien ohiko gaineratze hutserako formularioak:

- Erlazionatu gabeko erak: Iturri erauzi berri batetik datozen datuak isurtzean, gerta dakiguke, erakarrirako zenbait erak, dagokien erregistroaren fitxarekin duten loturarik ezarri gabe gertatzea. Toponimoen kasuan, adibidez, hau hala izan daiteke izen normalizatua, objektu geografikoa edo udala ez direlako behar bezala adierazi, edo sinpleago, leku hori ordu arte ez delako inoiz ere gure datu basean erroldatu. Den legez dela, egoera honetan dauden erak bereizi eta aparte erakusteko formularioa diseinatu beharko genuke, dagokien fitxa nagusia bilatu edo sortzeko aukera emanaz.
- Erregistro izenkideak: Ikerketa konkretu baten ondorioz, erregistro fitxa berriak ere gainera litezke datu basera. Halaber, hau egitean, erregistro sartu berriren batek *izena-udala-objektua* esparruak datu basean dagoen erregistro baten izenkideak izan ditzake. Honelako errepikapenak, berehala lokalizatu eta zenbakien bidez bereizi behar ditugu.

- b) Une konkreturen batean, beharrian konkretu batengatik inprimatzeko txostenak:
- Unean uneko txostenak: Edozein unetan erregistro konkretu baten txostena atera daiteke inprimagailuaren bidez. Eta txosten horretan interesekoa den informazio guztia para daiteke, nahi den erara. Txosten hauen era estandar bat prest egon daiteke, baina itxurazko aldaketaren bat egin nahi izatekotan, berau era errazean diseinatuko luke kudeatzaileak.
 - Testu txostenak: Txosten idatziak, hala ere, ez dira ezinbestez erregistro konkretu huts baterako izan behar. Era berean, multzo oso batentzako txostena para liteke (Sabino Aranaren *Deun Ixendegi Euzkotarra* laneko ponte-izenak, *-korta-* lexema dararmaten deiturak, Bizkaiko leku eta toponimo guztiak, Lapurdiko hidronimoak, Artzibarreko oronimoak...), nahi den ordena ezarri eta nahi diren datuak gaineratuz. Txosten hauek zuzenean pasa daitezke inprimagailura, baina, modu berean, testu artxibo bezala ere gorde daitezke, edozein testu jorratzailearen bidez editatzeko. Bistan da, honek izugarri erraztuko lukeela toponimia lanen eta Akademiak har litzakeen ebazpenen argitalpena.

4. BALIABIDEAK

Badirudi lan honetan datu basearen kudeaketarako programa edo aplikazio jakin batzuk bakarrik izan daitezkeela egokiak. Aukeraturako programak, lehenik, behar ditugun tresnak era errazean diseinatzeko aukera eskaini behar digu, honetarako informatikazko ezaguera handiegirik behar ez bada ere. Bigarrenik, nondik edo handik ailegatuko zaizkigun datuak jasotzeko arazo handirik ez digu eman behar, beraiek tratatzeko OCR (scanner), datu base sistema diferenteak, testu jorratzaile desberdinak... erabili badira ere. Hirugarrenik, edukiera ez zaigu denborarekin arazo bihurtu behar. Datu baseak asko handituko balira, eta pentsatzekoa da halaxe gertatuko dela, gure sistemak hori guztia mugitzeko eta erabiltzeko gauza izan beharko du.

Honengatik, oraingoz egin diren diseinuak erabiltzaile arruntentzat etxe-koagoa den MsAccess sisteman egin badira ere, pentsatzekoa da denborarekin SQL Server bezalako zerbitzaria izango dela egokiagoa. Honetarako, erabiltzen ditugun kodeketa guztien bideragarritasuna frogatuta, taulen egitura zurrana edo behin-betikoa izango delako segurtasuna eduki behar dugu. Era honetan, nahiz eta datuak SQL Server zerbitzarian metaturik eduki, bistaratzeko eta kontsultak MsAccess errazagoan diseina litezke, horretarako programatzaile ezagutzak izan barik ere.

Gorago aditzera emandako iturri-tipologiak ikusita, datuen migrazio masiborako tresna estandar batzuk diseinatzen ahal dira. Datuen jatorri desberdinetik, taulen egitura zurrunaren egiturarako saltoa modurik automatizatuenean egingo dute eta aldi berean baliagarri izan dakigukeen ezein informaziorik ez dute galdu behar. Tresna hauen diseinurako, aldian-aldian, informatikan adituagoa den teknikoren baten laguntza beharko da segur aski, programazio eza-gutzek asko erraztu baitezakete diseinu hori.

Jatorri jakin bateko datuek egitura edo euskarri berezia izatekotan, molde horretarako baliagarri den migrazio-prozedura zehatza diseina daiteke, betiere jasotako datuen interesa edo kopuruan neurtuta, diseinu lan horrek errentagarritasuna izango badu.

Hau guztia posible egiteko, Onomastika zerbitzuaren ohiko lanetarako giza baliabide handitze ezinbestekoaz gainera, Corpusaren hasierako diseinu eta hornitze oinarritzkoa aurrera ateratzeko, zenbait urtetarako bi lanposturen sorrera eskatuko luke ohikoz kanpo. Gainera, ezin da ahaztu, aldian aldiko kontratazio puntualak ere ekarriko dituela. Lan puntual hauek helburu desberdinak izan ditzakete, hala nola, iturri zehatz baten erauzketa edo migrazioa, baliabide tekniko baten diseinua eta abiatzea, inguru geografiko jakin baten azterketa osoa, txosten berezien atontzea...

5. LANAREN DATU-ITURRIAK

Euskal Herriko toponimiaren alorrean orain arte egin diren lanik exhaustiboenak, gorago esan den bezala, Nafarroako Gobernuak bultzatutako *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* izeneko eta *Deiker* taldeak Eusko Jaurlaritzarentzat eginiko bilduma ditugula uste dugu. Kalitate eta zehaztasun maila desberdineko lanak dira eta arretaz birpasatu eta txukundu beharko dira noizbait. Hala ere, badirudi euskal toponimiaren bilduma egin nahi bada, ezinbesteko abiapuntua dela, hasteko, bilduma horietan dauden datuak jasotzea eta formatu berrian elkarrekin jartzea. Agian kontsultatu beharko litzateke beronek arazo legalik ekar ote lezakeen, bi datu base horiek jabea dutelako, jabeagoa datuetara heda daitekeen ala ez eztabaidagarria den arren. Dena den, du-darik gabe jabeen baimena lortzea litzateke onena, geroago etor litezkeen arazoak saiheste aldera.

Erakunde jabeek oztoporik jarriko balute, uste dugu argudia litekeela guztiz egokia dela halako corpus toponimiko mardula Euskaltzaindia bezalako erakunde baten eskuetan egotea. Eta hau lehenik, Euskaltzaindiari berez dagokiolako euskararen erabiltzenerako eskuduntza arau emaila, Euskararen Legearen 8.2. artikulua arabera, eta bigarrenik, Deiker eta NTM lantaldeen laguntzaile eta datu biltzaileen artean egon ez den koordinazioa eta irizpide batasuna, Euskaltzaindiaren inguruan sortzea litzatekeelako desiragarriena.

Baimena lortuta, Deiker, NTM eta hain neurri handikoak ez diren beste datu bilduma asko eta asko, gure egitasmo honen iturri izatera pasatuko lirateke, guztien erauzketa egin nahi lukeen datu base zentral honen zerbitzuko, alegia.

Ponte-izendegia, deiturategia eta exotoponimoen datu baseen hasierako oinarriak, Euskaltzaindiak berak argitaratutako lanak izango lirateke, hau da, *Euskal izendegia*, *Euskal deiturategia*, *Arauk...* Behin datu base horretara hasierako erregistroak gaineratuta, beste iturri askoren datuak jaso eta daudenean erlazionatu beharko dira, batez ere lekukotza dokumentalak. Era berean, erregistro berriak gaineratzen ahalko dira, adibidez, jaso gabe geneuzkan izenak, deiturak edo Euskal Herriak kanpoko lekuen izenak, erauzten den lan berriren batean aurkituz gero.

Datu basera jasotako era guztiek gordeko dute jatorriaren memoria, hau da, edozein kasutan era bakoitza nondik jaso den adierazten ahalko da uneoro. Modu honetan, jatorrizko iturrien egileei beren lanaren ezagutza egiten zaie.

Iturri eta ikerlanek eduki ditzaketen asmo eta egitura desberdinak begirata, uste dugu hiru eratako lanak jaso beharko ditugula:

- 5.1. **Zerrendak:** Euskal Herria banatuta dagoen hiru guneko politikoetan egin dira edo egiten ari dira halako lan exhaustiboak. Goian aipaturikoak dira zehazki, hots: Jose María Jimeno Jurío zenak zuzenduriko *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, Araba-Bizkaia-Gipuzkoa herrialdeen kartografiarako Eusko Jaurlaritzarentzat Nerea Mujikaren zuzendaritzapean Deikerren eginiko lanak, eta Iparralde-rako Bernadette Soulé IGNren laguntzaz eta Beñat Oyarçabalen ardurapean duela gutxi gauzatzen hasi omen dena. Lan hauek izango lirateke etorkizuneko Toponimia datu basearen oinarria, «erak» (ahozkoak, dokumentalak, bibliografikoak, kartografikoak...) bildu ez ezik, kokaleku eta kodeketa geografiko zehatza ere ematen baitute («lekuak» ondo zehaztuta, alegia), normalean, arautze-proposamena ere serio samarra izanik. Proposamen horiek hasierako «lema» izateaz gainera, lan horren egileen proposamentzat ere jaso behar dugu («erak» beraz), etorkizunean aurkikuntza berrien ondorioz, egindako arautze-proposamena alda baitaiteke. Kasu askotan balio ofiziala ere badute proposamen horiek, guneko politiko horri dagozkion erakundeek argiago edo gordeago, nola edo hala ontzat eman dituztelako. Bildutako erak mapan kokaturiko leku zehatzekin erlazionatuta agertzen zaizkigu eta lotura horiek ez dira inola ere galdu behar. Gainerako datu baseetarako bakoitzari dagokion Euskaltzaindiaren argitalpena izango da oinarria, hau da, Mikel Gorrotxategik eta Patxi Salaberrik paratutako *Euskal izendegia (ponte-izendegia)* eta *Euskal deiturategia* alde batetik, eta bestetik, exotoponimiarako dagokion azpibatzerdeak *Euskera* aldizkarian nahiz Arauk bildu-

man plazaratutako zerrendak. Aipamen berezia behar du Gasteizko toponimia lanak, Araba zati handi bat hartzeaz gain, inoiz ez bezalako datu kopurua bildu baitu.

- 5.2. **Arautze-proposamena duten datu bilketak:** Normalean inguru geografiko konkretu baten ikerlan toponimikoak izaten dira. Erauzketak dokumental edo ahozko bilketa azalekoa edo sakona izan dezakete, bilketaren ondoren egileek arautze edota normalizaziora begira proposamen bat eginik. Honelako lanek bi parte dituzte, bakoitza bere aldetik baloratu eta bere horretan jaso (edo bazterrerara utzi) behar dena. Alde batetik, halako lanetan egiten diren bilketek (dokumentalak zein ahozkoak) era batzuk jasotzen dituzte, jadanik datutegian erauzita dauzkagun iturri batzuetakoak izan daitezkeenak, edo lan horretan lehenengoz erauzi direnetakoak. Esan beharrik ez dago, azkeneko hauek bakarrik jaso behar ditugula eta, langileen ahaleginak alferrik galdu behar ez dira-eta, ikertzaileen esku jarri beharko genituzkeela, ikerkuntza lanetan aurrera egingo badugu. Era hauek, hala ere, nondik heldu zaizkigun eman behar da aditzera, norbaitek argudia lezakeen edozein lan-lapurreta itxurarik saihesteko. Beste alde batetik, egileek eurek eginiko arautze proposamenak ditugu. Azken hauek ere jaso behar ditugu, baina jatorria ikerketa-lan hori bera dela adieraziz. Honenbestez, beroni dagozkion erreferentzia guztiak eraman beharko ditu. Bistan da, hauetatik atera daitezkeen datu guztiak «erak» direla eta azkeneko ezaugarri horiek ezin direla ahaztu, migrazio lanak egiteko prozedurak diseinatzean. Honelako lanak aukeratzean ondo baloratu behar da, ikertzaileak erabilitako metodologia parametro zientifiko onargarrien barruan mugitu den ala ez, zeren herri askotan egin diren mapak edo monografiak ez baitira beti prozedura eta ebazpide objektiboekin diseinatu, gauzatu edo amaitu. *Izendegia* eta *Deiturategia* datu baseak osatzeko, esparru horietan argitara atera diren bildumak izango ditugu kontuan. Hortik jasotzen diren datuak normalean «erak» izango dira, nahiz eta paperezko euskarrian ikus ditzakegun gehienek izendegi hutsen itxura eduki. Iturri horietatik egiten diren eren proposamenez gainera, egiten ahal diren oharra ere jaso daitezke, hala nola, jatorria, esanahia, etimologia, eboluzioak..., betiere jatorria aditzera ondo emanda.

- 5.3. **Datu bilketa hutsak:** Historiografia lan askoren amaieran aurkibide onomastikoak jartzeko ohitura ari da zabaltzen. Halako zerrendek izugarritzko corpus dokumental interesgarria osa dezakete. Eta era berean, guk egindako nahiz bultzatutako halako lan historiografiko, folkloriko eta abarren erauzketak. Toponimiaren alorrean egindako ahozko inkesten datuak ere, bereziki interesgarriak izan daitezke arautzeari begira, oso informazio argigarriak eman ditzaketelako. Era honetako datuek, hala ere, jatorriaren erreferentzia estandarra ondo

eman behar dute aditzera, hau da, iturriaren laburdura eta fitxa, ahozko lekukoaren datuak, data, kokaleku zehatza (orrialdea, kutxa, papera...), testuingurua eta abar. Honelako lan askotan, orde, arautze faserako informazioa ematen den arren, ez da berau inorantz ere bideratzen, ez proposamenik egiten.

Migrazio lan hauek ez dira betiere errazak izango. Erauzketa, bilketa nahiz proposamen modura ikertzaileek eskuataratzen dizkiguten «era» horiek guztiak, toponimiaren kasuan adibidez, mapa gainean zehazki koka daitezkeen errealtate geografikoekin erlazioan paratu behar ditugu. Prozedura hau, aldi berean, ikerketa lan nekeza izango da, inola ere ezin automatiza daitekeena. Kontrara, geografia eta aplikazio-informatikoak neurri minimo batean bederen, ezagutzen dituen eta erabil ditzakeen kudeatzaile-ikertzailea behar da horretan aritu.

Hala ere, aldez aurretik goiko hiru tipologia horiek ondo zehaztuta uzten baditugu, lanen migrazioa prozedura errazetan antola liteke, horretan ahalik eta denbora gutxien galdu dadin. Lehenengo pausu hau emanda, behinik behin, ikertzaileek datu iturri aberats eta mardul bat izango lukete erabiltzeko. Baina honez gainera, ikerketa berrietan jarduteko asmoa dutenek, ez dituzte berriro egingo beste norbaitek egin dituen erauzte-lanak eta, era honetan, iturri berrien ikerketa bultzatzen da. Hau guztia ez da ulertu behar beste inoren lanaren lapurreta baten gisa. Kontrara, bakoitzak bere lana plataforma komun honetan jartzen badu, lan zientifiko hauen aurrerakuntza bermatuko dugu, etorkizuneko ikertzaileek eginik dauden ikerketak ez, baina berri batzuk egiten jardungo dutelako.

Intereseko iturrien datutegi orokorra egin beharra dago, hala toponimia alorrean nola izen eta deituren esparruetan. Egile nahiz jabeen baimenaren kontua konponduz gero, datuen digitalizazio prozedurak diseinatu behar dira, modurik azkarren eta merkeenean egin ahal izateko. Zenbait kasutan egileek berek eskuratuko digute datu base itxuran. Beste kasu batzuetan, testu digitalizatu eran helduko zaigu eta geuk landu beharko dugu testu hori datu base itxurara migratzeko. Zenbait kasutan eskaner nahiz kamera digitalaren bidez digitaliza daiteke paperean dagoen testua. Azkenik, lanik neketsuena izango litzateke liburu eran dagoen datutegia teklatzea. Honetarako ere, Euskaltzaindiaren langileen artean oso kolaboratzaile onak aurki ditzakegu.

6. LANAREN DATU-ITURRIEN ZERRENDA IREKIA

6.1. Aipaturiko aldizkariak

AEF: *Anuario de Eusko Folklore*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1921etik aurrera.

AESC: *Annales: Economies, Sociétés, Civilisations*, Paris, 1946tik aurrera.

- AFA: *Archivo de Filología Aragonesa*, Zaragoza Probintziako Diputazioa; Institución Fernando el Católico, Zaragoza, 1945etik aurrera.
- ASJU: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1954tik aurrera.
- Ateneo: *Ateneo, revista órgano del Real Ateneo de Vitoria*, Gasteiz, 1913tik aurrera.
- BCMN: *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra, Iruñea, 1860tik aurrera.
- BEHSS: *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa, Donostia, 1967tik aurrera.
- Berceo: *Berceo, revista riojana de ciencias sociales y humanidades*, Instituto de Estudios Riojanos; Gobierno de La Rioja, Logroño, 1946tik aurrera.
- BIAEV: *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1950etik aurrera.
- BISS: *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*, Fundación Sancho el Sabio, Gasteiz, 1957tik aurrera.
- BRAH: *Boletín de la Real Academia de la Historia*, Real Academia de la Historia, Madril, 1877tik aurrera.
- BRSBAP: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Donostia, 1945etik aurrera.
- BMB: *Bulletin du Musée Basque*, Société des Amis du Musée Basque, Baiona, 1927tik aurrera.
- CEEN: *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, Príncipe de Viana eta Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1969tik aurrera.
- EAA: *Estudios de arqueología alavesa*, Arkeologiarako Arabar Institutoa, Gasteiz, 2002tik aurrera.
- Egan: *Egan, Suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Donostia, 1948tik aurrera.
- Euskalerriaren alde: *Euskalerriaren alde*, Euskalerriaren alde elkarte, Donostia, 1911-1931.
- Euskal Esnalea: *Euskal esnalea*, Euskal esnalea elkarte, Tolosa, 1908-1931.
- Euskera: *Euskera, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1920tik aurrera.

FLV: *Fontes linguae vasconum. Studia et documenta*, Príncipe de Viana eta Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1969tik aurrera.

Iker: *Iker bilduma*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1996tik aurrera.

Orbis: *Orbis, Bulletin International de Documentation Linguistique*, Centre international de dialectologie generale-Universite catholique de Louvain, Louvain, 1952tik aurrera.

PV: *Revista Príncipe de Viana*, Institución Príncipe de Viana; Consejo de Cultura de Navarra, Iruñea, 1940tik aurrera.

RAMB: *Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos*, Ministerio de Educación y Ciencia, Madril, 1871-1978.

RFE: *Revista de Filología Española*, Publicaciones de la Revista de Filología Española, Madril, 1917-1957.

RH: *Revue hispanique: recueil consacré à l'étude des langues des littératures et de l'histoire des pays castillians, catalans et portugais*, Revue hispanique, Paris-New York, 1894-1933.

RIEV: *Revista Internacional de Estudios Vascos*, Eusko Ikaskuntza (1918tik), Donostia, 1907tik aurrera.

RIO: *Revue Internationale d'Onomastique*, Paris, 1949-1968.

SV: *Scriptorium Victoriense*, Teologia Fakultatea, Gasteiz, 1954tik aurrera.

Via Domitia: *Via Domitia, annales publiées par la Faculté des Lettres de Toulouse*, Toulouse, 1954tik aurrera.

6.2. Corpuserako lanak

ABELLA, Manuel; GONZÁLEZ ARNAU, Vicente; MARTÍNEZ MARINA, Francisco; TRAGGIA, Joaquín: *Diccionario geográfico histórico de España por la Real Academia de la Historia. Sección I. Comprehende el reyno de Navarra, señorío de Vizcaya y provincias de Álava y Guipúzcoa* (2 liburuki), Viuda de AtD. Joaquín Ibarra, Madril, 1802 [La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1968].

AGIRRE KEREXETA, Iñigo (zuz.): *Bailarak, guía de ríos, valles y comarcas de Euskal Herria* (6 liburuki), Linorsa, Donostia, 1990.

AGUD QUEROL, Manuel: «Alba, topónimo preindoeuropeo» in *Actas del Primer Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos, Salamanca, 1950*, Centro Superior de Investigaciones Científicas, Zaragoza, 1952.

—: «Áreas toponímicas en el País Vasco» in *ASJU*, VII (1973), 41-75.

—: *Elementos de cultura material del País Vasco*, Luis Haranburu, Donostia, 1980.

AGUD QUEROL, Manuel; CARO BAROJA, Julio (zuz.): *Historia General del País Vasco* (11 liburuki), La Gran Enciclopedia Vasca; Luis Haranburu, Donostia, 1980-1981.

AGUD QUEROL, Manuel; MITXELENA ELISSALT, Luis: «Formas populares de topónimos del País Vasco anteriores a 1900» in *Acta Salmanticensia* XI, Salamancako Unibertsitatea, Salamanca, 1958, 39-59.

AGUD QUEROL, Manuel; TOVAR LLORENTE, Antonio: «Materiales para un diccionario etimológico vasco» in *ASJU*, 25 (1991), 255-314, 543-622, 805-864; 26 (1992), 281-340; 27 (1993), 321-360, 613-692, 949-1028; 28 (1994), 263-332, 631-682, 915-992.

AGUIRRE GANDARIAS, Sabino: *Las dos primeras crónicas de Vizcaya* [1452, 1454], Biblioteca de Historia del Pueblo Vasco 5, Caja de Ahorros Vizcaina, Bilbo, 1986.

AGUIRRE SORONDO, Antxon; LIZARRALDE ELBERDIN, Koldo: *Ermittas de Gipuzkoa*, José Miguel de Barandiaran Fundazioa [1993ko beka], Donostia, 2000.

AICUA IRISO, Ana María; et al: *El valle de Roncal. Documentación básica*, Dindana, Iruñea, 1985.

AICUA MARÍN, José María; MARTÍN DUQUE, Ángel Juan, etc.: *El valle de Elorz. Naturaleza-Historia-Arte*, San Migel parrokia, Noain, 1990.

ÁLAMO, Juan del: *Colección diplomática de San Salvador de Oña* (822-1284), Centro Superior de Investigaciones Científicas, Madril, 1950.

ALARCOS LLORACH, Emilio: «Apuntaciones sobre toponimia riojana» in *Berceo*, XVI (1950), 473-492.

ALBAIGÈS OLIVART, Josep María: *Enciclopedia de los topónimos españoles*, Planeta, Bartzelona, 1998.

ALBERTOS FIRMAT, María Lourdes: «Álava pre-romana y romana: estudio lingüístico» in *EAA*, 4 (1970), 107-223.

—: «La antroponimia de las inscripciones hispano-romanas del País Vasco. Reflejos de onomástica personal de época románica en los topónimos alaveses» in *Estudios de Deusto* 20, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1972, 335-356.

—: «Onomástica personal en las inscripciones romanas de Álava» in *La formación de Álava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982)*, I (Ponentziak), Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1984, 33-61.

- ALEGRÍA SUESCUN, David; LOPETEGUI SEMPERENA, Guadalupe; PESCADOR MEDRANO, Aitor: *Archivo general de Navarra (1134-1194)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997.
- ALFÖLDY, Geza: *Flamines provinciae hispaniae citerioris*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madril, 1973.
- ALFORD, Violet: «Some Notes on the Pyrenean Stringed Drum» in RIEV, XXVI (1935), 567-577.
- ALTADILL Y TORRONTERA DE SANCHO SAN ROMÁN, Julio: «Los des-poblados en Navarra» in BCMN, 1917, 1923.
- ALTARRIBA ORDÓÑEZ, Antonio (koord.): *Doscientos años de geografía en Álava. Del cuestionario de Tomás López a la actualidad*, Vital Kutxa Fundazioa, Gasteiz, 2000.
- ALZOLA GEREDIAGA, Nicolás «Anai Berriotxo»: «Onomástica alavesa. Topónimos de la cuenca del Omecillo» in BRSBAP, 17:1 (1961), 97-98.
- ALLI ARANGUREN, Juan Cruz: *La mancomunidad del Valle de Roncal*, Nafarroako Gobernua, Lehendakaritza Saila, Iruñea, 1989.
- ALLIÈRES, Jacques: «Basque et latin vulgaire» in FLV, 15 (1973), 355-367.
- : *Les basques*, Presses Universitaires de France, Paris, 1977 [*Los vascos*, EDAF Universitaria, Madril, 1978].
- : «La dialectologie basque» in *Euskal linguistika eta literatura, bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1981, 103-114.
- ALVAR LÓPEZ, Manuel: *El habla de Oroz-Betelu*, RDTP, III, 1947.
- : «Palabras y cosas en la Aezcoa» in Pirineos, Revista del Instituto de Estudios Pirenaicos, Zaragoza, 1947, V, VI.
- : «Voces prerromanas en la toponimia pirenaica (arte, gaparra, karri, muga)» in BRSBAP, III (1950), 8-15.
- : «Catalán y aragonés en las regiones fronterizas» in *Actas del XII Congreso Internacional de Lingüística Románica*, Bartzelona, 1955.
- : «Notas lingüísticas sobre Salvatierra y Sigüés» in AFA, 8-9 (1957).
- : *Documentos de Jaca (1362-1502)*, Institución Fernando el Católico, Zaragoza, 1960.
- : «“Poma” y “Mat(t)iana” en la toponimia de la Península Ibérica» in *Actas del IX Congreso Internacional de Lingüística Románica* (BF XX), III (1962), 165-203.
- : *El dialecto riojano*, Gredos, Madril, 1976.

- ANDERSSON, L.: «Liberri y la cuestión vasco-ibérica» in FLV, III (1971), 107-118.
- APEZETXEA ZUBIRI, Pello: «Etxalarko etxe eta baserrien izenak (1623-1983)» in FLV, 45 (1985), 183-203.
- APRAIZ BUESA, Odón de: «Un caso de fonética histórica estudiado en la toponimia alavesa. La alternancia de l/r» in RIEV, XI (1920), 81-94.
- : «De toponimia histórica, evolución de la raíz *zubi*» in RIEV, XV (1924), 306-312.
- : «El idioma en Álava. Toponimia alevesa. Notas, problemas y deducciones» in Euskal Esnalea, 20 (1930), 13-18.
- : «*Saltus, Zaltu, Zaldu* y el toponímico *Salduba*» in Yakintza, Revista de Cultura Vasca, Donostia, 1934, 458-460.
- : «De la vieja toponimia de Navarra. Etimología vasca en latín del siglo XII» in *Homenaje a don Julio de Urquijo*, III, Donostia, 1950, 447-545.
- : KNÖRR BORRÁS, Henrike: «De la toponimia euskariene en Álava» in BISS, 22 (1978), 286-304.
- ARANA GOIRI, Sabino: «Deun-ixendegi euzkotarra, Tratado etimológico de los apellidos euzkéricos» in *Obras completas*, Sabindiar batza; Amorrortu, Buenos Aires, 1965, 702-809 [1897] [Sendoa, Donostia, 1980].
- ARANZADI UNAMUNO, Telesforo de: «Un poco de apellidos actuales en San Sebastián» in RIEV, VII (1913), 157-173; VIII (1913), 340.
- ARAZURI DÍEZ, José Joaquín: *Pamplona, calles y barrios* (3 liburuki), Gráficas Castuera, Iruñea, 1979-1980.
- ARANBERRI ODRIOZOLO, Fernando: *Ermua-Eitzaga leku-izenak, geure izanaren barrena*, Onomasticon Vasconiae 22, Euskaltzaindia, Bilbo, 2001.
- ARBELAIZ, Juan José: *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*, Kardaberaz 31, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978.
- ARBIZU GABIRONDO, Nicolás: «Toponimia de Iturmendi» in FLV, 56 (1990), 261-275.
- ARELLANO SADA, Pedro: *Salinas de Añana a través de los documentos y diplomas conservados en su archivo municipal*, La Académica, Zaragoza, 1930.
- ARIGITA Y LASA, Mariano: *Colección de documentos inéditos para la historia de Navarra*, Imprenta Provincial, Iruñea, 1900.

- : *Historia de la imagen y santuario de San Miguel de Excelsis*, Lizaso hermanos, Iruñea, 1904.
- ARIN DORRONSORO, Juan de: «Toponimia del pueblo de Ataun» in *Anuario de Eusko Folklore*, VII (1928), 55-152.
- : «Contribución al estudio de la toponimia (Ataun)» in *BRSBAP*, XXV-4 (1969), 471-516.
- AROCENA ARREGI, Fausto: *Brumas de nuestra historia*, Monografías vascongadas 10, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia, 1952.
- ARRAIZA, Eugenio: «Ain-ez bukatzen diren euskal toponimoak» in *FLV*, 48 (1986), 225-249.
- ARREGI, B.: «Notas etimológicas, los nombres de los pueblos guipuzcoanos» in *Euskalerrriaren alde*, II (1912), 119-121.
- ARREGI, Santiago: «Toponimia de Ezcaray» in *Euskera*, III (1958), 83-102.
- ARREGI AZPEITIA, Gurutzi: *Ermitas de Bizkaia* (3 liburuki), Labayru ikastegia; Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987.
- ARZAMENDI SÁEZ DE IBARRA, Jesús: *Términos vascos en documentos medievales de los siglos XI-XVI*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1985.
- ASTARLOA, Pablo Pedro de: *Apología de la lengua bascongada ó ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen*, Gerónimo Ortega, Madril, 1803 [Argitaraldi faksimilea: Librerías París-Valencia, Valentzia, 1993].
- AYERBE IRIBAR, María Rosa: *Documentación medieval del archivo municipal de Azkoitia (XIII-1500)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1993.
- : *Documentación medieval del archivo municipal de Legazpia (1290-1495)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995.
- : «La unión o mancomunidad de Enirio y Aralar. Un caso modélico de montes comunales intervenidos por el Servicio Forestal de la Diputación de Gipuzkoa» in *BRSBAP*, LXI:1 (2005), 5-136.
- AYERBE IRIBAR, María Rosa; ELORZA MAIZTEGI, Javier: *Archivo municipal de Elgeta (1181-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2002.
- AYERBE IRIBAR, María Rosa; ETXEZARRAGA GABILONDO, Jon: *Archivo municipal de Elgoibar (1346-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999.

AZKUE ABERASTURI, Resurrección María: *Cancionero popular vasco*, A. Boileau y Bernasconi, Bartzelona, 1921-1925.

—: *Las mil y una canciones populares vascas*, A. Boileau y Bernasconi, Bartzelona, 1923.

—: «El artículo y la epéntesis en la toponimia» in *Euskera*, IX (1928), 212-217.

—: «La epéntesis en la toponimia» in *Euskera* IX (1928), 307-310.

—: *Acerca del santoral vasco*, Editorial Vasca, Bilbo, 1933.

—: *Advertencias a las notas sobre el santoral vasco del Sr. Altube*, Gaube-ka'ren irarkola, Bermeo, 1935.

—: *Euskalerriaren yakintza, literatura popular del País Vasco*, Espasa-Calpe, Madril, 1935 [Euskaltzaindia, Bilbo, 1989].

—: *Morfología vasca* (3 liburuki), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969 [1925].

BADIA MARGARIT, Antoni María: «Mal “Roca” en la toponimia pirenaica catalana» in *Actas de la Primera Reunión de Toponimia Pirenaica (Jaca, agosto de 1948)*, Cursos del Instituto de Estudios Pirenaicos, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Zaragoza, 1949, 35-58.

—: «Toponymie et histoire dans le “Chemin de Saint-Jacques” en Espagne» in *Actas del IV Congreso de Toponimia Upsala*.

BÄHR, Gerhard: «De toponimia vasca» in *RIEV*, XXII (1931), 143-145.

BALASQUE, Jules; DULAURENS, Edouard: *Études historiques sur la ville de Bayonne* (3 liburuki), Baiona, 1862-1875.

BALDINGER, Kurt: *La formación de los dominios lingüísticos en la Península Ibérica*, Gredos, Madril, 1972.

BALEZTENA ABARRATEGUI, Javier: *Toponimia del viejo Pamplona*, Temas de cultura popular 101, Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea, 1971.

BALEZTENA ASCARATE, Ignacio: «Términos de Pamplona» in *PV*, 13 (1943), 511-518.

—: «Toponimia del término de Pamplona» in *Actas de la Primera Reunión de Toponimia Pirenaica (Jaca, agosto de 1948)*, Cursos del Instituto de Estudios Pirenaicos, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Zaragoza, 1949, 59-63.

BALPARDA Y DE LAS HERRERÍAS, Gregorio de: *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros* (2 liburuki), Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, Bilbo, 1974 [1922-1945].

BAÑALES GARCÍA, Gregorio Alfonso: *Mayorazgos de la villa de Portugalete*, Librería San Antonio, Barakaldo, 1997.

—: *Mayorazgos de Barakaldo*, Librería San Antonio, Barakaldo, 1999.

BARAIBAR Y ZUMARRAGA, Federico: «Toponimia alavesa» in *Ateneo*, 69 (1919), 3-11; 74 (1919), 13-15; 75 (1919), 3-7.

BARANDIARAN AIERBE, Jose Migel: «Toponimia. Despoblados de Álava» in *AEF*, 9 (1929), 95-100.

—: «Etnología de la Península Ibérica» in *RIEV*, XXIV (1933), 627-650.

—: «Rapports entre la toponymie et l'archéologie au Pays Basque» in *Third International Congress of Toponymy and Anthroponymy*, III, 1951, 520-523.

—: «Toponymes inspirés par la mythologie basque» in *Acta Salmanticensia XI, V^e Congrès international de toponymie et d'anthroponymie*, II, Salamanca, 1958, 65-70.

—: *Diccionario de mitología vasca*, Txertoa, Donostia, 1984.

BARANDIARAN, Salvador: «Roncal, riñón de Vasconia» in *BRSBAP*, XXI-4, 1956, 49-67.

BARRAGÁN DOMEÑO, María Dolores: *Archivo general de Navarra (1322-1349)* (2 liburuki), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997-1998.

BARRAU-DIHIGO, Louis: «Chartes de l'église de Valpuesta du IX^e. Au XI^e. siècle» in *RH*, XII (1900), 274-390.

BARRENA OSORO, Elena: *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa (1375-1463). Documentos*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1982.

BARRENENGOA ARBERAS, Federico de: *Onomástica de la Tierra de Ayala* (3 liburuki), Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1990.

BASAÑEZ ARRESE, Jesús: *Lejona, anteiglesia vizcaina*, La Editorial Vizcaina, Bilbo, 1971.

BASAS FERNÁNDEZ, Manuel: *Diccionario abreviado de las calles de Bilbao*, Bilboko udaletxea, Bilbo, 1991.

BECERRO DE BENGOA, Ricardo: *El libro de Álava*, Hijos de Manteli, Gasteiz, 1877 [El Txoko de Josetxo; Roger editor, Donostia, 2000].

—: *Voces toponímicas de Aramayona*, Gasteiz, 1881.

—: *Traducción castellana de los nombres vascongados de las hermandades, villas, pueblos, montes, ríos y términos de esta provincia*, 1881.

- : *Descripciones de Álava: Libro inédito de Ricardo Becerro de Bengoa escrito en 1880*. Publicaciones del Real Ateneo de Vitoria, Gasteiz, 1918 [in Ateneo, 1918-1919].
- BELA, Jacques de: *Commentaire à la coutume de Soule* (Zuberoako foruaz), 1995 [1665] [Pariseko Biblioteque Nationale delakoan bi kopia].
- BELASKO ORTEGA, Mikel: *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra. Apellidos vascos*, Pamiela, Iruñea, 1996.
- : *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*, Pamiela, Iruñea, 2000.
- BÉMONT, Charles Year: *Recueil d'actes relatifs à l'administration des rois d'Angleterre en Guyenne au XIII^e siècle (Recogniciones feodorum in Aquitania) transcrits et publiés par...* (5 liburuki), Paris, 1914.
- BIDACHE, Jean: *Le livre d'or de Bayonne. Textes latins et gascons du X^e au XIV^e siècle*, Pau, 1906 [1896].
- BIDART MEABE, Asier; ETXEBARRIA LEJARRETA, Aintzane: *Lezamako toponimia*, Lezamako udala; Labayru ikastegia, Bilbo, 2003.
- BIDEGAIN, Xarles: *Izendegia*, Elkarlanean, Donostia-Baiona, 1999.
- : *Izendegia, nombres vascos*, Elkarlanean, Donostia, 2000.
- Bilboko gotzaindegia: *Elizbarrutiko Elizaren gidaliburua*, Bilboko gotzaindegia, Bilbo, 2000.
- Bizkaiko Espeleologi Taldea: *Bizkaiko haizuloen katalogoa*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1985.
- BONAPARTE, Louis Lucien: *Carte des sept provinces basques*, Londres, 1863.
- BOSCH GIMPERA, Pedro: «Los celtas y el País Vasco» in RIEV, XXIII (1933), 457-486.
- : *El poblamiento antiguo y la formación de los pueblos de España*, Imprenta Universitaria, México, 1945.
- BOSCH GIMPERA, Pedro: «Ibères, Basques, Celtes» in Orbis, VI-1 (1957), Lovaina, 1957, 131.
- BOUDA, Karl: «Nouvelles étymologies basques» in BRSBAP, V (1949), 411-420.
- : «Etymologies basques» in Eusko Jakintza, 1950-IV, 51-70, 317-336; 1951, 57-62, 217-222; 1952, 30-33.

—: «Etymologies basques» in *Euskera*, 1956-1, 131-136.

CAMPIÓN JAIME-BON, Arturo; BARAIBAR ZUMARRAGA, Federico; VELASCO LÓPEZ-CANO, Eduardo; ARRIANDIAGA GOROCICA, Manuel de; ELEIZALDE BRENOSA, Luis de: «Patronimia y toponimia vasca. A los vascos de buena voluntad» in *Euskalerriaren alde*, 5 (1915), 242-246.

CANTERA BURGOS, Francisco: *Fuero de Miranda de Ebro*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid, 1945 [Burgos Probintziako Diputazioa, Burgos, 1980].

CARO BAROJA, Julio: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Txertoa, Donostia, 1990 [Salamanca Unibertsitatea, Salamanca, 1945].

—: «Proyecto para la elaboración del fichero de toponimia y antroponimia vasca medieval» in *BRSBAP*, 5:3 (1949), 381-385.

—: «La toponimia alavesa y su valor histórico» in *Vitoria en la Edad Media. Actas del I Congreso de Estudios Históricos celebrado en esta ciudad del 21 al 26 de setiembre de 1981, en conmemoración del 800 aniversario de su fundación*, Gasteizko udala, Gasteiz, 1982, 55-61.

—: *La casa en Navarra* (4 liburuki), Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea, 1982.

CARRASCO PÉREZ, Juan: *La población de Navarra en el siglo XIV*, Colección histórica de la Universidad de Navarra XXIX, Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea, 1973.

CARRERAS CANDI, Francisco (zuz.): *Geografía general del País Vasco-navarro* (12 liburuki), Alberto Martín, Bartzelona, 1911-1925.

CASTRO ÁLAVA, José Ramón; IDOATE IRAGUI, Florencio: *Archivo General de Navarra. Catálogo de la sección de Comptos* (52 liburuki), Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea, 1952-1970.

CESARINI, Cardenal Julián: *Statuta seu constitutiones synodales... episcopi Pampilonensis*, Lyon, 1532.

CIÉRBIDE MARTINENA, Ricardo: «Toponimia del Becerro antiguo de Leyre (siglos XII-XIII)» in *FLV*, 23 (1973), 237-283.

—: «Índice completo de antropónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre-I» in *FLV*, 27 (1977), 431-472.

—: «Índice completo de topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre-II» in *FLV*, 25 (1977), 117-152.

—: «Índice completo de topónimos en el Becerro Antiguo de Leyre-III» in *FLV*, 26 (1977), 281-310.

- : «Índice completo de antropónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre-II» in FLV, 28 (1978), 71-126.
- : *Toponimia navarra: historia y lengua*, Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea, 1980.
- : «Consideraciones históricas en torno a la toponimia de La Rioja Alavesa» in *La formación de Álava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982)*, II-III (Komunikazioak), Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1985, 165-179.
- : «Onomasticon Vasconiae: consideraciones metodológicas» in FLV, 17:1 (1985), 175-182.
- : «Antropónimos de la Baja Navarra según el censo de 1350» in Iker, 6 (1992), 127-142.
- : HERRERO MARTÍN, Graciliano: «Toponimia de la comarca de la Oliva» in CEEN, 46 (1985), 5-85.
- CIÉRBIDE MARTINENA, Ricardo; HERRERO MARTÍN, Graciliano: «Toponimia de la comarca de la Oliva-II» in CEEN, 47 (1986), 91-164.
- CIÉRBIDE MARTINENA, Ricardo; RAMOS REMEDIOS, Emiliana: *Documentación medieval del monasterio de Santa Clara de Estella (siglos XIII-XVI)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1996.
- : *Documentación medieval del monasterio de Santa Engracia de Pamplona (siglos XIII-XVI)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997.
- : *Documentación medieval del Monasterio de San Pedro de Ribas de Pamplona (siglos XIII-XVI)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1998.
- : *Documentación medieval del archivo municipal de Pamplona (1129-1356)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1998.
- : *Archivo municipal de Tafalla (1157-1540)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2001.
- CIÉRBIDE MARTINENA, Ricardo; SANTANO MORENO, Julián: *Colección diplomática de documentos gascones de la Baja Navarra (siglos XIV-XV)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1990.
- COLOMBÁS, García María; AIZCORBE URROZ, María Luisa: *Monasterio de Tulebras*, Príncipe de Viana, Iruñea, 1987.
- Commission de toponymie de Québec: *Méthodologie des inventaires toponymiques*, Gouvernement du Québec, Québec, 1986.
- CONDE DE LLOBREGAT: *Fuenterrabía. Noticias históricas*, Imprenta Voluntad, Madril, 1930.

- COROMINES I VIGNEAUX, Joan: *Tópica hespérica: estudios sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia* (2 liburuki), Gredos, Madril, 1961.
- : «De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos Pirineos» in FLV, 12 (1972), 299-319.
- CORONA BARATECH, Carlos E.: *Toponimia navarra de la Edad Media*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Huesca, 1947.
- CRESPO RICO, Miguel Ángel; CRUZ MUNDET, José Ramón; GÓMEZ LAGO, José Manuel: *Colección documental del archivo municipal de Bergara*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995.
- : *Colección documental del archivo municipal de Rentería* (2 liburuki), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1991-1997.
- : *Colección documental del archivo municipal de Mondragón* (4 liburuki: 1260-1400, 1400-1450, 1451-1470, 1471-1500), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1992-1996.
- DASSANCE, Louis: *Herrien eta herritarren izenak eskuaraz*, Gure Herria, Baiona, 1966.
- DAUZAT, Albert; ROSTAING, Charles: *Dictionnaire étymologique des noms de lieux en France*, Larousse, Paris, 1963 [1926].
- Deia: *Colección de Mapas de la Comunidad Autónoma Vasca* (1:25000 escala, 25 mapa), Iparraguirre, Bartzelona, 2002.
- DELMAS, Juan Bautista Eustaquio: *Viaje pintoresco por las provincias vascogadas*, Imprenta y librería de N. Delmas, Bilbo, 1846.
- DELMAS, Juan Bautista Eustaquio: *Guía histórico descriptiva del viajero en el señorío de Vizcaya en 1894*, Kultura Batzarra, Bizkaia Probintziako Aldundia, Bilbo, 1944.
- DÍAZ DE ARCAYA Y GONZÁLEZ DE ECHÁVARRI, Manuel: *Leyendas alavesas* (2 liburuki), Librería de Cecilio Gasca, Zaragoza, 1897-1898.
- DÍAZ BODEGAS, Pablo: *Libro de visita del licenciado Martín Gil*, Diócesis de Calahorra y La Calzada-Logroño, Logroño, 1998 [s. XVI].
- DÍAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, José Ramón: *Álava en la Baja Edad Media*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995.
—: «Carta arqueológica de Guipúzcoa» (1:25000 eskalako mapaz) in Munibe 34, Aranzadi, Donostia, 1982.

TOVAR LLORENTE, Antonio: *El euskera y sus parientes*, Minotauro, Madril, 1959.

TRAPERO TRAPERO, Maximiano: *Para una teoría lingüística de la toponimia (Estudios de toponimia canaria)*, Universidad de Las Palmas de Gran Canaria, Las Palmas de Gran Canaria, 1995.

TRASK, Robert Lawrence: *The history of Basque*, Routledge, Londres, 1997.

TRUEBA Y DE LA QUINTANA, Antonio de: *Las Encartaciones*, «Euzkadi y su historia», Geu, Bilbo, 1978 [1819-1889].

—: *Datos para la historia de Vizcaya*. Tipografía de Antonio Villamarín, Lugo, 1900.

UBIETO ARTETA, Antonio: *Colección diplomática de Pedro I de Aragón y Navarra*, Escuela de Estudios Medievales, Zaragoza, 1951.

—: *Cartulario de San Juan de la Peña* (2 liburuki), Anubar, Valentzia, 1962-1963.

- : «Los Votos de San Millan» in *Homenaje a Jaime Vicens Vives*, Facultad de Filosofía y Letras, Universidad de Barcelona, Barcelona, 1965.
- : *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Anubar, Valentzia, 1976.
- UBIETO ARTETA, Agustín: *Cartularios (I, II y III) de Santo Domingo de la Calzada*, Anubar, Zaragoza, 1978.
- UGARTE GARRIDO, Jose Luis: *Urretxu eta Zumarragako toponimia*, Onomasticon Vasconiae 18, Euskaltzaindia, Bilbo, 1998.
- URABAYEN, Leoncio: «Notas al gráfico de la extensión en Navarra de los nombres de pueblos terminados en ain» in RIEV, 16 (1925), 150-152.
- : «Sobre cambios en los nombres de pueblos de Navarra» in RIEV, 16 (1925), 289-297.
- URANGA SANTESTEBAN, José Javier: *Ujué medieval: fortaleza, villa, santuario*, Ediciones y libros, Iruñea, 1984.
- : «Fuegos de la Merindad de las Montañas en 1350» in PV, 56-57 (1954), separata.
- URANGA, L.: «Documentos sobre la población de Navarra en la Edad Media» in PV, 84-85 (1961), 137-176.
- : «Notas sobre topónimos navarros medievales» in CEEN, 41-42 (1983), 39-95.
- URQUIJO E IBARRA, Julio de: «Nombres vascos» in RIEV, 25 (1934), 56-57.
- URTASUN VILLANUEVA, Benito: «Toponimia de Oroz-Betelu» in FLV, 9 (1971), 333-346.
- USABIAGA FLORES, Amaia: *Andoaingo toponimia*, Onomasticon Vasconiae 10, Euskaltzaindia, Bilbo, 1993.
- UTRILLA UTRILLA, Juan Fernando: *El Fuero General de Navarra. Estudio y edición de las redacciones protosistemáticas (Series A y B)* (2 liburuki), Institución Príncipe de Viana, Iruñea, 1987.
- VELAZA FRÍAS, Javier: «De toponimia del valle del Ebro navarro» in FLV, 57 (1991), 77-87.
- VILA Y BLANCH, Rosendo; VALENZUELA, M.C.; PÉREZ, Pau: *Pirineo aragonés y navarro: valles de Ansó-Hecho, Belagua-Zuriza, Isaba-valle de Mintxate, Petrechema-Ansabère* (1:40000 eskalako mapa), Editorial Alpina, Granollers, 1983.

- : *Pirineo aragonés y navarro: valles de Ansó-Hecho, Belagua-Zuriza, Isaba-valle de Mintxate, Petrechema-Ansabère* (1:40000 eskalako mapa), Editorial Alpina, Granollers, 2005.
- VILA Y BLANCH, Rosendo; LIZARRAGA, María A.; CREUS, J.; PÉREZ, Pau; LLOBET, Salvador: *Pirineo de Navarra: Roncesvalles, Roncal-Valcarlos, valles de Aézcoa, Irati, Salazar, Pico de Ori, Larrau* (1:40000 eskalako mapa), Editorial Alpina, Granollers, 1984.
- VILA Y BLANCH, Rosendo; MARTÍNEZ GARDE, Patxi: *Roncesvalles : Valcarlos, Valles de Irati y de Aezcoa, Valle de Roncal, Pic d'Orhy, Larrau* (1:40000 eskalako mapa), Editorial Alpina; Granollers, 1989.
- VINSON, Julien: «Importance des noms topographiques, lieux-dits, etc., pour l'étude de la langue basque» in RIEV, III (1909), 349-356.
- : «Toponymie basque» in RIEV, 6 (1912), 405-411.
- VIVANCOS GÓMEZ, Miguel C. (OSB): *Documentación del monasterio de Santo Domingo de Silos (954-1254)*, Fuentes medievales castellano-leonesas 50, J.M. Garrido Garrido, Burgos, 1995.
- : *Documentación del monasterio de Santo Domingo de Silos (1255-1300)*, Studia Silensia XVIII, Abadía de Silos, Santo Domingo de Silos, 1995.
- VIVANCOS GÓMEZ, Miguel C.: *Documentación del monasterio de Santo Domingo de Silos, índices 954-1300, fondo antiguo de Silos, fondo de Silos en el Archivo Histórico Nacional*, Studia Silensia XXII, Abadía de Silos, Santo Domingo de Silos, 1998.
- YANGUAS Y MIRANDA, José: *Diccionario de antigüedades del reino de Navarra* (3 liburuki), Príncipe de Viana, Iruñea, 1964.
- YBARRA Y BERGÉ, Javier de: *Escudos de Vizcaya* (8 liburuki), Librería Villar, Bilbo, 1967.
- YBARRA Y BERGÉ, Javier de; GARMENDIA Y GOYETCHE, Pedro de: *Torres de Vizcaya* (3 liburuki), Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madril, 1946.
- YTURBIDE, Pierre: *Le pays de Labourd avant 1789* (2 liburuki), Baiona, 1905-1908.
- ZABALA ALTUBE, Carlos María: *Historia de Guecho*, Padres Trinitarios, Algorta, 1990.
- ZABALA BENGOCHEA, Pedro María: «Toponimia vasca» in BRSBAP, VII (1951), 413-ss; XIII (1952), 25-32.
- : «Toponimia vasca. Hidrografía» in BRSBAP, 1953, 245-ss; 1957-4, 295-312.

- ZABALO ZABALEGUI, Francisco Javier: *El registro de comptos de Navarra de 1280*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea, 1972.
- ZAPIRAIN KARRIKA, David: *Altzotik Altzora, ibilaldi historikoa Altzon zehar*, Tolosaldea historia bilduma 02, Aranzadi zientzi elkarte, Altzo, 2003.
- ZAPIRAIN KARRIKA, David; ARANBURU AMILLETA, Antxiñe; ETXEBERRIA ANDUEZA, Birjinia: *Aduna 1856-1965, bilakaera baten kronika*, Tolosaldea historia bilduma 04, Aranzadi zientzi elkarte, Aduna, 2003.
- ZAVALZA ALDAVE, María Itziar: *Archivo general de Navarra (1274-1321)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997.
- ZZ.AA.: *Colección de cédulas, cartas-patentes, provisiones, reales órdenes y otros documentos concernientes a las Provincias vascongadas* (6 liburuki), Imprenta Real, Madril, 1829-1833.
- : *Actas de la Primera Reunión de Toponimia Pirenaica (Jaca, agosto de 1948)*, Cursos del Instituto de Estudios Pirenaicos, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Zaragoza, 1949.
- : *Actas del Primer Congreso Internacional de Pirineístas del Instituto de Estudios Pirenaicos*, Centro Superior de Investigaciones Científicas, Zaragoza, 1950.
- : *Actes et Mémoires du Troisième Congrès International de Toponymie et d'Anthroponymie*, Salamanca, 1951.
- : *Actes de 2e. Congrès International d'Études Pyrénéennes*, Toulouse, 1952.
- : *Actes et Mémoires du Cinquième Congrès International de Toponymie et d'Anthroponymie*, Salamanca, 1958.
- : *Actas del III Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos*, Centro Superior de Investigaciones Científicas, Madril, 1962.
- : *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco. Diccionario enciclopédico vasco* (22 liburuki), Auñamendi, Donostia, 1968-2003.
- : *Actas del VII Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos*, La Seo d'Urgell, 1974.
- : *Catálogo monumental de Navarra* (9 liburuki), Príncipe de Viana-Nafarroako artzapezpikutegia-Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea, 1980-1997.
- : *La formación de Álava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982)* (3 liburuki: I-Ponentziak, II-III-Komunikazioak), Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1984-1985.

—: *Gran enciclopedia navarra* (11 liburuki), Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea, 1990.

—: *Catálogo monumental* (Araba, 7 liburuki), Vital Kutxa Fundazioa, Gasteiz, 1967-1995.

ZUBIAUR CARREÑO, Francisco Javier: «Toponimia de San Martín de Unx (Navarra)» *in* CEEN, 9 (1977), 415-462.

—: «Toponimia de San Martín de Unx según los amojonamientos de la villa en el siglo XVI» *in* CEEN, 29 (1978), 255-271.

ZUMALDE IGARTUA, Irune: *Colección documental del archivo municipal de Oñati* (2 liburuki), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994-1999.

ZUMARRAGA Y LARREA, José Luis: *Euskalerriko karta (1932-1936)*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia, 1983.

ARAUTEGI ETA BARNE-ERREGELETARAKO ONARTUTAKO ALDAKETAK

Lehendabizi, zeintzuk artikulu aldatu beharko liratekeen ikusi eta onartu dira Argomaizen, XIV. Barne-Jardunaldietan. Madrilen, Hezkuntza Ministerioan tramitatu behar baitira aldaaketok, beharrezko diren bakanak aldatzekoaren alde agertu dira euskaltzainak, «erreforma partziala», alegia.

3, 6, 17, 22 eta 33. artikuluak aldatzea onartu da, euskaltzainen adin eta egoeraren ondorioak soluzio bidean jartzeko, Erakundearen lanerako euskaltzainen benetakoa kopuru «aktiboa», gutxienez 24koa izan dadin.

Euskaltzain emerituak sortzea, onartu da maiatzaren 27an Argomaizen egindako batzarrean, horren berridazketa ekaineko bilkuran berretsiz.

6 eta 13. artikuluak aldatzeaz ez zuen inork oharrik egin, argi zegoelako nonbait lehengo garaian idazkariordetza eta kudeaketa esku berberean zeudelako eta, orain, bi arduradun desberdinen artean banatuta.

Ondorioz, Arautegiaren eta Barne-Erregelen testuak honela onartu dira.

Bilbon, 2005.eko ekainaren 23an.

Jose Luis Lizundia Askondo, Lege azpibatzaordeko idazkari eta ponentea.

I. Arautegia

3. Artikulua	Zenbat euskaltzain
--------------	--------------------

Indarrean zegoena

Hogeita lau euskaltzain osoz, euskaltzain urgazlez eta euskaltzain ohorezkoz osatua da Euskaltzaindia. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoentzat ez da muga jakinik.

Argomaizen onetsia

Hogeita lau euskaltzain osoz, euskaltzain emerituz, euskaltzain urgazlez eta euskaltzain ohorezkoz osatua da Euskaltzaindia. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoentzat ez da muga jakinik.

4. Bis artikulua**Euskaltzain emerituen izaera****Argomaizen onetsia**

Euskaltzain emeritu mailara, ezintasunagatik edo adinagatik euskaltzain oso direnak pasatuko dira. Emerituek euskaltzain osoaren kideko maila gordeko dute. Barne Erregeletan garatuko dira euskaltzain emerituekiko xehetasunak.

6. Artikulua**Idazkariordea eta kudeatzailea****Indarrean zegoena**

Idazkari ordezeko bat ere izenda daiteke, alogeraz ordaindua. Hau ez da euskaltzain osoa izango.

Argomaizen onetsia

Idazkariorde eta kudeatzaile bat izenda daitezke, alogeraz ordainduak. Hauek ez dira euskaltzain osoak izango.

13. Artikulua**Idazkariordearen zereginak****Indarrean zegoena**

Idazkariordeari dagokio:

- a) Idazkaria falta denean, haren lanak egitea.
- b) Euskaltzaindiaren etxean zeregin arrunten arta izatea.
- c) Bulego arazoak aitzinatzea, euskaltzainburu, buruorde, idazkari, diruzain edo bibliotekariaren oniritziak, gaiak nola diren.
- d) Euskaltzainburuaren aginduz, joan den batzarreko akta eta heldu deneko deia, erabiliko diren gaien zerrendaz, batzarkide guztiei bidaltzea.
- e) Ordezkaritzetako lanak koordinatzen idazkariari laguntzea.

Argomaizen onetsia

Idazkariordeari dagokio:

- Idazkaria falta denean, haren lanak egitea.
- Bulego arazoak aitzinatzea, euskaltzainburu edota idazkariaren oniritzi-az, gaiak nola diren.
- Euskaltzainburuaren aginduz, joan den batzarretako akta eta heldu deneko deia, erabiliko diren gaien zerrendaz, batzarkide guztiei bidaltzea.
- Ordezkaritzetako eta lan-taldeen lanak koordinatzen idazkariari laguntzea.

13. Bis artikulua

Kudeatzailearen zereginak

Argomaizen onetsia

Kudeatzaileari dagokio:

- Diruzaina falta denean, haren lanak egitea.
- Bulego arazoak aitzinatzea, euskaltzainburu edota diruzainaren oniritzi-az, gaiak nola diren.
- Euskaltzaindiaren etxeetan zeregin arruntan arta izatea eta langileen ardurakudeatzea.
- Ordezkaritzetako eta lan-taldeetako langileen ardura laborala kudeatzea.

17. Artikulua

Batzar arruntak eta bereziak

Indarrean zegoena

Erakundearen bilkurak ohikoak eta ohiz kanpokoak izango dira, barrengoak eta agerikoak. Hilabete oro, ahal dela, ohiko barrengo bilkura bat egingo da, eta euskaltzain oso guztiak joatera behartuak daude, eta joaterik ez baldin badute, ezin etorria agertu behar dute.

Argomaizen onetsia

Erakundearen batzarrak ohikoak eta ohiz kanpokoak izango dira, barrengoak eta agerikoak. Hilabete oro, ahal dela, ohiko barrengo batzar bat egingo da, euskaltzain oso guztiak joatera behartuak daude, eta joaterik ez baldin badute, ezin etorria agertu behar dute. Euskaltzain emerituak ez daude ohiko barrengo batzarretara joatera behartuak. Artikulu honen zehaztapena Barne Erregeletan garatuko da.

22. Artikulua	Ezin etorrian (bozketa ahalmena)
----------------------	---

Indarrean zegoena

Batzarrera ez etortzeko arrazoi taxuzkoa duten euskaltzain osoek beren botoa idatziz nahiz beste euskaltzain oso baten bidez (hartarako ahala honi emanez) igor dezakete. Iritziak berdin agertzen badira, euskaltzainburuak izanen du azken hitza.

Argomaizen onetsia

Batzarretara ez etortzeko arrazoi taxuzkoa duten euskaltzain osoek beren botoa idatziz edo beste euskaltzain oso baten bidez (hartarako ahala honi emanez) igor dezakete. Euskaltzain emerituek ezin dezakete bozketa ahalmen hori erabil. Iritziak berdin agertzen badira, euskaltzainburuak izanen du azken hitza.

33. Artikulua	Euskaltzain osoen hutsunea
----------------------	-----------------------------------

Indarrean zegoena

Euskaltzain osoen hutsuneak ohiko bilkuran jakinaraz bitez, eta hutsuneok hornitzeko proposamenak horren hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira.

Argomaizen onetsia

Euskaltzain oso baten heriotzagatik, edota ezintasun ala adinagatik emeritu mailara pasatu delako, euskaltzain osoen hutsuneak gertatzen direnean ohiko batzarrean jakinaraz bitez, eta hutsuneok hornitzeko proposamenak horren hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira.

II. Barne-Erregelak

Arautegian egindako aldaketetatik eratortzen diren aldaketak egin behar dira Barne-Erregeletan.

3. Artikulua	Zenbat euskaltzain
---------------------	---------------------------

Indarrean zegoena

Arautegiaren hirugarren artikulua dioenez, hogeita lau euskaltzain osoz, eta euskaltzain urgazleez eta euskaltzain ohorezkoez osatua da Euskaltzaindia.

Argomaizen onetsia

Arautegiaren hirugarren artikulua dioenez, euskaltzain osoez, euskaltzain emerituez, euskaltzain urgazleez eta euskaltzain ohorezkoez osatua da Euskaltzaindia. Euskaltzain osoak hogeita lau izango dira. Emerituak, ordea, gehienez, haren bat, zortzi izan daitezke.

4. Bis artikulua	Euskaltzain emerituak
-------------------------	------------------------------

Argomaizen onetsia

Euskaltzain emerituak dira:

- Hirurogeita hamabost urte bete dituztenak;
- Hirurogeita hamar urte bete dituztenak eta, bere borondatez, emeritu iza-tea erabaki dutenak;
- Bere burua euskaltzain osoari dagozkion eginkizunak betetzeko ezindurik ikusten badu eta, idatziz hala adierazita, osoko bilkurak, gehiengo osoz, onartzen badu.

6. Bis artikulua	Euskaltzain emerituen eskubideak
-------------------------	---

Argomaizen onetsia

- Euskaltzain emerituek euskaltzain osoen eskubide guztiak gordetzen dituzte, baina ez dute erakunde ardura betebeharririk.
- Euskaltzain emerituek osoko bilkuretan, nahiz batzordeetakoetan parte hartzeko eskubidea dute, ahots eta botoarekin, halaber Euskaltzaindiaren *Iker* edota *Jagon* Sailerako egitasmoetan.
- Euskaltzain emerituek erakundearen karguetarako hautagai eta hautesle izan daitezke, baina ahala inori ezin diete eman.

13. Bis artikulua	Bulego arazozen aitzinatzea
--------------------------	------------------------------------

Argomaizen onetsia

Arautegiaren 13. eta 13. bis artikuluen arabera, ahal delarik, aste oro, bulego arazoak aitzinatzeko eta eskuarteko gai arrunten zama arintzeko, euskaltzainburua, idazkaria eta diruzaina, idazkariordearekin eta kudeatzailearekin bil daitezke.

19. Artikulua	Idazkariorde eta kudeatzailea
----------------------	--------------------------------------

Indarrean zegoena

Zuzendaritzaren bileretan idazkariordeak parte hartuko du.

Argomaizen onetsia

Zuzendaritzaren bileretan idazkariordeak eta kudeatzaileak, botorik gabe, parte hartuko dute.

Xedapen gehigarria

Euskaltzaindiak bere barne ibilbidean gizon eta andreen berdintasunerako politikak sustatuko ditu.

Azken xedapenak

1. Arautegi eta Barne-Erregelen eraldaketa hau indarrean jarriko da Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu eta biharamunean.
2. Arautegia eta Barne-Erregelak indarrean jarri eta lehen osoko bilkuran, 75 urte bete dituzten euskaltzain osoak emeritu egoerara igaroko dira jaiotze dataren arabera.
3. Arautegia eta Barne-Erregelak indarrean jarri eta lehen urtean, gehienez, lau euskaltzain oso berri izendatu ahal izango dira, euskaltzain oso batzuk emeritu egoerara igarotzearen ondorioz.

Epe honen ostean, urte bakoitzeko, gehienez ere, bi euskaltzain oso berri izendatu ahal izango da, euskaltzain osoak emeritu egoerara igarotzearen ondorioz.

4. Quorum ondorioetarako, honako artikulua eransten zaie Barne-Erregelei:

59.bis. Arautegi eta Barne-Erregelen ondorioetarako, quorum eta gehiengoak, betiere, euskaltzain oso eta bilerara bertaratu diren euskaltzain emerituen kopurua zenbatuta egingo da.

XIV. BARNE-JARDUNALDIEN KRONIKA

*Pello Telleria,
idazkariordea*

Euskaltzaindiak, Argomaizko Paradorean (Araban) egin ditu bere XIV. Barne-Jardunaldiak 2005eko maiatzaren 27an eta 28an, hileko osoko batzarra maiatzaren 26 arratsaldean egin ondoren. Euskaltzain oso hauek izan dira jardunaldi horietan, denbora osoz edo partez: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, *Iker* sailburua; Andres Iñigo, *Jagon* sailburua eta Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Emile Larre, Pello Salaburu, Ibon Sarasola eta Piarres Xarritton euskaltzainak.

Aurreikusitako egitarauari jarraituz gertatu dira gauzak, eta horrela, maiatzaren 27 goizean Andres Urrutia euskaltzainburuak eman die hasiera Barne-Jardunaldiei, Euskaltzaindiaren oraingo egoera azalduz eta aurrean dauden erronkak eta hobetu beharreko arloak zeintzuk diren adieraziz.

Ondoren, Barne-Jardunaldiek izan duten gairik garrantzitsuenari heldu zaio: Arautegi eta Barne Erregelen aldaketa. Bi aukera eskaintzen ziren: batean, euskaltzain osoen kopurua handitzea eta, bestean, euskaltzain emeritoak sortzea, nolabait horien ordezkioak-edo izango liratekeen euskaltzain osoak hautatuz, beti ere gehienezko kopuru batean. Bi aukera horien artean, euskaltzain emeritoak sortzea onartu da, aho batez.

Beñat Oihartzabal buruordeak, gero, Euskaltzaindia Frantziako legedian nola txertatuta dagoen azaldu du, horretarako prestatu duen txostena banatu eta irakurri. Europar Batasunaren garapenak Euskaltzaindiaren zerikusia izan dezakeela ere aipatu da.

Henrike Knörr *Iker* sailburuak txostena irakurri du Euskaltzaindiaren argitalpen-politikaz, batez ere irizpide argiakoak eta eraginkorrakoak ezartzea proposatuz.

Ordu bat eta erdietan bazkaltzeko etena egin da, eta arratsaldeko lauretan berriro Barne-Jardunaldiei ekin zaie.



Arratsaldeko lehen saioan, Pello Salaburuk Euskal Gramatika Orokorren egitasmoa aurkeztu du txostena irakurritz, «Euskal Gramatika orotarikoa» izenekoa. Gaiak dituen zenbait arlo ukituz euskaltzain batzuek parte hartu dute eztabaidan: egitasmoaren finantzabidea, gramatika moderno eta tradizionalaren arteko oreka, egitasmoen zuzendariak bere agin hartu beharko dituzten erantzukizunak eta gramatikari buruzko egitasmo horretan fonetika ere sartzeaz, besteak beste. Ongi ikusi da proiektu akademiko hau eta erantzukizunaren eta finantzabidearen zehazpena Zuzendaritzaren eta batzordeburuaren eskuetan geratu da.

Bigarren egitasmoa Ibon Sarasolak aurkeztu du, Hiztegegintzari dagokion egitasmoa. «Euskara-euskara hiztegia» egiteko proiektua aurkeztu du, hau da, Hiztegi Batuko lehen itzuliko hitz-zerrendei mamia jartzea, horretarako oinarri eta adibide-iturri gisa OHEa aztertu eta egokituz. Behin hiztegia amaitu eta gero, Euskaltzaindiak eman beharko dio onespina, batzorde baten bitartez; onarpen hori emateko, batzordeño bat sortzeaz ere hitz egin da. Ontzat eman da proiektua, eta erantzukizun eta finantzabideez Euskal Gramatika Orokorre-rako esandakoak berak balioko du hemen ere

Arratsaldean aurkeztu den azken egitasmoa «Euskal Corpus Onomastikoa» izenekoa izan da, A. Iñigo Onomastika batzordeburuaren eskutik. A. Iñigok lan honen garrantzia azpimarratu du, egitasmo hau gauzatzeak Euskaltzaindiari euskarri sendoagoa eskainiko baitio toponimiaz egiten zaizkion galderei behar den ziurtasunaz erantzun ahal izateko. Proiektua ontzat eman da.

Eguneko saioa iluntzeko 19:45ean bukatu da. Biharamunean, maiatzaren 28an, goizeko 8:30etan, ekin zaio bilkurari berriz. X. Kintana idazkariak eta P. Telleria idazkariordeak «Egindakoen eta eginkizunen txosten orokorra» ize-neko txostena aurkeztu dute, txostenaren alderdi nagusiak aipatuz. Txostenean, Euskaltzaindiko egitasmo eta batzordeek 2003an eta 2004an egin dituzten lanen berri ematen da. Ondoren, zenbait euskaltzainek hitz egin dute, gai hauek ukituz: txostena osatzeko iradokizunak; sistema informatikoa eta Atlas-a; Euskaltzaindiak bultzatu beharko lukeen argitalpen-politika eta Euskaltzaindiak irizpen-eskabideei erantzuteaz, besteak beste.

Azkenik, izendapenak egin dira. Lehenik, ordezkariak izendatu dira, eta ondoren, batzordeburuak eta idazkariak. Batzordekideak izendatzea hurrengo batzarrerako utzi da.

XIV. Barne-Jardunaldiak maiatzaren 28ko goizeko 10:40ean amaitu dira. Jardunaldi hauei buruzko informazio zehatzagoa Barne-Jardunaldi hauen batzar agirian aurki daiteke.

JOAN PEREZ LAZARRAGA (1550-1605)
IDAZLEAREN IV. MENDEURRENA:
1605-2005

Barrundia haraneko Udaletxea, 2005-V-28



Andres Urrutia Badiola euskaltzainburua eta José Felix Uriarte Uriarte Barrundiako alkateak atsegin handiz gonbidatzen zaituzte, Joan Perez Lazarragaren IV. Mendeurrena dela eta, 2005eko maiatzaren 28an, eguerdiko 12:30etan, Barrundiako Udaletxean, Ozeta herrian (Araba) egingo den ekitaldira. Hona hemen egitaraua:

- Barrundiako Alkatearen ongietorria.
- Euskaltzainburuaren hitzak.
- Juan Vidal-Abarca, Historiaren Erret Akademiako kidea: "La familia Lazarraga en la Llanada Alavesa".
- Xabier Kintana, idazkaria: "Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak".
- Henrike Knörr, Iker sailburua: "Joan Perez de Lazarragaren genealogia-izkribuak: zenbait ohar".
- Larreako Alkatearen hitzak.

Ondoren, Lazarragaren omenezko plaka jarriko da Larrean.

Erantzutea eskatzen da: 94 415 81 55.

D. Andres Urrutia Badiola, presidente de Euskaltzaindia y D. José Felix Uriarte Uriarte, alcalde de Barrundia tienen el honor de invitar a Vd. a la sesión pública que, con motivo del IV Centenario de la muerte de Joan Perez de Lazarraga, se celebrará el sábado 28 de mayo de 2005, a las 12.30 del mediodía, en el Ayuntamiento de Barrundia, en la localidad de Ozaeta (Álava), según el siguiente programa:

- Bienvenida del Sr. Alcalde de Barrundia.
- Palabras del Presidente de Euskaltzaindia.
- D. Juan Vidal-Abarca, miembro correspondiente de la Real Academia de la Historia: "La familia Lazarraga en la Llanada Alavesa".
- D. Xabier Kintana, secretario de Euskaltzaindia: "Buenas nuevas del viejo y joven poeta Lazarraga".
- D. Henrike Knörr, director de la Sección de Investigación de Euskaltzaindia: "Observaciones sobre la genealogía escrita por Juan Perez de Lazarraga".
- Palabras del Sr. Alcalde de Larrea.

A continuación se descubrirá, en Larrea, una lápida conmemorativa del escritor.

Se ruega contestación: 94 415 81 55.

JOAN PEREZ LAZARRAGARREN IV. MENDEURRENA

*Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Sr. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Barrundia /
Barrundiako Alkate jauna,
Excelentísimo Sr. Diputado Foral de Cultura de Álava /
Arabako Foru Aldundiaren Kultura diputatua,
Sr. Presidente Junta Administrativa de Larrea,
Autoridades / Agintariok,
Jaun-andreok / Señoras y señores,

Como Presidente de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, quiero en primer lugar agradecer al alcalde y al pueblo del Ayuntamiento de Barrundia por la acogida que nos da a la hora de celebrar, como colofón de las Jornadas de reflexión interna que hemos realizado estos dos últimos días en Argomaniz, este acto de homenaje a Joan Perez Lazarraga, natural de Larrea y autor en lengua vasca, conocido a través del reciente descubrimiento y publicación de sus textos.

Textos que, justo es decirlo, han dormido un sueño de siglos hasta su localización y publicación. Lo mismo podrá decirse seguramente de otros que aun no siendo hoy del dominio público, puedan resultar de importancia capital para la lengua vasca y en los que nuestra Academia, huelga decirlo, tiene un gran interés.

* * *

Euskaltzaindiak omenezko ekitaldi hau antolatu du, bertoko Udalarekin batera, uste baitu Joan Perez Lazarragaren merezimenduak zinez harrigarriak direla. Hartara, haren bidez jakin dugu euskaldunok Araban ere badugula gure Errenazimendu garaiko idazle ezagunen parekoa; orobat, euskara bera idatzizko moldeetan ez zela batere arrotz Euskal Herriko jende ikasien artean. Gaur aztertuko dira, hona bildu diren zenbait adituren iritziz, haren euskal ezaugarriak: zer-nolakoak zituen idaztankera eta gaiak; nongoak jatorria eta senideak.

Hitz batez esateko, euskararen aitaPontekoa dugu Arabako herrialdean Joan Perez Lazarraga. Harena ohoratzea eta aztertzea dugu orain eginkizun. Horra Euskaltzaindiaren ekarria, gaur zuen aurrean ageiraraziko duena.

Mila esker.

LA FAMILIA LAZÁRRAGA EN LA LLANADA ALAVESA

*Joan Vidal-Abarca,
Historiaren Erret Akademiako kidea /
Miembro de la Real Academia de la Historia*

Los Lazárraga constituyen la típica familia vasca que alcanzó su máximo esplendor con los Reyes Católicos, no llegando sino a rozar los estamentos más importantes de la época, iglesia, milicia y administración, en una época en la que otras familias llegaron a lo más alto de la escala social, consolidando su posición con títulos nobiliarios.

Originarios de Oñate, los Lazárraga fueron hombres de confianza de los Guevara, condes de Oñate, y por esta razón pasaron a Álava, a la zona de la Llanada oriental, donde tenían la casa solar y el castillo de Guevara, y otros bienes y preeminencias.

El primer Lazárraga que pasó a Álava, Pedro Pérez de Lazárraga, ayo de D. Pedro y D. Iñigo Guevara durante su minoría de edad junto con su madre D^a Constanza de Ayala. Por ello fue nombrado alcalde mayor y gobernador de la casa y estados de Guevara. Vivió a mediados del siglo XV, y fue él quien hizo las casas principales en la Plaza de San Miguel de Oñate en 1433, en terrenos que le había dado la propia condesa de Oñate. Fue él quien compró y reedificó las torres de Larrea en 1439 y también el palacio quitapechos. También fundó la capilla de San Francisco y Santo Domingo en San Miguel de Oñate y otra en San Millán de Larrea, en la que fundó una capellanía de misa diaria, junto con su mujer Teresa Gómez de Berganzo.

Tuvo de su matrimonio con Teresa Gómez de Berganzo siete hijos, tres de ellos llamados Juan: Juan Pérez, Juan López y Juan Ibáñez.

Juan Pérez se estableció en Larrínzar.

Juan López heredó una de las torres de Larrea, y acabó avecindado en Zaldueño al heredar el palacio de Lecea Lazárraga.

Juan Ibáñez permaneció en Oñate.

Otros hijos fueron Pedro López, padre del sin duda más importante personaje de la familia, que fue Juan López de Lazárraga, contador de los Reyes

Católicos, y testamentario de la Reina Isabel que no tuvo sucesión y fundó el convento de la Santísima Trinidad de Vidaurreta de Oñate, cuyo patronato estuvo siempre en la familia.

Otro hijo fue Gómez Pérez, que continuó como su padre siendo el hombre de confianza de los condes de Oñate, por lo que vivió inicialmente en Ameyugo y después en Larrea, bisabuelo de nuestro Juan Pérez de Lazárraga a quien hoy homenajeamos.

Otro hijo fue Iñigo abad de Lazárraga, que fue sacerdote, párroco de San Miguel de Oñate.

La única hija fue María Pérez de Lazárraga, que casó Rodrigo Ochoa de Amézaga y Lecea, y ambos hicieron el palacio de Lecea Lazárraga de Zalduendo, que por matrimonio pasó a la rama del citado Juan López que por eso se estableció en Zalduendo.

Todos tuvieron abundante descendencia, que se propagó por toda la llamada, y hubo Lazárragas en muchos pueblos, e incluso en Vitoria y especialmente en Salvatierra.

Como no podía ser menos, aparecen a mediados del siglo XVI otros Lazárraga en Larrea y en Heredia, imposibles de entroncar con la familia troncal, y que estaría originada en hijos naturales o bastardos de miembros de la misma. El caso es que varias ramas de estos Lazárragas se han mantenido hasta la actualidad, y son ellas las que han conseguido que se mantenga el apellido y no se extinga, como ocurrió con todas las ramas de la familia troncal, que tuvieron finales y destinos muy dispares.

Concretamente la rama de Larrea, acabó en una familia apellidada Díaz de Arcaya, oriunda de Matauco, que se estableció en Venezuela, en la ciudad de Coro, y fueron sus miembros los que heredaron una de las torres y el palacio quitapechos, y los vendieron allá en el siglo XIX.

Afortunadamente, la presencia de esta familia en diferentes lugares ha quedado constatada por la existencia de escudos de armas que aparecen en diferentes edificaciones casas, capillas, palacios, etc, aunque debemos ser muy cautos a la hora de identificar las armas de los Lazárragas, que consisten en:

un ciervo con la cabeza vuelta hacia atrás que es atacado por un águila que le pica en el lomo, todo sobre un trigal rodeado por un seto.

Aunque puedan parecer unas armas muy peculiares, son también las armas del propio Ayuntamiento de Oñate, y las de varias familias oriundas de esta villa, así tenemos a los Garibay, muy extendidos por la Llanada, con armas en Margarita, a los Olazarán, con armas en Abechucu, los Zuricaray, con armas en la iglesia de San Miguel de Vitoria, que nada tienen que ver con los Lazárraga.

Así mismo, tenemos otras familias apellidadas Lazárraga, en otros lugares, como Orduña, o la Rioja, donde también dejaron huella de sus peculiares armas pero que resultan muy difíciles de entroncar.

Resulta curioso que la rama de Larrea, cuyos miembros hacían ostentación de ser dueños de la torre de Larrea, no dejaron la impronta de su escudo de armas, ni en las torres, ni en el palacio quitapechos.

Sirva esto de homenaje a ese chico de unos 17 años, que estando en Madrid en casa de su tío Juan López de Lazárraga, oficial mayor del secretario Eraso, dueño del mayorazgo de Oñate, pasaba sus ratos de ocio escribiendo ese manuscrito que ha sido descubierto recientemente.

Heredó la torre de Larrea de un tío suyo que no tuvo sucesión, y se fue a vivir a Larrea donde permaneció hasta el resto de sus días, dedicado a la administración de sus bienes. No obstante, su vocación de escritor le impulsó a escribir la genealogía de su familia, aunque más bien se trató de ampliar otro manuscrito genealógico que había escrito otro pariente. Este manuscrito genealógico también ha llegado a nuestros días en varias copias, una de las cuales se ha mantenido en el archivo de la familia Velasco, marqueses del Fresno, por haber casado una hija de nuestro Juan Pérez con Juan de Velasco, cabeza de esta familia, que tenía su palacio en Galarreta.

Seguramente escribió mas cosas pero, como he dicho, la pista de sus descendientes acaba en Venezuela a principios del XIX, por lo que resulta extremadamente difícil. Quizá algún día aparezca algo.

LAZARRAGA POETA ZAHAR GAZTEAREN BERRI ONAK

Xabier Kintana Urtiaga

Señoras y señores, académicos y amigos que habéis venido en este día al homenaje del primer poeta vasco y alavés conocido al sur de los Pirineos, deseo expresaros mis saludos más cordiales a todos, así como mi gratitud por vuestra asistencia.

Para mí constituye un inmenso honor poder dirigiros estas palabras en esta hermosa zona de la Barrundia, la misma que, en vida, Joan Perez de Lazarraga contempló con sus ojos y admiró su por belleza, recorriéndola a pie y a caballo, habida cuenta su noble condición. En cualquier caso, se trata de homenajear a un hijo de esta tierra alavesa que, gracias al gran amor hacia los suyos y a su lengua, ha pasado ya a ocupar un destacado lugar en la Historia de la Literatura Vasca

Muchos de vosotros no habláis ya la lengua en la que vuestro paisano Joan Perez escribió sus versos, por eso vuestra presencia aquí es aún más de agradecer, pues muestra a las claras un interés, un amor y una consideración hacia el euskera como algo propio, como parte de un patrimonio arrebatado por las circunstancias socio-políticas que ahora todos tratáis de recuperar con vuestro esfuerzo, tanto personalmente como en vuestros hijos, nuevos depositarios de la riqueza lingüística de nuestros mayores.

Aunque mi ponencia va a ser en euskara, el idioma de Joan Perez, os la resumiré diciendo que en ella trataré de demostrar que este ilustre alavés, primer poeta vasco de la Vasconia peninsular, no fue un escritor solitario ni cerrado en sí mismo, sino que en él confluyeron diversas fuentes, populares las unas y librescas las otras, entre las que muy posiblemente se encontraba la del bajo navarro Bernard Etxepare, cuya obra, a mi entender, había leído y asimilado nuestro joven Lazarraga. Y digo joven porque, al parecer, su obra, al menos en parte, la compuso cuando aún no había cumplido los 20 años. Para mostrar esas influencias, citaré algunos textos y pasajes de ambos poetas, en los que pueden verse unas coincidencias más que casuales.

En la segunda parte de mi exposición, hablaré de los tratamientos que aparecen en la obra de Lazarraga, es decir, sobre la forma de tutearse y de tra-

tarse con mayor respeto en el euskera de su tiempo en esta comarca, y de las consecuencias prácticas que podemos sacar de ello en la actualidad a la hora de abordar algún problema que presenta la enseñanza y uso de la lengua en este terreno. Eskerrik asko.

* * *

Arabako eta Hego Euskal Herri osoko lehen poeta ezagun honen omenaldira etorri zareten jaun andre guztioi, agur eta eskerrik asko gurekin ego-teagatik.

Ohore paregabea dut, non eta hemen, Barrundiko eskualde zoragarri hotnetan, bizi zelarik Joan Perez Lazarragakoak bere begiekin ikusi, goraipatu eta bere oinekin eta –noblea zela kontuan izanda–, agian zaldi gainean zapaldu zituen toki ederrotan, haren gomutaz, jada Euskal Literaturaren historian betiko eta ahantzezinek geldituko zaigunaz, hitz batzuk esatea.

Bibliak aspaldian esan zigunez, profetak ez dira eskuarki ongi hartuak izaten beren herrian. Gaur hemen Ozaetan dakusagunak, ordea, esaera zaharrak inoiz edo behin okertzen direla erakusten digu. Izan ere, herritar askotxo etorri zarete gaur Barrundiko seme ospetsu honen omenaldira, eta horrek garbi frogatzen du gure arabar herkide hori, duela lauren urte alde egin bazigun ere, oraindik bizirik dagoela guztion gogo-bihotzetan. Bere seme-alaba gogoangarriak ohoratzen dituen herriak aldi berean bere burua ohoratzen omen du, eta beraz, Lazarragaren omenaldi hau haren eta guztion ohorerako ere bada, Euskal Herriak bere haurrak ez dituela ahanzten erakusten du eta.

Nik bezain ongi dakizuenetz, Joan Perez Lazarragaren eskutik oraintsu usetekabeen euskaraz heldu zaizkigun ehun orrialde mamitsu horietan altxor ugari eta askotarikoak gordetzen dira, bai literatura aldetik eta bai hizkuntza aldetik ere (1). Ustekeria hutsa litzateke, beraz, saio labur batean aberastasun

(1) Lexiko aldetik, garai hartako erdarakada askorekin batera, obra honek badauzka orain arte beste inon aurkitu ez diren hitz ezezagun eta bitxi asko ere, arretaz bildu eta azterteko hapaxak. Inoiz, gainera, geroagoko idazle eta euskalariek aurreikusiriko forma harrigarriak ere erakusten dizkigu, horien susmoak egiaztatuz. Hor dago, esaterako, Olabide jesuita arabarrak bere *Itun Berria*-ren pasarte famatu bat itzultzeko erabili zuen *bentzu* «entzun beza» adizkera ospetsua (*Entzuteko belarridunak bentzu* Mat 13, 43), garaikide guztiek berak lehenbiziko aldiz asmatutzat jotzen zutena, orain Larreakoaren poema batean berretsia: *bentzu munduak ene deadarra* 1185 v. Gauza bera gertatzen da Rudolf de Rijk-en bilatzen zituen lehen eta bigarren pertsonako pasiboen kasuan ere, honako hau: *Ama libbreaganic jaio ninçan / dicharic ez nebenau alabea / dirurren saldu ninçan esclabea* 1181 v. eder hau lekuko, edota autore berberak bere «Nunc» *vasconice* artikulua bikainean proposatzen zuen *biharretziak* forma ere, beraren ustez «sería aceptable en estilo poético» gisa iragarria, eta Lazarragak ahalaxe ekarria: *biarreçiac urrean datoz* 1172 r. Holandar hizkuntzalari handiak poz berretua zukeen *oraindo* (1196 v) eta *oraingaño* (1196 r) adizlagunak gure autore honen obran ere aurkitzen direla jakin balu. Halere, inoiz, irakurketa lasterregiak ezustekoren bat ere ekar diezagukete. Esaterako, norbaitek transkribatu duen «*Bataz esango neuque doloreac / baco chic nenbilela yllunetan / dulçero nituala biderquetan / çugana quexaac eta clamoreac / arrtu nenguianeac coloreac / çure amorearren penaçeco...*» 1193 r

horiek guztiok jorratu eta bildu nahi izatea. Hortaz, neure gaurko lantxo honetan bi puntu xume ukituko ditut, besterik ez, gaurko ekitaldirako, horiek aski eta sobera direlakoan. Larrea dorreko jaunak utziriko harrobi emankorrari, beraz, gainetiko urratu txikia egingo diot, barruan dauzkan mea sakonagoak erauzten saiatu gabe.

ITURRIEN ARAZOA

Eskuratu dugun koadernoan, anitz orrialdetan idatzia eta berridatzia ageri delako, lehen soaldian palipsesto nahasi xamarra irudi dakigukeen arren, edozein irakurle ohartu berehala kontura daiteke obra hori, hizkuntzaz eta idazkeraz aski landua dela. Maiz txistukarien ondoan agertzen diren gortzeak eta sandhi kasuren batzuk kenduta, guztiak hizkuntza mintzatuan aspaldian finkatuak (*aberaspategaz, çuzpirioxe garrazpi* ‘zuzpiriotxo garratz bi’, *ezta faltaco, ezpadaquie, eztau, eztot equingo faltaric, orrela gura doçunazquero, ezta-cust, nic ichico eçteuçut, ylteninçan* ‘hiltzen nintzen’, *oy nitaucatat* ‘nik daukat’, *nipere* ‘nik bere’, *bpere* ‘bat bere’, ...) eskuarki hitzen forma kanonikoak oso ondo gordetzen ditu, horiek berba egitean izaten dituzten aldaera fonetikoak bazterturik (*ez çabilç, ez dot entendimenturic, ez doçu errazoaric...*), txistukarien ondoan leherkari hostunak hoskabetzen direlako fenomenoaz konturatuta, inoiz superzuzenketak ere egiteraino heldurik, *gusdo* (1148 r), *cortesdo* (1170v) edo *gente noblez da* (=»eta») *lenguageaz* (1169 v) beza-lako grafiak, itxura osoz faltsuak, eskainiz.

Bestetik, oso ardura handiz transkribatzen ditu bokal luzeak (*erdeeraaz-co, çaar, içaatea, cateea, beera...*) eta igurzkariak eta afrikatuak grafiaz bereizten ez dituen arren, ondo kontuan izaten zituen horien artikulazio-puntua. gaurko z eta tz beti ç (inoiz c) edo z (*çer, doçu, eçin, eçer, deustaçu, gauça, yçan, çara, çaoz, abuztu, ez, leguez, laztana / çeinçuc, oçitu, erioçea, bioça...*), eta oraingo s eta ts-rako beti s (inoiz ß: *ygaro ninçan baßoti*, 1170 v) edo ss utzirik (*esan, asco, beste, osoric, solas, eusquel erria / aseguin, esea, losa, asecaaba, ychi neusan, ysaso, diracasudan...*). Sabaikariak, aldiz beti x eta ch (*nax, gox, gaxto, dozenaxe, baxe, exilic, congoxadu, choria, guchi, anchinaco, ychi...*). Horrek guztiorrek, bistan denez, aurretik, hizkuntzaren inguruko gogoeta sakona eskatzen du. Baina gogoeta hori latinenaren edota jadanik izkribu-tradizio luzea zeukaten beste erdaren kasuan idazten ikasteen bertan egiten bazen, zailagoa dirudi, orain arte uste genuenaren araber, eskuarki idazten ez zen hizkuntza batean, hots, gurean bat-batean eta norbere kautatik egitea.

horretan ez dirudi lehenbiziko aldiz Larramendiren hiztegian agertu eta gaur, euskal irakaskuntzari esker guztiok ezagutzen dugun *bidertu* aditza ageri zaigunik, Lazarragak iraganetik gugana jauzi harrigarri egin balu bezala, *bidalquetan* (< *bidaldu*) baizik.

Eta euskaraz ia deus idazten ez zelako iritzia, ez da soilki, ondoko mendeetakook izan dugun informazio txar edo eskasaren ondorioa izan. Aski dugu, adibidez, Etxepareren liburuaren aitzinsolasa gogoratzea, hark ere, bere garaian gauza bera uste zuela konturatzeko: *ceren bascoac baitira abil animos eta gentil eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan lettratu handiric miraz nago iauna nola batere ezten assaiatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra eguitera eta scributan imeitera ceren ladin publicu mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn scribatzeco hon dela*. Urte batzuk geroago, 1571an, Joanes Leizarraga protestanteak antzeko zerbait ziotson bere Testamentu Berriaren hitzaurrean Joana Albret erreginari: *nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetatic eta diuersenetaric: eta oraino, translationetan behinçat, vsatu gabea*.

Ildo berean eta oraintsu arte, luzaroegi pentsatu da, gure lehen idazle gehienak elizgizonak izan zirela, euskarak predikazioan mantentzen zuen egoera ofiziosoagatik horiek baitziren euskaraz trebeenak. Izan ere, Julio Urkixok *Los Refranes vascos de Sauguis-en* hitzaurrean (2) 1596.eko *Refranes y Sentencias* bildumako 273. esaera zaharraz, *Gaçean, gaçean, ta ez Ybarguengorean* ‘De la sal, de la sal pero no de la de Ybarguen’ delakoaz, emandako azalpenaren haritik, uste genuen Herriko handikiek, behekoekin mintzatzeko euskaraz nahitaez jakin behar izan arren, beren artean eskuarki erdaraz hitz egiten zutela, eta Etxepareren mezenas izandako Bernard Lehete edo Andres Poza, Esteban Garibai eta Baltasar Etxabe moduko apologista laikoak edo Arnaut Oihenarte historialaria, izan, erregela orokor hori berresten zuten salbuespenak besterik ez zirela.

Egia da Mitxelenak berak inoiz, zeharka bederen, antzinako euskal literatura idatziaren ustezko tradizio sekularraren susmoa egin zuela Ibargüen-Cachopinen kronikan agertzen diren bertsoak bestelako grafiaz letraldatuak zirela ohartaraztean, egileak iturri zaharragoren batetik kopiatuak balitu bezala (3). Baina edonola ere, Joan Perez Lazarragakoaren obra honek erabat bestelakatu du garai hartako sekularrez euskara kontuan genuen iritzia. Horregatik, agian arreta handiagoz irakurri beharko genituzke Rafael Mikoleta

(2) Honela argitzen du Urkixok esaera hori jatorriz erdaraz esan behar izan zela, Lope Garcia de Salazarren *Las Bienandanzas e Fortunas-en* 22. liburuko pasarte hau erantsiz: «En el año del Señor de 1330 años, convidaron los Escuderos de Iburguen a comer a Juan Roys Zaldivar, fijo de Ruy Sanches de Zaldivar, con quince omes, en la Torre de Iburguen. E quando se sentaron a comer, pidieron Sal, sal, e salieron de una camara cinquenta omes que yasian escondidos, e mataron al dicho Juan Roys de Zaldivar, e a todos los quince omes. E quedo por refrán, que quando uno pide sal, que disen, no sea lo (sic) de Iburguen».

En el mismo lugar indiqué también, que, a mi juicio, el refrán citado debió decirse primero en castellano y traducirse luego al vascuence: pues la doble significación de la palabra sal permite en la primera de estas lenguas un equívoco –o como dirían los franceses, un *callembour*– imposible de traducir a la segunda. Julio de URQUIJO e IBARRA: *Refranero Vasco. Los Refranes y Sentencias de 1596*. Tomo II, Colección Auñamendi, Donostia, 1967.75-76. orr.

bilbotarrak bere *Modo Breve de aprender la lengua vizcayna*-ren bertsogintza atalean dioskuzan berbak, bere garaian omen ziren euskaldun poeten garrantzia gutxietsi gabe (4).

Ez dugu ahanzi behar, gainera, berberak aitoritzen digunez, guregana heldu diren lanak idatzi zituenean, Joan Perezek ez zituela oraindik hogeitaz (erruqui nauçu neure aideac / çegaiti nax ni gaztea / oy orainganno ez nax ni eldu / oy bada oguei urtean...1196 r) eta datu horrek, bere bakarrean ere, aski izan beharko luke idazle honez zenbait galdera eragiteko. Lehenengo eta behin, non eta nola ikasi zuen euskaraz idazten? Eta bigarrenik, nolako ereduak izan zituen kontuan bere lehen idazlanok moldatzeko orduan?

Gauza jakina da irakurtzea eta idaztea ez direla jarduera teorikoak, erabat praktikoa eta aplikatuak baizik. Jendeak holako edo halako hizkuntza konprentziaren gainean ikasten du irakurtzen eta idazten, ama-hizkuntzaz izkiriatzeko, eskuarki, Euskal Herrian hori oraintsu arte hain ohikoa izan ez bada ere. Behin hizkuntza batean irakurtzen eta idazten ikasi eta gero, ez da hortik segitzen mintzaira horretan ikasirikoa, besterik gabe, besteetara ere automatikoki proiektatu daitekeela, batez ere bi hizkuntza horien egiturak oso ezberdinak direnean. Ondorioz, gure artean oraindik sarritan ikusten dugunez, litekeena da pertsona bat hizkuntza arrotz batean alfabetaturik egotea baina berean bi lerro idatzi edota irakurtzeko gai ez izatea. Idazteko eta irakurtzeko zaletasuna, gainera, eskola bidez ongienik menderatu den hizkuntzan izaten dugu guztiok, eta areago hizkuntza hori literatura jori eta atseginaz ongi hornitua baldin bada.

Hemendik atera nahi dudana, zuetariko askok jadanik susmatzen duzue-nez, hauxe da: aztertu beharreko kontua litzatekeela Lazarraga gazteari nork irakatsi zion euskaraz irakurtzen eta idazten, eta irakurtzeko ere, zer nolako testuak –eskuizkribuak noski– erabili zituen. Galdera egiten dut, denboraz eta jakituriaz ni baino hornituagoei erronka eginez, ea horren erantzunak noizbait argitzen gaituen. Edonola ere, gogora dezagun XVI-XVII. mendeetan ospe handiko euskaldun eskribauak izan genituela, bai eta Joan Itziarkoa bezalako kaligrafo bikainak ere.

(3) Conviene también anteponer al comentario alguna observación sobre el estado del texto en un sentido general. Se diría que quien incluyó los cantares en el ms. los copió de alguna fuente escrita anterior, guardando al menos en buena parte la grafía antigua. ç, p. ej. es letra frecuente en los cantares, pero falta en el relato del sangriento suceso que constituye el cuerpo de esas páginas. Luis MICHELENA, *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid, 1964, 84 or.

(4) *También algunos modernos del Parnaso Cantabrico han escrito dezimas, lyras y sone- tos en vasquenze, con los mismos acentos y consonantes que suelen tener en romance, pero es obra de poco luzimiento, por los pocos en en vasquenze entienden este metro.* Zoritzarrez Parnaso horretako kideen izenak eta lanak ez zaizkigu heldu. Halere, talde horretan sartu beharko litzateke, inon kokatzekotan, 1688ean idatzi ziren Bertso bizkaitarren egilea ere. Ikus Joseba Andoni LAKARRA, «Bertso Bizkaitarrak», *Separata del Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» XVIII – 2*, 1984.

Joan Perezen gurasoak haren hezkuntzaz arduratu baziren, gazteak lehenbiziko pausoak etxean bertan egingo zituen segur aski, senide letraturen batekin edo agian apaizen batekin. Bere familiaren genealogian Lazarragak bere inguruko eskribau batzuen izenak aipatzen ditu: Juan Ruiz de Larrea, egindako faltsukeria bategatik galeretara kondenatua, eta Bautista de Larrea «*que llaman el papudo, escribano en Argomaniz*» (5), garaikideak biak, eta beharbada, gaztearen hezkuntzaz ardura izandakoak. Bere senide, auzokide eta zirikatzailer Esteban de Garibairen antzera, oso litekeena da goi ikasketak Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean egitea, eta agian hortik heldu zen euskaltzale bion elkar ezagutzea (6). Bere jatorrizko euskaraz gainera, hezkuntzaz gaztelania eta latina ere bazekizkien, garai hartan handiki batengan espero izatekoa zenez, eta bere erdarazko poemen artean badu bat zeinetan Ciceronen mintzairan aldizka lerro batzuk ezartzen dituen, ortografia gehiegi zaintzeke, egia esan: *tentaçiones graviores....quibus yn bita rresisto....me parentes tradiderunt...que ni pro nunmis bendiderunt....ynterr çeteros dolores/ me magis bulneraberunt....imamus pedes clavaberunt 1170 r.*

Irakurgaitzat erabili zein erabili ez, kontua da herri-kopla behintzat biziki maite zituela Joan gazteak, eta era horretako bertsoak maiz tartekatzen dituela bere poemen artean. Bereziki aipatzekoa iruditzen zait lehenbiziko lerroetan naturatik irudiak hartzeko joera (*Haltzak ez dü bihotzik / ez gaztanberak hezürrik* gisa) hurrengo lerroetan giza gertaera batekin konparatzeko (ez nian uste erraiten ziela / aitonen semek gezürrik). Horrela, arabarraren eskuizkribuan *Urtan eder arria / aen gañean choria. / Amorantian lequidanari / atera neio beguiac* koplaxo hau irakurtzen dugu (1165r), lehen zatia Orixeren *Euskaldunak* poeman ere, pixka bat aldaturik, aipatua, herri-poesiaren klixet moduan (7). Era berean, gure herri poesiaren baliabide estetiko batzuk, aurreko lerroaren errepikapen adierazkorak adibidez, ez dira falta gure poetaren obra honetan:

(5) Genealogia berean, Joan Perez Lazarragak aita 1564ean galdu zuela aitortzen digu, hots, orain arduratzen gaituen obratxo hau burutu baino lehentxoago, egilea oraindik nerabea zelarik. Horrek azal lezake zergatik, bera ezkondu nahi zutenak, gurasoak barik, «ahaide handiak» ziren, hark poema batean dioskunez: *Aide andioc bidaldu deustae / escreviduric cartea / ezcondu gura nindueuela / ene gogoco tristeia / oy eta bardin onela bada / andia jatorrt caltea / çegaiti bein ezconduzquero / galdu dot libertadea....Ene aideac oy arren au da / neuronen respuestea / acordatan ez dodala / ain lasterr ezconquetea* (1195v-1196 v). Genealogiarako Ikus Maria COMAS Ros, *Juan López de Lazarraga y el Monasterio de Bidaurreta*, ed. Descartes, Barcelona, 1936, 129-150. orr.

(6) Ikus, honetaz Pruden GARTZIA: «Larrea Burgos baino hobea, Toledoren kidea (I eta II)», in *Berria*, 2004.eko apirilaren 8 eta 9an. Garibaik zalantzarik gabe Lazarragatik irriz aipatzen duen esaera zahar horretarako, gogoratzekoa da poetak berak idatzirikoa hau: «*Oy bada biçi oy nax / (c)udadecho chiquirr batean / (n)eurcheau bacar bacarric / (e)ne yçena letra onetan (=Lazarragaren monograma) / oy dago escreviduric*» 1177 r.

(7) *Askan eder garia / aren gaiñean txoria / eraztun batek bildu lezake / neskatxa, zure gerria* Gabon-kanten artean. Adibide gehiagorako. Ikus Xabier KINTANA, «Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan» in *Fontes Linguae Vasconum*, XXXVI. urtea, 97. zkia. 2004.eko irail-abendua, 582. or.

Mundu guztian orain ez dago
guiçon contentuagoric
oyta nola ni orain nagoan
çeruco jaunac guraric.
Çazpigarren ylabetea
urteje (= urtexe «urtetxo») onau sarturic
yru egun cunplidu baga
oy setienbrec emunic
çeña çan egun aleguerea
ene laztanac guraric
ene laztanac guraric eta
neurc ala trabajaduric.
Amore poderoso jauna
asco deusut esquerric
çu serbiçeco ez jat faltaco
secula borondateric.
Denpora baten lotu ninduçon
catea fortiz batequin,
jaun çerucoa alabadu çe
orain banago librerice (8).
Donzellacho bat ecusi neben
lindea parebagaric
oy neure bioz amorosoau
ydogui çidan bertati
neuregaz neben libertadea
eroan çidan berequin.1181 r

Bestalde, badirudi garai hartan bazirela Euskal Herrian zehar esaera to-piko jadanik finkatu eta oso zabalduak, ***Itsaso hondargabea***, adibidez, Lazarragak inoiz erabilia, hurrengo mendean Axularrek, bere «*Baina zertarako sartzen naiz ni itsas hondar gabe hunetan?*» (9) famatuan bezala, edota «***muger arrizco*** bioça bano / gogorragoa çuc doçu» 1146 r, Axularren aipatzen duen «***harri-muger***» gogorraren kidea, bai eta aditz sintetiko bereziaz poesian fin-katuriko esaera batzuk ere: Etxepareren *Ezconduyen coplac* poeman agertzen den «*Nic nahyen dudanian bercech bessoon daraça*», Lazarragak gutxienez bi aldiz errepikatua: «*aldi bat çeure besoan naraçaçu*» (1186 r) «*alcar daraçagula besoetan*» (1186 v). Mendebaldeko poesia epikoan eta Bizkaiko galanteriazko poesian behin eta berriro azaltzen diren esaera batzuk (10) ahanzteke.

(8) Bertso honek antz bitxia dauka beste herri kanta ezagunaren bukaerarekin: *Goiko mendian elurra dago / erreka aldean izotza. Ni zugandik libre nago ta / pozik daukat bihotza.*

(9) Bere liburuaren aureko aldean Bertran Etxaus-ri egindako Gomendiozko gutunean agertua. Horrez gainera badu beste bat: *Eta itsas hondar gabe hunetan sartzen naizela* 226. Cf. Lazarragaren pasarte hauekin: *...gauça sacona bide da yçan / ysaso ondarbagea... 1196 v., ...ondo uste dot galdu çala / ysasoaren ondarretan 1197 r.*

Mendebaldeko tradizio zaharrekoak dira, gainera, *Ene aragioc ycara da-bilz...1153 v eta ... jentea negar eguitez / ycara jabilt/ lau laurenoc bildurrez, arren nançuçu / jaun çerucoaen amorez / conta deçadan / pasio santua dolo-rez 1203 v modukoak Martin Bañez Artazubiagakoaren 1464 aldeko hiletat-eresiaren oihartzun garbiak: Oñetaco lur au jabilt icara / lau aragioc vere an verala (11).*

Erdarazko iturriei dagokienez, Jose Antonio Arana-Martija euskaltzaina berehala ohartu zenez, obraren prosazko zatia Jorge de Montemayor portu-galdarraren *Diana* artzain-eleberriaren nolabaiteko imitazioa da. Garbi dago poeta gazteak gogoz irakurtzen zituela garai hartako erdal literatur lanak ere. Pasarte batean gainera, *La bella mal maridada*-ren aipamena dakarkigu, Jon Kortazarrek eta Patri Urkizuk seinlatu dutenez, eta honela garai hartan gaztelaniaz, frantsesez eta portugesez izen horrekin bertso-papereran idatziriko erromantzeetan korritzen zen estereotipo ezaguna bereganatu zuen (12). Mende horretako idazlan askoren antzera, badaki tarteka *locus amoenus* topiko famatuaren ukitu laburrak egiten: *lauoc batera nor bere ardioaquin joaçela to-padu çirean yturri fresco baten aldean nun guztiaç alcarr eçauturic berva eguin eusaen...1152 r, bigarren egunean çerbait janda loac artu çituan arbo-le fresco baçuen azpian...», esan eusaen nola emazteagaz joan çidin jardin ba-tera...» 1143 v, ...*floresta baten erditi. Jarri guinean berbaetan / rosale ba-ten parean...1183 r*, horiek ere, zalantzarik gabe, haren erdal irakurketen ondorioak izanik (13). Ez da falta, bestalde, *carpe diem* topikoaren etsenplu-rik ere: *Jauna çaoça gueldiric / basoan neurau bacarric nago / çe beguit agra-vioric. / Ene laztana ezin neyque /nic orrelaco gauçaric / culpa andia eçarri leydae / eyça galdu banegui...1172 r.**

Ene helburuetarako daukan garrantziagatik beherago aipatuko dudan pa-sarte baten amaieran, gainera, egileak mitologiako pertsonaia batzuk aipatzen ditu: Medea eta Jason (14). Aurreko esaldiak bere obrari buruzkoak direnez, dirudienetik, perpaus hau ere autoreak egindako beste poema bati dagokio. Pertsonaia hauekiko zati horiek, ordea, ez dira agertzen guregana heldu den

(10) Adibidez, konpara bitez Mikoletak bere irakasbidean dakarren bertso honen hasiera: *Dempora baten on oyneretxu / baña mudatu nindia / serren penatan vior ekidan / eman sengui-dan gloria*. Lazarragaren beste honekin: *Denpora baten yçan ninçan / amore minez tentadua / don-zella batec edegui çidan / oy neure bioz coytadua*. (1193 v).

(11) Ikus Luis MICHELENA, *Textos arcaicos vascos*, Ed. Minotauro, Madrid, 1964, 91. or.

(12) Ikus Jon KORTAZAR «Ene içena letra onetan» *El País*, País Vasco, 2004.eko mar-txoaren 7an, 11. or, eta Patri URKIZU, *Joan Perez de Lazarraga, Dianeac & Koplak*, Erein, Do-nostia, 41-42. orr.

(13) Erdal iturrietatik jasoriko lexikoak, *rosale* moduko erdakada nabarmenak barne, ez dio eragozten bere euskal sena azaleratzen, eta horrela *fresko* izenondoa *iturri* zein *arbole* izenekin darabillkigu, gaztelaniaz bata femeninoa eta bestea maskulinoa direla kontuan hartu gabe.

(14) Ikus 1200 v orrialdeko oharren azken aldean dakarren zati nahasi hau: *En la copla «A fojas» dize encantadora Medeaç bano denpora baten Jasoni beronec bere eztei dio falta gueia-go damari tenpora baten oy bano Jasonec ysorgileri...*

testuan, eta, beraz, gure oraingo eskuizkribuaren hasierako 1138 orrialdera heldu arte galduriko (?) zatian zirela pentsatu beharko. Gai klasiko horiek, konterbatu zaigun pasarteetan agertzen den Marte jainkoa bezala (15), edota Erdi Aroko imaginariumean hain jorratuak izan ziren beste gai batzuk –neskatxa baten aurrean mantsotzen ei den adarbakarra edota kumeak bere odolaz elikatzen omen dituen pelikanoa adibidez– agian latinezko irakurketetatik jasotak zituen, baina bera izan zen, zalantzarik gabe, euskal literaturan horiek txertatu zizkigun lehenbizikoa (16).

Halere kanpoko eragin ukaezin horiez landa, badu, ene aburuz, Arabako poetak ukitu gertuagorik. Aurreko batean, prentsara presaka egindako adierazpen batzuetan Etxepareren nolabaiteko zantzoa susmatu uste nion. Hura intuiziozko zerbait zen, baina oraingoan, autore bien testuak patxada handixea goaz arakatu eta gero, susmo horiek hobeki finkatzen ahaleginduko, edo nahiago baduzue, ausartuko natzaizue.

Honetan sakondu baino lehen, ordea, beharrezkoa deritzot kontsiderazio batzuk egiteari. Alde batetik, Joan Perez Lazarraga euskaltzale eta bertsozalea zen. Bestetik, Etxepareren obra ere bertsoz osatua zen, eta arabarraren lana baino 22 urtetsu lehenago zegoen argitaraturik. Euskaraz ari zen bertsozale baten kasuan, pentsatzekoa da, pertsona ikasia eta landua izanik, haren berri izan zezakeela, Larreatik Garazirainoko distantzia, muga gora behera, hemendik Toledo edo Madrilerainokoa baino txikiagoa baita, izan. Ezin ahanztz dezakegu, horrez gainera, senide batzuk eskribauak zituela, hots, letra-gizonak, eta beraz liburuzale, eta halakoen artean ezin iragan zitekeen Etxepareren lehen euskal obra hura hotsik atera gabe, are gutxiago, ematen duenez, euskaltzaleak izanik. Gainera, familiaren aldetik noblea izanda, bazituen, hala nahi izanez gero behintzat, liburu hura eskuratzeko bitartekorik nahiko, bai dirutan eta bai iparraldetik obra hura ekarrazteko harreman pertsonaletan ere.

Ez dugu ahanztzi behar, bestalde, aita Gamarraren 1648an idatzi zuen Arantzazuko Ama Birjinaren historia zaharrean, L. Villasantek lehenbiziko aldiz 1966an argitaratuan, hauxe esaten zaigula: ... *y como todas estas cossas son tan savidas, y conocidas es notable la gran devocion, que con esta santa Imagen tienen en todos estos Reynos, principalmente en los de Castilla, Navarra, y Provincias de Guipuzcoa, Vizcaya, y Alaba. Y no es menos la devoción, que tienen los del Reyno de Francia, pues de mas de veinte leguas de la tierra adentro viene todos los años muchissima gente en romeria, assi honbres como mugeres..... y suelen ser los concursos de mucha gente, que tal vez se an visto mas de dos mil personas de Francia juntas.* Gauza berak diosku

(15) *Çuec jaquingo doçu eçe ni bidaldu nabela batalla eta guerrataco jaicoac ceñari de-rechan marte...*1153 v.

(16) *uniçornio animal fortiz / animaloen artean / naturalezaz umillaçen da / damaric dasusenean* 1184 v. *Pelicanooc amorioz / umeac daguianeon / bere odolaz manteniçen dau / guztiaç açi artean* 1184 v.

Epifanio Pinagak ere: *Los peregrinos que acudían al Santuario eran incontables. En las fiestas principales llegaban «a dos y tres mil» no sólo de Guipúzcoa, Vizcaya Alava y Navarra, sino también de Castilla y de Francia. En el siglo XVIII el número ordinario de peregrinos oscilaba anualmente entre veinticinco y treinta mil.* (17). Hor garbi ageri da jende uholdeak zetozela iparraldetik Lazarragaren bizilekuaren ondora, eta beraz, haiekiko tratua erabat posiblea zela. Nork jakin, gainera, Pruden Gartzia susmatzen duenez, errores horien artean, bere eliztiarren artzain gisa, ez ote zen Etxepare bera ere inoiz Arantzazuraino heldu, bere liburuan ama birjinari egiten dizkion gorai-pamenak agian Arantzazukoari zuzenduak izanik!

Bada, ordea, beste datu bat Lazarragak iparraldeko euskaldunekin harremanak izan zituela frogatzen diguna. Bere familiaren genealogiaz idatzi zuen memorian, Larreako dorretxearen fundazioaz datu interesgarri bat eskaintzen digu, toki horren jabetza norengandik eta Nafarroako Eneko Aresta erregearen emaitza batetik zetorrela frogatu nahirik. Hartarako, Teofilo de la Torre izeneko jaunagana jo zuen, beronek ustezko dokumentu zahar baten kopia egin ziezaion, Eneko erregeak 871. urtean haren asaba bati Larrea ematen ziola erakusten omen zuena. Teofilo de la Torre horrez haxe diosku: *señor que hoy es de dicho palacio de la Torre en (zuriz) a trece leguas de Pamplona*; Egia da aipamen horrek ez digula argitzen jauregia ipar ala hegoaldean zetzan, baina aski argigarria da geroago jaun berberaz eransten duen hau: *Dios le alumbre y le reduzca a la Sta. fe católica amen*. Bistan da, hortaz, protestante edo judu batez ari zela, eta gauza jakina da garai hartan behintzat erlijio horietakoek ez zutela Nafarroa Garaian bizitzetik. Beraz, Nafarroa Behereko jaun higanot edo judu bat zatekeen hura, eta aipatzen duen distantzia gogoan izanda, gaurko 70-73 kilometro, eta, Frantziako muga 65 bat kilometrotara zegoela jakinda, Teofilo hori segur aski Donibane Garazin bizi zitekeen.

Hortaz, Lazarragak, Arantzazuko errromesen joan-etorriez gainera, interesatzen zitzaizkion gauzetarako, beste bide batzuetik ere izan zitzakeen harremanak ipar euskaldunekin, bai eta, bere genealogien liburuan aitortzen duenez, haiei idatzi eta mezulariak opari garestiekin bidaltzeko ere: *y procuré los medios que me parecieron convenientes, en el dicho Capitán* [berau zen Lazarragari Teofilo de la Torrek dokumentu horren originala zeukala jakinarazi ziona] *para los aver en mi poder, el qual escribió juntio con lo que yo le escribí en 11 del dicho mes de Agº de 1593; y enviando con ellos a Francisco de Quía, soldado, le recibieron marido y muger con muchas caricias y le dieron respuesta en uno con los dichos privilegios, y el ofreció, según me dixo, al dicho teófilo de la Torre un buen azar* [azor ira-

(17) Ikus Luis VILLASANTE-ren *Historia de Aranzazu*, Gasteiz, 1966, 80. or. Ikus, halaber, Epifanio PINAGAREN *Resumen histórico del santuario y convento de Ntra. Sra. de Aránzazu*, Ed. Franciscaca Aránzazu, 1954, 21-22. orr.

kurri behar da, zalantzarik gabe] *de mi parte porque diz que mostró mucho deseo del* (18).

Egia da, Trentoko kontzilioaz gero, dirudienez, elizgizonek gai mundutarragiez idazteko debekuak Etxepareren obraren ale gehienak sutara eraman bide zituela, eta orduko komunikabideak ere ez zirela gaurkoak bezain azkarak, baina halere, ez zait arrazoi sendoegirik bururatzten, bai Oihenartek, bai Martinez de Isastik eta bai Larramendik hurrengo mendeetan haren ale bana lortu bazuten, Larreakoak ere, haiek baino lehenago, berea zergatik ezin zezakeen erdiets pentsatzeko, nafarraren obra jadanik bi hamarkada lehenago argitaratua zela kontuan izanda.

Zalantzarik gabe, Etxepareren obra esku artean erabili zuela jakiteko modurik erabakigarriena Lazarragaren beraren aitortpena litzateke. Baina hori ez daukagu, Montemayor edo beste iturriena ere egiten ez duen bezalaxe, egileari hori aipatzea bururatu ez zitzaiolako edota, beharbada, Trento ondoko giro hurbil hartan badaezpadako liburuak irakurria zela aitortzeak eliz agintariengandik ondorio larriak ekar diezazkiokeelako, Inkisiziopeko Espainia hartan (19). Beraz, Etxepareren ustezko iturria frogatzeko era bakarra eskribu biak elkarrekin parekatzea besterik ez zaigu gelditzen.

Halere, ondo kontuan eduki behar dugu Etxepareren euskara eta Lazarragarena, gaurko mendealdeko eta Nafarroa Behereko euskalkiak baino hurbilago egon arren, bazutela alde ez txikia, bai lexikoan, bai adizkeretan eta baita syntaxian ere. Hori dela eta, garbi dago Lazarragak, bere ingurukoek ulertua izatea nahi bazuen, ezin txerta zitzakeela beti bere poemetan Etxepareren obran irakurritako pasarteak hitzez hitz, bere euskalkiko ordainezko berbekin baizik. Hortaz, ondoren jarriko ditudan zatiak baldintza horrekin epaitu beharko dira, neurri batean behintzat.

Kidetasunak, oro har, bostetarikoak dira: 1) gaien aukera, 2) gaiak tratatzeko modua, 3) Etxepareren hitz eta esaldi bereziak, egokiturik, beste bertso eta testuinguruetan tartekatzea, 4) errima-motak eta, kasu batzuetan, 5) bertsoen ordena ere bai. Aurki daitezkeen guztiak agortzeko inolako asmorik gabe, erakuts ditzadan bederen, horietako batzuk, errazago konparatzeko, elkarren ondoan bi zutabetan eta letra beltzez nabarmenduak.

(18) Ikus Maria COMAS ROS, *Juan Lopez de Lazarraga y el Monasterio de Bidaurreta*, Ed. Descartes, Barcelona, 1936, 92-93. orr.

(19) Ikus adibidez, 1198 r orrialdeko erlijiozko euskal poemaren aurrean egileak, badaezpada zuhurki jarritako oharra: *Aquí comienza un tratado de lo que verdaderamente aconteçera antes y el día del termeroso juicio y el galardón y premio que los buenos y los malos an de rresçevir segun sus obras conpuesto por Laçarraga sometido al gremio y corresçion de la Sancta Madre Iglesia arrimado a la ffe y al mejor juicio*.

AITZINSOLASA

Hasteko, oroit gaitezen da Etxeparek bere liburuaren hitzaurrea Bernard Lehete abokatuari eskaini ziola, mezenas honek lana ikusi eta nahi zuen era-ra zuzendurik argitara ziezaion:

*Eta ceren oray çuc, iauna, noble eta naturazcoac beçala, baytuçu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuscara, çuri, neure iaun eta iabia beçala, igorten darauritzut heuscarazco **copbla batzu, ene ignoranciaren araura** eguinac. Ceren iauna, **haiec iqhussiric eta corregiturik plazer duçun beçala**, irudi baçautzu, imprimi eraci diçaçun.*

Lazarragak ere badu beste testu bat, gaztelaniaz, hitzez zein mamiaz goikoarekin antz harrigarria daukana:

*Porque a este librico a de andar por el mundo a donde aunque aya muchas personas que entiendan mejor que yo lo sabre dezirlo en el contenido abra hartos que thernan deseo de los saber me paresçio no ser cosa superflua al cabo desta hobrezilla dalle a entender a los tales **subjetandome en todo a los doctos y discretos para que suplan y corrijan mi ignorancia** quiero dezir que ban en **halgunas coplas** algunas autoridades y nombres castellanos ansi metricos como prosaicos las cuales aunque como arriba dygo ay muchos que las entenderan abra tanbien hartos que no estaran en quenta de lo que por ellas o en ellas quiero dezir por no aver leydo la ystoria y origen dellas y en lo que toca a lo significado dellas digo. (1200 v)*

JUDIZIO JENERALA

Joan Perezen obra gehiena maitasunezko poemez osatua izan arren, badauzka, Etxeparerenak bezala, erlijiozko bertsoak ere, eta horietako batzuk, behenafarrak ukituriko gai berberari buruzkoak. Autore biak, adibidez, azken eguneko judizio jeneralaz ari ziren.

Patri Urkizu ere konturatu da Etxepareren eta Lazarragaren arteko gaikidetaz. Halere, azken buruko iturria Mat 25, 37ko pasartearen izanik ere, ez dirudi Joanes Leizarragaren 1571ko euskal itzulpena, hitzez hitz, beste lan horiekin zuzenki konparatzekoa denik, Berazkoizkoarena beste autore horien obrak baino beranduago eman zelako argitara. Halere, Bibliaren pasartearen azaltzen den gai hori bi autoreon bertsoetako kontakizunarekin zehatzago erkatuz gero, badirudi Lazarragak ez zituela bere narratzailearen soilik kontuan hartu ebanjelariak kontatzen dituen xehetasunak, baina bai, aldiz, Etxeparek bere bertsoetan dakartzan beste elementu gehigarri batzuk, Biblian bereziki ageri ez direnak. Hona:

Leizarraga:

*Ecen **gosse** ičan naiz eta eztrautaçue eman iatera: **egarri** ičan naiz, eta eztrautaçue eman edatera: arrotz nincen, eta eznauçue recibitu, **billuci**, eta eznauçue veztitu: eri eta presoindegian, eta eznauçue visitatu. Mat, 26, 42-43*

Etxepare

Gure artian haur dacussat ixutarçun handia
Nola dugun cerbiçacen hanbat gure exaya
Iangoycoa **desconozi gure saluaçalia**
Eta oroc eçaguçen dela **videgabia**.

Beqhatoren contra date orduyan mundu gucia
Ceren **duten ofenditu hayen creaçalia**
Ordu hartan ixilic dauque triste veqhatoria
Orotaric cerraturic daude paussu guciac

Icussiric **anhicetan beharrian pobria**
Eri **gosse** egarria eta buluzcorria
Ene ycenian anhicetan galdeguinic limosna
Çuyec vqhen baytuçuye heçaz guti ansia.

Bay erhoqui **conplacitu ene contra exaya**
Demonio haragüia bay etare munduya
Oray dela çuyendaco maradicionia
Ifernuco suya eta iagoytico nequia
Eta çuyen conpaynia demonio gucia

Lazarraga

Eguiten dogu **delito bat**
Gutziz yndolerablea
Andiro **ofendietan dogu**
Guztioen criadorea

Onegaz **enojaetan dogu**
Guc **aren magestadea**
Alborotadu daroagu
Virtuosooen baquea
1159 v

.....
çinbat joaçen
ebili pobre munduan
goseac ylic
oçac bere bay canpuan
oy çuetara joan joaçen orduan
limosna esque
jaungoicoaren contuan
çuec oegaz
oy contu guichi orduan
orain çaoça gumuta deçun lecuhan
çelacoac
egon doaçen moduan
utra gaxtoto
biçi çinean munduan
ataidea
ez çeucala contuan
ene gauçaric
ez çeucala buruan
beti ceonçen
Satanasequin jocuan
Pensamentuoc
Yfini бага çeruan 1199 v

MAITASUNEZKO BERTSOAK

Ondoren maitasunezko bertsoetako adibide batzuk erakutsiko ditut. Ideia eta hitzen arteko antz nabarmenez gainera, ez dut uste kasualitatetzat jo behar dugunik kidetasun formal eta tematiko batzuk bi autoreon bilduman, elkaturik, multzo berean, kokaturik egotea. Horrela Etxepareren bertsoetako elementu eta atal batzuk behin eta berriro tartekaturik agertzen dira Lazarragaren poemetan ere, trataera maiz ezberdina eta inoiz alderantzizkoa ere izan arren.

Benedica fortuna! Ala encontre hona!
Oray beguietan dicit desiracen nuyena.
(Amorez errequeritzea)

Oray eguyn duçu nahi duçuna
Eman darautaçü ahalgüeyçuna
Maradicacen dut neure fortuna
Ceren gin vaynendin egun çugana
(Amorosen disputa)

Haraycinacoric duçu errana:
Vci daçanorrec escuyan duyena
Nahi duyenian eztuqueyela,
Hiçak hari bira, dugun eguyna.
(Amorosen disputa)

Oray porogacen dicit daquitenen errana
Ehorc vci eztaçala escuyetan duyena
Elas yzul albaneça iragan den denbora
Segur oray enyqueci dudan gogoanveharra
(Amorosen partizia)

Bada vci albaynençac ny holacoz yxilic
Horren gayz ciraden guero eguinen dut verceric
(Potaren galdacia)

Ny enuçu ohoyna arrobaçer nyçana
Oray othoy enadila oguen gabe difama.

Enetaco ohoyñ cira ohoyñ ere handi cira
Nic veharren nuyen gauça daramaçü çurequila

Ni ez nuçu jakinxu: clarqui erran eçaçu,
Ehorc unsa adi çiçan nahi valin baduçu
(Amorez errekeritzea)

Alabaçen dot çeruan Jauna
bide dodana eguinic
çegaiti naben çuregaz batu. (1170 v)

Lecu onean topadu gara
Jaun çerucoac guraric
Oy apeadu bear neuque
Badoçu borondateric (1172 r)

Jaun çerucoay emaiten jagot
Oy asco gueraçiaric
Deseo <n>eben ocasio bat
Çerren nagoan jaquinic (1195 r)

Neure buruau erraz daidit
nic dichosaçat edugui
Jentilhonbrea, çegaiti **naxan**
eguin ni çugaz topadiz (1170v)

Nic orain diot ynox ez çala
ypui çarric guçurric
çegaiti **gauça eguinic** ezta
munduan secretochoric (1195 r)

ene laztana ezin neyque
nic orrelaco gauçaric
culpa andia eçarri leydae
eyça galdu banegui
jentil onbrea ez neyqueçu
neure biçian bervaric
oy eta bardin ezpa çe eguit
oy orain ychi libreris
Biarreçiac urrean datoz
Arren betorque ebeti (1172 r)

Al daguidana nic eguingo dot
Ez artu asecaharic
Horrela gura doçun azquero
Ezin neyque besteric (1172 r)

oy ta çegaiti çu erayteco
ni (sic) eztot poderioric.
Poderioa andia doçu
çeruko jaunac emunic
.....
çure berbaoc adietaco
ez dot entendimenturic
claruxeago berva eguiçu
edo çaoça yxilic
ene laztana çure bildur nax
ezin eguin dot bervaric
nic claruago banesaqueçu
oy baneu liçençiaric (1171 r)

Respostuya eman deraut luçamendu gaberic
Cortesiaz hon deriçut nic çuri hay segurqui
 Berceric nitan ezтуqueçu abisacen citut nic
 Gazte çorora **nyçan arren enuqueçu hargatic**
 (Amore gogorraren despita)

Andre eder gentil batez hautatu çayt veguia
 Herri orotan gauça oroz **eztu vere paria**
Othoyce bat baneguyon larradala eguia
 Biderica liçatenez nynzan haren gracion
 (Amore gogorraren despita)

Albanerra eguya, nyc dut pena handia;
secretuqui minça guiten bioc, othoy, maytia»
 (Amorez errequericia)

Secretuqui vehar dicit harequila minçatu
 Ordu hartan iagoyticoz exay ezpa vaquetu
 Nyri vnса ezpadaguit vehardicit pintatu
 Ene buruya ciadaçu harendaco abastu.

Amoria, nor yçan da gure bion artian?
 Muthaturic vaçabilça ia aspaldi handian.
 nic çugana, daquidala, faltatu eztut bician;
bioc behin secretuqui nonbait mynça guitian.
 (Amoros gelosia)

Çuhaur nahi bacirade ni segretu nuqueçu
 Gure arteco amoria ehoerc eziaquiqueçu
Secretuqui minçaceco othoy bide ydaçu
Enequila minçaciaz gayçiç ecin duqueçu
 (Amore gogorraren despita)

Minzaceco çurequila **gau bat** nahi niquezi
Hilabete conplituric hura luça valedi
 Arranguren qhondaceco asti nuyen frangoqui
 Eceyn ere veldur gabe egoyteco çurequi
 (Amorosen partizia)

Gende honac vihoça daut bethi ere nygarrez
 Neure amore chotildua galdududan veldurrez
Gaoaz loric ecin daydit haren gogoan veharrez
 Gogoa vehar handi dicit bethe nuyen adarrez
Iangoycoa edetaçu amoria gogotic
 Eta haren yrudia ene veguietatic....
 (Amoros gelosia)

Erançun çidan utra cortesdo
 beguiac abajaduric (1170 v)

errespuesta emayten çidan
liçala nesca onestua
 ayta amaac liqueoela
 berebiçico afrontua...(1193 r)

Yruraizco hermandandean
 lecu on baten aldeti
 Dama bategaz topadu ninçan
Lindea parebagaric
Berva eguiten asi ninçaçan
 Jarri guinean gueldiric
 Neure biçian ecusi ez dot
 Ayn gauça abisaduric
Forma onetan berva neguiou
 Ez jat ançitu bervaric...(1170 r)

ene lastana solas daigun
gueurcheok bioc bacarric
 Jaun çerucoaen amorearren
 Jauna çaoça gueldiric (1172 r)

Daguigun conbersadu alcarrgaz
çu nigaz confesadu ni çuregaz
 Alcarr daraçagula besoetan (1186 v)

....Eguin eguiçu
 nigaz **orrrdu bacox bat cunplidua**
 çu çara ene beguioen espilua (1186 r)

Ene gau egunoc gucioc dolorez
Loric eçin eguin dot amore minez daco
 Ita dolorez oy ene lastanari alan çayrez
balia daquidala Jauna
 amorez ezpa ilgo naico
 daue rore minez (1171 r)

Amoryac othoy parti guitecen
 Gendiac diradela hassi beqhaicen
 Laydoc hartu gabe gueldi guitecen
Gendec yrrigarri guerta ezquiten.

.....
 Horlaco erançutez vci naçaçu
 Gueldi vacinite nahi nvqueçu
 Gure **echian ohart vadaquizquigu**
 Bioc iagoyticos galdu guituçu

Gendiac so daudia bethi gugana
 Nihaur secretuqui nator çugana
 Çuhaurc daquiqueçu noyz den ayzina
 Neque eçayçula gitia nigana
(Amorosen disputa)

Gayzqui eguin dadinian **gendec sarri daquite**
 Ene gayzqui eguitiaz **enec laydo luqueyte**
 Çu eta ni elgarreequi vnasa ecin guynate
 Çau de yxilic çoz horrat eta hobe baitate
(Amore gogorraren despita)

Munduyan ezta gauçaric hayn eder ez placentic
 Nola emaztia guiçonaren petic buluzgorreric
Besso biac çabal duric dago errendaturic
 Guiçonorrec daquiela harçaz nahi duyenic
(Emazten favore)

Amore bat onhexi dut guciz soberatuqui
 Ene arima eta vihoça **iossi dira harequi**
 Haren yrudi ederrori **veguetan** ehoqui
 Harçaz orhit nadinian vihoza doa ebaqui
(Amorosen partizia)

Iauna guertuz hic daducat (sic) porfidia handia
Ixil endin nahi ni quec ala ene fedia
 Hiz gutitan adi ezac nahi vaduc eguia
 Hiretaco ez diaducat guertuz neure buruya
(Amore gogorraren despita)

gaaçustenac oy ez daguien
pensadu beste gauçaric (1172 r)

errespuesta emayten çidan
 liçala nesca onestua
ayta amaac liqueoela
berebiçico afrontua...(1193 r)

...secula barriz çe besaqueo
 besteren abantajaric
 denporeorrec emun badagui
 ez egon tentaçacuric
çegaiti bera ezta eçingo
oan çabal çabalic
 gabaz egunaz çe beracuscque
 secula cobardiaric
 laztanagana joango bada
 çe beroaque lagunic
 bere **beguiac** oy berabilque
lazzanchoagan josiric... (1182 r)

egun ascotan ni ebili naiz
 ez dot edugui dicharik
 Ene lindea, çu ecusteko
 banago sepultaduric,
Oi arren, jauna, yxilic bego
çe besat orrelacoric (1171 r)

oy eta barriz osteangoan
 arren, **çe beguit burlaric.**
 Ene laztana, ene fedea
ez dot eguiten burlaric (1171 r)

Vici nyçan egunetan vada ecitut vciren
 Nic cer oray nahi vaytut heben duçu eguinen
 Vste diat escuyarqui **eziçala burlacen**
 Guïçon hunec oray nuya heben laydoz veteran
 Eyagora nyc cer daydit çauden yxilic hanbaten
(Potaren galdacia)

Vihocian çauri nuçu eta **gathibatu nuçu**
 Amoretan har naçaçu nic dudana çure duçu
(Amorez errequericia)

Denbora hartan ohi nicin nic çugatic dolore,
 oray aldiz çure faltaz muthatu niz ny ere;
 malenconya ecitela; vaduqheçu amore,
 bana ordu vacinducque cençaceko çuc ere
(Amorosen partizia)

Azken bertso hauen hasieran, gainera, itxura osoaren arabera, euskal herri poesiaren ohiko klixeta zen, Lazarragak berak maiz erabiltzeaz gainera, Mikoletak dakarren bertso batean ere agertzen da eta: *Dempora baten on oy ne-rechu / baya mudatu nindia / serren penatan vior equida / emon sengidan gloria.*

Kasuren batean baserri giroko irudia bera azpimarra genezake, beste hitzez esana:

Alhor hartan hel badaquit ereytera hacia
 eta ene vada ere lastoa eta vihia,
 ez batori ahal duquet, ezetare vercia:
 lan eguinaz esquer gayxto, galdu yrabazia,
 bercerenzat gueldicen da ene çucenbidia;
 aguyan guero alabarequi ezconduko semya.
(Ezkonduyen coplac)

...çugan ereingo dan
ene açia
 ez bildurrtu eze
 ezta gaçia (1173 r)

Eguin doçuna eguiteraco
 ez doçu errazoaric
 çerren nic çuri eman eztiçut
 artaco ocasioric
ez gueiago nic eguin ez dot
çure basoan egurric
 secula barriz nic ez neguian
 oy çure contra bervaric
 (1195 r)

(20) Egia esan, «maitasunezko gatibutasuna» aipatzen digun bertso honek antz handiagoa dauka Lope de Vegak bere *Los ramilletes de Madrid* komedian (1615) dakarren euskarazko herri-bertso ezagunarekin: *Zure vegui ederro<c> / ene laztanâ / cativaturic nave / librea ninzanâ*, eta, segurenik, lehenagoko herri-iturriren batetik jasoa zuketen ideia euskal poeta biok.

Ez dira oso esanguratsuak, Mikoletak berak bere garaian holakoak edo non oso ezagunak omen zirela dioskulako, baina kontua da lelori-lelori bertsoak ere, kasualitatez, poeta bien lanetan agertzen zaizkigula, garai haietako gainerakoetan ez bezala (21).

Etay lelori bay lelo pota franco vercia vego
Andria minça albaycinde verce aldian emiago
(Potaren galdacia)

Etay lelori bailelo leloa çaray leloa
Heuscara da campora eta goacen oro dançara
(Sautrela)

...Ytai lelo y bai lelo
echean aray leloa
damarica dan galantaena
Belagai Butroecoa... (1205 r)

ETXEPAREREN KANTUA

Interesgariak iruditzen zaizkit, bestalde, Lazarragak bere koadernoaren azken aldean dakarren azken judizioaren pasarte batzuk, *Mossen Bernat Etxepare cantuya* delakoarekin aieru bitxia daukatelako. Etxeparek berak kontatzen digunez, Nafarroako erregearen aurrean egin zioten salaketa garbitu nahirik, harengana joan zen, baina izterbegien eraginez faltsuki akusatua izan eta ondorioz Biarnon kartzelaldi latza egin behar izan zuen. Gatibualdi hau egiazkoa eta beldurgarria izan zen, eta ez Hitako Artziprestearena bezala (22), soilki poetikoa, bera preso zegoen bitartean jende batzuek hiltzeko gaztigua pairatzen zuten eta.

Edonola ere, giltzapeko zigor hori bere bekatuengatik bizitza honetan Jainkoak eskaini zion gaztigutzat hartzen du Etxeparek, horrela beste munduko pena ikaragarriagoetarik salbatuko zelakoan. Hori dela eta, erregearekiko pena eta Jainkoaren gaztigua elkarrekin nahasirik azaltzen zaizkigu eta, beraz, litekeena da Joan Perez Lazarragakoak, behenafar apaizaren egiazko gorabeherak zuzenik jakin gabe, edota euskalkien ezberdintasunagatik bertsoen esangura ongi ulertu ez zuelako, kontakizuna zerbait metaforikotzat jo eta bertako elementu horiek bere beste poema baten iturburutzat hartzea. Halere, litekeena da autore gazteak lehen euskal poema liburu hura behin eta berriro irakurria izatea eta, inkontzienteki, haren pasarteak, esaldiak eta elementuak asimilatuz, azkenean bere buruko baliabide-biltegian metatzea, eta idaztean haiek aldizka ia konturatzeke azaleratzea, jatorrizko materialak bere kasa birmoldatuz, jatorrizko testuan esaten zenarekin beti bat etorri ez arren.

(21) *Modo de la vizcayna poesia y sus versos. Dexando a las coplas de lelori, lelori, que suelen cantar las moças de los dias festivos, que no entran en la mas grave poesia vascongada...*

(22) Lazarraga gazteak ere behin bederen maitasunezko kartzelaren kontua dakarkigu: *Ysi jaçun bada seculareco / carçel gogorr onetaco ateac / ay ay ene narru çuri gazteac...* 1182 v, berau ere, noski, erabat fikziozkoa izanez.

Moseen Bernat iaquin vahu gauça nola ginen cen
Bearnora gabetariç egon ahal inçancen

Heldu vehar duyen gauçan ezta escapaceric
Nic oguenic ez nuyela hongu gitez verceric
 Bide gabec haritu nu vide ez nuyen leqhuric
 Erregeri gayzqui saldu guertuz **oguen gaberic**

Iaun erreguec meçu nenzan ioan nenguion bertariç
Gayceç lagola ençun nuyen bana nic ez oguenic
 Izterbeguier eneyen malician leqhuric
 Ioan nendin enaguien oguen gabe ihesic.

Valinetan ioan ezpaninz oguenduru ninçaten
 Ene contra falseria bethi cinhexi çaten
 Iustician ençun vaninz sarri ialgui ninçaten
Haren faltaz hassi nuçu iauguitiaz dolucen.

Vercen gayçaz cençacia çuhurcia handi da
 Yzterbegui duyen oro nitan vedi gaztiga
Abantallan dabilela albayledi segura
Gayça apart egoyztea bethiere hobe da

Iangoycua eguin dicit çure contra beccatu
 Hayez nahi enuçula othoy heben punitu
 Erregueri daquidala nic ezticit faltatu
Ceren egon vehar dudan heben hanbat gatibu

Vatre minic heben eztuc lecot ialgui anhia
 Han direnec bethi die suyan **pena handia**
Pena handi yçigarri eceyn pausu gabia
 Harçaz orhit adi eta duquec paciencia

 Libertatia nola bayta gaucetaco hobena
 Gathibutan egoytia hala pena gaycena
Ny beçala eztadila othoy ehor engana
 Ez etare hiz orotan fida ere guiçona
 Iaygoycua çuc veguira niri ere çucena.

Oy guiçon batec
erregue baleu
enojadu
enojaduta
asco maneraz afrontadu
 ytaunquetan dot
oy leyquean açertadu
atreuimentuz
oy balequio arrimadu
nic ez neyque
al eguiala consejadu
çerren leyque
oyta bertati condenadu

Nai equion nic aren contra
 oy **ez neducan quexaric**
 ez eben gura nic aren causaz
 eguin neguian negarric
 ecusen guero ez neucala
 eçertan bere **bearric**
 bere **crriadu leialaz** nola
 a niçaz acordaduric

 esan dogun au
 arren daygun aclaradu
 jaquin eguiçu
oyta dogula enojadu
jaun çerucoa
 cereren ditugu quebrantadu
 oy mandamentu
 santuac eta traspasadu
 çegaiti dogun
pena andi meresçidu 1198 r,v

SAUTRELA ETA LOA DE LAS DAMAS Y GALANES BASCONGADOS

Itsu izan beharko genuke, Lazarragaren poema honetan, zeinetan bere sor-
 terria, Araba eta Euskal Herria, bi-biak, zein bere izenarekin gorai patzen di-
 tuen, eta Etxeparek bere Kontrapas eta Sautrelan ere agertzen diren laudorio-
 en artean kidetasunik ez ikusteko. Nafarraren kasuan, batez ere, hizkuntzari
 buruzkoak dira eta bigarrenean hirtune zuzenduak, baina Lazarragak ez du
 horregatik hizkuntza ahanzten, Etxeparek ere bere herria, Garazi, herritarrak
 eta, oro har, euskaldunak oro ahanzten ez dituen bezala. Honetan ere, zinez

esan dezakegu gure lehen poeta biok nork bere jaioterria laudatzean, ondo go-goan izan zutela, aldi berean, beren eskualde hori nazio eremu zabalago baten atala besterik ez zela, eta horregatik, euskaldunak oro batak eta Euskal Herri osoa besteak goretsi zuten.

**Garacico herria
benedica dadila.
Heuscarari eman dio
behar duyen thornuya.**

.....
**Bascoac oroc preciatzen
Huescara ez iaquin harren
Oroc iccassiren dute
Oray cer den heuscara (23)**

.....
**Eceyn ere lengoageric
Ez francesa ez berceric
Oray ezta erideyten
Heuscararen pareric
(Contrapas)**

**O heuscara lauda ezac garacico herria
Ceren hantic vqhen baytuc behar duyan thornuya**
Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena
Oray aldiz **içanen iz orotaco lehena**

Heuscaldunac mundu orotan preciatu ziraden
Bana hayen lengoagiaz berce oro burlatzen
Ceren eceyn scripturan erideiten ezipaitzen
Oray dute iccassiren nola gauça hona cen.

Heuscaldun den guiçon oroc alcha beça buruya
Eci huyen lengoagia içanen da floria
Prince eta iaun handiec oroc haren galdia
Scribatus halbalute iqhasteco desira

.....
(Sautrela)

**...ysasoorrec horve guztiaz
beti çagie laudatu
çegaiti doçun eusquel erria
aynbat bentajaz dotadu**
ysasoori tinta balidi
çeru çabala liburu
**oy arabaco abantajaoc
eçin litezque contadu
jende noblea eçin nesaque**
bear deustaçu parcatu
.....
oy gaztelaco erregue jauna
erregiagaz (= «erreginagaz») **ycasu**
çeuere cortean dama ederric
nola bapere ez doçun
çegaiti eusquel errian dira
eder guztioac dotatu
ene bervaoc jende noblea
çe daidiçu pensadu
neure erria alabaçerren
nic ditudala fingidu
bada nic (sic) **bere jaquin eguiçu**
oyta naxala fundadu
oy anchinaco liburuetan
çeñetan ditut eçautu
eusquel erriau oy nola eben
erregue batec pobladu
gente noblez **da languageaz**
çenac eusten aguinu
çeruco Jaunaren fede santua
oy leguiela cunplidu
oy salamonec escribiçen dau
jente noblea jaquiçu
bere biçian oy ez ebela
gente obaric topadu.

Loa de las damas y galanes bascongados
(1169 r-1170 r)

Orain arte aipaturiko kidesan hauek guztiok, guztiak maila berekoak izan ez arren, ene iritziz nahikoak dira gure lehen euskal poeta bion artean egiazko loturak izan zirela era arrazonagarriaz susmatzeko. Badakit norbaitek esan leza-keela badela antz horiek justifikatzeko beste modurik, hots, autore biak hiruga-

(23) Hemen, segur aski, inprenta hutsa dagoke, errimak «oray heuscara cer den» eskatzen baitu.

rrren iturri batetik edanak izatea, edota garai hartan modan zeuden gai orokor berberak biek, nork bere aldetik landuak izatea, hor erdua hartu baina elkarren berri izan gabe. Litekeena da, baina edonola ere, antz formal horietako bakoitzaz gainera, hor dago guztien multzoa bera: kidesetasun horien behin eta berrizko maiztasuna, gai beroriexen aukera eta, inoiz, gaia garatzeko orduan erabiliriko formulak berak ere bai. Kasualitate gehiegi, eta mende haietako beste ezein euskal idazlerengan aurkitzen ez ditugunak. Ondorioz, ene ustez, arrazoi aski pisutsuak ditugu Lazarragak Etxepareren poemen berri zuzena bazuela pentsatzeko.

Lazarragak Etxepare irakurria izateak, bestalde, funtsezko garrantzia dauka euskal literaturaren interpretazio orokorra egiteko orduan. Izan ere, gure literatura maiz aurkeztu izan den era ikusita, irudi luke gure lehenbiziko idazle zaharrak bana-banako frankotiratzaille bakartiak izan zirela, funtsean apaizak, zein bere eskualdeari begira, muga politikoei aldenduak eta elkarren berri izan gabeak. Azken aldion biltzen ari garen datuen arabera, ordea, errealitatea oso bestelakoa izan zela dirudi: laikoak eta handikiak ere euskara lantzeaz interesatzen zirela, hasiera-hasieratik bazirela egiazko harremanak Pirinioen alde bateko eta besteko idazleen artean, bazutela elkarren ezagutzarik eta beren obretan bazela, herri bereko semeak ziren aldetik, beren nazioaren literatura sortu eta lantzeko kontzientzia, banaketa politikoak gora behera. Erran nahi baita, nolabait, bazekitela euskal literatura nazionala moldatzen ari zirela, ez baitzen kasualitatea, Ernazimendu giro hartan, bai Etxeparek eta bai Leizarragak, zeinek bere lanean, nazio hitza, euskaldunei buruz aplikatua, horrelaxe, zehazki, erabiltzea (24).

Gainera, oso esanguratsua da Leizarragaren aipamena «*berce natione gucien artean*» ia-ia Etxepareren hitz berberekin formulatua izatea «*berce natione oroc*», Beraskoizkoak, inoiz susmatu den bezala, Garazikoaren lana irakurria zuela egiaztatuz (25). Lazarragak, bestalde, Etxepareren ildotik, arestian jorratu den bere *Loa de los galanes y damas vascongados* horretan, argi erakusten du bere sorterrria eta jendea goraiatzean zer nolako estimua zion bere nazioari. Gogora dezagun, bidenabar, bera dugula *Euskal Herria* hitza eta kontzeptua lehenbiziko aldiz aipatzen digun lehen euskal idazlea. Merezimendu ez txikia, aldi berean gure nazioaren iparraren eta hegoaren arteko lehen zubitua erakusten digun poeta honentzat.

(24) Etxeparek Bernard Leheteri egindako hitzaurrean: *Eta causa honegatic guelditzen da abataturic ecey reputacione vague eta berce nacione oroc uste dute ecin deus ere scriba dayteyela lengoage hartan nola berce oroc baituite escribatzen beryan*. Gauza bera gertatzen da Leizarragak Joana Albrete Nafarroako erreginari egindako aitzinsolasean ere: *Alabaina segur içanez ecen Heuscaldunac berce natione gucién artean ezgarela hain bassa, non gure lengoagez ecin eçagut eta lauda deçagun gure Iainco Iauna...* . Zalantza izpirik geldi ez dadin, irakur dezagun frantsesezko testua ere: *Toutesfois m'asseurant que les Basques, entre toutes autres nations, n'estoyent point si barbares que de ne pouvoir recognoistre le Seigneur en leur langue...*

(25) Hori pentsarazten digute, behintzat haren hitzek: *nic scribatu dudán lengoage motá baita, sterilenetic eta diversenetic: eta oraino translationetan behinçat, vsatu gabea*. Leizarragak beraz, bazekien euskara bera baino lehenago erabilia zela eta hurbiltasunagatik ezagut zezakeen lehen liburua Etxeparerena zen, Santxo Eltsokoarena haren eskuetaraino heltzeak zailagoa dirudi eta.

Hortaz, XVI. mendean Lazarraga hegoaldekoak Etxepareren lana ezagutzen zuela kontuan izanda, XVII. mendean Oihenarte iparrak hegoaldeko aita Moret historialari nafarrarekin harremanak izan eta eta hegoaldeko atsoitz-biltzaileen lanaz interesaturik zebilela jakinda, Axular hegoaldetarra iparraldeko parrokia baten erretore izan zela, XVIII.ean Joanes Etxeberri Sarakoa hegoalde honetan, Beran, Hondarribian eta Azkoitian mediku ibili zela gogoratuz, hortik aurrerako harreman ezagunagoak ez aipatzeagatik, zinez esan dezakegu gure literaturak hasiera-hasieratik izan duela gaurdaino sekula hautsi ez den batasun-kate etengabea. Hor, noski, Lope Martinez de Isasti edota Manuel Larramendi moduko autoreen lekukotasuna ere aipa genezake, hegoaldekoak izanik ere, nork bere obretan iparraldeko euskal idazleen lanen berri bazutela garbi aitortzen ziguten eta.

LAZARRAGAREN TRATAERAK

Baina bego literatura bere lekuan eta iragan nadin edo, Lazarragari segituz, nairagan orain neure lantxo honen bigarren atalera. Honetan Larreako jaunak elkarriketetan –egiazkoetan zein fiktizioetan– darabiltzan trataerak gaingiroki aztertzen saiatuko naiz.

Funtsean, hegoaldeko gaurko euskararen bezala, bi dira arabarraren trataerak: zuka eta hika.

Lehena, zukako trataera markatu gabe eta kortesiazko moduan erabiltzen du:

*Donzellacho linda damea
flordelisea çara çu.
Ene penea dacusun guero
arren berva bat esaçu».*

.....
*Jentil honbre penadua enegaiti cautibua
çure llantu dolorosooc
emaiten deustae contentua* 1143 r.

*Ene jauna, çer diostaçu
çer dauçaçu bularretan
çaquita bat eben daucat* 1197 r.

Gogoan izan behar da Lazarragaren euskararen, plural zaharreko *zu* izen ordaina jadanik singularra zela, pluralerako forma *zuek* izanik, aldamenean *guez* zeukana, Done Emiliagako glosa zaharretako *guez ajutu ez dugu* hartan bezala edota Zigoitiko euskaraz Azkuek bere garaian oraindik bizirik aurkitu zuenez, eta hor ere Alfonso Irigoienek aztertu zuen fenomeno interesgarria agertzen dela (26). Edonola ere, singularreko zein pluraleko izenordainoi bi-

(26) Ikus Alfonso IRIGOYEN, «Done Miliaga Kukullakoa eta euskara», *Euskera*, XX, 1975, Bilbao, 161-186 orr.

garren pertsonako adizkera berbera zegokien: zu *zara* eta *zuek zara* alegia, ge-roagoko beste autore batzuetan bezala.

Bestalde, hika edo hitanozko trataera norbera baino maila apalagokoekin ohi darabil Lazarragak (artzainekin, soldaduekin, senideen artean, etsaiekin, Kristok Done Petriri...) bai eta senide arteko harremanetan ere:

*Silvia despediduric bere ugaçabaganic ynorc eçautu ez leguiançať quen-du eben bere jaztecoac eta artu eben arçai baten jaztecoac. Eta asi can bere biajea arçæn Silvero joeala equian lecuetati. Egun baten bada bere bideti jo-eala topadu çan arçai bigaz çenai Silviac ytaundu eusten nora lloaçen, çenac erançun eusten manera onetan: Arçai polita (27), **yc jaquingo doc** eçe guec goaçela Dueroco riberara, çegaiti ençun dogu ezen Silvero derechan arçai bat-tec dabela lucha andiac armatu comarcaetako arçai guztiaquin eta dagoala denporea asignadur (sic) egun seigarren eguneco eta ala ene lagunau eta ni goaç ara Silveroren jentilezac ekusterren çegaiti utra manera andian daçauen guztioç alabadu deuscue. Silviac Silveroren yçena ençun equian orduan asi çan negar egiten 1147 r,v*

*Donostiaco San Françiscuan
agoan giçon soldadua
Donçelleoni **eguin jacac**
Yzta ondoan anditua
Nyc lançeteaz **jo diat** eta
Oy **yc eçarroc** emplastua. 1193 r*

*Gau-egunetan beti nago
Esecoaquin deadarrez
Senarr gureak oita nago
Esecoxeoc beti barrez:
Oraingaño gaztea **ax** ta
Urrtexe baten **goza adi**. 36. or. Aur.*

*Traidorea, çerr da onela
çer **eguin deuc** jauregietan
eyz ona
ychi dinat menaetan
igo eguinda
asi adi moçietan
ni banajoa (sic)
salsearen aurrquietan
ez al deustac baldin eguia contaetan 1197 r*

(27) Ohartzekoa da gaur Hegoaldeko euskaldunen artean bederen, seguraski gaztelaniaz «bonito» izenlaguna pertsonekin femeninozko eran emakumeei besterik esaten ez zaienez gero, «gizon polita» edo «gazte polita» gisako esaerak ezohiko bilakatu direla, hortik *guapo* moduko erdarakadetara iraganaraziz. Ez da hori, ordea, Lazarragak pasarte honetan darakuskiguna.

Sar ezac, Peru
gabineteori geldiric
bere lecuan.
Ze eguic beste gauçaric
Armaz inor il daguia[na]c
*armaz **il bearco dic.***
Jan done Periac
ez eguian besteric
sartu eguian gabinetea exilic ...1200-v

Halere, kasu batzuetan, gaur ohikoa izaten den trataeran ez bezala, aita-amek seme-alabei hika eta hauek gurasoei zuka egin beharrean, kasuren batean, zergatik ez dakigula, bada semeari zuka egiten dion aita bat (gaur ere aski normala denez) eta aitari hika egiten dion seme bat ere bai:

baeson aiteac: ene semea
*neuri baño oba **derechudana** (28),*
ebenche biçi da ene laztana, 1154 r (beheko bazterrean)

Semerik badeu, esaten jago
*Aita, **eguidac** jaquea.*
Ari jaquea eguin orduco
alabeorrec gonea.
Oy ainbat dacust laçeria çe
eraetan jat fedea.
Oni aparta al daguiona
dicha oneco semea, 1196r

Ettxeparek egiten zuen bezala, hasieran zuka trataturiko pertsoneri, ordea, hika egiten die horiekin haserretuz gero, lagun horiei nolabaiteko mespretxua adierazteko:

... horrelaco vanitatez nyri segur uztaçu
provehuric ezтуqueçu eta cinhex nazaçu
*Iauna guerthuz **hic daducat** (sic) porfidia handia*
*Ixil **endin** nahi **niquec** ala ene fedia (Amore gogorraren despita)*

*Doridoc utra enojaduric erançun eusan: O falsa traidorea, **quen aquit** neure begietaric, ene desdicheonen causea **i axanazquero**. Zegai[ti] yc Silverori onerechi **baeuso**, Silviac bere niri ezin ucatu eidan neure remedioa; bada oneinbat gach **ire** causaz etorri danazquero çegaiti **ezton** losaric berba oriec esaten gure aurrean? 1152-v*

(28) Gaur egungo euskaran behintzat «*neuri*» horren lekuan «*neure buruari*» espero genezake. Joskera horren logikaz *Nik neuri* (**derextadana*) *baño oba deretxut* gisako zerbaite izan beharko litzateke, erabat aberrante eta dokumentatu gabea.

Halere, solaskideren batek, eskuarki andreak, besteri errespetua, beldurra edota urruntasuna adierazi nahi dionean, aldizka bederen, bigarren pertsonatik hirugarren pertsonara iragaten da, gaur egun hegoaldean eskuarki **berorika** deitzen dugun trataerara pasatuz.

*Erançon çidan utra cortesdo
beguiac abajaduric
Neure buruau erraz daidit
nic dichosaçat edugui
Jentilhonbrea, çegaiti naxan
eguin ni çugaz topadiz
oy eta barriz osteangoan
arren, **çe beguit burlaric.**
Ene laztana, ene fedea
ez dot eguiten burlaric
egun ascotan ni ebili naiz
ez dot edugui dicharic
Ene lindea, çu ecusteko
banago sepultaduric,
Oi arren, jauna, yxilic bego
çe besat orrelacoric
y ta çegaiti çu erayteco (= «hiltzeko»)
ni (sic) eztot poderioric. 1171 r*

*Lecu onean topadu gara
Jaun çerucoat guraric
oso apeadu bearneuque
badoçu borondateric
ene laztana solas daigun
gueurcheok bioc bacarric
Jaun çerucoaen amorearren
Jauna çaoça gueldiric
basoan neurau bacarric nago
çe beguit agravioric.
Ene laztana ezin neyque
nic orrelaco gauçaric
culpa andia eçarri leydae
eyça galdu banegui.
Jentil onbrea ez neyqueçu
neure biçian bervaric
oy eta bardin ezpa **zeeguit**
oy orain ychi librerice.
Biarreçiac urrean datoz
arren **betorque** ebeti.
Aldaguidana nic eguingo dot*

ez artu aseabari
 Orrela gura dozunazquero
 ezin neyque besteric
 domecan etorrigo naiz
 eztot eguingo faltari
 ascotan ondo queratu çatez
 ene lindea bacarri
 oy esequino lagun deyçut
 badoçu borondateric.
 Esquerric asco jentil onbrea
 Ez dot ardura lagun
 gaacustenac oy ez daguen
 pensadu beste gauçaric.
 Ychi neusan bervaxeoek
 neure laztanaz eguini
berori defendidu jat eta
 ni gueratu nax galduric 1172 r,v

Gogoan izan dezagun, halere, Mikoletak bere obratxoan, *berori*-kako tra-taerarekin batera, zure *mesede hori* eta *horren mesede hori* ere erabiltzen di-tuela, azken biok, dirudienez, garai hartako erdarazko *vuesa merced* eta *su merced*-en azken orduko itzulpen hutsak izanik, hurrengo etsenpluok erakus-ten dutenez:

Ori liçate valiz sure meçedeori persona sospechacoa, serren esta ayta-tuco soquea, vrcatuen esean ...

Agur D. Juan jauna, dala berori ondo etorri seyn urte onac: selan dago berrori?...

Berrori seruietaco deunsuro; xauna **bis** bedeyncatu ...

Selan alan estaude despachetan orren meçede ori ...

Ser nay daude almorzadu orren meçedeok?...

Nondic ysan ditu oren meçede orec tapiz hoc? ...

Emen ecussico dau seure meçede orec bufete bat obetu eguini....

Xauna se begui ori esan, se gausa balsa da bacartasuna ...

D. Juan xauna xarri bidi ma<i>puruan ...

Artu begui berrorrec berre lecu, se neuc artuco dot neurea ...

Edonola ere, ezin segura dezakegu Arabako poeta honen kasuan forma hori zehazki nolakoa zen. Izan ere, aditza hirugarren pertsonan daukan trata-era honen izenordaina, heldu zaizkigun testuetan behintzat, birritan besterik ez dugu aurkitu, oraintsu aipaturikoan (1172 v), esanguragatik errespetuzko tra-

taera ote den oso garbi egon ez arren, eta testuko eta lehen orrialdean, eta horretan ere era ez osoan: «....*nai ezpadau ni çure mesedeorr...*»

LAZARRAGAREN HITANOAREN BEREZITASUNAK

Ohartzekoa da, ordea, Lazarragak bigarren pertsonari hika egiten dionean, horrek ez dakarrela aldean gainerako adizkera guztiak ere modu alokutiboz jarri beharra. Beste hitzez esateko, Lazarragak bazekien *hi haiz*-en ondorian *ni nauk* esan zitekeela, baina aldi berean zilegi zuela *ni naiz* ere erabiltzea, hots, nahitaezko aditz forma bakarrak *hik*, *hi* eta *hiri* pertsonari zuzenki zegozkienak zirela, bigarren pertsonarekin komunztaura zuzena ez zeukaten gainerako adizkera guztietan solaskidearekiko erreferentzia egitea edo ez egitea librea izanik:

*Donostiaco San Françiscuan
agoan giçon soldadua
Donçelleoni eguin jacac
Yzta ondoan anditua
Nyc lançeteaz jo diat eta
Oy yc eçarroc emplastua. 1193-r*

*Sar ezac, Peru
gabineteori geldiric
bere lecuan.
Ze eguic beste gauçaric
Armaz inor il daguia[na]c
armaz il bearco dic.1200-v*

Baina halere:

Arçai polita, yc jaquingo doc eçe quec goaçela Dueroco riberara, çegaiti ençun dogu ezen Silvero derechan arçai batec dabela lucha andiac armatu comarcaetako arçai guztiaquin eta dagoala denporea asignadur (sic) egun seigarren eguneco eta ala ene lagun au eta ni goaç ara Silveroren jentilezac ecusterren çegaiti utra manera andian daçauen guztioc alabadu deus-cue. 1147 r-v.

Silveroc erançun eusan Silvia quen aquit orrean çegaiti nic eçin antçi-tu neydi anybat denporan on derechadan gauçea 1149 r.

O falsa traidorea, quen aquit neure begietaric, ene desdicheonen causea i axanaxquero. Zegai[ti] yc Silverori onerechi baeuso, Silviac bere niri ezin ucatu eidan neure remedioa; bada oneinbat gach ire causaz etorri danazquero çegaiti ezton losaric berba oriec esaten gure aurrean? 1152 v.

Lazarragak hikako trataeran erakusten zaigun egoera, gutxi gora behera, Etxepareren garaian, zuketari dagokionez, Nafarroa Beherean bizirik zegoen eta orain arte inguru horretan guregana heldu den sistemaren kidea da. Hor, dakigunez, hiztunek solaskideari zuka egiten diotenean bi aukera dituzte: a) lagun horri *zara, zaizu, duzu, d(er)autzugu, d(er)aukuzu* moduko adizkerak zuzendu baina gainerako adizkeretan bigarren pertsona horrekiko aipamenik bat ere ez egitea: *naiz, da, dira, dugu, diogu, dator, dago...*, eta b) gainerako adizkeretan ere zu pertsona alokutiboki aipatzea: *etorri nauzu, jin dituzu, heldu duzu, egin dizut 'egin dut', diatorzu, diagozu* etab. Dena den, Etxepareren garaian behintzat alokuzio hori ez zen adizkera guztietan nahitaez jarri behar, gaur, dirudienez, Nafarroa Beherean eta Zuberoan xuka egitean jadanik gertatzen denez. Ikus, beste adibide batzuen artetik Etxepareren bertso hau:

*Amore bat uqhen dicit miragarri gentilic
Harequila ninçanian enuyen nic faltaric
Nic iagoytic ecyn nuque hura veçayn mayteric
Haren minez oray nago ecin hilez viciric.*

Amoros gelosia

Hizkuntzaren diakroniaren aldetik, begien bistan dago aditz paradigmek berek eskatzen dutela hasiera batean *naiz* eta *haiz, dut, duk* eta *dun* aldameanean egotea, ez baita sinesgarria *di(n)at, duk/n, dik/n, di(n)agu, di(n)ate* moduko segida irregular ilogikoak antzinatek etortzea. Hortaz, zuzenki *hi, hik, hiri* pertsonen ez dagozkien adizkera guztiek denboran zehar pixkanaka erantsirikoak dirudite, ondoren emanen ditudan datuen arabera. Eta beste horrenbeste esan daiteke xukako trataeraren eboluzioaz ere.

Alde batetik, gogoratu beharra dago ez dela Lazarraga oinarritzko hitano hori zerabilen autore bakarra. Itxura osoaren arabera, alokuzioa gainerako adizkera guztietara XVI. mendean baino lehentxeago hasi zitzaigun hedatzen, eta, hasieran muga zehatz batzuen barruan besterik ez.

Inoiz edo behin era horretako adibideak 1596.eko RySetan ere aurkitzen ditugu, esaera zaharrek, beren izaera fosil eta kontserbadoreagatik, bildu ziren garaikoa baino hizkuntz tradizio zaharragoa gordetzen dutelako:

Badaguic suatean ypirdia vzcarti, cejan *verba day* eugayti «Si haces en la cocina el culo pedorro, hablará por tí en el mercado» RyS 33.

Az ezac erroya, diratan beguia, ta mutil guextoak *quendu deyque* arguia «Cría el cuervo, sacar te ha el ojo y quitar te ha la luz el mal mozo» RyS 136.

Lapurrac on dau vcoa, *vca eyquec* gaxtoa «bien le es al ladrón negar, negarás perverso» RyS 203.

Yl eyquec, ta *yl aye*, ta *yre* erallea *yl daye* «matar le has, y matar te han, y a tu matador matarán» RyS 227.

*Ecachac **dacar** aro ona, gaxtoa **vaynzate** oba «La tempestad trae buen temporal, perverso podrías ser mejor» RyS 293.*

***Yre** auçoac **eztequian** gacha ona **da** «daño que no te sabe tu vecino, bueno es» RyS 431*

*Catuac daroean oquelea gueyago **da** vereea **çe** ez **eurea** «La tajada que lleva el gato más es suya que no tuya» RyS 468.*

Edonola ere, XVI. mendean hikako forma alokutiboak hedatu zirenean, beren erabileran muga jakin hauek zituzten: a) alokutiboak perpaus nagusietako adizkeretan ager zitezkeen, baiezko zein ezezko esaldietan, baina ez galderetan; hauetan hitano murriztua besterik ez zen zilegi: *hi*, *hik*, *hiri* izenordainei zegokiena alegia. b) menpeko esaldietan ere (*-en*, *-ela*, *-nean*, baldintzako *ba-*, *bait-* eta antzeko hizkiekin markatueta) hitano murriztua erabili beharra zegoen. c) subjuntibo eta inperatiboetan ez zegoen alokutiborik, baina bai potentzialetan.

Arau honek luzaro iraun du XVI, XVII, XVIII eta XIX. mendeetako hiztun eta idazlen gehienen kontzientzian, salbuespenik ia bat ere gabe. Joan den mendean zehar, eta bereziki azken aldian, ordea, lehenagoko erregela hertsu hura ahulduz joan da, eta gaur egunean, gazte jendearen artean alokutiboak maiz entzun daitezke galderetan (*Martin ez dok etorri ala?*) bai eta erlatibo eta menpekoetan ere (*hik ez dok ikusi goizean hona etorri doan mutila; Mikel eta Begoña hona jatozaalako*), inoiz ez bezalako eremuak bereganatuz.

Etengabeko hedadura horren ondorioz, hitanoa, etxeko giroan jaso ez dutenarentzat ez bada, —eta holakoentzat ere bere famili eta herriko ingurune konkretu horretan erabiltzen den modu berezian besterik ez— etengabeki zailduz, korapilatuz eta dialektalizatuz joan da, eta gaur egun praktikan ezin ikasizkoa gertatzen zaio zuka egiten ohiturik dagoen euskaldun zahar zein berriari. Izan ere, gauzak ikasteko, beti errazenetik azaltzen hasi behar izaten direlako, hasieran ikasleei, —haur, gazte zein zaharrak izan—, elkarren artean zuka egiten irakasten zaie, eta behin maila jasoagora heltzen direnean, bat-batean hika egiten hastea eskatzen zaie. Ondorioz, ordura arte beren ezagun, lagun eta inguruko pertsonetik harremanak zuka ondo ezarriak eta finkatuak dauzkatelako, tratuzko lotura formalak etetea ezinezkoa gertatzen zaie, eta, kasurik onenean, hika ulertzera heltzen dira, baina ez dute behin ere ikasten elkarren artean erabiltzen, esandako metodologia desegoki horren erruz.

Aldiz, behin zuka ikasiz gero, pentsatzen dut inori ez litzaiokeela zaila gertatuko Nafarroa Behereko edo Zuberoako usuarioari segituz, lantzean behin zukako alokutibo batzuk tartekatuz joatea (*zure aita jina duzu, neskak joan dituzu, ama ikusi dizut, hortxe diagozu bezalakoak*), pixkanaka bertako usariora hurbilduz.

Arazo hau dela eta, duela urte asko, Mitxelena zenarekin mintzatu nintzen, galdetuz ea berak ezagutzen ote zuen inor hitanoa adizkera guztietan ondo erabiltzen zuenik. Gogoan dut ezetz erantzun zidala: «-Oro har, hika egiten dutenek, orainaldiko eta lehenaldiko adizkera ezagunenetan erabiltzen dute, eta inoiz hipotetikoetan ere bai, baina zaila da potentzialetan ere hika entzutea».

Nik orduan galdetu nion ez ote litzatekeen hobe izango, hika erabat gal ez dadin, metodologiaz bederen, hasieran, gutxienezko hitanoarekin hastea (hi, hik, hiri), horien aldamenean gainerako adizkerak mantenduz (*naiz, dute, nintzen, luke* etab., *nauk/n, ditek/n, nindu(n)an, likek/n* etabar hasieran saihesturik) eta geroago, pixkanaka, maiztasun handiko formak ikasiz joan ahala, horiek ere pixkanaka sartzen joateko (*zagok, zihoak, sartu gaituk, ekarri zian*, etab.). Berak erantzun zidan bere ustez horixe zatekeela, segurenetik, bide egoiki bakarra, hika, oraingo bidetik erabat galduko zen eta.

Koldo hilda gero, hikako tratamenduaren etengabeko gainbeheraz kezkatutik, arazo hau inoiz edo behin lagun eta ikaskide batzuekin tratatu dut, modu informalean bada ere, baina, derradan bidenabar, arrakasta handirik gabe. Ene ideiaen aurka, batzuek erantzun didate, hortik abiatuz gero egiazko hika faltsutuko genukeela, erraztasunaren bila, bere osotasun konplexu eta aberatsaren ezaugarri batzuk, hasieran bederen, saihestu beharko genituzkeelako.

Hemen ere, *sit ut est, aut non sit*. Badirudi batzuek nahiago luketela hitano osoa galdurik ikustea, txarrean ere, horren gutxienezko ezaugarriak mantentzea baino. Bestalde, faltsutzeari doakionez ere, bada zer esanik. Izan ere, zer da faltsuagoa: gure haurren artean oraintsu arte behin ere erabili ez den zukako trataera eksklusibo hori, gaurko eskola-praktikarekin neba-arreba, lagun, adinkide eta adiskideen artean irakasten zaien bakarra, ala oinarritzko hitanoa bultzatzea, gutxienez haurren artean hika egitea gordeko lukeena? Ez al gara konturatzen, nolabait, gure haurrak euskaraz gaztelaniaz beren artean *usted*-ka ari balira bezala hazten ditugula? Zergatik ez jokatu hitanoarekin Lazarragak egiten zuenez, edota Nafarroa Beherean eta Zuberoan zuketarekin egiten zen bezala, bi bertsioak gordez: oinarritzkoa eta osatua, lehenengotik bigarrenera iragateko zubia erraztuz?.

Ene ustez, gainera, hitano osoa, derrigorrezko eta mugarik gabeko alokutiboekin, horrela mantentzea gure hizkuntza izugarriro eta alferrik zailtzeaz gainera, inoiz kaltegarria ere izan daiteke. Ezin ahantz dezakegu maiz trataera adiskidetasunezko eta errespetuzko bigarren pertsonen artean bereizten daikiten hizkuntzetatik euskarara itzulpenak egin behar izaten ditugula (esp. *tú / Vd*, fr. *tu / vous*, cat. *tu / vostè*, it. *tu / lei*, ing. zah. *thou / you*, al. *du / Sie*, err. *ty / vy*, georg. *šen / tkven*...) eta translazio horiek egiteko, bere oraingo eta nahitaezko aberastasunean, gure gaurko hitanoa ez dela beti egokia, hizkuntza

horietako jatorrizko testuetan baino askoz ere informazio gehiago ematen dugulako, horretarako premiarik ez denean (29).

Gauza jakina da denboran zehar, moden eta gora-behera historikoen araberak, trataerak aldatuz joaten direla. Ikusi dugunez, gure hitanoa ere aldatuz joan da, hasierako sinpletasunetik gaurko zailtasun ia erabilezineraino helduz. Ene aburuz, bide horrek nora garamatzan seriozki pentsatu beharko genuke, eta geure buruari galdetu ez ote genukeen hobe, gehiegizko apaindura horiek guztiak alde batera utzi beharrean, orain arte zuketa hobestean egiten dugunez, hitanoaren oinarritzko ezaugarriak mantendu eta irakaskuntzan eta giza tratuan errazenetik bederen abiatzea.

Antzinako euskaldunek behintzat horretarako eredu ona eskaintzen digute: hika jarduteko ez dela beharrezko gainerako alokutibo guztiak ere erabiltzea, eta Euskaltzaindian, nik uste, ez genuke gutxienezko hitano horren erabilerak gaitzetsi behar, urte gutxi barru hitano osoa galdurik ikusi nahi ez badugu behintzat. Horra ba nondik, gaurko arazo bat konpondu ahal izateko ere, Joan Perez Lazarraga zahar gazteak irtenbide interesgarria eskaintzen digun.

Eta besterik ez, jaun-andreok. Guztioi eskerrik asko.

(29) Eta inoiz, inola ere eman behar ez litzatekeen informazioa ere bai. Gogora dezagun, adibidez, Brian de Palmaren film famatu baten kasua, ingelesez *Dressed to kill* deitua eta euskarara *Hiltzeko jantzirik* itzulia, gaztelaniaz, oso desegokiro, *Vestida para matar* gisa eman zen, hiltzailearen sexua, ingelesez eta euskaraz neutroki ezkatutua, hor hasieratik salatzen zuelako. *Vestirse para matar* moduko itzulpenak, ordea, manten zezakeen ezkutuan gaztelaniaz ere erailearen nortasuna.

JOAN PEREZ DE LAZARRAGA, FAMILIAREN KRONISTA

Henrike Knörr

Joan Perez de Lazarragaren izena eta omena dugu guztien aho-ezpainetan 2004ko urtarriletik, hau da, eskuizkribuaren aurkikundearen berri eman zenetik. Baina idazle gisa dituen merezimenduez gain, ez da ahanzi behar bere familiaren kronika bat idatzi zuela. Hobeki esan, haren aitagarrebak utzi zuen kronika berregin eta eguneratu zuen. Joan Perez de Lazarragaren letra ageri da garbi eskuizkribuan, azken urteak arte. Honela deitzen da kronika: *Relacion historica de las casas y apellidos de Lazarraga (privilegio de la Fundacion de la Torre de Larrea dada en el año de 839), linage de Erdoñana de los Otaloras y Zuazo Gamboa, de los Velascos, de los puestos y dignidades de unos y otros, todo con remision a documentos y otras cosas perteneciente a ella.*

Kronika honek, arrazoi osoz, ikertzaile asko erakarri ditu, hala nola Juan Carlos Guerra, Koldo Mitxelena, Iñaki Zumalde edo Micaela Portilla (1). Kopia batzuk ezagutzen dira, baina jatorrizko alea Gasteizen da, Elizbarrutiaren Artxiboan (2). Velascotarren familiatik joan zen hara; gogoratu behar da Velasco bat idazlearen alaba batekin ezkondu zela. Eskuizkribu honen bigarren partean bada kopia bat, XIX. mendekoa, zalantzarik gabe jatorrizko testua errazago irakurtzeko.

Lau ikertzaile horien izenei beste bat erantsi behar diegu: Maria Comas Ros katalanarena. Comas andrea Oñatira etorri zen, Geografia eta Historia katedradun, eta Oñatiz maitemindu zen, berak aitortzen duenez. Maitemindu ez ezik, erabaki ere zuen Oñatiren historia ikertzea. Eta horra zenbait urteren buruan nola egin zuen doktorego tesia. Horren mami nagusia 1936an liburratu zen, titulu honekin: *Juan López de Lazarraga, secretario de los Reyes Católicos, y el monasterio de Bidaurreta en la villa de Oñate* (3).

Egia da Comas andreak egin zituela huts ugari kronika honen edizioan, gainerako dokumentuetan bezala. Adibidez, kronikaren lehen hitzetan konta-

(1) Ikus bibliografia.

(2) Gasteizko Elizbarrutiaren Artxiboa, 5041-1.

(3) Ediciones Descartes, Bartzelona 1936. Aurreko urtean aurkeztu zuen Comas andreak testua. Liburuaren lehen orrialdeetan aldeko diktamena ageri da, Serapio Múgicak izenpetua.

tzen zaigu nola Lazarraga batek aurkitu zuen urrezko altxor bat *Urrupologaray* izeneko tokian; *Urruxolagaray* irakurri behar da, hots, *Urruxolagarai*. *Ozeta* herriaren izena ere gaizki dator: *Oreta*, eta *Añua* gabe *Auna*. Baina, maiz gertatzen denez, hau dugu edizio bakarra, akatsak gorabehera, eta zordun gara Maria Comasekiko. Eta orain galdera bat: gerra ondoren nora joan zen andre hura? Non bizi izan zen? Noiz hil zen? Nik bederen ez dakit deus ere.

Genealogia eta kronika mota hauetan ikusten ohi dena dakusagu hemen ere: familiaren loria eta antzinatasuna goraiatzten da. Eta hain zaharra da familia! Izkribu honen arabera, Eneko Aristak berak sortu zuen Larreko dorrea, IX. mendean (4).

Elezaharrak elezahar, ordea, funtsean bada egiaren zati bat, Micaela Portillak argi ikusi zuen bezala (5). Izan ere, nafar erregeak ganboatarren alde zeuden Arabako muga-herri hauetan. Ekialdeko Lautadaz ari gara, jakina, eta hona Lazarragatarrek 1439an iritsi ziren, hau ez da gezurra. Bidenabar, esan dezagun *Arabamendi* izena darabilela Joan Perez de Lazarragak kronika honetan, guk Urkilla eta Elgea deitzen ditugunak deitzeko, eta ez gara batere urruti Oñati aldean egun arrunta den izenetik: *Arabako mendiak*.

Lazarragatarren balentriak kontatzen zaizkigu hemen zabal-zabal. Zinez familia handia, hainbat lekutan hedatua eta adarkatua, Italian eta Ameriketara ere. Horien guztien indarra eta itzala da hemen mintzagai. Eskuizkribuaren tituluan bertan dago oso garbi helburua: *Relación histórica de las casas y apellidos de los Lazárraga (...) de los puestos y dignidades de unos y otros*. Denetarikoa dira, jakina, *puestos y dignidades* horiek. Besteak beste, esan beharrik ez da, *luma-jendea* zen (deitu izan den bezala). Austriarren errege-erreginen administrazioaren makineria pentsaezina da euskaldunen sekretario eta bulego-langile hauek gabe. Idaztera emanak baitziren, eta batzuk, gainera, literatura lantzerak, Joan Perez de Lazarraga bezala. Kronikan interesgarria da aipamendxo bat, ertz batean: *Orlando Furioso*, Ludovico Ariostoren poemaren titulua ageri da.

Senide guztiak ez ziren, ordea, hain finak eta gozoak. Haietako batez ari denean, hau irakurtzen dugu: «Sucedióle matar a un clérigo», horrela, ogitar-teko bat eman bazen bezala edo. Hil bai, baina ez zuen horrek inolako zigorrik izan, zeren Larrean aurkitu baitzuen babesa, babes osoa, dorreak eta dorre inguruak pribilegio hori zuelako, hots, legeak eta epaileak ezin sar zitezkeen han.

(4) *Eneko Arista* diogu, eta ez *Eneko (H)Aritz*a, eta ongi legoke behin betiko okerra zuzentzea, XVII. mendetik datorkiguna. Caro Barojak idatzi zuen bezala, bere *Etnografía histórica de Navarra* liburuan, I, 120-121. orrialdeetan, *arista* edo *aresta* erromantzea da, eta «no aludiría a la fortaleza corporal del rey, comparable a la del roble pirenaico, sino a su ardor en las luchas, inflamable como la arista seca, es decir, la especie de espina o espiga de trigo, *aresta* o *ariesta* también».

(5) Portilla 1978: 602.



Maria Comas Rosen liburuaren azala.

Beste pertsonaia bat interesgarria da. Gure idazlearen izen-deitura berberak zituen: Joan Perez de Lazarraga. Larrintzarren bizi zen, hango jaun. Han errezibitzen zituen menpekoak, eta han aritzen zen epaile, «jauregiaren ondoran dauden itxaurrondoan azpian». Gizon hau erotu zen, eta dirudienez odolpikoengatik. Eta hain erotu zen, non Gasteiza joaten baitzen, zaldun gisa armatua, eta kalez kale ibiltzen zen garraxika, «Santiago! Santiago!» eta «Calleja! Calleja!». Larrintzarren, bere baratzean, arropa arinagoan seguru aski, urre eta zilar txanpon batzuk erein zituen, hau esanez: «Pues nació el mijo que era grano tan nuevo, ¿por qué no había de nacer el doblón?». (Jakina, *mijo* hori 'artoa' da, garai hartan oraindik Ameriketatik etorri berria; leku askotan landare etorri berri horrek kendu zion zaharrari bere izena, eta hau geoztik *artotxikia* deitu izan zen.)

Asko dira hemen amorio eta maitasun istorioak, bai eta ezkontzaz kanpoko umeak ere (eta ez dira gutxi apaizen seme-alabak; behin artzipreste batena ere aipatzen da). Gorrotoa eta ezinikusia ere ez da falta: Oñatiko harakin batez mintzo denean, hau da iruzkina: «Que nunca medre».

Kronika honek hizkuntza aldetikako interes handia eskaintzen du, eta euskalari zenbait jardun dira hori ikertzen. Mitxelenak, *Textos arcaicos vascos* li-

buruan, xehekiro aztertu zuen lelo bat, guztiz garbi ez dagoena (guk gaurko grafian emango dugu):

«Gaitza zenduan leintzarrok, Urruxolako lekaioa,
Sendo zenduan odolori bihurtu jatzu gataioa».

Mitxelenak dioen bezala (6), *odol sendoa* ‘harrokeria’ da; *gatzai*o agian ‘gatzatua’ edo ‘mamia’, eta *lekaio* ‘garraxia’. Baina harrigarri bada ere, kopia gehienetan bezalaxe, eskuizkribu honetan *lenizanos* ageri da, ez *leintzarrok* (7). Zer esanik ez, *odolori* horretan, nik uste, artikulua zaharra dugu; gaur *odola* esango genuke. Lelo horren atzean oñatiarren eta leintzarren gatazka odoltsu bat da, garai hartan sarri gertatzen zirenetariko bat, eta leloa gelditu zen jendearen ezpainetan, gure idazleak dioen bezala.

Testuak beste gauza asko dakartza, hizkuntzarentzako interesgarriak. Adibidez, gizon baten goitizena *Goldadeyarro* da, eta ondoan azalpena dator: «por respecto de su blanda y amorosa condición». Esango nuke izen horretan *Gold(e)a darraio* behar dugula ikusi, haren lasaitasunaren ispilu.

Euskaltzaindiaren ospakizun honek bere fruitu iraunkorrak emango ahal ditu! Bat oso beharrezkoa da: kronika honen edizio oharreztatua. Horretarako bada gure artean jende aditua. Badakit erraza dela besteri lana eskatzea, baina egingo duenak izango du gure laguntza osoa. Atsegin handiz emango diegu.

Eranskina

Euskaltzaindiaren batzar agerikoaren ondoan, ekainaren 4an, gutun bat argitaratu nuen *Avui* egunkarian, Maria Comasen berri jakin nahiz. Egun berean, posta elektronikoz, Marta Pessarrodona idazle ezagunak idatzi zidan.

«Benvolgut amic,

Acabo de llegir la seva carta a l'*Avui* i el nom de Maria Comas m'ha cridat poderosament l'atenció. Imagino que és la «senyora Comas», professora (excel·lent) de l'Institut de Maragall de Barcelona, on jo vaig estudiar a partir dels tretze anys, per tant a partir del curs 1954-55. Naturalment, ens impartia les classes en castellà, però parlàvem en català fora de classe, cosa poc corrent per aquells temps. Corria el rumor que ella i el seu marit havien estat represaliats (imagino que per republicans) però poca cosa més sé. Sempre he pensat que em vaig matricular a història –en comptes de filologia hispànica, que era el que feia la gent com jo amb dèries literàries (que he tingut des que vaig començar a llegir)– per culpa d'una amiga més gran que jo, l'Esther Tusquets, alumne dilecte de Vicens Vives, però la seva carta m'ha fet adonar que també hi devia pesar la «senyora

(6) Mitxelenak 1964: 3.1.3.

(7) Mitxelenak, leku berean, *leintzarroc* suposatu zuen. Baina testuak *lenizanos* dio garbi.



Argazkian ageri direnak (Jerardo Elortzaren argibidea)

Oñatiko Institutuko irakasle eta ikasleak Eibarren, txango batean, 1931 edo 1932an. Indalezio Ojangurenek hartutako argazkia. Maria Comas Ros ageri da argazkian: behetik hasita bigarren lerroan, ezkerretatik eskuinetara laugarrena da.

Goieneko lerroan: Teófilo Agirrezabal, oñatiarra, Institutuko bedela; Javier Gereka, oñatiarra; X. X.; X. X.; X. X.; X. X.; Vicente Ugarte, oñatiarra, gerra ostean Oñatin alkate izan zena; X. X.; Felix Igartua, oñatiarra; Eduardo Korkostegi, oñatiarra; X. X.; Jose Ugarte, oñatiarra; eta Antonio Romero, frantse-seko irakaslearen semea.

Bigarren lerroan zutik: X. X.; Felipe Igartua, oñatiarra, hau ere bedela; X. X.; Maxima Zelaia, oñatiarra, Upaingoa; Karmen Azkunaga, oñatiarra, Gasteizera ezkondu zena; X. X.; X. X.; Genobeba Zelaia, oñatiarra, Upaingoa; Rikardo Elorza, oñatiarra; Luis Maiztegi, oñatiarra; Miguel Gereka, oñatiarra, apur bat makurtuta; Santi Ugarte, oñatiarra; Ignacio Enparantza, oñatiarra, gerora Gasteizen Esmaltaciones San Ignacio enpresa jarri zuena; eta Rufino Lizarralde, oñatiarra, txoferra.

Hirugarren lerroan jarrita: Maria Luisa Arrue, oñatiarra; Dolores Mugarza, oñatiarra; Jose Maria Alzuru, zarauztarra, Oñatiko medikua eta fisiologia-irakaslea Institutuan; Maria Comas Ros, Gironako probintziakoa, Geografia eta Historiako irakaslea; Julio Sánchez, Literatura irakaslea eta zuzendari ere izan zena; Antonio López, Matematikako irakaslea; hurrengoak herri-eskoleko maisua, institutuan ere klaseren bat ematen zuena; Begonia Aranburu, arrasatearra; Lola González, eibartarra; eta Pilar Arrue, oñatiarra.

Behoko lerroan, lurrean jarriak: X. X.; [?] Ibarbia, oñatiarra; Jose Maria Arrieta, oñatiarra, Iruñera ezkondu zena; Ignacio Olaizola, zumaiarra, Bilbon mediku anestesista izan zena; X. X., beste txoferra agian; X. X.; X. X.; X. X.; Juan Arregi, oñatiarra; Jose Luis Otaola, eibartarra; eta Angel Aranburu, oñatiarra, gerra ostean Venezuelara joan zena.

Ikasle ezezagunak, seguru asko, Oñatitik kanporakoak izango ziren gehienak. Inguruko herrietakoak. Argazkia Javier Gereka zenak utzi zidan. Nati Zelaiarekin ezkondu zen Miguel anaia bezala, Oñatin Gereka markako txokolatlea egiten zuen familiakoa zen Javier, eta 1963an antzinako Unibertsitatean beriz Institutua ipini zutenean, Zientzietako irakaslea izan zen hainbat urtetan. Argazkian agertzen diren ia gehienak hilda daude, baina batzuk duela oso gutxi.

Argibiderik gehienak garai hartan Oñatiko Institutuan ikasle izandako Regino Biain oñatiarrak samurtu dizkit: aurtun 90 urte beteko ditu eta oso ondo oroitzen da sasoi hartako irakasleez, Maria Comasez ere bai, jakina. Dena den, hil baino lehenxeago, fotografian ageri diren Javier Gerekak eta Jose Ugartek ere orduko hainbat xehetasun jakinarazi zidaten.

Comas» del meu batxillerat. Vaig fer la carrera amb fàstic perquè el departament d'història que vaig trobar (Vicens Vives ja havia mort) era un mostrari de professors dolents, però amb el temps m'he adonat que, certament, m'agrada la història, com podrà comprovar si dóna una ullada al meu darrer llibre, *Mercè Rodoreda i el seu temps*.

Lamento no donar-li més informació, perquè imagino que aquesta dada del «Instituto Maragall», l'himne del qual començava: «En el campo de las letras, brilla un nombre, Maragall, que es la fe de Cataluña y es orgullo nacional [español, és clar!...]», vostè ja la deu tenir. Tot amb tot, li desitjo sort en les seves investigacions i, si no és molt demanar, quan acabi el seu treball m'agradaria saber-ho i saber com obtindre-lo. Gràcies, amb una salutació cordial,

Marta Pessarrodona».

Eta ekainaren 17an beste gutun hau hartu nuen, Elena del Cacho andre-ak bidalia. Hona non:

Sr. Knörr,

He llegit la seva carta publicada al diari *Avui* del dia 4 d'aquest mes amb el títol «Maria Comas Ros».

Em va cridar de seguida l'atenció perquè vaig tenir la Sra. Comas de profesora de Geografia i Història els cinc últims cursos de batxillerat a l'Institut Maragall (sóc de la promoció 1944-1951).



Maria Comas (mahaian eta laukitxoan) Institut Maragalleko irakaslekideekin. 1947. Elena del Cacho andreak guri helarazi argazkia.

La Sra. Comas va ser una magnífica professora que entusiasmava les alumnes amb les seves explicacions, perquè ens feia viure la Història no com les pàgines d'un llibre avorrit sinó que entraves en els fets como una cosa viva, com realment és la Història.

Va ser professora de l'Institut Maragall durant molts anys, i també Cap d'Estudis, potser allà li podrien facilitar detalls de la seva vida. Jo només sé que es va casar amb el catedràtic de Matemàtiques Diego Montáñez i que va tenir un fill i una filla. La filla va ser professora de llengua castellana al mateix Institut Maragall, però crec que tant l'un com l'altra van morir joves. En la seva vida privada no va ser molt afortunada. Ignoro si queda algú de la seva família. Tenia una germana que va morir no fa massa temps.

Li envio una fotografia de la festa de final de batxillerat de l'any 1947 (era el curs de la meva germana) on veurà la Sra. Comas junt amb d'altres professors. L'adreça de l'Institut és: IES Joan Maragall – carrer *provença*, 187 – 08036 Barcelona.

Amb la meva afectuosa salutació, estic a la seva disposició per qualsevol cosa que li pugui interessar.

Elena del Cacho».

Elena del Cacho andreak igorri zidan argazkia hemen argitaratzen dugu.

Bibliografia

- CARO BAROJA, Julio. 1971. *Etnografía histórica de Navarra*. Hiru liburuki. Caja de Ahorros de Navarra. Editorial Aranzadi, Iruñea.
- COMAS ROS, Maria. 1936. *Juan López de Lazarraga, Secretario de los Reyes Católicos, y el Monasterio de Bidaurreta en la villa de Oñate*. Ediciones Descartes, Bartzelona.
- GUERRA, Juan Carlos. 1924. *Viejos textos del idioma. Los cantares antiguos del euskera*. Donostia.
- MITXELENA, Koldo. 1964. *Textos arcaicos vascos*. Minotauro, Madril. 1964. Bigarren argitaraldia, I. Sarasolaren *Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos* deritzanarekin batera, Donostia 1991 (ASJU-ren eranskinak, 11. zenbakia).
- PORTILLA, Micaela. 1978. *Torres y casas fuertes en Álava*. Bi liburuki. Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad de Vitoria, Gasteiz.
- ZUMALDE, Ignacio. 1957. *Historia de Oñate*. Donostia.

JUAN PÉREZ DE LAZARRAGA

*José Ángel Segura,
Pte. Junta Administrativa de Larrea*

Egunon guztioi.
Buenos días para todos.

En primer lugar decir que es un orgullo para el pueblo de Larrea contar con este legado tan antiguo en Euskera de nuestro antepasado Juan Pérez de Lazarraga «El Poeta».

Queremos agradecer a las Instituciones el empeño, la difusión y el reconocimiento cultural de este manuscrito o documento y pedirles que sigan investigando en este campo.

Por último, invitarles a acompañarnos para descubrir una placa conmemorativa en la Iglesia Parroquial de Larrea.

IKER SAILA

ONOMASTIKA

GIPUZKOAKO HERRI IZENDEGIAREN AURKEZPENA

*Gipuzkoako Foru Aldundia:
Donostia, 2005-I-31*

*Andres Iñigo,
Onomastika batzordeburua*

Euskaltzaindia, alde batetik, euskara landu eta ikertu ondoren, arauak emateko erakundea baldin bada, bestetik, euskara jagoteko erakundea ere bada. Hori dela eta, egiten dituen lanak eta onartzen dituen arauak gizarteratzen saiatzen da, azken batean, xedea gure hizkuntzaren erabilera zuzena eta beharrezkoa den normalizazioa lortzea baita.

Izan ere, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak prestatu ondoren, Akademiak berak osoko bilkuretan onartu duen *Gipuzkoako Herri Izendegia* beste urrats bat da gure eginbehar horretan.

Bete dira, jadanik, 25 urte Euskaltzaindiak gai honetan lehenengo urrats ofiziala eman zuenetik, 1979an *Euskal Herriko Udalen Izendegia* argitara eman zuenetik, alegia. Garai hartan Udalen Izendegiaren premia handia zen, Koldo Mitxelenak berak lan haren aurkezpenean adierazi zuen bezala. Besteak beste, honako hau zioen:

Lehengo izenen aldamenean edo gainean norbera bere kabuz euskal ordaina ematen ari da eta Euskaltzaindiak, presaka bada ere, kaleratu behar zuen *Herri Izendegia*.

Orduz geroztik Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak etengabe segitu du lanean eta bi arrazoi nagusi izan ditu gaur aurkezten dugun lan hau burutu eta argitara emateko:

1. Hogeita bost urte hauetan egin diren ikerketa lanen ondorioz, irizpide batzuk sakonago aztertu ahal izan ditu eta ikuspegi zabalagoa lortu zenbait erabaki egokiago finkatu ahal izateko.
2. Legez dagokion bezala, Euskaltzaindiak irizpide eta aholku argigarriak eman behar dizkio gizarteari, eta izendegi honek, aurrekoek ez bezala, Euskaltzaindiaren arau maila du. Jakina da Euskal Herri osoko Herri Izendegiari arau maila ari zaiola ematen. Jadanik eginak dira Iparraldeko hiru lurraldeetakoak eta hau da Hegoaldeko lehendabiziko emaitza. Ondoren etorriko dira Bizkaia eta Arabakoa eta amaitzeko Nafarroakoa.

Izendegiak erabiltzeko eta kontsultatzeko izaten direnez gero, *Gipuzkoa-ko Herri Izendegi* hau ahalik eta modu egoki eta praktikoenean paratzen saiatu gara. Hiru atal ditu:

I. Herrien euskal izena. 4 zutabetan:

- Euskal izena
- Izen ofiziala
- Herritarren izena
- Eskualdea

II. Herrien izen ofiziala. 4 zutabetan:

- Izen ofiziala
- Euskal izena
- Herritarren izena
- Eskualdea

III. Herrien izenak eskualdeka. 6 eskualdetan:

- Donostia-Beterri
- Oartzualdea
- Tolosaldea
- Goierri
- Urola Kosta
- Debarroa (Debabarrena eta Debagoiena)

Hona hemen, aurreko izendegiekin konparatuz, zein diren oraingo honetan ageri diren aldaketa eta argigarri nagusiak:

- Zehar marraren (/) eta gidoiaren (-) erabilera egokia:
 - Arrasate / Mondragón, Donostia / San Sebastián, Soralue / Placencia de las Armas.
 - Bidania-Goiatz, Ezkio-Itsaso, Lasarte-Oria, Villabona-Amasa.
 - Herria gehi eskualde izenaren argigarria behar denean, gidoirik ez: Leintz Gatzaga.
 - Artikuludunei, hots, Azkoitia, Azpeitia, Bidania, Debarroa, Debabarrena, Debagoiena, Hondarribia, Olaberria, Oartzualdea eta Tolosaldea izenei (-a) marka jarri zaie, nola deklinatu behar diren jakin ahal izateko. Honek garrantzi handia du, gorago aipatu dugun erabilera zuzena eta normalizazioaren mesedetan. Maiz entzun eta irakurtzen baitira, esaterako, Donostiko*, Donostitik*, Donostira*, Donostiako, Donostiatik eta Donostiara orde, edo Hondarribiako*, Hondarribiatik* eta Hondarribiara*, Hondarribiko, Hondarribitik eta Hondarribira orde. Halaber, izen horien ondotik beste determinatzaile bat edo ad-

jektiboa doanean: Hondarribi maitea, ez Hondarribia maitea, gure Debarro hau, ez gure Debarroa hau.

- Izen berriak, lehen udal ez zirenak: Altzaga, Baliarrain, Ikaztegieta, Lasarte-Oria, Mendaro, Orendain, Bidania-Goiatz (Bidegoian-en ordeztu).
- Kasu guztietan herritarren izena ere gehitu da.

Hasieran aipatu dugu zein den Euskaltzaindiaren lana. Orain eta hemen gogoratu beharrean gaude Euskaltzaindia herri erakunde nagusiek, 1918an ziren Hegoaldeko lau Foru Diputazioek sortua dela eta egun bi Gobernuek eta hiru Aldundiek babestua, horien artean Gipuzkoako Aldundi honek. Euskaltzaindiaren helburua ikertzea eta bere lana gizarteratzea bada, gaurko eszenatokia ezin hobea da helburu horretarako, *Gipuzkoako Herri Izendegia* bertako Aldundian aurkeztea Ahaldu Nagusia mahaiburu dugula. Interes eta harrera hau eskertzekoa da benetan eta Euskaltzaindiaren izenean Jose Juan Gonzalez Txabarri Ahaldu Nagusiari eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu.

GIPUZKOAKO ESKUALDE IZENEZ OHAR ZENBAIT

Donostia, 2005.eko urtarrilaren 31an,

Jose Luis Lizundia

Gipuzkoako Herri Izendegia aurkeztean, eskualde izenen alorrean, herri aginteei, bereziki Aldundi eta Batzar Nagusiei argitasun zenbait eskaintzea dagokio batzorde akademiko honi:

- Argi utzi nahi du Euskaltzaindiak, Autonomia Estatutuaren 37. c. artikularen arabera, foru erakundeei, hots, Batzar Nagusi eta Aldundien eskumena dela eskualdeen mugaketa. Orobat, L.T.H. deituriko legearen 7.3. arauz:
«Udal-barrutien eta udalez gainetikakoen mugapena.»
- Ondorioz, Euskaltzaindiak *Gipuzkoako Udal Izendegiaren* argitalpenean, udalak eskualdeka sailkatzen dituenean saio gisa egiten dituela ulertu behar da, zeren eta ez baitute lurraldeko foru erakundeei eskualdekatze orokorrik egin. Zenbait ikerketa historiko, geografiko eta beste egin ondoren aukera hori hartu du.
- Zuberoa eta Nafarroa Behereak eskualdekatze historiko eta administratibo dituzten bezalaxe, Gipuzkoak, Lapurdiren antzera ez du Aro Moderno eta Garaikidean eskualde antolaketa finkorik izan. Sebastian Insausti tolosarrak historiagilearen ikerketak hor daude, ordea, oso jakingarriak.
- Euskaltzaindia da, ordea, Euskararen Oinarrizko Legearen (1982-10. Legea) 10. artikularen arabera, euskal toponimo ororen gainean irizpen emaile ofizial bakarra.
- Ildo horretatik eta Gipuzkoako martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, udal izenei buruz agintzen duen irizpengintza zentzu berean, eskualde bakoitzak zeintzu udalerrri hartu behar dituen eskumenik izan ez arrear, eskualdearen izenari buruz baduela esan daiteke. Are gehiago, Gipuzkoako eskualde izenak euskarazkoak izan behar luketenetik.
- Hori ulertu bide zuen Luis Alberto Aranberri eibartar zinegotziak, bere eskualdeko mankomunitateari, zeinen lehendakari bai zen, izen euskal-

dun bakar bat jarri nahiean –orduarde «Bajo Deva», «Deba Beherea», «Deba Behaldea» eta holakoak erabiliak izan bai ziren– Euskaltzaindira jo zuen irizpen eske. Dagokion batzorde iraunkorrek, IV.k, Onomastikakoak, alegia **Debabarrena** aholkatu zion, kontuan izanda lurraldeko tradizio toponomastikoa. Handik lasterrera, «Alto Deva»ko mankomunitateko lehendakariak antzerako irizpena eskatu zuen, eta **Debagoiena** izena aintzat hartu zuten. Geroztik, eskualde izen biok ofizialdu zituzten bakoitzaren mankomunitatean.

- Eskualde biok, goragoko eskualde osoa deitzeko, hots, gaztelaniaz erabiltzen den «Cuenca del Deva» esateko, **Debarroa** finkatu du 140. arau honetan, zeren eta Juan San Martin euskaltzain oso eta sorrerarik Onomastika batzordekide eibartarrak ongi lekukotu baitzuen *arroa* hitza «cuenca»ren ordain legez eta **Debarroa** bere eskualde osoari deitzeko. Haren eskualde mugakidean, Durangaldean, gaur egun ere ezaguna da **Debarroa** toponimo nagusi hori. Ez da bat ere zehatza ordea «Deba Ibarra» hitza, Debarroak bere barnean zenbait ibar baititu, hala nola Ego Ibarra, Eibar, Ermua, Mallabia eta Eitzaga entitateak osatua, Debagoiengan, Leintz ibarra eta beste. Zeharo okerra ordea *Deba bailara*, zeren eta azken hitz hori Aia, Asteasu eta abarretan auzoak izendatzeko erabiltzen baita.
- **Urola Kosta** eskualde izenak ez du dudarik txikiarik sortzen. Beste herrialde eta estatu askotan bezalaxe, Katalunian adibidez, hidronimoetatik sortutako eskualde izen bat da. Bigarren zatia, Gipuzkoako itsas hegiaren erdialde gehiena hartzen duelako dela argi dago.
- **Goiherri** geografia naturaleko izen hori erabat errotua da, Kataluniako **Terra Alta** (hiriburua Gadesa), Eskoziako Highlands-en antzeko esanahiarekin. Mugaketa historikorik ez badu ere, Ordiziako «vila mercat» delakoaren eremuko udalak hartzen dituela esan genezake. Inoiz idatzi da «Goiherri» grafiarekin baina batzorde akademikoak beti esan du ez duela «h»rik behar eskualde izen horrek.
- **Tolosaldea** izena jarri da Tolosa merkatu hiriaren inguruko eskualde izen gomendagarritzat, aspaldian asko erabili baita. Hala eta guztiz ere **Toloserria** izena ere aipatu nahi izan da, zeren eta eskualdeko seme Nikolas Ormaetxea euskaltzain oso eta idazle ospetsuak erabili baitzuen, bere *Quito'n arrebarekin* liburuan. Eskualdearen mugakide den Areson ere ezagutu da hitz hori, *Toloserria*, alegia.
- **Donostia-Beterri** izena jartzea gomendatzen du Euskal Akademiak. «Donostialdea» berrikitan erabili bada ere gipuzkoarrek azken mendeotan hain erabilia izan den **Beterri** izena ezin dela zokoratu uste du Euskaltzaindiak; are gehiago, Goiherri-ren kontraposizioa baita, besteak beste. Horrela, alde batetik, hiriburuaren izena gordetzen da eta, bestetik, Oria eta Urumea ibai bien eskualde naturalari, bere izen jatorria eranstean zaio.

- **Oiartzualdea** gomendatzen da lurraldeko Ipar-Ekialdeko eskualde izentzat. *Tierra de Oyarzun* lekukotzen du Sebastián Insaustik. Gorosabel historiagileak ere honelako hau dio:

El nombre de Oyarzun, con que ahora es conocido este valle, es indudablemente una corruptela de Oiarso... De él hizo mención Plinio, denominándole *saltus Oiarso*... El territorio de este valle se extendía desde el canal de Pasajes hasta el río Vidasoa.

Gauza jakina da latinak eta gaztelaniak ez dutela *tz* soinua frikaria, ondorioz, *s* edo *z* grafiarekin transkribatu behar izan dute. Beraz, norbaitek sortu berri duen *Oarsoaldea* izenak, euskal toponomastikaren, edota euskararen hizkuntzaren historiaren ikuspuntutik ez du oinaririk.

IRIZPENAK

Atal honetan udalek eta administrazio batzordeek, baita beste administrazio desberdinek Onomastika batzordeari egindako irizpen eskaerak biltzen dira. Gogoan izan behar dugu EAEn herri edo kontzejuaren izena aldatzeko irizpena eskatu behar zaiola Euskaltzaindiari. Irizpenak eskatutako hizkuntza edo hizkuntzetan ematen dira.

Mikel Gorratxategi,
Onomastika batzordeko idazkaria

SANMIGELGAÑA

Iruñean, 2004ko irailaren 28an.

*Andres Iñigo,
Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeburua
eta Nafarroako ordezkaria*

Nafarroako Doneztebe herriko San Migel izeneko auzoaren goiko aldean hondarreko urte hauetan etxebizitza berriak egin direla eta, Malerrekako Man-komunitateko euskara zerbitzutik galdegin digute gaztelaniaz *Alto San Miguel* izena eman nahi zaion auzo berri horren euskarazko ordaina zein izanen litzatekeen.

Erantzuna

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak joan den 2004ko irailaren 23an Ziordian egindako bilkuran, eskaria aztertu ondoren, honako hau jakinaraztea erabaki zuen:

1. Euskaltzaindiaren konpetentzia ez bada ere, Onomastika batzorde honen ustez, *Alto San Miguel* izenak «San Migeleko mendi kaskoa» erran nahi du, eta ez, kontsulta gutunaren arabera adierazi nahi dena, hots, «San Migel auzoaren gaineko aldea». Azken honen gaztelaniazko izena *San Miguel Alto* izanen litzateke. Eremu ez euskaldunean badira horrelakoak, bertzeak bertze, *Beloso Alto* Iruñean.
2. Kontuan izanik Doneztebe herri euskalduna dela, eta gainera euskal eremuan kokatua, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak adierazi nahi du herri honetako auzo bati, berria bada ere, euskara hutsean jarri behar zaiola izena, ez bikoitza (euskaraz eta gaztelaniaz). Oraindik gehiago, auzo horren erreferentzia daramaten Doneztebeko mikrotoponimoak euskarazkoak dira, hala nola, *Sanmigelazpia*, *San Migeleko bidea*, *San Migeleko bizkarra*, *San Migeleko landa*, A. Iñigoren *Toponomástica histórica del Valle de Santesteban de Lerín*, Nafarroako Gobernua 1996, eta *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bilduma-

ren LVII zenbakiaren «Doneztebe» atalean (81-100 or.), Nafarroako Gobernuak 1999, liburuetan ageri den bezala.

3. Izen berri honen proposamena egiteko, Onomastika batzordeak bertako toponimiaren ezaugarriak izan ditu kontuan. Aipatutako lanetan argi ageri da toki baten gaineko lur zatia deitzeko erabiltzen den atzizkia *-gaña* dela. Horren lekuko dira Doneztebeko *Bidegaña*, *Bordagaña*, *Bunakorrigaña*, *Depositogaña*, *Masiketagaña*, *Presagaña*, *Zalkobegaña* toponimoak.

Arrazoi horietan guztietan oinarrituta, jasotako kontsulta gutunean aipatzen den lur eremua izendatzeko, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak izen hau proposatzen du: **Sanmigelgaña**.

LANKIDETZA

EUSKALTZAINDIAREN EKOIZPEN ZIENTIFIKOA INGUMA-N: EUSKAL KOMUNITATE ZIENTIFIKOAREN DATU-BASEAREN AURKEZPENA EUSKALTZAINDIAN (*)

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2004-VI-11

*Karmele Artetxe Sánchez
Inguma datu-basearen dokumentazio arduraduna (1)*



SARRERA

Udako Euskal Unibertsitateak (www.ueu.org) eta Euskaltzaindiak (www.euskaltzaindia.net) 2003ko abenduan hitzarmena sinatu zuten Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basean (Inguma, www.inguma.org) lankidetzan aritzeko. Bost urteko iraupena izango duen lankidetza honen lehenengo emaitzak Euskaltzaindiaren egoitzan aurkeztu ziren 2004ko ekainaren 11n. Aurkezpen ekitaldian parte hartu zuten hurrenez hurren: Henrike Knörr, Euskaltzaindiko buruordeak, Aitzpea Leizaola, UEUko zuzendariak, Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskararen Sustapenerako Zuzendari Nagusiak, eta azkenik artikuluko honen egileak (2).

Bi erakundeen artean adostutako lankidetza-hitzarmen honen helburuak bi dira: alde batetik, Euskaltzaindian euskaraz sortu, argitaratu eta zabaltzen denaren gaineko oinarritzko informazioa Inguma datu-basean sartzea (Jardu-

(*) Xabierri, Miarretzetik Lizarraraino izan zara bidelagun.

(1) Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea ez da pertsona bakar baten lana, erakunde baten eta pertsona askoren ekarpenari esker bihurtu da gaur egun dena, alegia erreferentziazko informazio iturri funtsezkoa komunitate unibertsitatearioarentzat. Inguma-n urte osoan batzorde oso bat dabil lanean: Pruden Gartzia (Azkuete Biblioteka Zuzendaria, Historian Doktorea eta UEUko kidea) eta Iñaki Alegria (UPV/EHUko irakaslea eta Informatikan Doktorea). Proiektuaren arrakasta, bakoitzaren bikaintasunean oinarritzen da.

(2) Eguerdian egindako aurkezpen honetan lankideak eta lagunak izan ziren, baina entzuleen artean bereziki aipatu nahiko nuke X. Isasi, UEUko zuzendari ohia eta laguna. Berak egitasmo honetan zein UEUko besteetan ere arloz arloko arduradunekin hitz egiteko eta desadostasunak bideratzeko izan duen gaitasuna eskertu nahi diot.

naldiak, hitzaldiak, ikerketa-lanak, baita kaleratutako liburu zein artikuluen oinarritzko erreferentziak ere). Bestetik, unibertsitate mailan euskaraz diharduten irakasle, ikertzaile, sortzaile eta oro har, emaile guztiak harremanetan jartzea, bereziki, unibertsitate mailako jakintza-arlo bakoitzean euskararen normal-kuntza sustatzeko.

Ekaineko aurkezpenean lehenengo helburua bete da. Hau da, hilabete hauetan hitzarmenaren babesean lanean aritu dira bi erakundeak Akademiaren ahozko zein idatzizko dokumentuak Inguma datu-basean katalogatuz. Horretarako funtsezkoa izan da Azkue Bibliotekak eman digun euskarria eta laguntza, hile hauetan Inguma datu-basea osatzeko Bibliotekako fondoak eta katalogoa (ABK, www.euskaltzaindia.net/azkue) oinarritzko lan tresnak izan baitira. Aipamen berezia merezi dute Bibliotekan lankide –eta ez langileak– izan ditudan Kristina Arana, Nerea Altuna zein Josune Olabarria. Bukatzeko, Azkue Bibliotekak bilgune izateko duen gaitasun zirraragarria aipatzea geratzen zait. Bertan, kontsulta-gelan Euskal Komunitate Zientifikoa parte hartzen duten hainbeste pertsona ezagutzeko aukera izan dut. Batzuk doktorego-tesiaren defentsa prestatzen ari ziren eta beste batzuk beren hurrengo artikulurako materiala lantzen; eta konturatu orduko argitaratuta aurkitzen nuen. Beraz, bihoakio, nire begirunerik handiena Azkue Bibliotekari.

INGUMA DATU-BASEA: EGITASMOAREN AZALPENA

Zer da Inguma datu-basea? Inguma Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz Udako Euskal Unibertsitateak sortutako Euskal Komunitate Zientifikoa-ren Datu-Basea da. Gure definizio kanonikoak honela dio: Zientzia eta jakintza-alor bakoitzean euskaraz ahoz edo idatziz ekoitzi denari buruzko oinarritzko informazioa eskaintzen duen datu-basea da. Hau da, Inguma, unibertsitate mailako euskarazko produkzio zientifikoa eta beren egileak biltzen dituen datu-basea da. Bertan euskaraz zer egin den eta nork egin duen azaltzen duen oinarritzko erreferentzia jasotzen da. Beraz, baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten dokumentuak soilik katalogatu dira: batetik, unibertsitate mailakoak dokumentuak izan behar dira, eta bestetik, azken hogeita hamar urteotan ekoitzi izan behar dute, hots, euskara batuaren oinarritzko arau ortografiko-gramatikalak finkatzen hasi zirenetik. Suertatu da, Euskara batuaren garapena eta finkapena azken bi euskalbururekin egin dela, Luis Villasante eta Jean Haritschelhar-ekin (3) alegia. Villasante, 1970. urtean Euskaltzainburu izendatu zuten, kargu horretan 1988. urtera arte aritu zen, eta

(3) Aurretik Euskaltzainburu izan ziren: R. M. Azkue Aberasturi (1919-1951), I. Etxaide de Lizasoain (1952-1962), J. M^a Lojendio Irure (1963-1964) eta J. M. Lekuona (1966-1970). Euskaltzainburu zein Euskaltzaindiari buruz gehiago jakin nahi izanez gero ikus: *Euskaltzaindiaren historia laburra*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984; edo ikus Euskaltzaindiaren 1984. urteko *Oroitidazkia*.

geroztik Haritschelhar-ek betetzen du kargua. Beraz, esan daiteke, Villasante eta Haritschelhar jaunak euskaltzainburu direnetik euskaraz eta unibertsitatea mailan ekoitzi diren dokumentuak Inguma datu-basean daudela. Honekin guztiarekin erakutsi nahi da Euskaltzaindia, hemen aurkezten den egitasmo honetan, mugarri berezia dela, bai muga kronologikoei dagokienez, eta baita maila zientifikoan ere.

Inguma-ren helburu nagusia euskal produkzio akademikoaren berri ematea da. Hortaz, ez da bibliografia nazional bat, eta ez da dokumentu bakoitzaren deskribapen edota baloraziorik egiten (euskararen kalitateaz, adibidez), Inguma euskarazko produktu guztiak eta egile euskaldunak ezagutarazteko tresna azkar eta eraginkorra izateko asmoz sortu baita. Hori dela-eta, unibertsitate mailako euskarazko produkzioa bere osotasunean jaso da mota desberdinetako produktuak kontuan hartuz: ahozkoak (hauen barnean, hitzaldiak, ikastaroak, irakasgaiak), idatzizkoak (hots, liburuak, artikulua, hitzaurreak, liburu-aipamenak) baita bestelako izaera duten doktorego-tesiak zein ikerkuntza-proiektuak ere.

Euskal kulturgintzaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat, ia-ia gaur egun arte iraun duena gainera, produkzioaren ahozketasuna izan da. Hainbat faktoreen eraginaz gertatu izan da hau: euskara oraindik guztiz normalizatu gabe izatea, pertsonen euskarazko alfabetatze maila urria, komunitate zientifiko euskalduna osatzen duten kideak gutxi izatea eta elkarrengandik gaur egun daudena baino sakabanatuago izatea,... Beraz, testuinguru honetan euskal kulturgintzan parte hartzen zutenentzat errazagoa zen ikastaro eta hitzaldiak antolatzea, argitalpen mardul bat egitea baino. Idatziaren formalitate eta ahozkoaren informalitatearen arteko amildegian, hasiera batean behintzat euskarazko ahozko ekoizpenak gailendu ziren. Honela zenbait faktoreen konkurrentziaren eraginez sortutako hasierako egoera agrafoa gaindituz joan bada ere, hainbat jakintza-arlotan ez da aipatutako jauzi kualitatiboa eman, eta ahozkoak oinarritzko ekoizpen euskarria izaten jarraitzen du.

* * *

Inguma datu-basea 2000. urtean martxan jarri zen Euskal Komunitate Zientifikoa osatzen duten pertsona zein dokumentuen sakabanaketa egoerari aurre egiteko. Izan ere, unibertsitario euskaldunek bizi duten egoeraren ezaugarri nabarmenena da sakabanatuta daudela. Ohikoa da pentsatzea unibertsitate mailako prestakuntza duten pertsonak, hain zuzen ere, unibertsitatearen bitartez nukleatzen direla. Hein handi batez hori horrela da, eta ezin uka daiteke unibertsitatea EKZaren bilgune garrantzitsua dela. Baina beste gune eta esparru askotan ere unibertsitate mailako prestakuntza duten pertsona euskaldunak badirela aitortu behar da, adibidez, goi mailako ikerketa zentroetan, institutuetan, abokatu bulegoetan, ospitaletan, etabar. Eta beraiei artean ez da komunikaziorik ez dutelako elkar ezagutzen.

Euskal Komunitate Zientifikoak duen beste ezaugarri nabarmen bat da, salbuespenak salbuespen, euskarazko produkzio zientifikoaren gaineko erreferentzialtasun eza. Euskaldun matematikari, zoologo, geografo edo filosofo batek, euskaraz beren jakintza arloaren inguruan idatzita duena eta gaur egun produzitzen denaren gainean jakitun izateko, dokumentazioan aditua izan behar du edo lagun bibliotekaria izan. Honekin guztiarekin erran nahi da, maila zientifikoan, jakintza-arloek euskaraz ez dutela erreferentziazko argitaletxe edota aldizkaririk. Adibidez, Fisika aldizkaririk euskaraz ez da, baina euskarazko artikulua fisikaren inguruan urtero kaleratzen dira: non ordea? Oro har, unibertsitate mailan euskaraz argitaratutako aldizkariak, jakintza-arlo bat baino gehiagoren inguruan espezializatzen dira. UPV/EHU-k argitaratutako *Ekaia* adibidez, *Euskal Herriko zientzia eta teknologia aldizkaria* da (www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publika/ekaia/ekaia.htm), UEUK kaleratutako *Uztaro*, Giza eta Gizarte Zientzien inguruko artikulua plazaratzen ditu (www.uztaro.com).

* * *

Egoera soziolinguistiko bitxia bizi dute Euskal Herriko argitalpenek. Badi-rudi, euskarazko aldizkari zientifikoek ezin dutela jakintza-arlo baten inguruan espezializaziora jo, hots, biologiarene inguruan adibidez ezin dela izan aldizkari espezializaturik. Holakoetan arrazoi gisa aipatzen dira: irakurle falta, masa kritiko nahikorik eza, jakintza-arloaren euskarazko tradizio falta, normalizazio terminologiko eza, etabar. Aldiz, ikusten duguna da erdarei halako *txikikeriek* ez dietela eragiten. Adibide bat jartzearen, UPV/EHU *Arqueología de la Arquitectura* aldizkaria kaleratzen hasi da, alegia, ez Historiaurre edo garai historikotako arkeologiaren arlo guztiei buruzko artikulua bilduko dituen aldizkari bat, baizik soilik lur gaineko aztarnekin lotura duen arkeologiaren arlo hiperespezializatuari zuzendutako argitalpen bat. Aitortu arren jakintza-arlo horretako esparru zehatz hau garrantzia hartzen doala, ez bakarrik maila zientifikoan, baita ekonomikoan (4) ere, bi hizkuntzen arteko garapen aukerak ez direla berdinak nabarmen uzten du. Beste era batera esanda: UPV/EHU-n euskaraz biologia ikasketak egin eta lizentzia eskuratu daiteke, baina antza ez dago euskaraz biologia aldizkari bakar bat sortzeko modurik; eta aldiz, unibertsitate berean baina fakultate ezberdin batean, arkeologia, historiako ikasketen barnean egin daitekeen hiru edo lau irakasgaietan oinarritutako gaztelaniazko espezializazio txiki bat baino ez da baina hor bada aldizkari guztiz berezitu bat sortzeko modua. Ez dugu demagogia merkerik egin nahi, baina zoritxarrez jakin badakigu zer eta zenbat jende mugitzen den (gutxi zinez) Espainian arkitekturaren arkeologiaren inguruan, eta hala ere ez da sikan ingelesez atera aldizkari hori...

Ur handia utzita, itzul gaitezen gurera. Inguma-k, EKZa osatzen duten egile eta dokumentuen sakabanaketari aurre egiteko bi alternatiba eskaintzen

(4) Arkeologia mota honek inbertsio handiak ditu erakunde publiko eta enpresa pribatuaren aldetik, askotan legeak eraikinak babestea behartzen dituelako edo emergentziazko interbentzioak egin behar direlako, eta beraz, horrek baliabideak metatzen ditu.

ditu: batetik, komunitateak bizi duen dispersioa gainditzeko lan-tresna bat eskaintzen du. Datu-basean egileen izena eta deiturak biltzeaz gain, helbide elektronikoa ere jasotzen da, beraien arteko harremana trinkotzeko balio dezakeelakoan. Arriskuaren gizarte honetan, teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailai esker, posta elektronikoaren bidez, adituen arteko harremana modu telematikoa bideratzea irtenbide praktikoa, eroso eta gaurkotua dela uste dugu. Bestetik, dokumentuen kasuan, Inguma-n unibertsitate mailako edozein jakintza-arloren inguruan ekoiztutako dokumentuen oinarritzko erreferentzia eskaintzen da. Adibidez, artikuluen kasuan, artikulua izenburua, argitalpen urtea, aldizkariaren izena, orrialdeak eta oinarritzko sailkapena eskaintzen da (5).

LANKIDETZA-HITZARMENAREN NONDIK NORAKOA

Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen helburuak betetzeko Udako Euskal Unibertsitateak zinez garrantzitsua ikusten zuen Euskaltzaindia egistamoa barneratzea bi arrazoi nagusigatik: bat, Euskaltzaindia Euskal Komunitate Zientifikoaren parte delako, eta bi, Euskaltzaindia euskal produktzio zientifikoaren ekoizle nagusietakoa delako. Hortaz, erakunde bien arteko harremana lankidetzaren bidez bideratuko zela adostu ondoren, aipatutako bost urteko iraupena izango duen hitzarmena sinatu zuten.

Euskaltzainak, urgazleak, baina batez ere, osoak, EKZko kiderik ezagunenetakoa dira eta agian proiektio sozialik handiena dutenak. Bestalde, Euskaltzaindia euskal kulturgintza erakunde historikoa dela bereziki azpimarratu nahi dugu. Inguma-n orain arte katalogatu ditugun erakunde gehienak, azken hogeit hamar urte hauetan sortu dira. Akademia 1919. urtean sortu zen. Beraz, lauogeita bost urteko historia duen erakundea da, bost Euskaltzainburu izan ditu eta bere historia osoan hirurogeita hamar euskaltzain oso baino gehiago izendatu dira (6). Halaber, gaur egun, erakunde honen inguruan EKZaren hainbat kide egituratzen dira, halanola honako hauek: hogeita lau

(5) Dokumentu guztiak izaera oso ezberdina duten bi katalogazio sistemen bitartez sailkatu dira. Batetik, M. Dewey-ren (1876) lanetan oinarritutako *Sailkapen Hamartar Unibertsala* (SHU) delako sistemarekin, une honetan munduan gehien erabiltzen sailkapen-sistema baita. Beronen aukera guztiak agortuz gero 160.000 sarrera desberdin dituen arren, datu-base honetan 118 sarreradun bertsio hiperlaburtu bat hautatu da, moldaketa txiki batzuk eginez. Bestetik, gai-sareren zerrenda itxi bateko hitz-gakoak esleituz osatu da bigarren katalogazio-sistema. Sailkapen honetan bi motatako sarrerak daude: jakintza-arlo bat deskribatzen dutenak (adb. *Fisika, Psikologia, Matematika*,...) eta toponimoak (*Amerika, Euskal Herria*,...). Lehenek dokumentuaren gaia deskribatzen dute, eta bigarrenak gai hori aldez edo moldez, lurralde edo gizarte zehatz bati loturikoa den zehazten du. Katalogazio sistematikoak, jakintza-arlo talde handiak arabera identifikatzeko aukera ematen du (horretan oinarritzen da artikulua honen bukaeran dagoen *Taula 1* grafikoa).

(6) Ikus J. A. Arana Martijak Euskaltzaindian sartzen egindako sarrera-hitzaldiaren testua, *Euskera* buletinean argitaratua: «Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat. Euskaltzain sarrera hitzaldia» (1990, 35. zkia, 15-35. orr.).

euskaltzain oso, ehundik gora euskaltzain urgazle, hainbat euskaltzain oho-rezko (bai Euskal Herrian zein nazioarte mailan), eta beste hainbat ikerle eta laguntzaile.

Bestalde Euskaltzaindiak EKZko hainbat kide harilkatzeaz gain, euskal produkzio zientifiko eta kulturalaren ekoizle nagusietakoa da. Horregatik ere Akademiak Inguma-n parte hartzearen beharra ikusi zen. Euskaltzaindian norbanakoek egindako lan zientifikoak Inguma-n katalogatzean (7) agerian geratu da euskal produkzio zientifikoa ez dela soilik unibertsitatean ekoizten. Izan ere, askok, kaleko jendeak zein komunitate unibertsitarioak, pentsatzen dute produkzio zientifikoa unibertsitateetan ekoizten dela. Are gehiago, askok, Euskal Herrian zazpi unibertsitate izan arren, uste dute euskaraz eta unibertsitate mailako ekoizpenak UPV/EHU soilik egiten direla eta hortik kanpo ezer gutxi dela. Hein batez hori horrela bada ere, ez da guztiz erreala. UPV/EHU ekoizle garrantzitsu bat da, baina ez bakarria eta are gutxiago perspektiba diakronikoan egiten badugu azterketa. Hau da, Euskal Herrian unibertsitateetik kanpo ere, maila zientifikoko kultur produkzio garrantzitsua egon izan da. Aipatu behar diren erakunde horien artean Euskaltzaindia dugu, baina baita Elhuyar (www.elhuyar.com), Aranzadi Zientzi Elkarte (www.aranzadi-zientziak.org), UEU, etabar (8). Adibide bat jartzearen Inguma-n sailkatuta dauden 8.068 artikulua laurogeita hemeretzi aldizkariren hustuketaren bitartez katalogatu dira. Horietatik hamaika aldizkari UPV/EHU-k argitaratzen ditu (9), eta bertan 584 artikulua kaleratu dira, hau da, Inguma-n dauden artikuluen % 7-a unibertsitate honek atera ditu. Euskaltzaindiak aldiz, argitalpen bakar batean, *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak/ Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca/ Travaux et actes de l'académie de la langue basque* 991 artikulua plazaratu ditu, hots, Inguma-n dauden artikuluen %12-a.

(7) Beraz, ez dira katalogatu Euskaltzaindiaren adierazpen instituzionalak, erakundearen autoritateari baitagozkion ekarpenak direlako

(8) Euskal kultur gintzaren inguruan zerbait gehiago jakin nahi izanez gero ikus: M. Aizpuru (2003): *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kultur gintza. Hasierako urteak 1973-1984*, UEU, Bilbo.

(9) Gure datuen arabera, UPV/EHUK hemeretzi aldizkari argitaratzen ditu, batzuk unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzuak zuzenean kudeatuz (http://www.ehu.es/servicios/se_az/): *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo (ASJU)*, *Arqueología de la Arquitectura*, *Cursos de Derecho Internacional*, *Ekaia: Euskal herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia aldizkaria*, *Fabrikart*, *Gogoa*, *Guineana: revista de Botánica*, *Historia Contemporánea*, *The International Journal of Developmental Biology (IJDB)*, *Lan Harremanak*, *Skribuak*, *Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria*, *Theoria: Revista de Teoría. Historia y Fundamentos de la Ciencia*, *Veleia: Revista de Prehistoria, Historia Antigua, Arqueología y Filología Clásicas* eta *Zer: revista de Estudios de Comunicación*. Aldiz beste aldizkari batzuk unibertsitateari loturiko departamentu (*Revista de psicodidáctica*), Unibertsitate Eskola (*Revista de dirección y administración de Empresas/ Enpresen zuzendaritza eta administrazioarako aldizkaria*) edo Institutu batek (*Notitia Vasconiae: Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako aldizkaria/ Revista de Derecho Histórico de Vasconia*) kaleratzen ditu bere kabuz. Oharra: beltzez adierazi dira euskaraz artikulua bat edo gehiago argitaratu dituzten aldizkariak.

DATU-BASEAREN HORNIKETA DOKUMENTALAREN BILAKAERA

Egitasmo hau 2000. urtean martxan jarri zen Bizkaiko Foru Aldundiaren (www.bizkaia.net) babes eta dirulaguntzari esker, eta hurrengo bost urteotan Bizkaiko foru erakunde honek bermatu du egitasmoaren jarraipena. Egonkortasun honi esker, une honetan Inguma datu-baseak 23.000 erregistrori atxiriko 6.000 egile bildu ditu. Lehen urte horretan Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea hornitzeari ekin genion eta horretarako erakunde bat aukeratu zen, UEU, eta berak edo beraren inguruan euskaraz ekoiztutako guztia, ahozkoa zein idatzizkoa, Inguma-n jaso zen, alegia, 1973.ean Aita Villasantek Donibane Lohizunen XVII. Mendeko literatura: Donibane Lohizuneko idazleen eskola izenburupean emandako lehen hitzalditik gaur egun arte UEUn ekoitzi den guztia. Orotara momentu honetan Inguma-n Udako Euskal Unibertsitateak emandako 5.960 hiltzaldi, 904 ikastaro, 397 artikulua (*Uztaro* aldizkarian argitaratutakoak 1990. urtean sortu zenetik) eta 300 libururen oinarritzko erreferentzia aurki daiteke. Era horretan finkatu ziren datu-basearen katalogaziorako irizpide nagusiak.

* * *

Hurrengo urtetik aurrera Inguma-ren horniketa-lana euskal kulturgintzan parte hartzen duten beste erakunde batzuren produkzio zientifikoa bilduz segitu genuen. Adibidez, Eusko Ikaskuntzak (www.eusko-ikaskuntza.org) 1984. urtean sortutako serie guztiak jaso ziren, hau da, *Cuadernos de Sección* gisa ere eza-gunak diren aldizkako argitalpenak oro. Kasu honetan zera aurkitu dugu: hamabost serie desberdinetan 571 artikulua zein liburu aipamen kaleratu direla (10). Hau da, Inguma datu-basean katalogatuta dauden aldizkarien % 16 Eusko Ikaskuntzak kaleratzen ditu, baina Eusko Ikasuntzaren euskarazko artikulua zientifikoen produkzioa Inguma-n justu justu % 7-ra heltzen da. Eusko Ikaskuntzaz gainera beste erakunde askoren lanak ere katalogatu dira, halanola, *Jakin* aldizkarian azken hogeita sei urteetan plazaratutako artikulua guztiak (www.jakingunea.com); Labayru (www.labayru.com) Euskal Kulturaren Erakundearen argitalpenak eta aldizkariak (*Idatz & Mintz, literatur atalen sorta, Litterae vasconiae. Euskararen Iker Atalak. Labayru Ikastegiko Hizkuntza Arloaren aldizkaria*, eta *Etniker Bizkaia*); Elhuyar-en aldizkari historikoa (*Elhuyar aldizkaria*, www.zientzia.net) eta egun paperean zein euskarri elektronikoa at-

(10) Eusko Ikaskuntzak hamazortzi aldizkari argitaratzen ditu, Inguma-n horietatik hama-seitan euskarazko artikulua bat edo gehiago aurkitu ditugu: *Azkoaga: Cuadernos de Ciencias sociales y económicas*; *Azpilcueta: Cuadernos de Derecho*; *Eleria: Euskal Herriko legetariaren aldizkaria*; *Eusko Ikaskuntzen Kongresuak; Fórmula: Cuadernos de Ciencias Físico-químicas y matemáticas*; *Ikastaria: Cuadernos de Educación*; *Isturitz: Cuadernos de prehistoria-arqueología*; *Jentilbaratz: Cuadernos de folklore*; *Mediatika: Cuadernos de Medios de Comunicación*; *Musiker: Cuadernos de música*; *Naturzale: Cuadernos de ciencias naturales*; *Oihenart: cuadernos de lengua y literatura*; *Ondare: Cuadernos de artes plásticas y monumentales*; *RIEV: Revista Internacional de Estudios Vascos*; *Vasconia: cuadernos de historia y geografía*, eta azkenik, *Zainak: cuadernos de antropología-etnografía*.

ratzen den *Elhuyar Zientzia eta Teknika* (www.zientzia.net); Euskal Herriko Zientzia arloko hainbat erakunderen aldizkariak: Aranzadi Zientzi Elkartearen *Munibe (Antropologia-Arkeologia)* eta *Munibe (Ciencias Naturales/Natur Zientziak)*; Ankulegi Antropologia Elkartearen aldizkaria (<http://ankulegi.pangea.org>)

2002. urtean Euskal Herriko unibertsitateen produkzio zientifikoa biltzen hasi ginen. Lan hau burutzeko funtsezkoa izan zen Euskal Herriko bi unibertsitate garrantzitsuenekin lankidetzaz hitzarmen bana sinatzea, Inguma-n jaso beharreko datuen fidagarritasuna eta ofizialtasuna bermatuta egoteko. Horregatik irakasle zein ikasle euskaldun talderik handienak biltzen dituzten UPV/EHU eta UD/DUra jo genuen. Bidean, hartutako norabide honekin Inguma datu-baseari balio berriak erantsi genizkion. Inguma unibertsitateko ki-deen curriculum-garapenerako lanabes gero eta interesgarriagoa bihurtuz. Hitzarmenei esker, UPV/EHU eta UD/DU (11)-k Inguma datu-baseari ondoko datuak erraztu zizkieten: lehenengo, bigarren eta hirugarren zikloko euskarazko eskaintza akademikoa, argitalpenak (aldizkakoak (12) zein monografikoak) eta euskaraz buruturiko doktorego-tesiak eta ikerkuntza-proiektuen zerrenda (13). Hasieran, 2000. urtean egitasmo hau martxan jarri zenean, ikerkuntza-proiektuak eta doktorego-tesiak katalogatzea ez zen aurreikusi. Gerora ohartu ginen, euskaraz buruturiko doktorego-tesi eta ikerkuntza-proiektuak, Komunitate Zientifiko euskaldunaren oinarritzko dokumentuak direla, eta beraz Euskal Komunitate horren garapena neurtzeko erreferentzia ezin hobeak.

Honela aipaturiko erakunde horiek, guztiek eta beste hainbatek argitaratuko liburuak, aldizkarietako artikulak eta bestelako lanak katalogatu dira azken lau urteotan. Hala, orotara, datu-basean 99 aldizkari eta 40 argialetxeren ekoizpenak jaso dira (14).

EUSKAL AKADEMIAREN EKARRIA

2003. urtean Inguma-ren ekimena finkatzeko, ospe bereziko erakundeen lankidetzaz hitzarmenak sinatzea deliberatu genuen. 2003. abenduan Eus-

(11) UPV/EHUrekin 2002ko uztaillean sinatu zen eta UD/DUrekin 2003ko martxoan. Hitzarmen bakoitzaren ekarpena, oihartzun mediatiko zabala izan duten ekitaldi publiko banarekin ezagutarazi da. Geroztik bi unibertsitateekin abiatutako harremana gaur egun ere mantentzen da.

(12) Inguma-n katalogatuta dauden UD/DU-ren aldizkariak honakoak dira: *Enseiukarreen*; *Ernaroa: Revista de historia de Euskal Herria/ Euskal historiako aldizkaria*; *Estudios de Deusto. Revista de la Universidad de Deusto*; *Estudios empresariales*; *Letras de Deusto* eta *Mundaiz*. UPV/EHUK kaleratu eta Inguman dauden aldizkarien zerrenda ezagutzeko jo 9. oin-oharrera.

(13) UPV/EHUn ikerkuntza proiektuen kasuan, Inguma datu-basean 1998. urteari dagozkionak soilik jaso dira. UPV/EHUn Ikerketa Errektoreordetzak argitaratutako azken gida urte horretakoa delako. Tamalez, aurreko urteetako gidak ezin izan dira eskuratu.

(14) Inguma-n katalogatutako erakundeen zerrenda osoa eta zehatza, erakundeen izen osoak eta hустutako zenbakiak zein urte tartearak, helbide elektroniko honetan kontsulta daitezke: http://www.inguma.org/berria/indexeu.cfm#erakunde_zerrenda

kaltzaindiarekin sinatu zen bost urteko iraupena izango duen lankidetza hitzarmena.

Inguma-ren inguruan, Euskaltzaindia eta UEUren artean lankidetza esparru oparo bat sortu eta garatu da, Akademiak euskaraz ekoizten duenaren oinarritzko informazioa erabilera publikoa duen datu-basean jartzeko. Euskaltzaindiak egitasmoa aitzinaratzeko hartu dituen konpromezuen artean hiru hauek aipatzea dagokigu: batetik, Azkue Bibliotekaren katalogoa eta fondoan bitartez, Erakundearen produkzio zientifikoari buruzko berri zehatza UEUren esku jartzea, bestetik, Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma) ezagutarazten laguntzea, bai erakundearen barnean zein kanpoan, eta azkenik, adostutakoaren arabera behar diren bitarteko eta baliabideak UEUren esku ipintzea. Inguma zer den, zer dagoen eta Erakundearen ekarpena zein izan den aditzera emateko, Euskaltzaindiaren egoitzan aurkezpena egin zen 2004ko ekainaren 11an. Hain zuzen ere, aurkezpen horretan, katalogazio lanaren haritik Akademiaren inguruan antzemandakoa azaldu genuen.

Hasteko *Euskera*, *Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* buletinak Inguma datu-baseari egin dion ekarpena aipatu zen. Akademiaren buletina tradizio luzeko aldizkaria da, Inguma-n dauden aldizkarien artean, kronologiarik zaharrena duen aldizkako argitalpena da. Lehen zenbakia 1921. urtean kaleratu zen, R. M. Azkue (1864-1951) euskaltzainburu zelararik. Gerra Zibilarekin buletinaren argitalpena eten egin zen, eta 1956. urtera arte ez zen berriro liburukirik argitaratu. Geroztik, etenik gabe iraun du gaur egun arte. Urtean, arruntki liburuki bat bi zatitan partitua kaleratzen da, 2004. urtean 49. liburukia argitaratuz. Agerkariaren azala ikustea baino ez dago, konturatzeko agerkariak bere jatorrizko egiturari eutsi diola urteak igaro arren.



1. Irudia: *Euskera* buletinak ezagutu dituen portadak. Eskuman, *Euskeraren* 1923. urteko portada, erdian, 1956koa, Gerrak eragindako etenaldiaren ostean kaleratutako lehenengo zenbakiaren portada, eta ezkerrean, iazko ale baten irudia.

Euskera argitalpen berezia da, oso. Ez da ohiko aldizkaria, Euskaltzaindiaren baitan organo bat ere badelako. Buletinaren bitartez, Akademiak bere jarduera zientifiko, kultural, sozial, arauemaile eta administratiboaren berri ematen du. *Euskera*, Euskaltzaindiaren oinarritzko ekoizpena da, erakundearen sozializaziorako tresna, Akademiari urteko pultsoa hartzen diona. Bertan mota oso desberdineko agiriak argitaratzen dira: Euskara batuaren inguruan Euskaltzaindiak emandako azken erabakiak, Arauak, Onomastika eta toponimiako ziurtagiriak, erakundekin sinatutako hitzarmenak, Batzar-Agiriak, berriak, pertsonen aurkitegia, etabar. Inguma-n, gorago esan denez, euskara batuaren oinarritzko arauak finkatzen hasi zirenetik ekoiztitakoa jasotzen da, eta beraz *Euskera* aldizkarian 1969-tik hona jasotakoa bildu da. Zehazki, Erakundean parte hartzen duten norbanakoen lan akademikoak katalogatu ditugu (sarrera-hitzaldien testuak, jardunaldietako artikulua, omenaldietakoetan irakurritako testuak, etabar).

Bestalde, Euskaltzaindiak, aipatutako agerkariak gain, urtean zehar bes-telako argitalpen monografikoak plazaratzen ditu. Euskaltzaindiaren idatzizko ekoizpen garrantzitsuenak bildumen bitartez antolatu eta egituratzen dira. Bilduma bakoitza nortasun bat du, hau da, espezializazio esparru propio bat. Hala, *Euskararen Lekukoak* izeneko seriean Filologia lanak argitaratzen dira, *Onomasticon Vasconiae*-en Euskal Herriko toponomastika eta, *Iker* bilduman euskara eta euskal kulturaren inguruko ikerlanek dute tokia. Bilduma hauek ez dira denak aldi berean sortu, horregatik sortze urtea aitzaki harturik, bakoitzaren inguruan berri zehatza jasoko dugu segidan.

* * *

1979. urtean **Euskararen Lekukoak** (15) bildumaren lehen obra plazaratu zen: J. Lizarraga Elkanokoaren (1748-1835) *Doctrina Christioaren Cathechima* lanaren edizio kritikoa. Horren ostean, beste hogeita bi euskal testu klasiko desberdinen berrargitaratzeko ardura hartu du Euskaltzaindiak. Gehienak gai erlijioso eta Elizari buruzkoak izatea suertatu da, esaterako, J. Etxeberri Ziburukoaren (~1580-?) *Manual devotioenezcoa* (1981); E. Lapeyrek (1840-1893) idatzitako *Kredo edo sinhesten dut esplikatua* (1982); B. Gazteluzarren (1619-1701) *Eguia catolicac Salbamendurako eternalaren egiteko necesario direnac* (1983); J. A. Mogelen (1745-1804) *Cristaubaren icasbidea edo doctrina* (1987) etabar. Hala ere, bistan da bilduma honetako liburuak ez direla berariaz gai erlijiosokoak izateagatik aukeratu, hizkuntzaren lekuko izateagatik baizik. Horregatik bestelako gaiak tratatzen dituzten euskal testu zaharrak ere aurki daitezke bilduman, halanola, Etxepareren (~1493-?) *Linguae*

(15) Bilduma honetan argitaratu diren edizio kritiko guztiak eta beren berezitasunak ahalik eta zehatzen jasotzearen Inguma datu-basean, lanen izenburuaren eremuan honako etiketa jarri dugu «(EK)+izenburua»

Vasconum Primitiae P. Altunak prestatua (1983) (16); edo, *Latsibi* (1989), R. M. Azkue abadeak idatzitako elaberria.



2. Irudia: (eskuman) B. Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* lanaren jatorrizko azala, eta (ezkerrean) P. Altunaren 1983ko edizio kritikoa

Euskaltzaindiak **Onomasticon Vasconiae** bilduman, hogeita hiru lan kaleratu ditu 1983-2003. urteen artean. Serie honetan Euskal Herriko herri zein haranetako euskarazko Onomastika eta Toponimia bildu da. Obra oso garrantzitsuak –eta beharrezkoak– dira tokian tokiko euskarazko onomastika ez galtzeko, baita euskal leku izenen normalizazioa burutzeko ere. Bilduma honetan, batez ere, Gipuzkoa eta Nafarroako toponomastika bildu da (17). Horretaz guztiaz gainera, gaiaren inguruan Gasteizen (1986), Urduñan (1987) eta Lizarran (inprimategian da) antolatutako Onomastika Jardunaldien aktak bertan argitaratu dira, eta ez Iker Bilduman.

* * *

1984. urtean Euskaltzaindiak Gernikan antolatutako Euskalarien Nazioarteko Jardunaldien kariaz, **Iker** bilduma sortu zen. Jardunaldi horietan bertoko zein nazioarteko euskalariak parte hartu zuten eta beraien lanak ezagutzera emateko bilduma berri bat sortzea erabaki zen. Bilduma berri horren izena Iker izan zen eta berau euskararen eta euskal kulturaren inguruko ikerketa lanak ezagutzera emateko erabiliko zen. Geroztik Euskaltzaindiak hainbat jardunaldi, omenaldi eta bestelako jardura Akademiko prestigiotsu antolatu

(16) 1995ean Euskaltzaindiak Etxepareren lanaren edizio kritiko berri bat atera zuen: *Linguae Vasconum Primitiae* (1495-1995) (lehen euskal liburua inprimatua), oraingoan bildumatik kanpo eta, hainbat hizkuntzatan emanda (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemaniera eta italiera).

(17) Adibidez, Pasaia (1992); Andoain (1993); Eibar (1995 eta 2000); Urretxu eta Zumarraga (1998); Hondarribiako herrien toponomastika...

ditu (18) aktak eta bestelako agiriak Iker bilduman argitara emanez. Halaber, Iker denborarekin aberastuz joan da, bertan zenbait euskalari ezagunek UPV/EHU defendatu dituzten doktorego-tesiak argitaratu baitira: Koldo Zua-zoren *Euskararen Batasuna* (1988), Jabier Alberdiren *Euskararen tratamenduak: erabilera* (1996) eta Juan Luis Goikoetxearen *Euskalkia eta hezkuntza: dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian* (2003).

Euskaltzaindiaren idatzizko produkzioarekin bukatzeko, bilduma hauetarik kanpo geratzen diren bestelako argitalpenak ezin ahantz daitezke. Hauetako asko beste erakunde batzurekin garatutako lankidetzari esker kaleratutako lanak dira, adibidez Euskaltzaindiaren eta UPV/EHUren artean prestatutako *Yehuda Ha Levi* (1070-1141) poeta juduaren poesien antologia hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta hebraieraz) (19) edo Eusko Ikaskuntzarekin batera Antoine d'Abbadie-ren inguruan antolatutako kongresuaren aktak (20).

Akademiak beste erakunde batzurekin duen hartu emanaz ari garela aprobetxatuz, Euskaltzaindia eta Bilbao Bizkaia Kutzaren arteko urteetako lankidetzak oparoa (1958. urtetik aurrera...) ez aipatzea akats larria litzateke. Urtero erakunde bien artean euskal idazle eta ikerleentzat oso prezituak diren lau sari ezagunen deialdia ateratzen da. Euskal Herriko saririk garrantzitsuenetakoa diren hauetan, genero literario bakoitzak bere tartea du: poesiak *Felipe Arrese Beitia Saria* dauka; antzerkiak *Toribio Alzaga Saria*; eleberriak *Txomin Agirre Saria* eta saiakerak *Mikel Zarate Saria*. Sarion balioa are handiagoa da, irabazleek beren lana Euskaltzaindiarekin argitaratzea lortzen baitute. Kontutan hartuta Inguma-n unibertsitate mailan euskaraz ekoizitakoa katalogatzen dela, lau sarietatik Mikel Zarate saiakera saria jasotako argitalpenak erregistratu ditugu. 1981. urtean J. Kortazarrek jaso zuen lehenengo aldiz sari hau Mikel Zarate Lezamako euskaltzalearen prosaren azterketari esker. Geroztik, gai oso desberdinei buruzko saiakerak irabazi dute lehiaketa: soziolinguistika gaiak (Jon Mari Odriozola (1998): *Hizkuntza, kultura eta gizartea*); politika (Pako Juaristi (2001): *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*; Jon Zabalo (1997): *Europako (zein?) batasuna*); hezkuntza (Jon Mari Odriozola (2000): *Nazio-identitatea eta eskola*); historia (Pako Sudupe (1996): *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*; Jurgi Kintana (2002): *Vizcaytik Bizkaira?* R. M. Azkue *Euskaltzaindia sortu aitzin*), etabar.

* * *

Euskal kulturegintzan ahozkoak tradizio gisa duen garrantzia kontuan hartuz, Inguma datu-basean hitzaldiak, ikastaroak eta irakasgaiak EKZ osatzen

(18) Adibidez, *Piarres Laffitte-ri omenaldia* (1983); *Luis Villasanteri omenaldia* (1992); *Oihenarten Laugarren Mendeurrena* (1994); *Federiko Kruttwig-i omenaldia* (1997), etabar.

(19) X. Kintana (edizioaren prestatzailea): *Haizearen hegaletan: poesi antologia/ Sobre las alas del viento: antología poética*, Euskaltzaindia-UPV/EHU, Bilbo, 2002.

(20) Antoine d'Abbadie (1897-1997): *Congrès International*, Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza, 1998.

duten kideen ekoizpen gisa katalogatzen dira. Hori dela-eta, hitzarmenaren babesean, Euskaltzaindiaren baitan edo bere inguruan antolatutako hitzaldien gaineko informazioa bildu da. Inguma-n Euskaltzaindiaren ahozko produkzioaren lehenengo bilketa sistematikoa egin da. Datu-basean Euskaltzaindiaren ahozkoa jasotzeko arrazoiak ugari dira: batetik Akademiak ahozko produkzio garrantzitsua duelako, eta bestetik, Euskaltzaindiko hitzaldi gehienak argitaratzen diren arren, denek ez dutelako idatzirako jauzia ematen, eta maiz hitzaldia eta argitalpena ez dira zehatz mehatz berdinak.

Euskaltzaindiaren inguruan 1983. urtetik hona seiehun hitzalditik gora antolatu direla dokumentatu da Inguma-n (21). Horretarako erakundeak 1983. urtetik argitaratzen duen *Oroitidazkia* arakatu da. Bertan erakundeak burututako urteko jardueren laburpena jasotzen da. 1994. urtetik aurrera albiste-orria izeneko barne buletina ateratzen da, egoitzetan Euskaltzaindiko jardueren berri zehatza emateko (22). Hala katalogatu ahal izan ditugu euskaltzainen sarrera-hitzaldiak, erantzunak, jardunaldietako hitzaldiak, hilberri-txostenak eta ageriko bilkuretako txostenak, batik bat. Bereziki azpimagarria da Euskaltzaindiko hitzaldi mota batzuren akademikotasuna eta formalitatea, sarrera-hitzaldi, erantzun-hitzaldi eta hilberri txostenen kasuan (23). Euskal kulturgintzaren ahozkototasuna nahiko informala den arren, Euskaltzaindian formaltasun bat ematea lortu da: hola, Akademia ahozko ekoizpenen egituraketa eta tipifikazioa egiten saiatuz denez, ahozkoaren iheskotasunari hilezkortasun bat emateko ahalegina egin du.

Ondorio modura, Euskaltzaindiak produkzio zientifiko zabala du, eta ez-bairik gabe, bere ekarpena maila zientifikoan euskal linguistikaren inguruko ikerketatik haratago doa. Hau da, erakundeak antolatzen dituen jarduera zein ekitaldien bitartez (omenaldiak, jardunaldiak,...), beste erakunde garrantzitsu batzuekin garatutako harreman emankorreki esker, eta bere inguruan harilkatzen diren hainbat pertsonen lanari esker, gaur egun euskararen Akademiak hizkuntzaren perimetro hutsa gainditzen du, hainbat jakintza-arloren inguruan ekarpen zientifiko garrantzitsuak eginez.

(21) Bilketa lanean erabilitako iturriak bi izan dira: 1983-1993 urteetako ahozkoa biltzeko urtez urteko *Oroitidazkia*, eta 1994-2004. urteetako *Albiste orriaren* bitartez jaso da. Ziur gara Euskaltzaindiaren baitan seiehun hitzaldi baino gehiago antolatu direla, baina Inguma-n, dokumentatutako jarduera zientifikoa baino ez da biltzen. Denborarekin eta hitzarmenak bost urteko iraupena duenez, hutsune dokumentalak antolatzeko aukera izango dugu.

(22) Albiste orriaren definizioa. «Orri hauek Euskaltzaindiko egoitzako eta ordezkari-tzetako langileentzako dira, erakundearen lanen eta ekintzen berri emateko» (*Albiste orria*, 3. zkia, 1. or.)


(23) Holako kasuetan izenburuan argi geratzen zenean, mota bakoitzaren izaera nabarmentzeko formula edota etiketa desberdinak erabili dira. Adibidez sarrera-hitzaldiak izenburua argi zegoenean, *Sarrera-hitzaldia*: formula erabili da izenburuaren hasiera. Aldiz, izenburu zehatza jakiterik ez zegoenean euskaltzain berriaren izena eta *Euskaltzaindian sartzea: sarrera-hitzaldia* formula erabili da (eg. «M. Azkarateren Euskaltzaindian sartzea: sarrera-hitzaldia»). Erantzun-hitzaldiekin irizpide dokumental berdina erabili da. Aldiz hilberri-txostenak adierazteko parentesi artean adierazi da aipatutako nolakotasuna.

EUSKAL KOMUNITATE ZIENTIFIKOA

Une honetan, Inguma datu-basean 2000 urtetik egindako lanari esker, eta Euskaltzaindiaren ahozko zein idatzizko ekoizpen zientifikoak gehitu ondoren, 23.000 dokumentu baino gehiagori atxiriko ia 6.000 egile eskaintzen dira.

Inguma egileen zein dokumentuen sakabanaketa gainditzen laguntzen duen lan-tresna izateaz gain, EKZ-a hobeto ezagutzeko informazio iturri aparta da. Orain arte modu intuitiboan hautemandako EKZ-a ezagutzeko bidean urrats handi bat da. Beraz, Inguma-n bildutako informaziotik abiatuta, eta inor aztoratzeko asmorik gabe, ondorio sinple batzuk plazaratuko ditugu:

1. Azken hogeita hamar urte hauetan, prestakuntza unibertsitarioa duten 6.000 euskaldunek osatu dute/osatzen dute EKZ-a.
2. Zenbait jakintza-arloren inguruan ekoizpen zientifiko izugarria metatuta dago. Aipatutako jakintza-arloak hauek dira: hizkuntzalaritza, historia, literatura kritika eta pedagogia. Ondoko taulan ageri den jakintza-arloen arteko ekoizpen kopuruek desoreka egungo euskarazko produkzio zientifikoaren desoreka agerian uzten dute. Halaber litekeena da aipatutako esparruen inguruan beste edozein alorretan baino masa kritiko handiagoa biltzea.



1. Taula: Jakintza-arloak Inguma datu-basean dituen dokumentu kopuruaren arabera ordenatuta. Irizpide koantitatiboak erabilia hiru talde bereiztu ditugu: zuria erabili da euskaraz eta unibertsitate mailan 500 dokumentu baino gutxiago dituzten jakintza-arloak adierazteko; grisa aldiz 500 eta 1.000 arteko muga horretan daudenak adierazten ditu, eta beltzarekin, azkenik, 1.000 dokumentu baino gehiago biltzen dituzten esparruak daude.

BIBLIOGRAFIA:

- AIZPURU, M. (2003): *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintza. Hasierako urteak 1973-1984*, UEU, Bilbo.
- ARTETXE, K. (2002): «Euskal intelektualak interneten: Inguma proiektua», *Euskonews & Media*, 178, (06/09/2002), <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0178zbk/frgaia.htm>
- ARTETXE, K. (2002): «Ingum@», *Aikor! Txorierriko aldizkaria*, 9, 21. or.
- ARTETXE, K. (2002): «Inguma, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea», *Ankulegi Gizarte antropologia aldizkaria/ Revista de Antropología social/ Revue d'ethnologie*, 6, 196. or.
- ARTETXE (2003): «Inguma: Euskal Komunitate Zientifikoaren komunikazio eta ikerketarako lan-tresna» in Askoren artean, *Hizkuntza eta lurra*, Herria 2000 Eliza, Bilbo, 119-130. orr.
- ISASI, X. (2004): «Unibertsitario euskaldunen egoera zaila», *Bat*, 50, 131-139. orr.

JAGON SAILA

EKUADORKO JATORRIZKO HIZKUNTZEN AKADEMIA ANTOLATZEKO II. LAN-MINTEGIARI BURUZKO TXOSTENA

Ekuadorren, 2005-II-14/17

Xabier Kintana

2004.eko abenduan Hektor Menchero jaunak, Quitoko UNESCOren ordezkariak, Euskaltzaindia bisitatu zuen, Euskararen batasun-prozesuaz interesaturik. Akademiaren idazkariarekin luzaro mintzatu ondoren, Menchero jaunak aurtengo otsailean Ekuadorren bertako amerindiar hizkuntzen Akademiaren eratzeaz eta batasunaz egiteko asmo zuten mintegira, UNESCOK finantziatura, Euskaltzaindiak ordezkari bat bidaltzea proposatu zuen. Xabier Kintanak bera hara joateko prest zegoela esan eta Zuzendaritzak aintzat hartu zuen. Horretarako, euskararen, Europako eta munduko beste hizkuntza batzuen batasunaz txosten bat prestatu zuen, eta Ekuadorko hizkuntza horien egoera eta testuingurua kontuan harturik proposamen batzuk egin zituen, Hizkuntzen Akademia antolatzekeo jarraibideak barne, guztira 60 bat orrialde idatziz.

X. Kintanak otsailaren 13an Ekuadorrerako bidaia egin zuen. Quitora heldzean H. Menchero eta mintegi horren antolatzaileak aireportuan zain izan zituen, hotelera eramanez. Biharamun goizean, otsailaren 14an, mintegia egiteko zen lekura abiatu ziren, Edwin Gordón Sierra, *Dirección Nacional de Educación Intercultural Bilingüe*-DINEIBeko zuzendari nazionala, Transito Chela andrea, mintegiaren koordinatzailea, Hektor Menchero UNESCOren ordezkaria, eta Xabier Kintana hizlaria, Orellana probintziako Loreto kantoira, Amazonian kokatura, Quitotik 250 kilometrotara. Harainoko bidaiak, bide gorabeheratsuak zirela eta, 8 ordu iraun zuen. Han Jose Caiza jaunak, antolakizunaren koordinatzaileak ongi etorria eman zien.

Hurrengo egunean, otsailaren 15ean, Loreto udalerriko alkateordeak partaideei ongi etorria eman zien kitxuaz eta gaztelaniaz, udalaren laguntza osoa eskainiz. Ondoren Edwin Gordón jaunak mintegiaren nahiak eta helburuak azaldu zituen. Horren hurrengo, Xabier Kintanari eskaini zitzaion hitza. Beronek Euskaltzaindiaren agurra eta Jose Juan Ibarretxe lehendakariaren elkartasun-hitzak adierazi zituzkien guztiei, euskaldun moduan bertan, laguntzeko as-

moz, egotea ohi ez bezalako ohorea zuela esanez. Hektor Menchero jaunak, euskalduna berau ere, UNESCOren izenean ekitaldiaren esangura eta xedeak azpimarratu zituen,

Azkenik, Transito Chela andreak, mintegiaren koordinatzaile gisa, bilduei hitz batzuk esan zizkien, hara etorririko guztiei eskerrak emanez eta lan egiteko prozedura azalduz. Atarikoon ondoren, bertara bildu ziren 11 nazionalitate indigenen partaideek, guztiak irakaskuntza arlokoak, beren burua aurkeztu zuten, nork bere hizkuntzan agurra eginez. Heldurikoak 30 pertsona izan ziren, andrazkoak eta gizonezkoak, guztiak irakaskuntza-arlokoak, honako amerindiar nazioetako ordezkari: andoa, kofan (650 hiztun), txatxi (10.000 hiztun), epera (30.000 hiztun), kitxua (3.050.000 hiztun), sapara (50 hiztun), xuar (80.000 hiztun), xiwiar (1000 hiztun), tagaeri (500 hiztun), tsatxila (2.000 hiztun) eta waoraniak (2.000 hiztun). Gomitatuak izan arren, era bateko edo besteko arrazoiengatik, ez zuten etortzerik izan atxuar (500 hiztun), awa (3.500 hiztun), sekoia-siona (150 hiztun) nazionalitateetako ordezkariak.

Hizlarien artean, lehenik Bernardo Chango jauna mintzatu zen, Kitxua-ren Akademiaren Burua, hizkuntzen akademien osaeraz eta antolaketaz iradokizun batzuk eskaintzeko.

Luis Montaluisak, ekuadortar hizkuntzalari ospetsuak, Ekuadorko jatorrizko mintzairekin eraman den hizkuntz politika azaldu zuen, eta xehetasun handiz, hizkuntzen batasun bidean orain arte lorturiko adostasun nabarmenak azpimarratu zituen, bakoitzarentzako alfabeto gomendagarrienak aipatuz. Era berean, oraindik zenbatzeko sistema erabat garaturik ez daukaten mintzairen kasua seinlatu eta hori konpontzeko irtenbide zuhur batzuk proposatu zituen. Azkenik, hizkuntzak babesteko, amerindiar izaera bera defenditu beharra nabarmendu zuen, europozentrismotik jasoriko aurreiritzi kultural eta erlijioso kolonialak baztertuz. Haurrentzako materialei dagokienez, folkloerkeriatik irten eta beharrezkoak jo zituen liburu atsegin eta erakargarriak, bertan gaurko bizimodu moderno, eroso eta egokia islatzeko.

Xabier Kintanak mundu zabaleko hizkuntzen artean historian zehar izandako batasun-eredu batzuk azaldu zituen (greziera, italiera, gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana, errusiera, arabiera, katalana, indonesiera, euskara...) kasu bakoitzean eragindako faktore linguistiko, soziologiko, erlijioso, politiko, demografiko, merkataritzakoak etab. azpimarratuz. Ondoren, Hizkuntzaren Akademia baten ohiko egitekoak eta bera osatzeko moduaz mintzatu zen, Ekuadorren kasuan, taldeen arteko ezberdintasun nabariak ikusita, bertako hizkuntza guztientzako Akademia bakarra egitea proposatuz, hartan hizkuntza bakoitzak bere atal bereizia izan arren. Proposamena oso begi onez hartu zuten DINEIB-eko antolatzaileek.

Hizkuntzen batasuna dela eta, eredu batzuk erakutsi zizkien, grafian, morfologian, deklinabidean, aditz sisteman etabar bere usteko jarraibiderik egokienak proposatuz. Luis Montaluisa irakaslea harekin guztiz bat etorri zen, eta

argudio gehiagorekin Kintanaren bideari eutsi zion. Azkenik, Xabierrek hizkuntzen aldeko eta hiztunen prestigioa bultzatzeko ekintza batzuk gomendatu zizkien. Hau guztiau hara eramandako txostenean ageri zen, partaideen artean banatuan. Azpimarratzekoa da, hizlariak, kitxuazko etsenpluez gainera, jarririko euskal adibideak ere biziki ongi konprenitzen zituztela indiarrek, eta maiz irribarre egiten zutela, nork bere hizkuntzan egitura, joskera eta kidetasun berberak aurkitzen zituztelako, haien mintzaira guztiak, euskara bera bezala, eranskariak izanik. Azkenik Euskaltzainditik eta Euskal Herritik eramandako euskal argitalpen, egunkari eta liburu-sorta ederra eskaini zuen, Hizkuntzen Akademiarako opari gisa.

Otsailaren 16an lan egiteko bi talde egin ziren. Bata hizkuntzalariekin, X. Kintanaren zuzendaritzapean, eta bestea hezitzaileekin, Hektor Mencheroren gidaritzapean. Talde biek toki banatan jardun zuten, zeinek bere arloa jorrazten., fonologia, lexikografia, dialektologia, deklinabidea, aditz sistema, sintaxia, batean, eta hezkuntza elebidunari dagozkionak bestean: testuinguru sozialarekiko harremanak, materialak, irakasleen gaitasuna eta prestakuntza, edukien mailaketa, etab.

Azken egunean, otsailak 17, goizean talde biak elkartu eta lorturiko ondorioak elkarri azaldu zizkieten, txostenak egiteko. Indiar askok Euskal Herrian euskara pertsona helduei irakasteko metodologia ezagutzeko interesa erakutsi zuten, bai eta haurren hezkuntzan erabiltzen diren liburu eta materialez ere.

Arratsaldean Loreto kantoiko alkatea Fernando Andrade jauna mintegiaren amaierara etorri zen. Partaide guztiak gaztelaniaz eta kitxuaz agurtu eta abegikortasun handiz, ekitaldi denborako bazkari guztiak udalaren kontura jartzeaz gainera, bertako dantza eta inguru hartako folklore eta ohituren erakusgarri, dantza bat ikustera gomitatu zituen guztiak, bertako neska gazte batek –bi aldiz Amazoniako erregina izendatuak– interpretatua. Ondoren bi xaman (yachaq) edo herri-sendagileen kezko garbiketa zeremonia ikusi eta esperimentatzeko parada izan zuten. Handik alde egin baino lehen, elkarri beren helbideak eta banatu ziren, harremanetan segitzeko.

**EUSKALTZAINDIAREN
BARNE-HISTORIA
(VII)**

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIAZ

*Xabier Kintana,
idazkaria*

SARRERA

Gure Hizkuntzaren Akademiak aspaldidanik ikerketa eta arautze arloan egiten dituen lanak eta euskara sustatu eta jagoteko asmoz ematen dituen pausoak gero eta ezagunagoak dira, eta horiek gure gizartean sorrarazten duten oihartzunak eta dituzten aplikazio zabalek aski ongi erakusten digute jendeak zer nolako interesa duen gure egitekoez.

Badira, ordea, gure erakundearen historian hain ezagunak ez diren puntuak, beraren sortze, jardunbide eta bilakaeraren gorabeherei buruzkoak, horhan-hemenka gutun argitaragabe, artikulu eta dokumentu sakabanatueta barreriatuak. Horietan guztiotan nolabait Euskaltzaindiaren barne historia deienezakeena datza, maiz, zoritxarrez, aski ezezagun eta gaizki adituen eta ulerkera okerren iturri, eta, horrexegatik, gure ustez, barne historia horretako zokomokoak argitu eta gure argi-ilunak islatzea egokia bezain komenigarria litza-teke. Beraz, xede horrekin, zenbaki honetan hasi eta hemendik aurrera osatuz joan nahi genukeen atal honetan, Euskaltzaindiaren ibilbide historikoa hobeki ulertzeko lagun dezaketen era guztietako agiriak eta lekukotasunak agertzen hasiko gara, P. Xarrittonek oraingoan argitaratzen dituen dokumentu baliotsuak lehenbiziko urratsak izanik.

PIERRE LAFITTEN GUTUNDEGIA

Bigarren azaoaren aurkezpena

J.A. Irigaray

P. Andiazabal

P. Xarritton

P. Gartzia (ohar egilea)

Piarres Lafitten gutundegiko lehen azaoan sartu genituen P. Lafittek berak Fermin Irigarai «Larrekori» eta bereziki haren seme Aingeru Irigarayi bidali zizkien eta guhonek eskuratu ditugun gutun bakanetarik zenbait, hots, bospasei bakarrik, eta gero jarraian argitaratzen genituen Aingeru Irigarayek Piarres Lafitteri, 1933tik 1936eko gerla arte, bidali zizkion hamabi gutunak.

Oraiko azao honetan aldiz aurkezten ditugu 1947tik lekora eta 1978arte bakotxa bere datarekin bildu 41 gutunak eta bospasei datarik gabekoak (42-47) Azkenik datoz Irigaraytarrei 1935ean E. Zubiry «Manezandi» adiskideak bidali gutuna (48), beste hiru mezu: P. Lafitteri «Larreko» beraren bi gutun (49 eta 50) eta Luis Mari Irigaray semeak familiaren adiskide apezari (P. Oyamburu jaunaren bitartez) bidaltzen dion bere aitaren hil berria (51 bai eta datarik gabeko «Ganistebe» delakoaren gutun bakarra (52).

A. IRIGARAY – P. LAFITTE
(1947-1964)

S.S. 25-VII-47

M. Pierre Lafitte

Ustaritz

Nere jaun eta adiskide. Igorri nitzun nere Schuchardt'en (1) itzulpenaren exemplaire bat, *Primitiae linguae vasconum* (2). Eztakit eskuratu duzunez. Otoi, elarazi zadazu, bitarteko unen medioz, bertze bat igortzeko. Zuen lanak eta aurrerapenak jarraitzen tugu bozkario andirekin; ene zorionak. Emen deus guti egiten ahal dugu. Ikusten dut iztegi frantses-eskuara baten egiteko-tan zaudela; gauza premiatsua... Eni ere Editorial batek mintzatu dit gauza iduritsuaren egiteko; ez dut astirik ortako, bañan oldozten dut okasioa litakela akort juateko iztegiaren zati batean; español-eskuara iztegian faltako dire itz ainitz, orko eskuaran direnak; iduritzen zait ez duela balio berrien moldatzen astea, orai geyegi ikusten dugun bezala!, dauzkagularik zuen euskaran. Orregatik, ikusi nai nuke zure iztegi ori, emen asi baño lehen beste baten egiten, español-eskuara. Etzaizu iduri iztegian sartu bear lirazkela franko itz teknikoak, arrontak (Arithmetika, geographia, apendicitis), ala ala, itzulikatu gabe euskara garbira? Beste izkuntzetan egiten den bezala, eta euskara mintzatzean erraiten diren bezala?

Zuen Revue (3) ederra ikusi dut, eta ainbertze berri ikasi, zure lan ederraren medioz. Baita zure iztegi ttipia. Langile andia zaitugu!

Aspaldiko egunetaz oroitzen gara. Agian noizpait, elkar ikusi ahalko dugu eta bitartean onarzkizu otoi, ene betiko sendimendurik oberenak.

A. Irigaray

(1) Hugo Schuchardt (1842-1927)

(2) Schuchardt, Hugo: *Primitiae Linguae Vasconum*; versión española con notas y comentarios de la original alemana por A. Yrigaray; con una carta-prólogo «De las dificultades de traducir al castellano algunos trabajos vascológicos de Hugo Schuchardt» por Julio de Urquijo, Salamanca: Colegio Trilingüe de la Universidad; Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas, 1947.

(3) *Eusko-Jakintza: revue des études basques* = revista de estudios vascos, Baiona: Gernika Bazkuna, 1947-1957.

Donostian 9-VI-48 chez M. Elso

Piarres Lafitte jaun agurgarriari

Uztaritzen

Neure adiskide jauna. Bozik irakurri dut zuk igorri gutuna eta atsegin artu zuk eman berriekin. Baita zorionak igortzen dizkizut berriz ere, *Herrian* egin duzun lan balios eta jarraikiarengatik, bereziki Bazko egunean eginikako irakurgaiaz. Jauregiberry (4) jaun dotoreari, othoi, pasa azkiozu ene goraintziak, laket zaitzunean, bere lan ezinago fiñ eta zorrotzengatik; beti mamira, txukunki, itz alferrik gabe. Lastima Ziberutik berri eskas; elitzake on ayen faltan zenbeit kanta zahar ezartzea? Ezen Euskalherriko goren mallakoak direla shuberotar kantoreak ez da dudarik. Zergatik ematen da Shuberoa Eskalherritz apart bethi, berrien sailan?

Jakintzan (5) ere atsegin handirekin irakurri dut zure yardespena; zorigaitzez aldizcari orretan ashala eskuaraz eta mamia erdaraz. Baita arrazoi handia duzu Etxahun maitearen alderaco eleetan; liburu ezin ederrago egin duzue barkoshtar koblariaz. RIEB-ean eman nuen nik Chamisso-ren (6) poesien itzulpena, oct. 1933, naiz eztagon arras ontsa. Lacombe-ren Liburutegian ezduzueia billatuko aren biographia eta berzerik? Eta Beñat Mardo famatuaren koblarik eztea ageri? Salaberry-k (7) ematen duenaz kampo? Jarraik ola aitzina ere; emen ezin dugu alakorik; tinkiegi atxikitzetik eskuara ta politika kalte bertzerik ez dugu bildu emen; ezginake gaizki oraico politica aldecoak eskualzale balire.

Ykuska (8) pollita nai badute edatu, eta behar ere, on litzateke x-aren orde *sh* usatzea, berek N° 4-San lankideei erraiten dioten bezala « *en écrivant les mots le plus exactement possible...* » ezen n° 6-7ean eztakigu shushen *ershia* edo *ertsia* nahi duten adiarazi (*erxia* = intestin).

Azken *Jakintzan* Rodney Gallop-ek dio pastoralak itzaltzera dohazila; elitate on, frogatako, pastoral laburtu bat ematea (folkloreleriak soinecoak urratuko dituzte!) yasangarriago egiteco oraikoeri?

(4) Jean Jauregiberry (1880-1952).

(5) Ikus 3. oharra.

(6) Adelbert von Chamisso (1781-1838).

(7) Jean Dominique Julien Salaberry (1837-1899?).

(8) *Ikuska*: (*giza-ikaskuntza*), Sara: Instituto Vasco de Investigaciones (Sección de Antropología) = Institut Basque de Recherches (Section d'Anthropologie), 1946-1996.

Baehr-en (9) lan baliosa ez ote du frantsesez norbaitek berriz emanen al-dizcarian? Eskuco iztegi español-eskuara bat beharrezkoa dugu; zuek agian alaco franses-eskuara bat egitecotan baldin ba zagozte, iduritzen zait on lizatekela elgar juaitea, hitz saila handian; ez alafede eskuara batera heltzeko ametsarekin, bainan bai bertze dialect berri bat ez sor-arazteco; zembeit hitz, *de la vie urbaine, de la culture élémentaire, scientifique, erderismes* beharco dira ala-ala gure iztegian onhart; emen dohakizu zenbeit etsemplu.

Ortographiaz diozunaikin akort naiz; bainan zuen *etche* emateco emen ezdute segituco *etshe*; jendeak naiago du *eche* edo *etxe*; nik uste azkena autuena.

Idazteco maneran eracusten duzun zuhurtzia nai ta naiezkoa da; emen egin dira ainbertze bidegabekeri, ezen orai icusten dugu, hainitz jende eskaldun garbiek uzten dutela bazterrerat euskarazco dotrina edo catishima eta Elizaraco liburua, erdarazcoak usatuz, erraiten dutela: «*eztugu comprenitzen bature euskera zerratu ori*». Behaztopa arri handiena neologismoak eta graphia hertsu ori; gure lagun batzuek ezdute au ikusi nai, naiz iguzkia bezain argi den. Orai erran dezakegu emen euskaldunek erdara bakarrik irakurtzen dutela salbu bakar, agitz bakar batzuk.

Es.	Esp.	Fr.
Kantidadea	Cantidad	Quantité
Kalitatea	Calidad	Qualité
Kualitatea	Cualidad	
Abstrakt	Abstracto	
Konkret	Concreto	
Positiv	Positivo	
Negativ	Negativo	
Direct	Directo	
Method	Método	
Hipotesis	Hipótesis	
Geographia	Geografía	
Golko	Golfo	
Cap	Cabo	
	Estrecho	
	Habitante	
Romanik	Románico	
Gothik	Gótico	
Apendizitis	Apendicitis	
Aorta	Aorta	
Colon	Colon	

(9) Gerhard Bähr (1900-1945).

Esp.	Esk.
Astronomía	Astronomia
Atmósfera	Atmosphera
Atómico	Atomik
Aumentar	
Aritmética	Arithmetika
Sumar	
Restar	Ekendu ?
Interés simple	Interes...
Banco	Bank
Letra	Letra
Cheque	Txeke
Gramática	Gramatika
Verbo	Verbo
Adjetivo	Adjetivo
Conjugar	Conjugatu
Declinar	Declinatu
Parlamento	Parlamento
Diputado	Ahaldun
Senador	Senatore
Elecciones	Autesmenak
Demagogo	Demagogo
Soldado	Soldadoa
Batalla	
Torpedo	
Bomba	
Aeroplano	
Sargento	
Bandera	
Regimiento	
Capitán	Kapitain
Caballería	Zalduneri
Butaca	Artilleri
Armario	

Aitaren partetik Agur handi batekin. Zure adiskide eta zerbitzari.

A. Irigaray

20-XII-48

M. Pierre Lafitte

Ustaritz B.P.

Nere jaun adiskidea. Zorretan nago zurekin; erran nahi dut escuratu nuela zure gutun mamitsua. Segitzen dut irakurtzen zure astecari ederra; Eskalherri guzian ezta lan onuracorrakorik, euscaldungoari buruz, zuek egiten duzuen baño.

Banuke zenbeit gauza or argitaratzeco, ala nola ipuinak, *Manezaundi* (10) batenak; behar bada ezagutuco dituzu; bañan uste dut elirazkela batere gaizki; nik ere nahi izanen nuke zerbait bidali, ala nola Miarritz-co biltzarrera nahi izan nuen; baño badakizu zer erreshtasunak ditugun... Gogotik jakin dut biltzar orren arrakasta; badakikezu gogoan or nintzala, nahiz ishil; ar zazue nere zoriona. Astecaria, multzoca irakurtzen ditugu, ez beti tenorez; ori da contra handia. Jauregiberry-ren *Une cure salulaire* ontsa, zorrotz eta zuzen; *Herria* irakurarazteco conseilu biribilla; egia handia, ala ere batzutan oraino politica berri geyegi ez ote duen ekhartzen... gureak! *Realis. de la S. Int. Et. Bas.* biziki interesantea; obe da zuek egiten duzuen, escuarari lagundu, ezen ez gure lehenagocoan bezala, indarra eta sosa barreiatu, Industrie, Sciences et Lettres (pas basques du tout) eta euscarari papur batzu; teatro euscara bai, baño operak ez ainbeste. Begi ta belarri nago Escolaco liburu bati (aski dugu bat edo bida) buruz dituzuen asmoetara, zeren nik baitut lan batzu eginak ere. Konbeni litzake liburuan usatu behar zombeit itzetan (Historia, Arithmetika, cap, détroit, île, cordillère, multiplier, adjectif...) akort egoitea, bereziki erdaraticako itztegian onartu behar diren hitzetan. Etzaizue norbait minduco Pays basque français azken itza ishiltzen dutelakotz? *Jakintsunen Astea* biziki articulu mamitsua. Le *Chêne de la Liberté* arras ona. Edouard Benes egin duenak badaki politica ontsa barnatzen eta minberena ukitu du tcheko abertzale sutsuaren afer hitsan. *Eskoletan eskuara* orretan diona egia othe? Ask! ginduke ordu batzu astean, cantak, jostetak eta ipuinak irakasteco; geroshago geyago; baño errientak dire beharrago liburuak baño; errienta euskal-dun edo -zaleeri ez ote *Eskualzale biltzarrecoen* sariak ere? Sarien berri zatia oso ederra, eracusten bai-digu eskuara biziaren gora beera; baño Zerbitzari (11) maiteari othoi, le-rroaldi tinko luzeegiak egiten dituela; punto eta aparte geishago, obe. Baigo-

(10) Enrike Zubiri *Manezaundi* (1868-1943).

(11) Jean Elizalde *Zerbitzari* (1883-1961).

rriko eskualdea idazten duenak badaki sehurki *Nabarra* erderazco izena dela; escuaraz beti *Nafarroa* usatu dugu, Axularretik asi ta.

Baehren lanaren itzulpen bat igorricco dautzut, nahi bauzu ez ta nerea, eta eztut astirik mihatzeccco ontsa dagon, eta uste dut konbeni litzakela orrashtaldi bat; zuk erran.

Zure astecariaikin goazin berriz. Arras ongi *Gazte* zonbaiten gogoa deritzaion zatia; nahiz iduri duen urrunshco direla oraino abiadura oiek; on da ala ere gazteek amets pisca bat egin dezaten. Sempereccco norbaitek idatzi zuen tx-x- graphia orrekin; onartzen duzueya x- sh-en orde? Nik ez dut goganbeharririk batere, bañan uste nuen bertzalde nahico zela or gaindi; gu ere emen araber jarraikitzeccco, jakin nahi.

Biziki mamitsua Donibaneco aldizcaria; zure bi bibliogr. irakurri tut; Leon-en Ebanjelioa (12) eztut oraino ikertu; nik maite dut Haranederrena (Harriet) (13) nahiz zaharshco, badu antxineccco usain gozoa; itzulpen berri geyago egin gabe ez ote zen egoki izanen euskaldun guzietara edatzea Ebanjelio itzulpen bat bacarra (neretaco nafar-lapurtarra)? Bederen liburu bat eta Liburu saindua? Uste dut euscara baten bidera, bidea eginen zela. Lerchundi-ren Kanticak (14) ere arazo garrantziduna deritzait euscal batasun orri buruz. Kantika orietan autatu behar lirazke zonbeit, arruntenak, bizienak, alaienak emengo aldietaco Elizetan sararazteccco; kantika alaiak diot, eta barkatu ene ausardia, ezen iduri zait Elizan oren kontsolagarriak behar ditugula aldi hits oketan, eta ez geyegi cantika bildurgarriak eta illunegiak. Ala ere badakusat zure bibliographian... *La grégorianite a sévi... Le peuple aura ses préférences pour le cantique court, de rythme animé... n'abusons pas de la gravité...* arras zuzenki ikusia da ori.

Barka gaizki erranak, ezen emendik ezdirala shushenki icusten orco gauzak goganbehartzen naiz.

Eguberri onak eta Urte berri on bihotz bihotzetik! Agindu bethi zure adiskide eta zerbitzari ttipienari.

A. Irigaray

(12) *Jesu-kristo gure jaunaren Ebanjelio saindua*, Léon Léon aphezak eskuararat itzulia, Ustaritz, 1947.

(13) *Jesu-Christo gure iaunaren testament berria*, lehenago I. N. Haraneder done Ioane lohitsuco iaun aphez batec escuararat itzulia; orai, artha bereci batequin, garbiquiago, lehembicico aldicotat aguer-aracia, laphurtar bi iaun aphecec, Baionan: Lasserre, 1855. Bi apaizak dira: Maurice Harriet (1814-1904) eta Pierre-Nérée Dassance (1801-1858).

(14) Lertxundi, Gabriel: *Kantikak* = *Cantiques basques: anciens et modernes*, Urt: Abbaye N.-D. de Belloc, 1948.

Donostian 25-V-49
Esnaola, 11-1°

M. Pierre Lafitte

Ustaritz

Neure jaun eta adiskide ona. Emengo Akademia edo Euskaltzaindiakoek nahi ginuke zerbait egin, abia, pitz. Frantziako eskualdunek ere batzartu behar lirazke gurekin: utziko? Emen uste dute baietz.

Nola Elizalde (15) gure adiskide jauna da orko bakarra, nik eskatu dut 4 toki merezi dutela bederen Iparraldekoek; eta oyetan lehena zu, jauna; baietz ere erran didate.

Gavel (16) jaunarekin (erabakitzen badute izen au autatzea nik eskatu bezala) 4 dire, A. Lhande (17) gai baldin badago. Orai zuk erran ontzat artzen duzun, eta berdin bestee; emengo batzarretara etortzeko. Beste izen bat edo bi erradazu othoi, egokiak euskal idazleen artekoak, gerta bai liteke, beste toki geyago bat ere bethetzea Iparraldekoekin; au dena oraiño belarrira erratea...

Nahi litake or argitaraztea orri shume bat bizi erakusgarri, eta erabakiak jakinarazteko. Sosak gutti, shautzeak aunitz... trabak ez guti.

Zuen berrien aiduru gelditzen da emen zure adiskide eta zerbitzari ttipia.

A. Irigaray

Zuen astecari maitea etzaigu eldu bacan baizik.

(15) Ikus 11. oharra.

(16) Henri Gavel (1880-1959).

(17) Pierre Lhande (*Aita Lhande*) (1877-1957).

4-IV-50
Esnaola, 11

Piarres Lafitte jaunari

Uztaritzen

Nere jaun adiskidea. Gan den biltzarrean solasa egiteco zurekin nuen gutizia ezin bete. Franko interesatea zen, ezen Krutwig-ek (18) grafiari buruz eman zuen zirikaldi bat, eta tenore da zerbait batetara erabaki dezagun, obereña ta lazoen, zabalen edo lasaiena; ez ertsia, ez geyegi tinkatua. Zerbitzari ari eman nion zuretaco astecarientzat kondu bat Zubiri-rena. Eta izen errescada bat, zuk iritzia eman dezadazun; edo zeintzu onhart, edo zenbait beste izen eratxeki, ez izendegi osoa, Aranak (19) bezala, baizik usatuenak. Kalendrerena, eta berdina izkiribatzaile eta poetentzako, on litzake corpus bat izan dezagun, geren artean; ezen publicatzea Akademian etzuten denek onhartuko orai.

Othoi, segi bidaltzen *Herria* eta sei ilabeteraco, eta 2 numero; saria igo-rico zuzen Bayonarat, edo zuri? Zembat da?

Bidali nitzun Kalendrerena Aranzazucoa (20); costa da 36 libera plus orco Postacoa; nik zor nitzun 100 libera nere aldetik.

Euskaltzaindiak egin behar duen leenbizico gauza iztegi ttipi bat erdarauescara, *de mots sur la vie urbaine, et techniques (enseignement élémentaire)*. Agindu zure adiskideari.

A. Irigaray

Nahi ginuke jakin zer egiten zoazten Escolan eskuaraikin.

(18) Federiko Krutwig (1921-1998).

(19) Arana Goiri, Sabino: *Deun-ixendegi euzkotarra edo Deunen ixenak euzkeratuta ta ixentzat ezartzen diran jayetako ixenan euskerazko ikurpenak*, Arana-Goiri'tar Sabin'ak asmaubak egutegi bizkaitarra'rentzat; Eleizalde'tar Koldobika'k egindako itxaurre bategaz = *Santoral vasco o sea Lista de nombres euzkerizados de los santos y traducción de los nombres propios*, adaptados por Sabino Arana Goiri para egutegi bizkaitarra; con un prólogo de Luis de Eleizalde, Bilbao: Euzko Alderdi Jeltzalia'ren Bizkai-Batzar Ordia, 1910.

(20) *Arantzazuco Andre Mariaren egutegia*, Aita Prantziskotarrak egiña, Arantzazu'n: Aita Prantziskotarren Komentuan, 1947.

Esnaola, 11
Sn Sn 12-VIII-53

M. Pierre Lafitte
Petit Séminaire de
Ustaritz B.P.
(Francia)

Cher Monsieur et ami,

Hunen 15ean eta 16ean izanen dut zuri agurtzeko okasionea; ezen joan gogo dut hiri hortara, trabarik ezpada bitartean: agian, xoko bat kausi nezake kokatzeko. Laster artio beraz, Jainkoak nahi badu.

Zure adiskide eta zerbitzari.

A. Irigaray

* * *

S. Sebastian 3-X-53

Piarres Lafitte jaunari,

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Azken batzarrean etzuten ukan arrakasta hanbatekoa nere proposizioneek, bainan halarik ere uste dut beharrezkoak direala. Iztegia bidali behar dirazue, hortarako ere, 1000 fr. horiek igorriko ditut zuk nahi tokirat. Charritton jaunarekin, gelditu bezala, mintzatu behar litzake, jakin dezan gure antologia gaia saritarat atera gogo dugula, hala ta hala gure hizteginai horrek ez dut uste itzal fitsik egiten ahal duenik zureari; ezen hasi esp. euskara litake, eta Gilsou jaunak zer dio?

Zuk utzi bersoak gordetzen ditut; etziren nik nahi nituenak, ezautzen nituen...

Amodio bersoak aipatzen nitzun.

Egon ontsa eta onartzkizu ene agurrik beroenak.

A. Irigaray

12-IV-54

Piarres Lafitte jaunari

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Uste dugu eldu den batzarreko etorriko zaretela hortik..., mintzatzea komeni da ta; eta nik igorri nauzkitzun xehetasunak (ampliation des renseignements) frantsesera itzuliko zinituelakoan gaude; ezen hobe litzake xehetasun eske hortik norbait balego, zuengana jotzea guregana baiño; errezagoa egiteagatik.

Axularren *Gero* (21) ari dira, nik ere zerbeit laguntzen diet, imprimatu nahiean; 1^{ko} edizioea den bezala, oraiko graphian emana: *rr* doble eta *ll* dobleaikin; eta *h* letrak errespetatuz, ez denak..., ezen hemengoentzat zuzendua baitago; eta hemen traba handia da letra hori; hala erabaki dugu, konsonante-kin dauden *h*-ak ekentzea eta vocal-en artekoak konserbatzea; bide bitxia da, baina, zerbait erregela hartu behar, *h*-ak gutxitzeko; horrerik buruz ere nahi ginuke mintzatu, eta erakuts zuri zenbeit orrialde; lana abantzu finitua dago.

Orai mandatu bat: nere adiskide batek nahi luke erdarako, bi hilabete edo..., horko apezgai serio bat, J. haren seme batekin ibiltzeko eta frantsesa erakasteko bere etxean idukiz eta..., posible dea? Uste dut Donibanen egoten dela jaun hori udan.

Ikusi dugu Euskal Ikaskuntzetako batzarraren deia gustagarria biziki, baina... hunara etorri beharrak, badakizu...

Etortzen bazara oroit zaite, otoi, Etchepare Jean-en irakurgai. Zure zurea.

A. Irigaray

Ene agurrik oberenak Dassance jaunarentzat.

(21) Axular, Pedro: *Gero: bi partetan partitua eta berezia*, Axular Sara'ko erretorak bildua; Euskaltzaindia'ren ardurapean, 4. argitara-aldia Euskaltzaindiko Lekuona apaizak prestatua eta aintzin-solastua; I. Eraskuna Angel Irigaray'k; II. Eraskuna L. Mitxelena'k, Zarautz: Itxaropena, 1954.

S. Sebastian 17-VIII-55

M. Piarres Lafitte jaunari,

Ene jaun adiskidea. Otoi, erradazu *Pièces charivariques* aipatu haiek eskuratzen ahal ditutzun S' Germain edo dena delako tokitik. Ezen, emen, Seminario de Urquijo-koek nahi ginuke baliatu okasione hori, gastuak pagatuz, eta ukan ahal izan denbora labur batean, hemen (zuk utzi ta, alegia) kopia bat edo egiteko balio baluke. Zure liburu aberatsa, Etchepare, itzuliko dautzut elgar ikusten dugunean, uste dut gelditu ginela Bayonan azken astegunean, Musée Basque, gure urrengo batzarrerako? Zer tenorez? Etzen posible bisitatzea M. Gavel? Merezi luke jaun hunek.

Noiz da *Matalas* Pastoralak paratzen? Hau interesatzen zait aunitz, eta eskertuko nitzuke hitz bat, tenorez; *Herria* irakurtuz, behar bada berantegi.

Baduzu, edo dakizu non ditaken, *Etchamendy-Boryel Luçaidecoac eman khantiak carlisten gainian*, Imp. V^e Lespès, 8°, 1876? Eskertuko nitzuke argi izpiño bat.

Egon ontsa eta agindu zure adiskideari.

A. Irigaray

M. Pierre Lafitte

Ustaritz

Jaun eta adiskidea. Charivari direlako horietarik omen dira S' Germain en Lay-eko Liburutegi batean... Nai nuke xehetasunak, non diren eta abar, ezen gure kide Lojendio (22) jauna doa Parisa eta nai luke ikuskatu eta agian Bayonako Liburutegiara ekararazteko urratsak egin.

Otoi, eskatzen ditzut ahal bezain laster itz bat bakarra, zuzenbide horrekin, aste bat baiño lehenago ahal baduzu.

Baduzuia *Etchemendy-Boryel Luçaidecoac eman khantiak carlisten gai-nian*, 1876, Imp. V^e Lespès, Bayona? Nahi nuke ikuskatu, eta zuk horren berri zerbeit badukezu. Egia ote da gure adiskide Tournier-ek itsuski galdu duela iztegiarekin (23)? Pena dut handizki.

Eskerrak aitzinetik eta barka ausardia. Zure

A. Irigaray

(22) Jose Maria Lojendio (1910-1979).

(23) Tournier, André eta Lafitte, Pierre: *Lexique français-basque*, Bayonne: Herria, 1953.

10-X-55

Piarres Lafitte jaun adiskidea. Mil esker zure argitasunengatik. Bai ere zuk igorri Canico-rengatik (24); ez kezkatu, begiratuko dut ontsa, eta nai baduzu, ez dautzut igorriko Postaz, eskura emanen dautzut, elkar ikusten dugularik; zuk auta.

Bibliothèque Nationale-an daudezinek ez duteia beste señalearik, n.i.~ berterik? Edo *Basque* edo halako zerbait? Behartuak gaude ikuskatzera obra horiek, ezen gutiegi ezagunak dire; eta jakingarrienak marratu, eta berdin beste Pastoral-ekin; zertan dago zure *Petite histoire littéraire*? Horretan aipa bear litazke. Badut ustia izendatzen dituzun guztiak euskaraz dauden; edo badeia euskara-erdara nahasteka direnak?

Zenbat koste litake Canico-ren kopiazea? Eta Parisetik ekarri horiena? Erranen didazu, Musée Basque-k edo ordaintzen ahal duen zerbeit; ezen Seminario Urquijo-k uste dut zerbait eman lezakela ere kopia batengatik; kopia, makinaz eta erratik gabe, erran nahi dut original-en errata ber-berekin. Uste duzuia zure adiskide horren bitartez, denen kopiak atera dezazkegula? Merkeago balitz, mikrofilma, bainan izigarri luze litake. Bordelekoak eskuratzeko, Lafon (25) jaunak lagunt dezagukeia? Zure berrien aiduru gelditzen da zerbitzari ttipi hau.

A. Irigaray

(24) *Canico et Beltchitine : farce charivarique*, traduite pour la première fois du basque en français d'après le manuscrit unique de la Bibliothèque de Bordeaux et accompagnée d'une notice sur le théâtre basque et d'un commentaire par G. Hérelle, Paris: H. Daragon, 1908.

(25) René Lafon (1899-1974).

8-VIII-56

Piarres Lafitte jaunari,

Ene jaun adiskidea. Bear bada errain duzu ahanzi zaitudala, obeki errateko ahanzi dutala zure Canico izkiribua, ezta batere ala, bada. Aspaldi du kopia-araizi nuela, eta ementxetik, ene gela ganberatik ezta igitu zure papera, baina beldur nintzen Postaz igortzea: xoxokeria? Baditake, baina eskuara gauzeekin beti erabe. Alabainan geiago gabe, igortzen dautzut Postaz, zuk egin zautazun bezalaxe. Zertako ez kopiarazi Parisen zure eskolier ohi horrerik? Gas-tuak erdizka eginen gintuzke, eta hala idukiko ginuen dokument gisa, Chari-vari horietarik bizpairur bederik. Badakit, Labayen-ek (26) erran ta, prestatzen duzuela Saran Axularren omenez zerbait; uste dut gomitatuko ditutzuela Ur-dazubikoak; eia hola pizten diren Nafarro aldean ere zerbeit egiteko gure mai-su zaarrari. *Eganen* mintzatu bear gara *Herriaz*, gero ta sakonago eldu da... salbu gipuzkoar batzuen erdipurdiko eskuara...

Zure

A. Irigaray

(26) Antonio Maria Labaien (1898-1994).

29-IV-57

Piarres Lafitte yaunari

Uztaritzen

Ene yaun adiskidea. Eskertuko nitzuke Boryel-en (27) bersoekin bidal bazenidazun juduen euskar kantika horien kopia, edo bestela nik hemen kopia-tzeko, eta itzulikatzeko zuri.

Nahi nuke aurkitu *Réveil basque*, Pau, numero bat edo beste, edo *Almanak* berria, Bayonan, 1879-1882 (1885 Ortezen), nik Eskualdunaren almanakak baditut trukean emateko. Berdin nai nuke jakin badugunez berri Los Angeles-en agertu astekari hortaz, *Eskual herria* (28) Ezpeletako Goytino batek argitara emana.

Othoizlari (29) aldizkarian ikusten dut euskal Bibleaz diona, Duvoisin-ena (30) gelditu ote da gibelatua, zaarkitua, ikastaro berrien arauz? Harritu naiz ikustean beste berri bat behar ginukela.

Baionako rue du Pilori, hor nunbait, ezagutzen duguia liburu xaharrak aurki ditazken zokoen bat?

Barka otoi ainbeste galde, eta eskerrak aitzinetik. Zure adiskide eta zer-bitzaria.

A. Irigaray

(27) Joan Etxamendi Larralde (*Bordel* edo *Boryel*) (1792-1879).

(28) *California-ko Eskual Herria: berriketari eskualduna aguertzen dena larumbate guziez*, Los Angeles, J. P. Goytino, 1893-1898.

(29) *Othoizlari: Ama Belokekoak urrungo othoizlari eta adichkideri*, Urt: Abbaye N.D. de Belloc, 1954-1988.

(30) *Bible edo Testament Zahar eta Berria*, Duvoisin kapitainak latinezko bulgatatik lehembiziko aldiko Laphurdiko eskarara itzulia; Luis-Luziano Bonaparte Printzeak argitara emana, Londresen: Impensis Ludovici Luciani Bonaparte, 1859-1865.

C/ Esnaola, 11
Donostia 22-VII-57

Piarres Lafitte jaunari,

Ene jaun adiskidea. Badakit zure auzi faltsua garbitzen ari dela, obe hala, ezen uste dugu zerbait geiago gorde duela kolkoan arrabots horrek.

Hemen doazkizu lerro horiek, uste baduzu on diren *Herriarako*. Behar bada ez duzue gustoko izanen hemengo aldeko hainbat izkribu, ezen gero eta geiago dakusagu.

Ene seme Xabierrek, 22 urte, nai luke Uztaritzeko curso horietara joan, erdiesten badu hemen eskeintzen duten beca horietarik bat, frantses ikastegatik nai dut joan dadin *Franziarat...*, baiñan ez dugu halako komenienziarik (trukean... edo) izan oraiño; zuk akaso jakinen duzu halako zerbait... Uztaritzeko hori ezpadu erdiesten.

Euskalerriko ipuinak direlako hori (31) nik moldatua da: moldetik prest dago. Censura baimena bakarrik eskas.

Nafarroatik sartu ditut 12 kontu, Baztangoak, Manezaundirenak eta besteak, berriz, geienak Barandiran-en Folklore-tikakoak (32), fonetismoak boroilduz, aatik.

Nahi nuke jakin Uztaritzeko Curso-en programa bat.

Ikus artio. Zure adiskide.

A. Irigaray

(31) *Euskalerriko ipuiñak* = *Cuentos populares vascos*, con su versión castellana seleccionados, revisados y anotados por A. Irigaray de la Academia de la Lengua Vasca, Zarautz: Itxaropena, 1957.

(32) Bi argitalpen dira: *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore*, Vitoria: Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 1921- , eta *Eusko folklore : materiales y cuestionarios*, Vitoria: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 1921.

6-VIII-57

Adiskide maitea,

Milesker zure gutunaz. Hor dago ene semea dortoir-ean, eta bozik uste dut, ezen geiagoko berririk ez dut. Tarrapataka ibili ginen eta gau hartan itzuli, ez astirik zu agurtzeko! Ene artikulo xumean lerro batzu eskas ziren eta Lafittek nai balu, hor doakizue orraztapena.

Bide batez erakuts zaiozu, otoi, kontu hor: Zubiri luzaidar zenarena da, ez dut segurtasunik emanen ez dela emengo paperen batean agertu (duela 30 urte), baina iduri zait kontu biziki ontsa moldatuak direla. Nai baduzue *Herrria*-n edo agertu, badut yaun honenak multzo pollita, batere edo guti ezagunak, ene eskutan hil zenetik.

Ene aita Auritzekoa zen, eta ikasi zuen eskuara gizona zelarik, bear bada orduko belarria eskualduna izanen zuen.

Pouvreau (33) eta Materre (34) joan diren mendetan ederki jabetu ziren eskuaraz, baiñan geienak kalte aundia egiten dute, bereizten ezta kitelakotz hitzak. Eskoletako aurren eskuara etsaminak beharko dituzue geiagotu? Aldi geiagotu eginez, edo errezago... ezin duzue baliatu euskararen alde duzuen Eskola Lege baliosa?

Hor elgar ikusten badugu, plazer nuke hortaz mintzatzea. Zure zerbitzari eta adiskide.

A. Irigaray

(33) Silvain Pouvreau (XVII. mendea).

(34) Esteve Materre (XVII. mendea).

18-IX-57

Piarres Lafitte jaunari,

Ene adiskide jauna. Hemen dituzu zuk utzi koblak eta mile esker. Beste milesker emanen nizuke uzten bazenizkida apezen zirika Boryel-ek egin ber-soak.

Otoi, ikusten baduzu Villalonga jauna, errakozu, Komite-koa baldin bazaitut, igortzeko Bonaparte Biltzarraren xehetasun eta programa.

Onart ene goraintzi oberenak. Zure

A. Irigaray

12-VII-58

M. André Tournier

Mon cher ami. Ci-joint la liste des adresses demandées par M. Lafitte, pour envoyer un n° d'*Herria* de propagande. Je crois qu'il serait mieux (aunitz dira bestela) d'envoyer dans une enveloppe comme imprimés. Le *Seminario Urquijo* tient à vous faire un lot des abonnés, mais pour le moment vous envoie liste de possibles, sauf le 1^{er} qui est abonné dès maintenant.

Vous recevrez mon nouveau livre «Prosistas navarros» (35) en basque bas-navarrais et baztanais: il m'a coûté beaucoup de temps, mais on m'a payé, sauf quelques ex.

Por esto le pido un favor : que me ponga en la vitrina, después de Vd leerlo, con un letrado que diga «*Nafarroako eskuaraz - Zubiri, Manezaundi eta Irigaray-Larreko*» pues por la portada nadie piensa que es en vasco, y me diga a qué precio se puede poner, 750 frs? Y cuántos ex. le envío, es la única forma de cobrarme algo de mi trabajo. A M. Lafitte he encargado le envíen un ex. y espero me dará una nota en *Herria*, les conoce muy bien a Larreko (36) y a Manezaundi y ahí se leerán fácil, me puede Vd hacer este favor?

Creo que poco a poco podemos llegar a hacer escribir sin fonetismos: si los suletinos escriben la palabra entera, aunque sea la suya, como *khorpitza*, o *ziana*, ya está bien. En mi libro se me han deslizado algunas como *artian* (artean), *miresgarrienian* (-enean), *azkenian* (azkenean), en cambio estan correctas *burian* (buruan), *eskian* (eskuan).

Zure adiskide.

A. Irigaray

(35) *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca = XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak, selección de narraciones, crónicas y artículos de Enrique Zubiri Gortari (1867-1943) y Pablo Fermín Irigaray Goizueta (1869-1949); ordenados, anotados y prologados por Angel Irigaray, Pamplona: Institución Príncipe de Viana, 1958.*

(36) Pablo Fermín Irigarai *Larreko* (1869-1949).

21-VIII-58

Piarres Lafitte jaunari

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Igorri dauzkizut 10 ex. Prosistas - 14, rue des Cordeliers, zuk erran bezala. Gero eginen tugu kontuak; bainan iduri zaut Tour-nier jaunak prezio apalegi markatu zuela, berari komisionea eman behar ba-zaio gainera. Negurri eta izari hortako liburuak hor (ez hemen jakina) 700 fr. egiten dute. Bainan, gauza hok ezin dira edatu jadanik.

Plazer nuke utz bazidazun zure kanta zaharren bildumatik, hortik astiro-ki iragaiten naizen batean. Nere aldetik, badut aitaren *inédit* izkiribu parrasta, iñork ere iduri ez duena, gerlaz direlakotz. Arront jakingarri dira, bainan ez gira menturatzan geren eskutatik jalgitzerat.

Etortzen bazira, atsegin nuke agur egitea. Bestenaz, Mitikilen.

Zure adiskide eta zerbitzari ttipia.

A. Irigaray

Zenbat balio luke Achille Luchaire, *Etudes sur les idiomes pyrénéens*, Pa-
ris, 1879?

Badut okasione bat. Mila esker denengatik bihotzetik.

11-V-59

Piarres Lafitte jaunari,

Ene jaun adiskidea. Atzo gure azalpena edo delako hori utzi nautzunean, aherentzi zitzaidan erratea Arrue (37) eta nere artean agertzen dugula Euskaltzaindiari.

Ez hauek erabakitzeke, bear bada, baizik kontseilu eske: ongi iduritzen bazako, komisione bat, bi hemengo eta bi-iru zuen aldekoekin izenda eta beren artean elkar hizkatu eta zerbaitean akort gelditzen balire, orduan bere aldetik, eta nai bada ez Euskaltzaindiaren izenean, zabaldu eta eskatu iritzeak eta oharkizunak, zenbeit idazlarieri, hor eta hemen, edatuen direnen artean, laupabost edo gutiagoei. Hala zuk orrazta dezakezu nonbaitean gure izkiribua frantsesera itzulikatzen duzunean *Herria*-rako, Euskaltzaindia edo académicos aipatzen denean, ez aipa eta berdin leenago ezarriz, bizkaitar edo lapurtar edo xiberotarrei gomendatzen diren eginbideetan. Berdin ekendu azken laupabost lerroak. *Arcaizar* esaten dutenean ez dut erran nai usatu bear direla-eta, zaharkituak geiago ulertzen ez direnik, estiloa baizik. Bistan da, Axularren *ba-deratzu, leidikeyela, cerauzten, deraukote* ordeztatu bear direla *baditzu, leikela, zieten, diote* eta zenbeit tokitan laburtzen al duzu ere, itz lerroalditan eta...

En resumen: Al final del escrito recomendar a los escritores den su opinión sobre esta propuesta. Y buscar la forma de que una persona entre nosotros se encargue de completar ese pequeño-breve vocabulario de términos culturales, de 1º enseñanza, Literatura, Historia, vida urbana, derivados; en forma similar al vocabulario por materias que publicó Vd. Este vocabulario lo podríamos iniciar aquí, dejando espacios en blanco para llenarlos ahí alguien..., quién podría ser?

Lasterrago egin naiez egin dautzut erdaraz, barka otoi, eta zurearen begira gelditzen naiz. Zure zerbitzari.

A. Irigaray

Kopia hori, otoi, gorde zadazu.

(37) Antonio Arrue (1903-1976).

22-I-60

Piarres Lafitte jaunari - Uztaritzen

Ene adiskide jauna. Igorri dautzut «Mogel eta Literatur-euskara» (38) ize-neko separata bat. Nahiz gaia berdintsua ukitu nuen Baionako ene itzaldian, zati batzutan franko diferent dira biak.

«Euskara eta Eskola» gaiari doakonez, hemen ere noizbait zerbait egin behar badugu, zuek ereman bidea jakin nahi ginuke. Ezpadatzu, beraz, den-bora asko galarazten, esker nitzuke guri erratea leeneko iru ilabeteen «Ikas» metodoaikin arkitu trabak eta abantaileak. I- Zer adinetik asten diren aurrak euskara ikasten, euskaraz dakitenak eta guti edo batere ez dakitenak, sail bat egiten dutenez. II- Errient erdaldunek baliatzen duten «Ikas». III- Eta nola edo noizko utzi gogo duzue, Dassance-k (39) aipatzen zituen recueil de contes, morceaux choisis, vocabulaire? *Gure Herria*, n°3, eder hortan aipatu chansonier horieri buruz, iduri zaut mutiko gazteendako on litakela kanta arin, *entraînant* oietako bat edo beste... *Bat bi iru lau – Atzo, atzo, atzo, atzo hil zi-ran amar atso – Gabilzan kalez kale – Agur Ziberoa – Festarik bear bada – Orra, orra, gure Olentzero – eta halako*. Bainan zuek, ikusi arau, obeki jakin-nen duzue segur.

Oraintxe berean hartzen tut zuk igorri liburuxka ezinago politak: miles-ker anitx! Orai zuk erran zer igorriko dautzutan nere aldetik. Ezen nai nuke bigarren «Ikas» eskuratu, ateratzen duzuenean, eta berdin Hiriart-Urruty-ren liburuxka, bere sarian, jakina. *Gure Almanaka*-n ikusi dut atseginaikin izen-degian sartu dituztela: Eneko izen zaharra Iñaki berriaren ordeztu eta Patxi, Piarres, Joanes, Baladi, Jurgi, Errigobert, Adolf, Gabin, Kaximir, Patrik, Josepe, Albert, Urban, Errufin eta hola, emeki, batasun aldera.

Gure Almanaka 69 orrialdean Euskalzaleen xokoa delakoak on egin de-zake, bereziki gure aldean, eta *Herrian* ere «Erran zahar» sailean sartzeko, bai-na iduri zaut berdin zuzen daudela –aita ikustera noha– eta –aitaren ikustera... Ganicheri erran– eta –Ganichi erran–. Nago sail hauek ondorio polita lekar-kela, horko eta Gipuzkoako (Gipuzkoa zaharreko) erran moldeak parez par ai-patuz, ateak geiegi hertsu gabe eskuarari. Bestela, hemengo gramatikalaria be-ri batzuk dena itxuraldatuko daukute.

(38) Irigarai, Aingeru: «Mogel eta literatur-euskara» in: *Euskera*, 5. libk. (1960); 110-120. orr.

(39) Louis Dassance (1888-1976).

Gure Herria, n° 3 aipatu hortan (eta nahi nuke n° bat nonbait kausi). E. Goiheneche-n (40) artikuluan arrazoinez geografia sararazi nahi du, baina erdi euskaraz ere, metodo oberena litake euskara irakasteko. Alemanian ikusi dutan bezala frantseseekin, Bähr zenari.

Webster-en kontutegiaren mikrofilmaz galde eginen zinueke?

Barkatu ain luze predikua, baina hemen alde askotatik galdezka ari zauz-kigu.

Zure zerbitzari.

A. Irigaray

25-VIII-60

* * *

Piarres Lafitte jauna

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Zuk nai bezala eramanen dizkizut *Prosistas navarros* ene liburuxkaren 6 exemplario, hortarako erradazu hitz bat eldu diren astear-te-asteazkenez kanpo, Baionara joaten banaiz, uzten ahal zaitudan zure bule-goan edo hor dagoen andereari. Edo berdin zaizu Arbotin? Badut ustea elkar ikusten ahal dugula bada, Arbotin. Ez ote atsaldean hor ikusiko gure mutxiko dantza pare gabeko bat edo beste? Aspaldi gabiltza Nafarroako yantza eder horiek ikusi nahiez; ez dut uste obeago, arraiago denez plazarako. Etzen ba-tere gaizki izanen Esk. biltzarraren ondarreko mutxikoak ematea (edo Qua-drille bat), hala mutiko ttipiak abiatuko lirake, eta herrixkaetan emanen, jaie-gunetan plaza pixka bat esnatzeko.

Kostatarraren artikulua atseginez ikusten, uste dut hortaz zenbait erran beharra badela. Aldi huntan hemen gauzak ez dire aisean..., gure artean ere zen-beit buru-berok (Eskualtz. laguntzaileak) obeago nahiez, dena desegiten. Ape-zen karta ospetsuak ere kalte ekarri euskara sailean gabiltzane; funtsean bihoz-tun, baina aise idorregi. Ez da sendoago abiatzen sail bat, bortizki mintzatuz.

Agian laster artio.

Zure

A. Irigaray

(40) Eugene Goihenetxe (1915-1989).

13-II-61

Piarres Lafitte jaunari

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Lehengo egunean, asteazkenez, huts egin zintudan *Herria* bulegoan. Nahi nitzuke galde bat egin, sobera zuri denbora galarazi gabe. Baitut salgai Bonaparte-ren (41) obra batzu, eta eskea hartu dut Turkiatik; galdegin dut han eta hemen, liburu zaar merkatarieri, bainan ez dut ikasi zenbatsu balio duten, ez gutti gora beera ere. Ez dut geiegi eskatu nahi, ez eta guttiegi ere, pensatzen baitut aunitz balioko dutela liburu horiek. Katalogo batean dakusat Inchauspe-ren *Le verbe basque* (Bonaparte) (42) 10.000 frs markatua. Hunen arabera I. Le verbe basque en tableaux – II. Règles pour composer – III. Conjugaison détaillée des 4 dialectes (18 autres tableaux) direlako bakotxak balioko duia bi edo hiru aldiz geiago? Nori galdegin nezoke?

Othoi, emadazu zure iritzetik.

J. Fr. Krutwig gure kidearengandik hatzen dut gutun luze bat Atheneum bat hasi eta plantatu nahi duela Miarritzen eskuara erabiltzeko erranez; eta ene laguntza eta Euskaltzaindiarena ere eskatuz.

Dudarik gabe baduzue saltsa edo asmu horren berri, hala bada, emadazu (egun eskaka gaude ezin asez...) zure opinionea othoi. Nik emanen deratzut enea. Espainia aldeko euskalzainen edo bestelakoen laguntza (ageria, bistan da) nekoso litake, kopetan edo buruan bere izena eta Yon Bilbao-rena (43) (hau ere igesi edo fueratua, obeki errateko) agertzen badute beinikpein. Gutiago besarkatzen balu, geixago ertsitzen ahalko lukela nago.

Eta, zenbeit zehekerietan orrazi aldi bat emanez, banago sustaldi eta inarrosaldi bat bezala litakela, horko eskualzale gazteendako. Deus ezpadakizu, esplikatuko datzut zehekiago, beste batean. Bainan Euskaltzaindian zerbeit errateko (edo batere ez errateko), zure iritzea jakin nahi nuke lehenik.

(41) Louis Lucien Bonaparte *Printzea* (1813-1891).

(42) Intxauspe, Emanuel: *Le verbe basque*, ouvrage publié par le Prince Louis-Lucien Bonaparte, Bayonne: Veuve Lamaignère née Teulière; Paris : Benjamin Duprat, 1858.

(43) Jon Bilbao (1914-1994).

Gauza batzutan enago ados Krutwig-ekin, bainan motor eta eragille gisa, probetxagarri da.

Zurearen aiduru gelditzen da, eta eskerrak aitzinetik, zure adiskide zaar.

A. Irigaray

P.S.– *Herria* gero eta bixiago heldu da. Ziberoan berri eltzale berri bat behar bazinu, irakurle batzuk *archaïsant* delako bat gutiziatuko ginuke. Et. Salaberry-k (44) kristauen batasunaz ontsa.

(44) Etienne Salaberri (1903-1981).

6-III-61

Ene jaun adiskidea,

Mil esker zure berriengatik; baliatuko ditut.

Zuk erran bezala pentsatzen dut, industrial biltzar horrerik buruz. Egin dakot arrapostu ene laguntza eskeiniz, bainan ardoari ur freskoa ixuriz ere...

Erran diot horko gazteeri eskua luzatzeko, beroarazteko, kantak erakatsiz eta mutxikoak. Zurekin ere arras, Eskualtzaindiari buruz.

Segitzen dut zure lan ezinago baliosa *Herrian* berriak jakiteko, ez xoilki eskual berriak, zure papera bakarrik baliatzen dut batzutan.

Zure adiskide.

A. Irigaray

24-V-63

Piarres Lafitte J.,

Ene adiskidea. Mil esker zure argitasunagatik: nik ere *lisatzea* (leintzia) dela uste dut; zurea hartu orduko frogak moldiztegira igorriak nituen.

Otoi, nai nuke berandu gabe nere iztegiño-saioa ukan ; nahiz ez den osorik egina, eskertuko nitzuke igortzea. Dassance J. ikusten bazinu, erraten ahal zenioke gauza bera? Barka otoi ene ausardia! Gero segitu behar baituzte beste lerroaldiak.

Ikusi dut *Enbata*-ren zenbeit berri-azalpen, biltzarrearen ondotik. Arras uste nuen bi urte iragan eta tenorea zela gauzak punperat heltzeko. Bainan iduri zaut predikuak gogorregi daramaztela. Behar bada gu zahartu...

Príncipe de Viana-n agertu ene euskal-erranarak (idiotismes) delako artikuloa (45) igorriko, Separatak dituzkedanean. Goraintzi oberenekin.

A. Irigaray

Badakizua Arotçarena (46) jaunak hartu zuenez ene iztegiño-kopia? Nun bizi da?

(45) Irigarai, Aingeru: *Para un diccionario vasco de modismos*, Pamplona: Aranzadi, 1962. Ondokoaren separata: *Príncipe de Viana*, 88-89. zbkiak.

(46) Sauveur Arotzarena (1892-1966).

25-XI-63

Piarres Lafitte Jauna

Baionan

Ene adiskide zaarra. Nere anaiak eman zautan Iruñen, orri hori *Herrian* agertzeko egoki bada, edo beste nunbait bestela. Beste norbaitek igorri badatzu berri bera, hala ere nik uste sar zitakela hau, hemen ezpaita batere aipatzen. Ondotik Hôtel de los 3 Reyes aundian eman ziguten oturuntza, 400 bazkaltiar, euskal kantu, itzaldi sutsu, euskaldungoa eta aroa gain gainetik, Gernikakoarekin finituz festa ezin ahantzizkoa.

Iruñe erdalzalean eztakit zer gertatu zen!

Mil esker *Herria* ene liburuxkarendako zure laudorio geiegizkoendako. Berdin Dassance jaunari, *G. Herria*-koendako. Biziki ona zure kazetan «Gazteen zokoan» agertu den elgarritzeta xarmanta!!

Ortographian beinik bein gero ta batago zuek eta gu: nik erraten diotet hemen, giputz euskaran eskas diren zenbeit hitz nafarro-lapurtarretik hartu beharko ditugula, zinez batasun aldera nai badugu. Atseginekin ikusten dut ere, Hazparnekoak, Dagorret-ek (47) eta halakok, *beste*, *bost*, *ostegun*, erabiltzen dituztela, *bertze*, *bortz*-en orde; E. Sallaberry-k eta beste nafarrek berdin egiten badute, beste urrats bat batasun aldera izkirioan; hala izkiriatzen baitute askok Ziberoan, Baxenabarren eta gaineratikoan. Guk segitu gogo dugu hemen kultur-itx zenbeit bateratzen bederik. Aurki artio. Zure zerbitzari ttipia.

A. Irigaray

(47) Beñat Dagorret (1927-1993).

2-XII-64

Piarres Lafitte jaunari,

Adiskide agurgarria. Igandean zuekin nintzen izpirituz; bainan, damurik, osagarriak ez lagundu. Lerro horiek erran gogo nituen Musée-ko bilkuran. Eta eskerrak berriz derauzkizut bihotzetik, ene alderako izan duzun oroitzapenarentzat.

Agindu bezala, ebaki hori igortzen dautzut. Tovar (48), Menendez Pidal (49), Areilza (50), Castells eta halako beste batzuen iritzeak ere agertu dira. Gauza bat aipatu da bein baino geiago: eskuaraz irakurtzen ikastea, traba bat izan ordez eskualdunendako, abantaila dela erdara ongi ikasteko. Pedagogoelek dioten egia hori (bi-eleketa) slogan bezala errepikatzeak on egingen lukela nago, zuk *Herrian*, errefrauekin egin izan duzunaren gisara.

Liturgiaz kestione, parada hau bezalakoa noiz berriz eskuarak? Itzulpenak finkatu baino lehen (ahal izan ezgeroz) bilkura bat egiten itzulikazaileen artean, zer iduri zaitzu? Batzuk besteen lanak irakurri ondotik. Eliz otoitzen mamia eta erran-nahia bera ere, orai artio baino argiago eta ximpleago euskaralatu bearko da; konzilioak eskatzen duen bezala ere uste dut elitakela kalte izanen. Zure iritzea nahi nuke pondu huntaz.

Herria heltzen zait tenorez; nor da J.B.D. (51)? Arras atsegin zait. Berdin «Mendiz bestaldeko berri» egiten duena; Montejurraz diona bereziki; aberri zaleak itsutiak daude eta ez dute beren ona ikusten; hori Nafarroan argi ikusten dugu. Berdin mamitsuak Heguiaphal (52), Manex Pagola. Bainan Kanbotik M.L.-k diona ezin dut xilatu, Ekonomiari buruz. Nardagarri da beti aienka ikustea Eskual Herria ustutzen ari dela; industria falta dela..., bainan hori dena gure errua da: Nafarroan 10 urte hoketan izigarriko abiadura hartu du Industria berriak, norenganik heldu da hori? Ez erresumatik!

Beste gauza bat: Industria berriekin ezta batere segur euskaldunak bere xokoan geldiaraztea; ezpadute industrialariek euskaldungoa sosa baiño geiago maite... Leitzan gertatu den bezala (fabrika batean autatu dituzte bertako langileak). Hendayan, D. Lohitzunen eta Baionan badira fabrikak, eta badoazi

(48) Antonio Tovar (1911-1985).

(49) Ramón Menéndez Pidal (1869-1968).

(50) Jose Maria Areiltza (1909-1998).

(51) Janbattit Dirazar (1937).

(52) Marzelin Hegiaphal (1910-1996).

Espainia aldetik langilleak egunero..., bainan euskaldunik gutti. Enbatiarrek eta [P. Larzabalek (53) ere] dioten bezain ximplea ezta gauza.

Ene anaie apezak erraten daut nafar-lapurtar Ebanjelio-Epistolak, igandeka, kausitzen ahal dituenek; baldin balitz, otoi, ekarradazu liburu bat eldu den batzarrerako; traba aunitzik egiten ezpadatzu.

Egungotz aski, beste aldikotz segida. Onart ene goraintzik oberenak.

A. Irigaray

P.S.– Gutiziatua nago zuk h -ari buruz egin artikuloa irakurtzeko.

Posible deia hemengoendako, h usatzeko ibilbide minimum bat aurkitzea? Agian zuk.

(53) Piarres Larzabal (1915-1988).

19-II-66

Piarres Lafitte jaun adiskidea,

Eskatu bezala, huna hemen Anthologia baten baldinkizun zenbait, ene iduriko:

I. Autore guztiak lerro-lerro ekarri: zenbat orrialde bakotxari eman. Denen artean 350 baino (anitz) geiago ez betetzeko, ondotik bahetik pasatuko.

II. Autore gorenak soilik; ez ainitz: gerta ditake euskalki batean geiago, eta beste batean gutiago; ez autu euskalkien arabera, kalitatearen arabera baik - Autatzeko ibilbidea - 1) gaia intresduna - 2) originalitatea - 3) edertasuna - erreztasuna - euskalkien urbiltzea.

III. Elizgaiak eta profano-gaiak balantzan eman: elizgaien artean, bixi, oituren dokumental diren zatiak, autatu; pizu, edo oraiko erlisione ideieri (konzilioa) segitzen ez dutenak, ez sar, Fr. Bartolomek edo Agirre Asteasukoak badituzte zati bixi eta arinak. Ez dira berdin Axular eta Mendiburu, Ubillos eta Añibarro.

IV. Euskalki baten autoreak, bertakoek autatuko lehenik; beste euskalki-koek boza dutelarik berdin.

V. Fonetismoak eken: etxe-a, emaztea, ogi(j)-a, mundu(i)a: bainan buria, negia et ahalako errespetatuz.

VI. Komeni litake (edo utz beste aldi baterako?). Kirikiño, Etxeita, Hiriart-Urruty,... sartzea: epea noraraino? 1900 - 1925; sortzea, hiltzea, obraren, agertzea? Eta Folklore elexar-ipuinak?

VII. Euskalkiak naasirik; mendearen eta urteen arabera; biographia labur bat, 10 lerro; azken aldian iztegi xume bat; zuk Anthologia frantsez batean erakutsi bezala. Urreneko batzarrean, autore bat prestatua edo asia ditaken batetik, finkatu ditazke xehetasun geiago.

VIII. Aurkibideak, autore-gai-eta euskalki-ka.

Hemengo Eskola-liburu-komizione-koekin elekatzeko, nai nuke horko maisu edo errientsa egoki baten izena (M. Mailharin); iztegiño batzarrean izen-datu hiruen gainetik, zuen aldekoa ere...

Nai nuke Lapitze (54) ikuskatu: ekartzen ahal zenidake? Eta Dasconaguerre (55) uste dut sartu beharko dela ere Eguiateguy (56) bezala. Laster artio. Zure

A. Irigaray

(54) Laphitz, Frantzizko: *Bi saindu hescaldunen bizia : San Inazio Loiolacoarena eta San Franzizco Zabierecoarena*, Bayonan: Lamaignère Alhargunaren imprimerian, 1867.

(55) Daskonagerre, Jean Baptiste: *Atheka-gaitzeko oihartzunak*, Bayonan: Lamaignère Alharguna imprimerian, 1870.

(56) Egiategi, Jusef: *Lehen liburua edo Filosofo huskaldunaren ekheia: [(1785)]*, Txomin Peillenek prestatua, Bilbo: Euskaltzaindia, 1983.

S. Sebastián 14 julio 1966

Adiskidea. Joan den garagarrilla (juin) 23 eta 30eko, eta uztailaren 7garreneko astekariak etzaizkit heldu, Postan ere baterez, beste abonatuak hartu dituzte. Ezbada xuxentzen utsa ekar zenitzazke Batzarrerat? edo bestenaz Agence Beyris-Moraiz Endayarat eta utz Esnoz jaunari.

Ene «Esbozo» lantxoaren berri txoil bat batendako toki txar bat ez ote zure astekarian? Eskerrak aitzinetik, orogatik.

Onarzkizu ene gorantzia oberenak.

A. Irigaray

5-IX-66

Adiskide jauna,

Ezpeletan behar bada, elkar ikusiko dugu. Nahi nuke, ahalez geroz, bere sarian *Herriaren* n° ... «Ttanta Helenaren kontseñuak» dakazkiena; galdu dut eta behar nuke erdarazko itzulpena egiteko. Balio luke dudarik gabe; ene partez erraten ahal dakozu andere horrerri ari beretik segitzeko gisa hortan berean, premia handiko gauza da; erdaraz ere ez dut uste, laburrean, holako artikulo zuzen, zeatz, argi, ausarta (eta gisa berean jendetasuna galdu gabe) dukegunik.

Maitek Pariserat nahi luke, frantsesean trebatzeko eta tituloa ateratzeko; baiño lehenago aurrak zaintzeko edo halako, behar duten etxe prestu bat aurkitu behar, han ezagutzak dituenen baten gana jo behar, ematen ahal dirazu argibide zerbeit? Barka ausardia.

Otoi, Arradoy adiskideari errazkiozu ene eskerrak, eta irakurtzen dutanean bere liburu pollit Jatsukoa (57), eginen diotala artikulo bat. Erdal itzulpena azierto handia, berri jakingarriak, Nafarroako konkistan bestalde, erabe due-la ematen du, euskaldunen kontra gudukatu zela Eneko, agertzeko (hau zuzen leeneko izena, dokumentutan ikus daiken bezala, aise euskarago eta zaharra-goa Iñaki berri hori baino).

Ez ahantz zure *Loretegia* (58) liburuxkak, baditut non barreia hemen. *Herrian* edo bestela, on litzauguke (on baino premiatsuago) -h- horien erregela labur batzuen ematea.

Eugene Goyeneche-ren *Notre terre basque* (59) agortu deia? aspaldi hartu orraztapen batzu eskeini nizkion egilleari. Eztakit zertan dagon. Laster artio, agian.

A. Irigaray

(57) Arradoy, P.: *San Frantses Jatsukoa : biographie basque de St. Françoise de Jaxu et Xavier*, San Sebastián: Izarra, 1966. Testu elebiduna euskaraz eta frantsesez. P. Arradoy Piarres Narbaitzen (1910-1984) goitizena da.

(58) Lafitte, Piarres (biltzailea): *Eskualdunen loretegia : XVIgarren mendetik hunateko liburuetarik bildua. Lehen zathia. (1645-1800)*, Baionan: Laserre Liburutegian salgai, 1931.

(59) Goihenetxe, Eugene: *Notre terre basque : notions de géographie historique et culturelle populaire*, Bayonne: Ikas, 1961.

28-VI-67

Piarres Lafitte jaun adiskidea,

Ausartzen naiz lerro hauen izkiriatzera «Mendiz bestaldeko berri» deitu artikuloendako entzun izan ditudan kritikak direla kausa.

Interesatzen ezpazaizkitzu, saskira bota ta kito, ezta batere galtzen.

Neretako eta nik uste zeienendako, hemen irakur ez ditazken berri horiek, onartuak izaten oi dira, bainan bistan da euskalzaleetan badirela, Espainia be-
baren jendeendako minbera direnak ere.

Artikulo horien egilleak dion bezala: «*eskualduno horren inguruan, behar ginuke muntatu politika batasun bat*». Horrekin ados daude aunitz hemen, eta berak aipatu plana edo programaz ere Nafarroan beha daude, zuek eta gipuzteak eginen dituzuen itzulpenari; zerbaixka aldatuz (edo obe baterez) balia ditzakete. Bainan hemen egiten ari diren itzulpena ikus ondotik, gaizki ibiliko gara Nafarroan, ontsa baliatzeko, zuen itzulpenak nun edo noiz ikus genezake.

Euskalki batere ertsiegi lotu baino, pixka bat arkaizatu bearko ginukela uste dut, hala batasun aldera urrats bat egin ditake euskalki bakotxean, eta zergatik ez, otoitz bat edo beste, ..., euskara bateratu batean? Alde batetik euskalki bakotxean zaaragoen gisara ematea, eta bestetik «aggiornamento» delako bidean abiatzea, ezta gauza erreza, balio du gogoeta astiro egitea.

Oihenart-en izkiribu zahar horiek (60) nun argitara gogo dituzu? badut gutizia irakurtzeko. Baditut zenbeit kanta zahar, beren soiñua ezdakitela, erakutsiko dizkizut Uztaritzerraino ailegatzen naizen batean, bide nabar posible litzaidaket Apezarenaren bertsuak irakurtzea?

Euskaltzaindiko buruzagi baterazaile eta bi aldetan etsai baino, adiskide geiago duen bat billatu behar dugu. Bitartean, direction collegiale delako batean, nik uste Lojendio-k ere parte hartuko lukela. Zure erranera dago zure adiskide.

A. Irigaray

(60) *L'Art poétique basque* d'Arnauld d'Oyhénart; avec une introduction de Pierre Lafitte, Baiona: Gure herria, 1967 [Ondokoaren separata: *Gure herria*, 38. urtea, 4, (1967 urr.)] eta *Une lettre inédite du Père Joseph Moret à Arnaud d'Oihénart : (28 Février 1667)*, traduite et annotée par Pierre Lafitte, Bayonne: S. Sordes, 1968? [Ondokoaren separata: *Bulletin du Musée Basque*, N. 39, 3e période n. 17 (1er trimestre 1968)].

18 Astelenean-III-68

Piarres Lafitte adiskide jaunari, agur. Izendegia edo Nomenclator (61) delakoren ale bat igorri dautzut Postaz: utsak baditu, baina Bilboko Enciclopedian agertu baino lehen, astirik gabe, bidali nai izan diotet euskalzaineri, zerbait oharpen baldin bazinuke, otoi erradazu, edo batzarrean erran neri. Leenago beste kopia bat igorri nautzun, Haritschelhar (62) edo Dassance-ri edo erakusteko, azken hunek bildu omen ditu, Antroponymoetan errotu izen batzu, nai nituzke jakin. Igortzen dautzut hemen Santamariak (63) agertu artikuloa. Príncipe de Vianan nik ukan mokokaldi bateri buruz irakurri izanen duzu agian.

Ikus artio, beraz.

A. Irigaray

(61) *Nomenclator Euskérico de nombres de pila aprobado por la Academia de la Lengua Vasca* = *Euskaltzaindiak onartutako euskal izenlerroa*, Bilbao: Euskaltzaindia, 1966.

(62) Jean Haritzelhar (1923).

(63) Karlos Santamaria (1909-1967).

Don. 3-V-69

Esnaola-11

Piarres Lafitte jaun adiskideari agur: barka, Oiharzabal adiskidea baliatzen baldin badut Ierro batzuen zuzentzeko. Uste dut horrek helarazi dazkitzula ene Izendegiak: zuk eskeini izenak, otoi, igor lehen bai lehen moldizte-gira eramateko eta salgai paratzeko. Ustez Euskaltzaindia noizbait bere eztabaia eta erabe horietarik aterako den. Otoi, duda horiek xurituko dauztazu, paper berean marratuz ongi daudenak, neketan sartu gabe.

deitu zenidan – deitu zidazun
 ikus(i) nitzun – ikus(i) zindudan
 deitu ninduzun
 igor(ri) zaiozu – igor ezazu
 aitor – aitortzen – dut
 paretari beha – paretara
 (zer adiarazten) iguzkiak iguzkiari?
 (“ ”) gizona gizonte...?
 aditu natzun – zindudan
 jo zidazun – ninduzun
 jin zitaitan behar nuela lagund(u)
 ” zen behar giniozkala guziak erakuts(i)
 ama ikus(i) balu
 jakin banu zer behar nuen ikus(i)
 arno baso bat – edo baso bat arno?
 borz liber(et)akoa (sosa)
 hirur urte(ta)ko aurra
 eror beldur zen?
 arnoa(k) ona iduri zuen?
 (zer adiaraz?) zuzen – xuxen
 laketa zaio Uztaritzen – laketzen du Uztaritze(n)
 laketzen da – laketa da?

Mil esker aitzinetik eta ikus artio. Zure

A. Irigaray

P.S. – Plazer nuke Hiriart-Urruty-ren (64) hutsa bete ahal bazinukete, ordezeko eskualzale konzienziadun batez: uste dut azken parada zitakela eskuara jaiotendako!

(64) Jean Hiriart-Urruti (1927-1990).

17-V-69
Donibanen

Piarres Lafitte jaun adiskidea,

Milesker igorri dizkidazun lezionengatik. Eskeintzen dutazun izkiribua ikus dezaket astirik hartuz.

Eztut denborarik geiagorako eta ikus arte. Ezpadautatezu igortzen, ematen ahal zenioke batzarrera joaten den Donostikoren bat, nik huts egiten badut.

Zure adiskidea.

A. Irigaray

29-VII-69

Piarres Lafitte jaun adiskideari, agur.

Igorri nitzun Narbaitz (65) adiskidearen bidez, zuk eskeini izenen eskea, moldiztegira sartu behar baitut, delako Izendegi edo Nomenclator, zehiarkatu bide da mandatua, otoi, bi hitz ahal bezain laster, ezpadituzu prest. Heldu den batzarrera enaizela joanen uste dut.

Emazkiozu ene goraintziak Larre (66) jaunari, uste dut euskal konzienzia piztuko duen gazte multzo batzuen artean; zaharrekin ezta deus egitekorik, pasatuak gira... Uste dut osagarri onean zaudela. Betiko agurrakin.

Eta nafar paper haiek? Agertu da Nafarroan 14 gn. mendeko izkribu eskuara labur bat (67).

A. Irigaray

(65) Piarres Narbaitz (1910-1984).

(66) Emile Larre (1926).

(67) Idoate, Florencio: «Una carta del siglo XV en vascuence» in *Fontes Linguae Vasconum*, 2 (1969), 287-290. orr.

11-Esnaola
18-XII-69

Piarres Lafitte jaun diskideari,

Badakit eman zitzutela ene itzulpenaren etsenplario bat *Jostatuz mintzaira ikas* (68) izena duena. Zure iritzea jakin nahi nuke. Batasun aldera juan nahi izan dut pitta bat: giputz euskalkiko XIXgarren mendeko autoreak geiago segituz, oraikoak baiño, eta nafar-lapurarraren kutsu bat ere sartuz. Badut uste hor ere zerbait baliatu zaitekela, zenbeit hitz orraztatuz (erran-esan / bertze-beste...) nahiz azken hauk – beste-bost-ostegun– aunitz usatuak izan Baxenabarren eta Ziberoan, batasun alderago joanez.

Ene Izen-ordea ezarri dut, geren arteko bekaitza... eta hortarakoxe giputz laguntzaillen izenak sartuz; baiñan nekea eta erresponsabilitatea nere gain dira. Nere izenak ezditut estali nahi, horrendako.

Predikuak ikusi ditut: – giputz – dirala ezta dudarik, Irun muga alde hor-ko segurki, nafar kutsu batekin. Badira erranera eta hitz ohargarri – ehor zulo – edo holako zerbait... uste dut *Euskera* aldizkarian sailka argitaratzeko, ezli-rakela gaizki Fausto Arozenari (69) galdeginen dakogu Lizargarate hortaz.

Fabore bat, otoi: *Euskeran* ikus dukezu hiru euskalkietan komunak diran hitzen bilkoa; nahi nuke (h)artu - (h)ilabete - eta halakoetan -h- usatzea libre utz ditazkenak marratu ditzadazun, hemen ahal bezain guti sartzeko; milesker aitzinetik. Batzarrera eramain dut Lista hori.

Nik bururatu Izenlerroa igorriko, komisionekoa zarenezgeroz, gaiñera. Zure adiskide zaharra.

A. Irigaray

(68) *Jostatuz mintzaira ikas* : 1n eta 2n ikastaroa, egilea, Andrés Méndez García; itzulzaille, A. Apat-Etxebarne, Salamanca: Anaya, 1969. A. Apat-Etxebarne Aingeru Irigarairen (1898-1983) goitizena da.

(69) Fausto Arotzena (1896-1981).

5-II-70

Piarres Lafitte jaun eta adiskideari. Igortzen dauzkizut Etxahonen bi artikulo, joan den hilabete erditsukoak; ez dut beste kopiarik, eta nai nuke eta eskatuko nitzuke, otoi, Haritxelhar-eri erakustea, trabarik ezpazinuke milesker aitzinetik, naiez geroz, aurkituko nuke beste kopia bat geroago, Iruñean: atsegin dut elkarren berririk batere gabe, ikusmolde bertsua izan dugula. Halakoik hala igorri dautzut, nere Metodoaren agertu berria (Iruñean), barka ene arrokeria, baitakit Iruñeko halako berriak atsegin ditutzula; badira 300 aur Ikastoletan.

Badakit eman zatzutela etsenplario bat. Bainan eztut ikusten *Herria* urteberriz aitzina; gorde dizatela numero horiek, Hendayako adresa bat bilatuko dut.

Zure izkiribu-predikuak hemen ditut; nai zinuekia zuk erran horko norbaiteri hemen ematea, ezin jinik bazaude batzarretara?

Ziberoko katixima ikusi dut: pollita da, nahiz batasun aldera pittin bat geixago egiten ahal zela uste: beita = bait / hurian-hurean / eta konsonanten ondoko -/z-ak... Hemen ere ez dut uste gauza handirik egin dutela Liturgian: kexo dira giputz anitz.

Egon beti osagarrian eta mil esker zure bi irakurgaiendako, arras polita komedia, nor da egilea? Zurea.

A. Irigaray

21-III-70

Lafitte Piarres, adiskide jaunari, agur.

Alfabetatzekoen artean edatu den orri hori igortzen ditzut; heien buru nik egiten baitut, Euskaltzainek erabaki garbi hartu gabe, ezin diotet baimenik eman.

Neretako xoilik, ausartzen naiz zuri galdegitera *-h-* letra nai eta naiez sartu beharra denaren hitzak markatzea, edo laburrago bazaitzu, zein hitzetan ekendu litaken.

Intxausti andereñoak berak ekar lekiket orri txoila, deus besterik gabe. Eta hala nahi baduzu, ezdut zure izenik salatuko; hau diotzut, batzarre batean Iratzeder-ek (70), astapeneko *-h-*ak eken ginitazkela, baizion demostratibotan ezik.

Guretako hemengo nahaspilla hau ematzeko, aise bide errezagoa litake, Iratzederrena; eztakit ordea zillegi litakenez.

Joan den ilabeteko *Herriak* ezdira heldu.

Barka ausardia eta onart ene gorantzik oberenak.

A. Irigaray

(70) Xabier Dihartze *Iratzeder* (1920).

Don. 8-V-71

Adiskide. Ez dakit interesgarri direnez zirrimarra horiek: *Umeen deia* (71) deitutakoa, ongi bazaizu argitaratzea hor *Herrian* edo nunbait eskatzera auzartuko nitzazuke. Iduri zaut, irakurleak jakitea komeni dela, liburu handi hortan, aur-kontu edo ipuin naturalak kausitzen ahal direla, baina ez tirala denak berdin. Josecho Uranga-kin (72) egon nintzan Iruñean, eta arras mintza errexa kausitu nuen artikulo bat euskaraz espero duela *Fontes* edo *Cuadernos*-erako, erran zidan; eta gogotik artuko duela halakorik, gaia funtsezkoa baldin badu, baina ez lirikoa edo halakoa. Pentsatu dut zurea ote den...

Idazle batzu ari dira hemen (ni eznago etsai) deklinazione, morfologia eta ortografiari buruz, erdi bide bat onart dezan Euskaltziandiak eskatzeko zenbeit kasu opzional utziz: duen-duan / dire -dira / ez daki-eztaki / dan-den / semearen ikustera-semea ikustera / eta halako.

Berdin -h- grafiarekin; erregela errez batzu onartuz: bokalen artekoak eta demostratiboetan, eta lehen epe edo urrats huntan izen astapenekoak utz ge-roagorako; geienentzat arras zailla baita egiten.

Villasantek (73) berak [Michelenak (74) ere] bere *Hacia la lengua literaria común* (75) delakoaren p. 69ean dio: «...resulta difícil para vascos meridionales... los mismos v. franceses no tienen un uso uniforme... Se hace preciso una fijación... dejando tal vez algunas como facultativas... Dejando para un paso ulterior la adopción de la -h- de comienzo de palabra.» Goazen epeka edo sailka (-ll- eta -ñ- ere onartuz: irriño – amañi – nimiño – Peillen – Gotañe – Urdiñarbe – Bithiriñe, etc.). Ikastoletan ere zorabiatuak dabilta, eta zerbait eskola ofizialetan ere (Beasain, Legazpia, Zarauz) asi dira gatzetxoan artean «Concurso de redacción en castellano y euskera» delakoak apailatzen, eta beharrezkoa dute ibilbide argi eta errez bat.

Hainbeste saltsakin aspertua zaudela uste dut, bainan neretako zure iritzea eskatuko nitzuke, ez barreiatzeko besteei.

(71) Torres, Ismael: *Umeen deia*, Bilbao: Claret, 1971.

(72) Jose Esteban Uranga Galdiano (1898-1978).

(73) Luis Villasante (1920-2000).

(74) Koldo Mitxelena (1915-1987).

(75) Villasante, Luis: *Hacia una lengua literaria común*, Oñate: Ed. Franciscana Aranzazu, 1970.

Egin dut artikulo bat Petain liburuari buruz (76), bere laudorien artean, baditu sail pollitak, Eskolari buruz, zuhurtziari buruz, bainan ez dut batere kausitu euskal Eskolari buruz, alta Petainek zerbait egin zuela nago, eskualdekatzeko pondu hortan. Gordetuko datzut ateratzen denean.

Ez dut ongi kausitu, Larresorok euskaraz ematea (Oihenart) Eug. Goihe-
neche-ren aitzin solas baliosa (77); hala ere aldatzen ditu izenak eta beste –
Oihenart (e) – Anaut (Aillande) – ez ote du nunbait izkiriatu. Zillegi balekit,
errakozu otoi naiago dutala frantzesez irakurtzea, eta espero dugula Oihenar-
ten berri geiago argitaratzea nunbait; gure euskal izkiriant jakitunen berrien
goseak gaudela. Barka ausardia! Eta naikoa bada egungo: segur nekaarazi zai-
tudala. Zurea.

A. Irigaray

P.S. – Gure iztegirako (Euskaltzaindiko bulegoarekilakoa) igortzen dituzunengatik mi-
lesker, eta frantses sinonimoak ere onartuak, itz geiagotan ere onartuko, neke handirik
ezpada.

(76) Zubelet, Domingo: *Petain Marechala: Frantziaren aitzindaria*, Toulouse: Imprimerie Régionale, 1941.

(77) Oihenart, Arnaud: *Atsotitzak eta neurtitzak*, Oihenarte; Larresoro'k prestatua; Eugenio Goihenetxe'ren hitzaurrea, Donostia: Herri-Gogoa, 1971. Larresoro Jose Luis Alvarez Enparan-
tza Txillardegiren goitizena da.

27-I-72

Piarres Lafitte
Ustaritz

Ene adiskide jauna. Igorriko datzute Editorialetik ene liburuxka bat *Noticias y Viejos textos de la lingua navarrorum* (78).

Berdin Haritschelhar-eri beste ale bat. Merezi badu, hitz bat otoi *Herrian* eta Haritschelhar-ek *Gure Herrian*. Zurea.

A. Irigaray

(78) Irigarai, Aingeru: *Noticias y viejos textos de la «lingua navarrorum»*, A. Apat-Echebarne, San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1971.

3-VII-75

Piarres Lafitte J.
Uztaritzen

Adiskide agurgarria. Hartzen dut *Herriatik* – zor ditudan sariak– baina hor ikusten ahal duzun bezala, 1973ko urtean kontua makur dago; fitxa hartan nik dudana eta erakutsi nautzunak – 35 fr. markatzen du: 1974 eta 1975koak eztaikit xuxen daudenez–. Diruzainak argituko gaitu.

Beste kestone. Hainbeste jende euskara ikastera leiatzen da, baina geienak aste batzuen buruko hutsegiten dute; jende arrontak gramatika guti daki edo baterez; iduri zait orai anglesa edo italianoa erakasten den gisako metodo ximple bat behar dugula baitaezpada; hemen garbizale-perfektoek borondateak ondatzen dituztela uste dut; gramatikatik eta sail zailenetik asirik, fraseka (eta deklinazionetik) asi ordez, errezenetik gaitzagora pasatuz.

Ez duzueia halako zerbait? Badakit eztela aski metodo labur bat osatzea, irakasleak ezpadu erakasteko sorginkeria hura, jakinduria baino geiago. Hemen Ikastolak makur doatzi, pedagogía xumeenari kasu guti egiten diotela-koz... eta Batzordeko etsaminazaleek berek uste dut kasu geiago egiten dio tela jakinduriari, beste zera batzueri baino (jendetasuna... bokazionea edo jendeartze ona... eroapena edo egonarria...); zuk baino obeki nehork ez nau argituko gai premiatsu huntan.

Zure adiskide eta zerbitzari.

A. Irigaray

19-IV-78

Pierre Lafitte jaun eta adiskidea. Berantetsia egon zaitezke ene yardenenik gabe; eskerrak emateko igorri zenidan liburuxkarengatik. Ezdakit interesik duenez zuretzako artikulo horrek hemen beti mokoka... hau bakarrik babiliz nonbait hor! Zer dio Larrek? Emazkiozu, otoi, ikusten bazinuke, ene goraintziak desegu oberenekin. Sartzen dituela *Herrian* badakusat Satrustegiren Izendegitik euskal izenak... alta bada 10 urte lehenago argitaratu zuen Retanak, gurea, erdal itzulpenekin (79).

Bilbaoko Barandiaran-i (80) eta Ajuriaguerra-ri (81) egin omenaldiak izigarri ederrak, goratasun aundi batean, *Diario de Navarra*n sartuko dut berri xehe bat: euskara ere sartu zuten ongi aski.

Etzara agertzen Eusko Ikaskuntzako bilkuretara? Nola idatzi behar ditugu Chirac, Chuenlai, Chile...? Nik uste hala hala, Dassance, Labeguerie, Elisalt eta horiek bezala...

Ikus artio, agur batekin zure lankide.

A. Irigaray

P.S. – *Herrian* agertu «Orreaga» artikulo ederra zurea deia? Nik ikusi dut 27koa bakarrik, beste ere ikusiko nuke... Zer gisa da *Le nationalisme basque en France* de Malherbe?

(79) *100 libros vascos fundamentales y diccionario de nombres euskéricos*, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1970.

(80) Jose Migel Barandiaran (1889-1991).

(81) Juan Ajuriaguerra (1903-1978).

Piarres Lafitte jaunari,

Ene yaun adiskidea. Ikusi dut *Gure Almanakan* ene liburuaren erreklama egiten duzula; mil esker derauzkizut lehen lehenik. Juan den urteko *Gure Almanaka* galdu dut, eta nai nuke exemplario bat, edo gutienik *Izen* (prenoms) *lerroaldi*-aren bi horri horiek: 2-3 horiekin aski eta Tournier adiskideari erran bazenioke igortzeko eni, beste mil esker igorriko dizkizut. Nai ginuke batera eldu, ahalez, izendegi eta geographiaren kestione bitxi huntan, bai ipar-aldekoekin, gero phonetikaz, izkiriatzean, edo teknika eta kultur hitzetan, graphian pittin bat asiak garen bezala, zorionez hemengoek onartzen dute *h* iguingarriak!! eta zuek bearbada xokoño atean bederik, *tx* onartuko. Eta gero, Baxenafarroko *beste*, *bost*, *ostirale*, edatzen baldin baginuke pixka bat... urrats polit bat aitzinerat egina litake. Ez deia tenore eta sasoi ona, hortaz zerbeit egiteko? Alta bada, Euskaltzaindiko batzarrean pentsatu zen zerbeit (guti guti...) egin behar litakela, bainan akort zuek eta guk prestatzen ari gira zerbeit titulo edo paragrapho.

Zure adiskide eta zerbitzari.

A. Irigaray

Igandea-28-Mayatza

Piarres Lafitte jaunari
Uztaritzen

Adiskidea. Joan den bazkarian ez ginuen tarterik izan, Izendegi delakoaz mintzatzeko; ez eta hor duzun ene artikuloari orraztapen bat egiteko ere.

Berandu ez balitz, bospasei hitzen aldaketa nai nuke; trabarik gabe bistan da. Hor duzun *Eskuarak urbiltzeko bideaz* delakoan, azken lerrotik gibelerat joanez, 41garren lerroan dago:

«*Uste dut ordu dela jadanik bizkaitar-nafar-lapurtarrek ikas dezaten...*»

eta nai nuke eta behar luke:

... *Uste dut on litzakela bizkaitar-nafar-lapurtarrek ere saia daizten geiago giputza irakurtzen.*

Azkenetik gibelerat kontatuz 4garren paragrafoan, Labayen-ek dion bezala hitzekin asten denean. Eta artikuloaren azken 3 lerrotan ere dio: *idazlarien artean fanatisgo guttiago balitz eta predikari ozenenak...*

Eta behar luke:

Idazlarien artean berekoikeri guttiago balitz eta gidari egiten dutenak zentzukoak balira.

Gure bitarteko honen bidea igortzen dautzut hau, tenorez hel dadintzat.

Mil esker aitzinetik. Zure

A. Irigaray

P.S. – Otoi, abonatu berri baten izen deiturak har, *Herriarako*; heldu den» numerotik beretik. José Joaquín Irigaray – calle San Juan – 102 – Pasajes de San Juan - Guipúzcoa. Heldu den numeroak ekarriko ote du, igandean zortzi eginen denez. Bestaberriko euskal proosinoa Heletan, Iholdin, Armendaritzen eta? Hemengoek nai lukete tenorea eta xehetasunak jakin Hendayan nun salgai *Herria?* astekarian berean zertako ez ezarri?

M. Pierre Lafitte

Othoi, Izendegi-rako zinituenak igor, fite sartu behar baitugu moldizte-
gian.

Interesatu dirate, Boussard *Irrintzina* (82) gure erdarara itzulikatzeko; ba-
dakit orraztapenak eginak dituzula, beharrezkoak dire. Ez ahal ditut ikuskatu-
ko? Beste nafar eskuara paper zahar honekin batean. Goraintzi.

A. Irigaray

P.S. – Uste dut Sánchez Carrioneri nik egin «Sobre geografía lingüística de Navarra
nota bat» eman nautzula. Bai eta *Literatura vasca*, versión castellana. Eta toponomás-
tica de Artajona: erradazu intresatzen zaizkitzunez (ezpadituzu).

P. Narbaitz eri dagoela aditu dut; ikusten baduzu, errakozu, otoi, datorrenean deitzeko
nere tel. 417 498-ra; ezkakit bere adreza.

Aurizko bestan atera foto bat gordetzen dautzut, zuk nahi bezala.

(82) Boussard, Léon: *L'irrintzina ou Le destin des basques*, Paris: Robert Laffont, 1969.

Esnaola 11 - S.S.

M. Pierre Lafitte
Ustaritz

Nere yaun adiskidea. Aspaldi da eztugula elkarr icusi ez solastatu, ordia, noizpait litake ordua.

Icusi nuen Donibaneco aldizcarian, irakurgai bat zuri ukitzen zitzuna, baiñan etzitzaidan atsegin izan, ezen uste dut gramatica geyegi derabilazula eta euscara ikertze soberakina, bizigarriago zait elburu bat baino bidetzat artzea euskara gauzak sakonak edo irrieginarriak, hunkigarriak edo atseginetzkoak errateko; ots, zuk ain ongi eta beteki eta zuhurki egiten duzuna astekari ede-rrean, artero, ishillean, ospe iduripenik gabe, ederki.

Badakit lanpeturik egonen zarela neri ihardesteco, baiñan othoi, zuk ez-padazazu, errazu zure lankide bateri... erantzuteco galde huneri.

Ari gara iztegiño bat egitecotan eta zalantzan gaude graphie-ari buruz, emen *r* eta *e*, alde bat utziak dira; conturatu dira hambat, traba besterik ezdi-rela, eta aunitz ere, *x* (gosho), eta *tx* (eche); zein artuco lirazke or obekienik, *gosko* edo *goxo*? *eche* edo *etxe*? Ala ere, uste dut egin bear direla itz multzo batzu erdara-escuara: de la vie urbaine, de la culture élémentaire (Ecoles primaires); artuz erdaratik zuzen zuzenak, sciencia-tikako ainbeste hitz, nola Arithmetika, apendizitis,... Zer zaitzu? Agur handi batekin zure zurea.

A. Irigaray

Othoi, zuzendu Martin Elso, Ainhoa-ra.

...

Oraintxe bi illabete ta erdi beranduago eskuratu dirate agorra-ren 4garre-neko *Herria* astekaria. Iduri ta urbil, arras apart gara eta egiazki arrotz. Eta numero orretan irakurri dut P. Lafitte-ren artikulua bat frantsesez, «Bonnes nouvelles de l'Académie basque» derizaiona.

Akademia orrekin adiskidantzan bai nago, badakit gauzak ez direla *Herriaren* buruzagiak erraten duen bezalache gertatu.

Banago ere, on baiño kalte geyago ez duenez egin artikulua orrek zombeit buru minberetan. Berandu izanen dea orai gauza zaharren churitzen astea?

Dena den, irakurleak jakin dezan, errain dut Euskaltzaindian erreboluzionerik ez dela gertatuko «langue littéraire» orreri buruz; euskalari geyenek uste bai dute ez dela orai tenorea, Gipuzko-eskuara eta lapurtarra zimikoka as daizten. Ez orai ez nehoiz ere. Oraiko eskualzaleen nai gurea, eskuaraz mintzatzen.

...

Lafitte jaun adiskidea,

Hor ditutzu zuk eskatuak: Larreko-ren biografia labur hori, ez da nik egi-na, eztaikit non agertu zen hil zenean. Berdin zait zure artikuloa (aitari buruz) *Herrian* agert edo hemen *Eganen*. Zurea.

A. Irigaray

Antola *Herriaren* trabak, otoi.

Luzaide, 1935-eko Agorrilaren 12-an

A. Irigaray adichkide maitiari,

Dakizun bezala hemen niz sortherri chokoan uda gochoki iragaiten. Deithoragarri da nola ari den erdara hedatzen, ez bakarrik karabineroen ganik bainan eliz liburuchka, revista *La verdad* (83), eta holako bertzeen ganik, denak erdaraz, bazterretchetaraino helarazten dituztenak.

Gaitz izigarri horri (a ese) ihardoki behar dugu.

Orai berean igorri dituzte Iruñetik eliz liburuño batzu, *Mi Jesus* idazburarekin, Bescansaenian saltzen direnak, 30 hamarna sos, sei zortzi urtheko haurrentzat.

Bada hemen *Katichima* bat, eskuarazkoa, aita Intzak egina (84), bainan hemengo haurrek ez dute konprenitzen erdizka bezik, eta ez du arrakastarik.

Hemengo haurrek behar lukete Benabarreko edo Laphurdiko eskuarazkoa.

Eta zuk, Uztaritzeko Laffiten adichkidantzaz baliaturik etzinukena zerbat ardietsiko harenganik, hunat igortzeko han duaiketzena dituzten eliz liburuño eta katichima eskuarazko horietarik?

Euskeraren adichkideek behar lukete bere gain hartu lan hori.

Bertzenaz, ephe laburrik barne ithoko du eskuara erdarak, bazterretchetan!...

Hori liteke gauzarik urragarriena (desgarradora) eta ahalgegarria.

Izurrite horri behar dugu buru egin.

Heda ditzagun Benabarreko edo Laphurdiko eskuarazko eliz liburuñoak hemengo haurren arthian. Berek eta aita-amek ere, nahi lukete, bainan orai denak Iruñe aldetik eta erdaraz ekhartzen dituzte.

Mintzatzen niz bakharrik *Katichima* eta haurren liburu ñimiñoetarik (pequeñitos).

Uztaritzen edo Baionan badira duaiketzena.

Agur, eta goraintzi amultsuenak.

E. Zubiry

(83) *La Verdad: hoja parroquial de la Diócesis*, Pamplona, 1931-

(84) *Kristau ikasbidea*, Mujika ta Urrestarazu'ar Mateo Iruñako Gotzai Jaun guziz agur-garriak agindurik Intza'r Damaso A. Kaputxinoak Naparorako egiña, Iruñea: Iruñako Kaputxi-noetan, 1927.

Monsieur Pierre Laffitte
Bayonan

Nere jaun agurgarria eta aspaldiko adiskideari. Barkatu, baño, Jainkoari esker, bizi nahiz orañik, xahartua bai baño... gogoz gazte.

Herrian, lan ederra egiten ari zarezte. Lehengo *Eskualdunari* zorrik ez dio. Mugan bertan bizi den nere adiskide batek, noizpeinka bialtzen dizkida *Herria* batzu; eta ari esker daukagu hura irakurtzeko aldia.

Gudu denboran, zerbeit egitea gatik lan bitzi auxe egin nuen eta bialtzen diot, baldin *Herrian* argitaratu nahi badu. Baiki, ni euskaldundu naizela, orko euskara-idazleak irakurtuz eta orgatik bialtzen diot lan unekin, nahi dueño egiteko.

Orren O.O. eta, ez ni aztu.

Jainkoa baitan eta eskuan musu emanez, agur beroenak.

Dr Irigarai
17-111-1947

14-X-1948

Pierre Laffitte jaun apezari
Baionan

Aspaldiko ene adiskide agurgarria: orai duela zenbeit egun biali nihon idaztiño bat *Guía médica del asistente a moribundos* eta berezirik eskutitz bat erraten niola; nola idaztiño haren berri labur-labur eman dutala eta hunekin balio bialtzen diotala, baldin gai othe den *Herrian* argitaltzeko edo bertze gisaz.

Ez dakit, noizpait asiko othe garen elkarren berri jakiten, kontrabandaz ibili gabe.

Eta, burruhilako, eta ez Urrillako *Herriar*ik ez didate eskuratu, orgatik nago Eusko Ikaskuntzako berririk jakin gabe. Bizkitartean eta beti, Jainkoa baitan orren meneko eta zerbitzari.

Dr Irigarai

Uts larri zenbeit aurkituko du lan huntan, othoi, ekendu edo zuzendu.

Agur handi bat.

Nere euskara lan hunen ondarrean erraten dut: *Descripción previa del agonizante*, Dr Letamendi jaunaren idazti batetik artua, eta emen ederki dago erdaraz, ez nahiz menthuratu itzulikatzeraz eta hala nahi nuen utzi, baño, erdarazko idaztiñoa eskuratu baldin badu, han dago.

Iruñean, 1949ko Buruilaren 14garrean

Oyamburu jaunari,

Nahiz ez dugun elkar ezagutzen, idazten dautzut Ierro oiek, gure adichkide on, Patxi Arraras-en (85) bitartez.

Yakinaraziz nola gure aita maite-maitea Fermín Irigaray jauna, sendagille eta eskual-idazle chaharra, il zen ganden Larunbat Buruilaren 3garrean.

Nola ezagun eta adichkide ainhitz bazaukan mendiz bertzalde, aspaldidunik, bereziki idazten *Eskualdunan* lehenik eta *Herrian* ondotik, igortzen zuela astero Nafarroako berriak; diot adixkide on-onak bazuela «Larreko» jaunak (unela zuen izen ordea) Frantziako Eskualerrian.

Orgatik, chede orrekin izkiriartzen dautzut Oyamburu jauna idazti au, yakinarazteko *Herriaren* zuzendari eta gainerako adichkideeri (eken artean aurkitzen da Mgr. St Pierre jaun Apezpikua (86) eta adichkide chaharra) berri hits au.

Barkatu ene ausartia, eta badakizu non aurkituko duzun beartsu balin bazauke adixkide bat.

Luis M^a Irigaray

Aztu zait erraitea nere anai Angel-eri Donostian bizi dena aditua nagola zuetaz solas egitea.

(85) Francisco Arrarats Soto?

(86) Jean Saint-Pierre *Anxuberro* (1884-1951).

...

Aipatu tugu euskalzaleen arteko aserreak eta ara nola orai bi aste bihotz minekin irakurri dugun P. Lafitte gure buruzagiari, anónimo batek izkiribatzen dion itsuskeria. Egilleak bere burua itsusten du eta ez du eskualdungoa laguntzen. Aitzitik, erdalduna so dago bazterretik, irrimoa ezpainetan.

Herriaren buruzagiak ez du ori merezi, eskuara eta Eskualerriaren alde ainitz lan eginik baidago. *Eskualdunaren* demborako irakurlea naiz; ordukoen gozotasuna eta oraikoen euskalzaletasuna (marratik iragan gabe!) zertako ez adostu?

Ezta aski soñeko ederra, behar da ere barren bizia eta jakingarria. Eta iñork ez du dudatuko Dr Jaureguiberry-k (87) betetzen duela bere saila franseseko shokoan bein ere ez bezain airoski, beren artikululu zorrotz eta atsegin-garriekin.

Mr St Pierre edo alako lehenagoko baten eskuara yori eta garbia, berriz, gustora irakurtuko zela noiz peinka bederen? Bai naski, ala balitz obe.

Lehenagokoa da Zerbitzari ere, eta unen Eskualzaleen Biltzarreko berriak nork ez du yastatzen eta bi aldiz irakurtzen? Aditua dugu bada lagungo orretan nahi luketela eskuara-sariak yoritu; bigarren sekzione berri bat finkatu, sartzekotan iri larrieneko aurrak bakarrik, eta mintzatzeaz bakarrik etsaminatu. Ala, Maule, D. Garazi, Cambo, D. Lohitzune, Endaya irietan inharrosaldi bat egin nahi lukete.

Ezta gaizki, baño lehenik platera pasatu beharko.

Ganisstebe

(87) Ikus 4.oharra.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Bilbon, 2004.eko abenduaren 16an eta 17an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate, (16an baino ez),
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu, (17an baino ez), eta
Piarres Xarritton euskaltzainak.
Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, Pello
Telleria, idazkariordea, eta Mikel Gorro-
txategi Onomastika batzordeko idazkaria,
zegozkien gaietan.

2.2. Herri izen bikoitzen hurrenkeraz jarri beharreko zeinu grafikoaz. A. Iñi-
gok azaroko bilkuran testuan ageri diren kontraesan batzuk azaldu ditu, horiek zuzentzea
eskatuz. P. Goenaga, J. L. Lizundia, P. Xarritton, M. Gorrotxategi eta B. Oihartzabal min-
tzatu ondoren, behar diren zuzenketak egin dira.

2.3. Onarturiko Gipuzkoako Herri-izendegia banatzea. Urriko bilkuran ezta-
baidatzen eta onartzen amaituriko zerrenda osoa banatu da.

**2.4. Hiztegi Batua: b-berri zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta
eztabaidatzen jarraitzea.**

P. Salabururen ezin etorriagatik, Xabier Kintana idazkariaren zuzendaritzapean,
bat 2-tik batzar orokor–era arteko hitzak aztertu eta onartu dira.

Bilkura 8,16an eten da.

2004.eko abenduaren 17an, goizeko 10,10etan, berriz ere ekin zaio batzarrari.

3. 2005erako batzar egutegia. Pello Telleria idazkariordeak Euskaltzaindiak
2005. urtean egiteko dituen batzarrak eta ospakizun-mendeurrenen datak azaldu ditu,
eta onartu egin da 2005eko batzar-egutegia.

Ezin etorriak eta ahalak: P. Ondarrak,
ahala J. Haritschelharri; P. Zabaletak,
ahala A. Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 5etan hasi da Eus-
kaltzaindiaren egoitzako batzar aretoan,
ezkerreko zutabearen ageri diren euskal-
tzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: oharrak gabe
onartu da.

2. Hizkuntza gaiak.

**2.1. Onomastika: «Antzinateko es-
kualdeak» onartzea:** X. Kintanak eta
Alfonso Muxikak egindako oharrak ezta-
baidatu ondoren, goi mailako eta erabile-
ra urriko izenetan grafia etimologikoak
ere ontzat eman daitezkeelako oharra
erantsiz, onartu da.

4. Esku artekoak

4.1. 2004.eko Literatur sariak. Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero antolatzen dituzten literatur sariak aurten nortzuei eman zaizkien iragarri du Euskaltzainburuak:

Txomin Agirre eleberri sariduna: Juan Jose Ispizua Hormaetxea. Lana: *Harizpeko neskaren afera*. Epaimahaikoak: Maria Jose Olaziregi, Tx. Peillen eta Ana Toledo.

Toribio Altzaga teatro sariduna: Pantxo Hirigarai. Lana: *40 urteak*. Epaimahaikoak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Felipe Arrese-Beitia poesi sariduna: Aintzane Galardi Portu. Lana: *Itoti urdinen azpian*. Epaimahaikoak: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.

Mikel Zarate saio-sariduna: Xabier Agirre Urteaga. Lana: *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?*. Epaimahaikoak: Aurelia Arkotxa, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

4.2. Durangoko 39. Euskal Liburu eta Diskoen Azokan Euskaltzaindiak izandako partaidetasunaren kontu errendapena. Ricardo Badiola argitalpen eragileak eta Jon Artza argitalpen banaketaren arduradunak prestatuturiko txostena banatu da, Euskaltzaindiak Durangoko Liburu eta Diskoen azokan izandako partaidetasunaren, liburu aurkeztuen eta salmenten berri ematen duena.

4.3. Txile, Argentina eta Uruguai bidaia txostena. H. Knörr euskaltzainburordeak, *III Congreso Internacional de la Lengua Española* delakoan Euskaltzaindiaren izenean parte hartzeko 2004.eko azaroaren 9tik abenduaren 2ra Hego Amerikako Estatu horietan egindako bidaia berri eman du, han emandako hitzaldiak, izandako harremanak eta egindako bisitak xeheki azalduz.

4.4. Hiztegi Batua: P. Salabururen zuzendaritzapean *b-berriz* zerrendari ekin zaio berriz, eta, igorrituriko hitzak ikusiz, *bautismo*-tik aurrera jardun du eztabaidak.

4.4.1. Euskaltzaindiko karguak hautatzeko bilkura berezirako etena. 2004.eko abenduaren 17an, goizeko 11etan, osoko batzarra eten da, Euskaltzainburua eta Zuzendaritzako karguak hautatzeko. Ondoren, 12etan ohiko bilkurari berriro lotu eta Hiztegi Batuarekin segitu da, eta *behako*-rainoko hitzak aztertu eta onartzu.

Bilkura 14etan amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Euskaltzaindiko zuzendaritzako karguak hautatzeko batzar berezia

2004.eko abenduaren 17an, goizeko 11etan, osoko batzarra eten da, Euskaltzainburua eta Zuzendaritzako karguak hautatzeko. Hautesmahaia honela eratu da: buru, euskaltzain izendatu zaharrena den aldetik, Jean Haritschelhar, eta, idazkari, aldiz, Adolfo Arejita, berau azkenik sarturiko euskaltzaina izanik.

Hauek dira batzarrean izan diren euskaltzainak:

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, *Iker* sailburua,
Andres Urrutia, *Jagon* sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Pello Salaburu,
Txomin Peillen eta
Piarres Xarritton.

Hasieran, etorri ez diren euskaltzainen ahalak kontuan hartu dira: P. Zabaletaren ahala A. Iñigori; P. Ondarrarena, M. Azkaraterena eta J. M. Lekuonarena J. Haritschelharri; J. San Martinena J. L. Lizundiari; X. Dihartzerena J. L. Davanti, eta Antonio Zavalarena A. Arejitari. Mahaiburuak kargu bakoitzerako dei bana egin du eta kan-
didatu hauek aurkeztu dira:

Euskaltzainburua: Andres Urrutiak bere burua aurkeztu eta Euskaltzaindian burutu nahiko lituzkeen egitasmoak azaldu ditu laburki. Ondoren, botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Botoemaileak:	22
Kandidatuaren alde:	14
Zuriak:	8

Euskaltzainburuordea: J. Haritschelharrek, Euskaltzaindiaren arauetan idatzia izan ez arren, aspaldian Euskaltzaindiaren usuarioan egon den ohitura gogoratu du, hots, euskaltzainburu-euskaltzainburuorde karguak Ipar-Hegoalde artean banatzea, alde biek Akademiaren buruzagitzan ordezkaritza izan dezaten. Hortaz, oraingo honetan euskal-

tzainburua Hegoaldekoa denez gero, euskaltzainburuorde kargurako B. Oihartzabali pertsona egokia deritzo eta horregatik bera proposatzen du. Interesatuak ontzat eman du. Ondoren, botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

(1. itzulia)

Botoemaileak:	22
Kandidatuaren alde:	12
Henrike Knörren alde:	1
Zuriak:	9

(2. itzulia)

Botoemaileak:	22
Kandidatuaren alde:	13
Henrike Knörr:	4
Zuriak:	5

Idazkaria: Xabier Kintana aurkeztu da. Botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Botoemaileak:	22
Kandidatuaren alde:	13
Patxi Goenagaren alde:	1
Zuriak:	8

Diruzaina: Jose Luis Lizundia aurkeztu da, emaitza hauekin:

Botoemaileak:	22
Kandidatuaren alde:	17
Zuriak:	5

Iker Sailburua: Henrike Knörr aurkeztu da, emaitza hauekin:

Botoemaileak:	22
Kandidatuaren alde:	13
Pello Salabururen alde:	1
Zuriak:	8

Jagon Sailburua: Ez da hautagairik aurkeztu. Halere, Andres Urrutiak, Nafarroari begira, ezinbestekoa deritzo zuzendaritzan nafar bat egoteari. Horretarako, Andres Iñigo aurkezten du, pertsona erabat egokia delakoan. Jean Haritschelhar bat etorri da proposamenarekin. Interesatuak, aspaldian daukan lan-zamagatik bere burua ez duela aurkezten esan arren, egin den proposamena bozkatu da. Emaitzak hauek izan dira:

Botoemaileak:	22
Kandidatuaren alde:	13
Andres Urrutiaren alde:	1
Zuriak:	8

Beraz, Zuzendaritza honela eraturik gelditu da: Euskaltzainburu, Andres Urrutia. Euskaltzainburuorde, Beñat Oihartzabal. Idazkari, Xabier Kintana. Diruzain, Jose Luis Lizundia. Iker Sailburu, Henrike Knörr. Jagon Sailburu, Andres Iñigo.

Mahaiburuak eta gainerako euskaltzainek hautatu berriei zorionak eman dizkiete.

Batzar berezia 12etan amaitu da.

Jean Haritschelhar,
hautesmahaiburua

Adolfo Arejita,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

2004-XII-17

Egoitzan, 2004ko abenduaren 17an, bildu da Euskaltzaindia, arratsaldeko 5etatik 6 eta erdietara, hilberri-txosten bi irakurtzeko eta ohorezko euskaltzain izendatu berriei diplomak emateko.

Bildu dira: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; H. Knörr, buruordea; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; A. Urrutia, Jagon sailburua; M. Azkarate, P. Charritton, A. Iñigo eta E. Larre euskaltzain osoak.

J. A. Retolaza eta K. Etxenagusia euskaltzain ohorezkoak; J. Agirreazkuenaga, G. Aulestia, R. Badiola, L. Baraiazarra, X. Erdozia, P. Iñigo, P. Telleria, P. Uribarren eta J. Zearreta urgazleak; Pruden Gartzia, Lutxi Alberdi, Amaia Okariz eta Emilio Porras Euskaltzaindiko langileak.

Mahaiburuan eseri dira: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; H. Knörr, buruordea; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina eta A. Urrutia, Jagon sailburua.

Ongietorria eman die Euskaltzainburuak bertaratu direnei eta, Xabier Kintana idazkariak, atzo arratsaldean eta gaur goizean egin diren batzarretan Euskaltzaindia zertan aritu den azaldu du.

Ondoren, Martin Ugaldere (1921-2004) hilberri-txostena irakurri du Joan Mari Torrealdai euskaltzain urgazleak. Hiru etapatan banatu du hizlariak M. Ugaldere ibilbidea: lehena, 1921etik 1947ra bitartekoa, Andoainen abiatu eta bukatzen da; bigarrena, 1947tik 1969ra bitartekoa, Caracas eta Venezuelan barrena gauzatzen da; eta hirugarrena, 1969tik 2004ra bitartekoa, berriz Euskal Herrian zehar, Hondarribian hasi eta Donibane Lohizunetik barrena ibili ondoren Hondarribian amaitzen da.

Jarraian, Andres Urrutia euskaltzainak, Augustin Zubikarai ohorezko euskaltzain ondarrutarraren hilberri-txostena irakurri du (1914-2004). Hizlariak, hirualdi ezberdinetan banatu du Augustin Zubikaraien bizitza: gerra aurreko idazle gaztea (1914-1937), gerra osteko euskal suspertzailea (1937-1978) eta hogeita bost urte emankorrak (1979-2004). Gazte-gaztetatik izan zuen idazteko zaletasuna eta egokitu zitzaion bizi-modu latz eta zailak ez zuen kokildu. Kazetaritza eta antzerkia izan ziren haren idazle-genero emankorrenak. Horrezaz gain, kultura suspertzailea ere izan zen, euskalgintzaren bultzatzailea, aldizkari-sortzailea. Euskaltzain urgazle zen 1961etik eta ohorezko euskaltzain 1993tik. Herriko euskara erabili zuen, bertako esamolde eta berbez abestua. Liburu ugari idatzi zuen eta sari asko eskuratu. Euskal antzerkigintzan eta kazetaritzan erreferentzia nahitaezko bihurtu da Augustin Zubikarai.

Azkenik, ageriko bilkurako bigarren xedeari ekin zaio. Azaroaren 26an izendatu ziren ohorezko euskaltzainei diplomak ematea gauzatu da. Euskaltzainburuak banan-banan deitu ditu, eta hona hemen nork zeini eman dion diploma:

- Pello Apezetxeari, Andres Iñigok eman dio.
- Koldo Artolari, Henrike Knörrek.
- Federico Barrenengoari, Henrike Knörrek.
- Josep Caminori, Jean Haritschelharrek.
- Jean-Baptiste Dirassar-i, Pierre Xarrittonek.
- Joseba Intxaustiri, Andres Urrutiak.
- Jon Lopategiri, Jose Luis Lizundiak
- Francisco J. Orozen izenean haren ilobari -Bittor Orozi-, Jean Haritschelharrek.

Une honetan, Euskaltzainburuak amaitutzat eman du ageriko bilkura.



Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua



Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2005.eko urtarrilaren 28an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana,
Adolfo Arejita,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen eta
Pello Salaburu euskaltzainak,
Pello Telleria, idazkariordeari zegozkion
gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: P. Ondarra,
Jean-Louis Davant, ahala Tx. Peilleni, P.
Zabaleta, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 9,35ean hasi da Eus-
kaltzaindiaren egoitzako batzar gelan, ez-
kerreko zutabearen ageri diren euskaltzai-
nak eta bertan direla.

1. Jean Haritschelharri eskerrak

A. Urrutia euskaltzainburu berriak bildu-
riko euskaltzainak agurtu ditu, eta guztien
izenean J. Haritschelharri eskerrak eman
dizkio azken urteotan Euskaltzaindiaren
gidaritzan egindako lan bikainagatik

2. **Aurreko akta onartzea.** Oharrik gabe onartu da.

3. Eskuartekoak

3.1. **Jose Mari Larrarte** euskaltzain ohorezkoaren hilberri-txostena Jose Anto-
nio Mujika euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordekideak egingo du.

3.2. **Jose Garmendia** euskaltzain urgazlea urtarrilaren 19an hil dela jakinarazi
da, 79 urterekin. Haren senideei doluminak adieraziko zaizkie, eta hilberri txostena J.
L. Lizundiak egingo dio. Maiatzean irakurriko dira bi hilberri-txosten horiek.

3.3. **Akitaniako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak** (Conseil Economique et
Social) deiturik, urtarrilaren 18an, arratsaldean, J. Haritschelhar eta B. Oihartzabal Bor-
delen izan ziren Euskaltzaindiaz eta euskarari buruzko ikerketez informazioa emateko.
Batzorde hori txosten bat prestatzen ari da Akitaniako hizkuntzez, eta horregatik dei-
tu zituen Euskaltzaindiaren bi ordezkari horiek. Bi euskaltzainei harrera ona eman zi-
tzaien, eta hauek Euskaltzaindiaren Oroitidazkia eman zioten Batzordeko buruari ber-
ren esanen eta agerraldiaren lekuko.

4. Hizkuntza gaiak

«Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera» araua euskaltzainen ar-
tean banatu da.

4.2. **Hiztegi Batua:** *b-berriz* zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta ezta-
baidatzen jarraitzea. *Behar1*-etik *belarkari*-ra arteko hitzak aztertu eta onartu dira. Ho-
rien artean *behortzain* hitza onartu da eta Jose Luis Lizundiak, *behorzain* forma ere
Hegoaldeko leku askotan esaten dela aktan konstataraztea eskatu du.

5. Azken ordukoak.

Urtarrilaren 27an Euskaltzaindiaren egoitzan egindako kargu-aldaketa ekitaldiaren prentsa dosierra banatu da.

Andolin Eguzkitzari Bilboko Euskalduna jauregian urtarrilaren 22an eskaini zitzaion omenaldiaren eta katalan hiztegi digital berriaren prentsa-dosierrak ere banatu dira.

Bukaeran, Rikardo Badiola, argitalpen eragileak, ondoko argitalpenak banatu ditu:

– *Euskera 2004, 1*

– *Euskera 2004, 1* (separatak)

– *Jose Mari Satrustegi: Nafarroako euskararen ikurra* (Andres Iñigo - Patxi Salaberri).

– *Bidegileak*: J. M. Satrustegi, A. Eguzkitza, J. M. Jimeno Jurio, J. Atxabal.

Bilkura 14etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2005.eko otsailaren 25ean.

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Jean-Louis Davant,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea eta
Juan Jose Zearreta kudeatzailea, zego-
kien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak:

J.A. Arana Martijak, ahala X. Kintanari;
M. Azkaratek, ahala J. Haritschelharri;
P. Goenagak, ahala J. Haritschelharri;
H. Knörrek, ahala A. Urrutiari;
P. Ondarrak, ahala A. Iñigori;
P. Salaburuk, ahala B. Oihartzabali;
I. Sarasolak, ahala B. Oihartzabali;
P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,25etan hasi da Gi-
puzkoako Foru Diputazioaren jauregiko
batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri
diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Euskaltzainburuaren agurra eta Jean Haritschelharri eskerrak. A. Urru-
tia euskaltzainburu berriak euskaltzainei agur egin eta J. Haritschelharri eskerrak eman
dizkio azken urteotan Euskaltzaindiaren gidaritzan egindako lan bikainagatik

2. Aurreko akta onartzea: J. L. Lizundiaren ohar batekin aurreko bilkuraren
akta ontzat eman da.

3. Eskuartekoak

3.1. J. L. Lizundiari zorionak: Euskaltzainburuak Akademiaren izenean J. L.
Lizundiari zorionak eman dizkio, euskara arloan berriki, 2005-2-12an, jaso duen «Du-
rango Uria» sariagatik.

3.2. Elkartasun-gutunak: Azken egunetan gertaturiko polizi gora-beherengatik,
Euskaltzainburuak Martxel Etxehandi euskaltzain urgazleari eta Aita Juan Joxe Agi-
rriari atxikimendu-gutun bana bidali die elkartasuna adierazteko.

4. Hizkuntza gaiak

4.1. Onomastika: Onarturiko «Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak» deri-
tzone txostena euskaltzainen artean banatu da.

**4.2. Hiztegi Batua: b-berriz zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta
eztabaidatzen jarraitzea.** P. Salabururen ezin etorriagatik, idazkariaren zuzendaritza-
pean *belarketa*-tik *berbal*-erainoko oharrak aztertu eta onartu dira.

5. Azken ordukoak

X. Kintanak Ekuadorrera oraintsu eginiko bidaiaren berri laburra eman du, dato-
rren hilerako horri buruzko txostena aginduz.

Bukaeran *Zaldutik Zaldibarrera toponimian barrena* liburua banatu da euskal-
tzainen artean.

Bilkura 14etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2005.eko martxoaren 18an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana-Martija,
Adolfo Arejita,
Jean-Louis Davant,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,
Pello Telleria, idazkariordea eta Juan
Jose Zearreta kudeatzailea zegozkien
gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Ondarra, ahala A. Iñigori; Patxi Zabaleta, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko bilkuraren akta ontzat eman da.

2. Eskuartekoak:

2.1. Azkue sarien berri ematea. Martxoaren 2an 2004.eko Azkue sariak eman ziren egoitzan. Irabazleen berri ematen duen txostena banatu da batzar-karpetan.

2.2. Nafarroako Gobernuarekiko protokoloa. Nafarroako Gobernuarekiko 2005.eko protokoloa martxoaren 16an sinatu dela jakinarazi du Euskaltzainburuak, eta horren berri ematen duen txostena banatu da.

2.3. Idazkariaren txostena Ekuadorko bidaiaz. X. Kintana idazkaria otsailaren 13tik 17ra UNESCOren babespean Ekuadorren antolatu zen biltzarrean egon da, horren helburua bertako indigenen hizkuntzen akademia sortzea izanik. Bidaia horren berri zehatzagoa emateko, txosten bat banatu da euskaltzainen artean.

2.4. Euskaldun unibertsalaren proposamena: Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Kutxaren 2004ko Euskal Herritar Unibertsala sarirako hautagaiak aurkezteko aukera eman zaio, aurtien ere, Euskaltzaindiari. Zuzendaritzak ez du inor proposatu, eta osoko batzarrean bildurikoen artean gaia aztertu ondoren, Renoko *Basque Studies Program* proposatzea erabaki da.

2.5. Eusko Ikaskuntzaren eta Euskadiko Kutxaren 2005eko saria: Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien arloan urtero antolatzen duten saria dela eta, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak horretarako *Patxi Altuna* euskaltzaina proposatzea erabaki duela adierazi du Euskaltzainburuak, eta osoko batzarrek berretsi egin du proposamen hori.

2.6. Apirileko batzar egutegia: Zuzendaritzak aurtengo batzar-egutegian ondoan aldaketak egitea erabaki du: apirilean egiteko ziren XIV. Barne Jardunaldiak eta Lazarragaren IV. Mendeurrenaren ospakizuna maiatzaren 26, 27 eta 28ra (ostegun arra-

tsalde, ostiral eta larunbatez) pasatzea. Ondorioz, maiatzaren 27rako aurreikusita zeuden batzar arrunta eta ageriko bilkura apirilaren 22ra aurreratzen dira; beraz, egun horretako arratsaldean irakurriko dira Jose Maria Larrarte eta Jose Garmendiaren hilberri txostenak. Aldaketa horretarako arrazoiak ere aipatu ditu Euskaltzainburuak: hitzarmena sinatzea atzeratzen ari da eta estatutuen aldaketa-proposamenak prestatzeko eta batzordeen organigrama behar bezala antolatzeko denbora behar da.

2.7. Juan de Garai fundazioaren eskaria: H. Knörrek Argentinara egin duen bidaiaren ondorioz, Juan de Garai fundaziotik jaso den eskutitzaren berri eman da, Euskaltzaindiarekiko liburu-trukaketa eskainiz.

3. Hizkuntza gaiak.

3.1. Onomastika: «-erri(a) osagaia gaurko toponimian» aurkeztea. Andres Iñigok aurkeztua. Oharrak, apirilaren 14rako bidali beharko direla ohartarazi da.

3.2. Onomastika: «Bizkaiko Herri Izendegia (I) “Durangaldea”» aurkeztea. Lizundiak aurkeztu du. Oharrak, apirilaren 14rako bidali beharko dira.

3.3. Hiztegi Batua: b-berriz zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta eztabaidatzen jarraitzea. P. Salabururen zuzendaritzapean *berbartu-tik berriztar*-erainoko oharrak aztertu eta onartu dira. *Ber-/bir* aurrizkiekin moldaturikoez lan-taldeari txostena eskatuko zaio.

4. Azken ordukoak. Egurdiko 13,30etan, Inazio Maria Etxaide euskaltzainburu ohiaren erretratua batzar gelan jarri da, haren seme-alabak bertan zirela. Euskaltzainburuak guztien aurrean aurkeztu eta omenezko hitzak esan ditu.

Bukatzeko, argitalpen hauek banatu dira:

- *Bakio eta eskola* eta *Bakioko hiztegia* (CD eta liburua), Mendebalde Kultura Alkartek argitaratu eta euskaltzainei oparituak.
- Eusko Jaurilaritzak argitaratzen duen Bidegileak saileko zenbaki berriak: *Nazarrio Oleaga* (Andres Urrutiak egina), *Hipolito Larrakoetxea* (Luis Baraiazarrak eta Julen Urkizak egina), *Jesus Maria Leizaola* (Jose Luis Lizundiak egina) eta *Bonifazio Etxegarai* (Jose Antonio Arana Martijak egina).
- *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren XVI. eta azken liburukia (UT – Z).
- *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya (1899-1900)*; 2. liburukia, Zuzenbidearen Euskal Akademiak euskaltzainei oparitua.

Bilkura 13,45ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2005.eko apirilaren 22an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburodea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
eta Piarres Xarriton euskaltzainak,
Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose
Zearreta kudeatzaila eta Mikel Gorro-
txategi Onomastika batzordearen idazka-
ria zegozkien gaitan.

tzainei proposamenen eta informazioaren kopiak bidaltzea. Euskaltzainburuak propo-
samenaren alde egin du, hala bidaltzea nahi duten euskaltzainei eskari hori idatziz egi-
teko esanez. Ontzat eman da.

2.1.2. Onomastika: Bizkaiko Herri izendegia (I) Durangaldea onartzea. J.L.Li-
zundiak, A. Arejitak egindako oharra direla eta, beroni eman dio hitza, *Garai* herriaren
kasuan forma jatorra *Garaia* dela azalduz. Lizundiak arrazoia eman dio, baina zail daku-
sa udalak orain izena aldatzea. Oin-oharrean *Garaia* ere zilegi dela eranstea onartu da.

Iurreta-ren kasuan Arejitak *h* ez sartzea proposatzen du, baina ohar batekin *i-u*
hiatoa azalduz. Lizundiak kasu hau Igorre-rekin batera erabaki beharko litzatekeela uste
du, ondoko bileran onartzeko. Gainerako izen guztiak ontzat eman dira.

2.1.3. Onomastika: Bizkaiko Herri izendegia (II) Arratia aurkeztea. A. Iñi-
gok, Onomastika batzordeak egindako lana aurkeztu ondoren, M. Gorrotxategik ze-
rrenda egiteko erabiliriko dokumentazioaren berri eman du, dokumentu horietariko bat-
zuek eranskinean jarriak izanik. Oharrak maiatzaren 20rako bidali beharko direla
gogorarazi da.

2.2.1. Hiztegi Batua: C eta D zerrendetan markaturiko hitzak banatzea. Eus-
kaltzainei markaturiko hitz-zerrendak banatu dira. Horiei buruzko oharra apirilaren
29rako bidali behar direla gogoratu da.

**2.2.2. Hiztegi Batua: berrizale - byte zerrendari egin zaizkion oharra azter-
tzen eta eztabaidatzen jarraitzea.** P. Salabururen zuzendaritzapean, berba horiek ba-
nan-banan aztertu eta *berrizale* -tik *besterendu* -raino heldu da.

Ezin etorriak eta ahalak: J.A. Arana
Martijak, ahala X. Kintanari; P. Goena-
gak, ahala J. Haritschelharri; H. Knörrek,
ahala A. Urrutiari; P. Ondarrak, ahala A.
Iñigori; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Gi-
puzkoako Foru Diputazioaren jauregiko
batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri
diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko bil-
kuraren akta ontzat eman da.

2. Hizkuntza gaiak:

**2.1.1. Onomastika: «-erri(a) osagaia
gaurko toponimian» onartzea.** Oharrik
ez da heldu. Miren Azkaratek eskatu du
bilkuretarik ezin etorri izan diren euskal-

3. Arautegiaren aldaketa-proposamena aurkeztea.

A. Urrutiak Euskaltzaindiaren arautegia aldatzeko proposamena aurkeztu eta horrekin lortu nahi diren helburuak azpimarratu ditu. Ponentea J. L. Lizundia denez gero, beronek testua irakurri du, aurrekoarekin dauzkan ezberdintasunak azpimarratuz, eta oharrak maiatzaren 20rako bidali behar direla gogorarazi du. J. Haritschelharrek eta P. Xarritonek iruzkin batzuk egin dituzte, baina eztabaidatzeko parada datorren hilean egingo diren XIV. Barne Jardunaldietan izanen denez gero, oharrak idatziz egiteko eskatu zaie.

4. Azken ordukoak.

XIV. Barne jardunaldien programa.

Euskaltzainburuak maiatzaren 26an, 27an eta 28an Arabako bilkuretan egitekoak diren Euskaltzaindiaren hileroko batzararen, XIV. Barne Jardunaldien eta Joan Perez Lazarragakoaren omenaldiaren egitekoen programa irakurri eta azaldu du.

Iberiar Hizkuntzen etxea: H. Knörr euskaltzainaren txostena banatu eta komentatu da, Madrilen Instituto Cervanteseke apirilaren 5ean aurkeztu zuen “Casa de las Lenguas Ibéricas” deritzon proiektuaz. Asmo hau Cervantes Institutuak eta Alcalako Unibertsitateak elkarrekin eraman nahi dute, Penintsulako beste hizkuntzen akademiekin lankidetzan, bertako hizkuntzen garapen eta barne eta kanpo zabalkunderako.

Enpresa Kudeaketaren Ezagutzarako Clusterra.

Izen horretako erakundearen lehendakariak bidalita, apirilaren 26an Bilboko Euskalduna jauregian egiteko den ekitaldirako inbitazioa jaso da, Euskara erakundearen kudeaketan txertatzeko moduz izango dena.

Pierre Duny-Petre-ren heriotzaren berri. P. Duny-Petre Garaztar euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri eman da. Horren hilberria J. Haritschelharrek egingo du.

Manuel Lekuona Saria Haritschelharri. Eusko Ikaskuntzak aurtengo Manuel Lekuona saria J. Haritschelhar euskaltzainburi ohiari eman diola jakinarazi da. Horren kariaz zorionak eman zaizkio. Saria aurtengo maiatzaren 21ean emanen zaio Baigorri. Euskaltzain guztiak hara joatera gomitaturik daude.

Juan San Martín Eibarko seme kutuna. Juan San Martín euskaltzaina bere jaio-terriko, Eibarko seme kutuna izendatu duela bertako udalak jakinarazi da. Izendapen omenaldi hori eskaintzeko data ekainaren 3an izango da. Herriko alkateak, ekitaldi horretarako, euskaltzainburiaren partaidetasuna eskatu du.

Liburu berrien banaketa: bukaeran, ondoko liburu hauek banatu dira euskaltzainen artean:

Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia. Patxi Salaberri euskaltzain urgazleak idatzia eta Nafarroako Gobernuak argitaratu eta opetsia.

Ortotipografia. Estilo liburuaren lehen atala. Eusko Jaurlaritzak argitaratu eta oparizat eskainia.

Bilkura 13,50ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

2005-IV-22

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2005eko apirilaren 22an, bildu da Euskaltzaindia, arratsaldeko 5etatik 6etara, hilberri-txosten bi hauek irakurtzeko: Jose Mari Larrarte euskaltzain ohorezkoaren txostena eta Jose Garmendia euskaltzain urgazlearena.

Bildu dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; A. Iñigo, Jagon sailburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; P. Charritton, P. Goenaga, E. Larre, P. Salaburu eta A. Zavala euskaltzain osoak.

K. Artola eta P. Apezetxea euskaltzain ohorezkoak; M. Atxaga, J. M. Iriondo, M. P. Lasarte, P. Rekalde, P. Telleria eta J. J. Zearreta urgazleak eta Amaia Okariz Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna.

Mahaiburuan eseri dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina eta J. A. Mujika, urgazlea.

Lehenengo eta behin, ongietorria eman die Euskaltzainburuak bertaratu direnei, batez ere hilberri-txostena irakurriko zaien Jose Mari Larrarte eta Jose Garmendiaren familiakoei eta lagunei eta, ondoren, Xabier Kintana idazkariak, goizean Euskaltzaindia zertan aritu den azaldu du, lan akademikoari buruzko xehetasunak emanez.

Jose Mari Larrarte (1926-2004)

Jose Mari Larrarte euskaltzain ohorezko bidaniarraren hilberri-txostena irakurri du J. A. Mujika euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordekideak. Jose Mari Larrarteren ezaugarriak nabarmenena hau zela adierazi du hizlariak: langile isila baina nekagaitza eta emaitzetan oparoa izatea. Hiru alditan banatu du hizlariak haren bizitza profesionala: lehenbizikoa, gaztetxoaren irakasle, pasiotarren ikastetxeetan batez ere (1951-1976); bigarrena, helduen irakasle Iruñean (1976-1981); eta hirugarrena, itzulzaile Gasteizen (1981-1991).

Lehen etapan, pasiotarren etxean jardun zuenean, euskararen irakaskuntzari lotu zitzaion. Irakaskuntzaren bitartez ikusten dira argi haren lanak, haren bizitza osoan izan zituen ezaugarri bi: praktikotasuna eta apaltasuna. Pasiotarren Gabiriako eta Eubako ikastetxeetan irakasle ibili ondoren, Irunen eta Urretxun izan zen, harik eta Iruñera bidali zuten arte.

Orduantxe hasten da, Larrarteren bizitzan, hizlariak bereizi duen bigarren etapa. Udako ikastaroak antolatzea eta eskolak ematera Iruñera joateko eskatu zioten. Horrela, 1977tik aurrera ardua berriak izan zituen. Iruñeko Irakasle Eskolako Euskararen katedraren jabe izan zen lau urtez, 1977. urtean hasita; eta Hizkuntza Eskolako irakaslea ere izan zen, hau sortu zenetik, hau da, 1977. urtetik aurrera, eta Eskola horretarako material didaktikoa ere sortu zuen, *Euskara Bizitik* izenekoa.

Hirugarren etapa 1980an hasi zen, Gasteizen Eusko Legebiltzarreko itzultzaile gisa. Hamar urte egin zituen bertan. Gero, erretiroa hartuta, Erromara bidali zuten nagusiek, artxibistika ikastera urtebetez. Handik Deustura etorri zen, kongregazioko artxiboan lan egitera. Euskaltzaindiaren barruan, Gramatika batzordeko kidea izan zen Larrarte, baita Azkue Biblioteka eta Lexiko Ebazpen Finkapenerako batzordeetako ere. Gramatika batzordean lanean diharduen Jose Antonio Mujikak esan duenez, “ziur-tasuna ematen zigun, euskararen ezagutza sakona baitzuen”.

Jose Garmendia Arruebarrena (1925-2005)

Ondoren, Jose Luis Lizundia diruzainak, Jose Garmendia Arruebarrena euskaltzain urgazle zaldibiarraren hilberri-txostena irakurri du.

Jose Garmendiaren zenbait datu biografiko aipatu ostean, Sevillan igarotako urteak bereziki inportantetzat jo ditu Lizundiak, ikerketarako bidea zabaldu ziotelako; batez ere Indietako Artxiboak ikertu zituen modu sakonean. Ikerle bezala, Euskal Herrian ez ezik, Andaluzian ere oso ezaguna izan zen Jose Garmendia.

Garmendiari esker dakigu Cadiz eta Sevilla hiriek euskal exonimoak izan zituztela: *Karize* eta *Sibilia*. Lizundiak esan duenez, inork ikertu baditu Sibilia eta Karizeko merkataritza eta itsas harremanak, batez ere giputz-bizkaitarrenak, Garmendia goierritarra izan da. Indietara joandako ehunka euskaldunen testamentu, gutun, dokumentu, aberastasun, nahiz pobrezia, estudiatu ditu hark.

Jose Garmendiak, Juan Inazio Iztueta Zaldibiako idazle eta dantza ikerlearen bizitza eta lana ere sakon ikertu zituela gogora ekarri du Jose Luis Lizundiak.

Euskaltzalea zen Garmendia, hizlariaren esanetan ‘Gipuzkoaren historian ugari izan diren ideologia tradizionalistako gizon jakitun eta kezkatu andanaren azkenetarikoa’. Lizundiak, amaieran, eskari hau egin du: on litzatekeela Gipuzkoako Foru Aldundiak edota Zalbidiako Udalak Jose Garmendia Arruebarrena gipuzkoar ospetsuaren lan osoak argitaratzea.

Une honetan, Euskaltzainburuak amaitutzat eman du ageriko bilkura.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

XIV. Barne-Jardunaldiak

Argomaizen, 2005eko maiatzaren 27 eta 28an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina
Henrike Knörr *Iker* sailburua
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua,
Jose Antonio Arana Martija
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate (maiatzak 27),
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Emile Larre,
Pello Salaburu (maiatzak 27),
Ibon Sarasola (maiatzak 27),
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea eta Juan
Jose Zearreta, kudeatzailea dagozkien
gaietan.

txostena azaltzeari ekin dio, Espainiar, Katalan eta Galiziar Hizkuntza Akademien arautegietako ereduak eta argibideak emanez. Ondoren J.A. Arana Martijak eta M. Azkaratek egindako oharra azaldu ditu, bere ustez horien zuzenketak testuan sar daitezkeela esanez.

J. A. Arana Martijak eta M. Azkaratek nork bere proposamenak irakurri eta azaldu dituzte.

2.2. Eztabaida eta onarpena. Ondoren eztabaida izan da, hor. B. Oihartzabal, X. Kintana, J.-L. Davant, M. Azkarate, J. L. Lizundia, P. Goenaga, E. Larre, I. Sarasola, A. Arejita eta H. Knörr mintzatu dira argitasunak eskatuz edota emanez.

Botoetara joanda B aukeraren alde 19 boto alde egon dira, kontra bat ere ez, eta zuririk ere ez.

Beraz, arautegien erreformarako B aukera ontzat eman da. Horren berridazketa ekaineko bilkurarako aurkeztuko da, berretsia izateko.

Gizon-emakumeen arteko berdintasunari dagokionez, Barne-Erregeletan ondoko testu hau eranstea erabaki da: *«Euskaltzaindiak bere barne ibilbidean gizon eta اندreen berdintasunerako politikak sustatuko ditu»*. Alde 19 boto alde egon dira, kontra eta zuri bat ere ez.

Ezin etorriak eta ahalak:

J. Haritschelharrek, ahala B. Oihartzabali; P. Ondarrak, ahala P. Salabururi; Tx. Peillenek, ahala J.-L. Davanti; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra 2005eko maiatzaren 27an, goizeko 9,05ean, hasi da Argomaizko estatuko batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Euskaltzainburuaren txostena: Euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren oraingo egoera azaldu du eta erronken txostena irakurri, Erakundeak dauzkan konpondu beharreko arazoak ukituz.

2.1. J. L. Lizundia: Arautegi eta Barne-Erregelen aldaketa. P. Telleriak kopiak banatu ondoren, J. L. Lizundiak bere

3. B. Oihartzabal: Euskaltzaindia Frantziako legedian. Euskaltzainen artean banatu ondoren, B. Oihartzabalek txostena irakurri du. Ondoren P. Xarrittonek oharrak eta argitasunak eman ditu. J. L. Lizundiak, F. Saragüeta kontulariak Iparraldeko Euskaltzaindia Europar Batasuneko lege-eremuan txertatzeaz egin zuen txostenari buruzko argitasunak ere eman ditu. Ondoren, gai berari buruz B. Oihartzabal eta A. Urrutia mintzatu dira.

4. H. Knörr: Iker sailburuaren txostena. Euskaltzainen artean banatu ondoren, H. Knörrek bere txostena irakurri du. Ondoren J. A. Arana Martija, B. Oihartzabal, P. Xarritton, J. L. Lizundia, X. Kintana, A. Iñigo eta A. Arejita, txostengileak esandako puntuen inguruan mintzatu dira.

Ordu bat eta erdietan bazkaltzeko etena egin da.

* * *

Arratsaldeko 4etan Jardunaldiei berriro ekin zaie.

5. P. Salaburu: Euskal Gramatika Orokorra egitasmoa. Euskaltzainen artean txostena banatuta, P. Salaburuk *Euskal Gramatika Orotarikoa* txostena irakurri du eta bera azalpenak eman. Ondoren J. A. Arana Martija, A. Urrutia eta J. L. Lizundia mintzatu dira, P. Salabururen planteamendua onartuz eta finantzabiderako irtenbideak eskainiz. M. Azkaratek gramatika moderno eta tradizionalaren arteko oreka gordetzearen arazoa gogoratu du. A. Urrutiak, batzordeburuak proiektuez hartu beharreko erantzukizunak nolakoak diren azaldu du. J. Zearretak inplikazio ekonomiko-administratiboak azpimarratu ditu. P. Salaburuk eta P. Goenagak beren ikuspuntuak azaldu dituzte. J. L. Lizundia proiektu akademikoari onspena ematearen alde dago, finantzabidea Zuzendaritzaren ahalmenaren arabera utzirik. P. Xarrittonek hor fonetika ere sartzea nahi luke. P. Salabururen proiektu akademikoa onartu da, erantzukizuna Zuzendaritzaren eta batzordeburuaren artean eztabaidatzeko geldituz.

6. I. Sarasola: Hiztegigintza egitasmoak. Txostena banatu ondoren I. Sarasolak esan du administrazio publikoak ezin ditzakeela lan akademiko eta intelektualak epai epe hertsien irizpideekin. *Euskara-euskara hiztegia* egiteko proiektua aurkeztu du, oinarri eta adibide-iturri gisa OHE aztertu eta egokituz. P. Salaburuk, B. Oihartzabalek, A. Iñigok eta J. A. Arana Martijak egindako galdera-zalantzei erantzun die I. Sarasolak. Behin hiztegia amaitu eta gero, Euskaltzaindiak eman beharko dio onspena, batzorde baten bitartez. J. L. Lizundiak ere batzordeño baten esku uzteari egoki deritzo. Horrek, *Euskara-euskara hiztegia* kontraesan nabarmenik balego, horien oharra egingo luke, Euskaltzaindiak erabaki ditzan. Ontzat eman da proiektua.

7. A. Iñigo: Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa. Testua banatu ondolan, A. Iñigok, Patxi Galék prestaturiko txostena azaldu du, bibliografia eta kronogramarekin. Ondoren J. L. Lizundia, J. A. Arana Martija eta B. Oihartzabal mintzatu dira oharrak eta gehigarriak egiteko. P. Xarrittonek bibliografian falta den liburu bat aipatu du. J.-L. Davant eta E. Larrek ere beren iritziak agertu dituzte. P. Goenagak protesta egin du Justizia Ministerioarekin argitaraturiko liburu batzuetako datuak sartzearatik. A. Iñigok lan honen lehenetasunaren eta garrantziaren alde egin du. H. Knörr ahozko eta idatzizko formen arteko ezberdintasunez mintzatu da, bai eta jendeak toponimiaz egiten dituen galderai behar den seriotasunaz erantzun ahal izateko lan honek daukan garrantziaz. Proiektua ontzat eman da.

Bilera 7,45ean eten da.

Biharamunean, 2005eko maiatzaren 28an, goizeko 8,30etan bilkurari berriz ekin zaio.

Ahalak: M. Azkaratek, ahala P. Goenagari eman dio; P. Salaburuk, B. Oihartzabali eta, I. Sarasolak, B. Oihartzabali.

8. X. Kintana eta P. Telleria: Egindakoen eta eginkizunen txosten orokorra. Euskaltzainen artean txosten orokorra banatu ondoan, X. Kintanak, P. Telleriak prestatutako txostena azaldu du.

J. L. Lizundiak, zorionak emateaz gainera, burukritika egiteko ordua dela ere esan du. A. Arejitak sistema informatikoaren aldaketak Hizkuntz Atlasari ekarritako atzerapenez hitz egin du. P. Goenagak Akademiaren lan kolegiatuak, osoko bilkuren aktak, eta argitalpenen egileen izenak ere aipatzeko esan du. B. Oihartzabalek, batzordeei egiten zaizkien irizpenei erantzuteko obligazioaz galdetu du, eta, bestetik, Euskaltzaindiaren argitalpen-politika finkatu eta euskararen lekukoak eta klasikoak bultzatzea esatu du.

Erantzunez, A. Urrutiak azaldu du Euskaltzaindia Hegoaldeko administrazioen aholku-emaile ofiziala dela eta, beraz, erantzutera beharturik dagoela; aldiz, partikularrei erantzuteko obligazioa morala besterik ez dela. Argitalpen politika ere finkatzeko prest dago, lekukoak eta bultzatzeko, beti ere baliabide ekonomikorik nahikoa dagoen neurrian. P. Xarritonek esan du Euskaltzaindiak politikariak gidatu beharko lituzkeela, zeintzuk lan bultzatu behar diren jakin dezaten.

J. L. Lizundia lan kolegiatuak sartzearen alde agertu da, P. Goenagarekin bat, eta Euskaltzaindiak EiTB-rekin eta hitzarmenak sinaturik dauzkan erakundeen galderei erantzuteko obligazioaz mintzatu da. Argitalpen-politika finkatzearekin ere ados agertu da. P. Telleriak, gauza batzuk zergatik ez diren jarri azaldu du, eta Euskaltzaindiak «de facto» baduela argitalpen politika adierazi du, batez ere Erakundearen argitalpenekin, literatura-sariekin eta herri-aginteeekin eta bestelako erakundeekin sinatutako hitzarmenetatik sortzen diren beste batzuekin, eta besterik dela euskararen lekukoak bultzatu nahia. P. Goenagak herri-aginteen kontsultak direla eta, esan du batzuetan ez dela erraza diktamenik ematea, zalantzasako kontuak izan daitezke eta.

* * *

9. Ordezkariek, liburuzaina, batzordeburuak eta batzorde-idazkariak izendatzea.

Organigrama irakurri du Euskaltzainburuak, buru-arduradunak eta idazkariak proposatuz, eta onartu egin dira izendapen hauek:

Arabako ordezkaria: H. Knörr

Gipuzkoako ordezkaria: Ana Toledo

Nafarroako ordezkaria: A. Iñigo

Iparraldeko ordezkaria: P. Xarritton

A. Iker saila. Buru: H. Knörr

I. Hiztegitzinta. Buru: I. Sarasola

I.1. Euskara-euskara hiztegia. Arduraduna: I. Sarasola.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea. Arduraduna: J.A. Aduriz.

II. Gramatika batzordea. Buru: P. Salaburu

Ohorezko burua: P. Altuna

Idazkari: J. M. Makatzaga

III. Dialektologia. Buru: A. Arejita.**Atlasgintza lantaldea.** Arduradunak: G. Aurrekoetxea, Xarles Videgain**IV. Onomastika batzordea.** Buru: A. Iñigo

Idazkari: M. Gorrotxategi.

Exonomastika. Arduraduna: J. L. Lizundia**V. Literatura.** Buru: J. Haritschelhar**V.1. Herri Literatura batzordea.** Buru: P. Esnal

Idazkari: J. Kaltzakorta. (E. Larre eta A. Zavala bat datoz izendapenekin).

V.2. Literatura Ikerketa batzordea. Buru: J. Haritschelhar

Idazkari: Lourdes Otaegi

B. Jagon saila. Buru: A. Iñigo**I. Corpus batzordea:** Buru: A. Urrutia

Idazkari J. R. Zubimendi

Euskalkien lantaldea. Arduradun: P. Rekalde**II. Sustapen (Status) batzordea.** Buru: A. Iñigo

Idazkari: E. Osa

Argitalpen batzordea

Buru: Euskaltzainburua, A. Urrutia

Idazkari: Argitalpen eragilea, R. Badiola

Azkue Biblioteka batzordea

Buru: J. A. Arana Martija

Idazkari: P. Gartzia

Lege-Ekonomia batzordea: Zuzendaritza.**Lege azpibatzordea**

Buru: A. Urrutia

Idazkari: J. L. Lizundia

Ekonomia azpibatzordea

Buru: J. L. Lizundia

Idazkaria: J. J. Zearreta

Euskara Batuko batzordeari dagokionez, M. Azkaraterekin eta P. Salabururekin mintzatu behar da, berau nola geldituko den erabakitzeko.

Batzordeetako gainerako kideak izendatzea hurrengo osoko batzarrerako utzi da.

Bilera goizeko 10,40an amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

2005-V-28

Barrundia-Larrea haraneko Udaletxea, Ozeta herrian, bildu da Euskaltzaindia 2005eko maiatzaren 28an, eguerdiko 12:30etatik 13:45era, Jon Perez Lazarragaren IV. mendeurrena ospatzeko.

Bildu dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; H. Knörr, *Iker* sailburua; A. Iñigo, *Jagon* sailburua; J. A. Arana Martija, A. Arejita, P. Charritton, J.-L. Davant, P. Goenaga eta E. Larre euskaltzain osoak.

Koldo Artola eta Joseba Intxausti euskaltzain ohorezkoak.

Euskaltzain urgazleak: X. Arbelbide, R. Badiola, L. Baraiazarra, M. Ruiz de Urrestarazu, P. Uribarren, P. Telleria eta J. J. Zearreta.

Batzordekideak: Jose A. Gonzalez Salazar, Pruden Gartzia, Elena Martinez de Madina eta Zuriñe Rescalvo.

Euskaltzaindiko langileak: Amaia Okariz eta Itziar Rekalde.

Herri Agintariak: Federico Verastegui, Arabako Kultura diputatua.

Mahaiburuan eseri dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; X. Kintana, idazkaria; Juan Vidal-Abarca, Historiaren Erret Akademiako kidea; Jose Felix Uriarte, Barrundiako alkatea, Jose Angel Segura, Larreako auzo-alkatea eta, Federico Verastegui, Arabako Kultura diputatua.

Lehenengo eta behin, ongietorria eman die Euskaltzainburuak bertaratu direnei, eta ondoren hitza eman die mahaiko gainerakoei.

Lazarragatarrak Arabako Lautadan

Juan Vidal-Abarcak, «Lazarragatarrak Arabako Lautadan» gaia izan du hizpide. Errege Katolikoen garaian, nolabaiteko prestigioa izan zuen familia dela azaldu du. Jatorriz Oñatikoa diren lazarragatarrek harreman handia izan zuten Oñatiko kondeekin; hori dela eta, Arabarako Lautadara joan ziren bizitzera. Familiaren kide batzuen gora-beherak aipatu ostean –ezkontzak, bidaiak, seme-alabak– Juan Perez Lazarraga omendua aipatu du, azkenik, Vidal-Abarcak: «17 urte zituela, Madrilera bere osabaren etxean bizi zen gazte hori omendu nahi dut, tarte libreak, orain gutxi deskubritu dugun eskuizkribua idazten ematen baitzuten».

Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak

Xabier Kintanaren esanetan, Lazarragaren eskuizkribuaren agerrera «material berri asko ekarri dizkigu, bai literatura arloan eta bai hizkuntzalaritza eremuan ere, eta horren kariaz guztiok hasi behar izan dugu gure hizkuntzaren eta gure literaturaren historia berraztertzen, datu berriekin egokitzeko. Hasteko –azpimarratu du– orain Araba gelditu zaigu gure letragintzaren buruan».

Lazarragak euskal poesia ezagutzen zuen, Kintanaren aburuz: «Hori ondo nabari da bai gaietan eta bai bere lanean zehar errepikatzen diren esalditxo eta kliseetan». Eta euskal poesia ezagutzen zuela esatean, lehen euskal poeta ere ezagutu zuela adierazi nahi izan du Euskaltzaindiko Idazkariak.

Hori, Kintanaren iritziz, garrantzi handikoa da «euskal literaturaren interpretazio orokorra egiteko orduan. Izan ere, gure literatura maiz aurkeztu izan den era ikusita, irudi luke gure lehenbiziko idazle zaharrak banan-banako frankotiratzaile bakartiak izan zirela, funtsean apaizak, zein bere eskualdeari begira, muga politikoek aldentuak eta elkarren berri izan gabe. Azken aldion biltzen ari garen datuen arabera, ordea, errealtatea oso bestelakoa izan zela dirudi: laikoak eta handikiak ere euskara lantzeaz interesatzen zirela, hasiera-hasieratik bazirela egiazko harremanak Pirinioen alde bateko eta besteko idazleen artean, bazutela elkarren ezagutzarik eta beren obretan bazela, herri bereko semeak ziren aldetik, beren nazioaren literatura sortu eta lantzeko kontzientzia, banaketa politikoak gora behera.

Hitzaldiaren bigarren atalean, Lazarragak «oinarizko hitanoa» erabiltzen duela azpimarratu du Kintanak. Eta halaxe gaineratu du: «Antzinako euskaldunek behintzat horretarako eredu ona eskaintzen digute: hika jarduteko ez dela beharrezko gainerako alokutibo guztiak ere erabiltzea, eta Euskaltzaindian, nik uste, ez genduke gutxienezko hitano horren erabilera gaitzetsi behar, urte gutxi barru hitano osoa galdurik ikusi nahi ez badugu behintzat».

Joan Perez de Lazarragaren genealogia-izkribuak: zenbait ohar

Vidal-Abarcak aipatutako Lazarraga familiaren genealogia -edo kronika- izan da Henrike Knörren hitzaldiaren xedea. *Iker* sailburuaren esanetan, horrek «arrazoi osoz», ikertzaile asko erakarri ditu, hala nola Juan Carlos Guerra, Koldo Mitxelena, Iñaki Zumalde edo Micaela Portilla, bai eta María Comas ere. Azken honek doktorego tesia egin zuen, gai honetaz: *Juan López de Lazarraga, secretario de los Reyes Católicos, y el monasterio de Bidaurreta*.

Knörrek esan duenez, genealogia eta kronika mota hauetan ikusten ohi dena dakusagu hemen ere: familiaren loria eta antzinatasuna goraiatzeko da. Baita maitasun istorioak, ezkontzaz kanpoko umeak edota gorrotoa eta ezinikusia.

Hizkuntza aldetik, bestalde, interes handia eskaintzen du kronika honek, Henrike Knörren aburuz, «eta euskalari zenbait jardun dira hori ikertzen. Mitxelenak, *Textos arcaicos vascos* liburuan, xeheki aztertu zuen lelo bat, guztiz garbi ez dagoena (guk gaurko grafian emango dugu): «Gaitza zenduan leintzarrok, Urruxolako lekaioa, Sendo zenduan odolori bihurtu jatzu gatzaiola».

Une honetan, Euskaltzainburuak amaitutzat eman du ageriko bilkura, eta bertan dagoen jendea Larreara joatera gonbidatu du.

Oroitarria Larrean

Ageriko bilkura amaitzean, Larreara hurbildu dira euskaltzainak, herri-agintariak eta jende multzoa. Elizaren aurrean bildu den jendeari aureskua dantzatu diote dantzariak. Jarraian, eliza-atarian, Lazarragaren omenezko Euskaltzaindiaren oroitarria agerian jarri da. Honela dio oroitarriak: «Euskaltzaindiak Joan Perez de Lazarragari bere heriotzaren IV. mendeurrenean. 2005eko maiatzaren 28an».

Amaitzeko, hitz batzuk esan ditu Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

LIV. ARAUEN TESTU OSOA

143

-ERRI(A) OSAGAIA GAURKO TOPONIMIAN

SARRERA

Gauza jakina da Euskal Herriko zenbait eskualde eta ibarren izenetan, aurreko izen zehazle bati erantsirik, *-erri* osagaia agertzen zaigula. Azken aldi honetan, ordea, zalantza piztu da, izen horiek mugatzailea eskatzen ote duten ez dagoelako beti nahi bezain argi. Horregatik, euskal tradizioan orain arte erabili denean eta toponimia nagusiaren alorrean egin diren bilketetan, nolako erabilerak aurkitzen ditugun aztertu nahi izan dugu. Era honetan, nola jokatu behar den zehaztu nahiko genuke, kasurik ezagunenetan behinik behin, ez dadin zalantzarik egon. Halaber, ahal den heinean, etorkizunean kausi nahiz sor litezkeen leku-izenekin ere, jarraitu beharreko biderik egokiena zein ote den adierazi nahiko genuke. Euskal Herriko Erkidego politiko batzuetako lurralde-antolamenduko zerbitzuek, udalaz goragoko esparruak zehaztu eta identifikatu behar izaten dituzte sarritan. Industrializazioak ekarritako zenbait hiriguneren garrantzi berriak, bizimodu tradizionalen aldaketa sakonak, komunikabideen modernizazioak eta herri-zerbitzuen eskaintzaren arrazionalizazioak, euskal herrialdeak eskualdetan zatikatzeko saio ugariak ekarri dituzte. Eskualde, barruti nahiz edozein helburu zehatzetarako esparru hauen izenak, ordea, ez dira beti era egokian ez emaitza arrakastatsuaz berreskuratu, asmatu nahiz egokitu. Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak, euskarak *-erri* osagaia duten leku-izenak osatzeko orain arte eskaini dituen bideak aztertu nahi izan ditu, jarraian ematen den txostenaren bidez, etorkizunean berreskuratu nahiz osa litezkeen toponimoetan ere, bide egoki eta zuzen horiek segi daitezzen xedeaz.

ERABILERA ETA TRADIZIOA

1. Azkueren hiztegian begiraturaz gero, lehenik herri izen arruntaren adiera ohikoena aurkituko dugu, oro har:

«**Erri** (ANc, Bc, Gc), **herri** (BN, L, S): 1º pueblo, population. = En el sentido de *lugar habitado*, como en el de *gente habitante*, aunque tal vez la segunda acepción no sea más que extensión de la primera. *Ce mot s'emploie autant dans le sens de lieu habité, que dans celui d'habitant; encore est-il probable que la deuxième acception n'est que l'extension de la première*».

Badirudi, hala ere, Azkuek aditzera ematen duen esanahi honetan, behiala *herri* hitza baino gehiago erabili ohi zela *hiri* (*iri, uri...*). Gaur egun gutxi gorabehera «ziudadea» adierazteko darabilgun azken hitz hau, biztanleak zituen lekua izendatzeko erabiltzen zen. Horretan dute jatorria euskal onomastikan hain ohikoak diren (*H*)*uriarte* / *Uriarte*, (*H*)*iribarren* / *Uribarren*, (*H*)*iriberri* / *Uribarri*, (*H*)*irigoien* / *Urigoien*, (*H*)*irigibel* / *Urioste*, (*H*)*iriondo* / *Uriondo* eta antzeko izenek, Euskal Herriko bazter guztietan leku-izen nahiz deitura gisa aurki daitezkeenak.

2. Esanahi orokor hau ez ezik, osagai honek nekazaritza giroari lotutako adiera ere badu, nekazaritza-produktuen izenei loturik, berauek hazten diren lurrak izendatzeko hedadura zabaleko baliabidea izanik:

Arterri (AN ap. A < Aq) «tierra sembrada de maíz, *arterria*; de lino *ligerría*, y así de lo demás (AN)» (*Orotariko Euskal Hiztegia*, Arakistainek Larramendiren hiztegiari eginiko gehigarritik Azkuek jasotako hitza). Eta *linerri* *liherri* (Sc ap. A; Chaho), *liguerri* (Sal ap. A), *ligerri* (AN-araq ap. A: Aq 595 (AN)). «Linar, tierra sembrada de lino» A. *Neskak beretzat digu landu lierría*. Or Eus 101. (*Orotariko Euskal Hiztegia*, Azkuek gainera, Xaho eta Arakistain aipaturik eta Orixeren adibideaz homitirik).

Aizkolerri (Artzibar, Esteribar, Erroibar, Itzagaondoa, Urraulbeiti), Alorrierietako bidea (Ultzama), Artoerri (Erroibar, Esteribar), Artoerria (Esteribar), Artoerribizkar (Esteribar), Artoerrixar (Esteribar), Artoerrixiki (Lizoaibar), Maizerri (Leotz, Lizoaibar, Galar, Ibargoiti), Patataerrixoko (Erroibar), Pinadierrri (Esteribar), Tipulerri (Itzagaondoa, Ezkabarte, Esteribar), Tipulerria (Bidankoze)... (*Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, Iruña).

[...] baberrri «babendako alorra», txitxirrierrri, oloerri, lanterri (Orotz-Betelu, 384. or.), Oloerria, zalké-ria, gariérria, garagaerria, eruérria (1) (?), babérria, ilarérria (Iriberrri Aezkoa, 384. or.) (*Eritzizundi irukoitza*, Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984).

Arambazaerri (sic. Arabako Mendizabal, 1710), Sarecherriaga (Gorbeia) (López de Guereñu Galarra-ga, Gerardo. *Toponimia alavesa*, Onomasticon Vasconiae 5, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989).

Oterri (Aramaio, 7 lib. 97. or., 150. zk.) (González Salazar, José Antonio. *Cuadernos de toponimia alavesa*, 8. liburukia. Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1985-1998).

Azkuek ere jaso zuen osagaiaren adiera hau, baina, segur aski akatsez, Erronkariko euskalkiari mugaturik agertzen da haren hiztegiari:

«-Erri [...] 2° (R), sufijo que indica un campo sembrado, *suffixe qui dénote un champ ensemencé*. GA-RIERRI, campo sembrado de trigo: *emblavure, champ ensemencé en blé*. OLOERRI, campo sembrado de avena, *champ semé d'avoine*. = Tal vez estas palabras más bien que derivadas sean compuestas, y ERRI más bien que un sufijo puede que sea nombre. *Ces mots sont peut-être plutôt des composés que des dérivés*, et ERRI est peut-être un nom plutôt qu'un suffixe».

3. Hala ere, -erri osagaia nekazaritza-produktuak ez diren beste izen batzuekin ere aurki dezakegu, esanahi aldetik antzeko balioa duen arren:

Enkargaerri (Olaibar), Erbillerri (2) (Arruazu), Erroierri (Oitz), Kostalerri (Anue), Landaerribelz (sic. Artzibar), Landerri (Puiui), Larrierri (Oitz), Leierri (Oltza), Ospelerri (Esteribar), Sugerria (Espartza Zaraitzu), Zabalerri (Untzitibar)... (*Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, Iruña).

Cindunerri (Zekuiano, 1849), Janerri (Uribarri Nagusia, 1849), Malaperri eta Malaperriburu (Birgaragoien), Malferria (Arkaia, 1706), Malperri (Erretana, 1829), Martinerri (Izki), Menderria (Lagran, 1725), Unimaterri (Marauri), Uquerria (Lezama, 1625) (López de Guereñu Galarra, Gerardo. *Toponimia alavesa*. Onomasticon Vasconiae 5, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989).

Modu berean, Zaraitzu aldean eta Aezkoako Abaurregiaren Pardixerria hitza jaso dute Patxi Salaberrik (*Fontes Linguae Vasconiae* (3) 53, 1989, 55-59. orr.) eta Koldo Artolak («Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak. (7 -Orotz-), *FLV* 97, 2004, 403. or., «Pardixerria» Urraulgoiti, Urraulbeiti eta Iruberrirainoko aldea izendatzeko, bertakoei *pardixak* esaten zaien bitartean (4). Esanahia Kokoerria izenak (eta bertakoei *kokoak* deitzea) duen berbera da, nabarmen despektiboia (Olló: *Kokoak* «los extranjeros». *Eritzizundi irukoitza*. Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984, 382. or.) (5).

4. Badirudi -erri osagaiaren adiera hau oraintsu arte, gaur den egunean baino hedatuagoa egon zela, zen-zen hala irakur baitzekagegu Jesús Basáñezek *Lejona, anteiglesia vizcaína* lukeen:

«[...] en las primeras elecciones en que tomamos parte para elegir diputados provinciales (septiembre de 1880), Lejona quedó dividida en dos distritos electorales: "Marinerri" (o pueblo de la ribera) que comprendía los barrios de Artaza, Ondiz, Udondo, Aqueche y Lamiaco, y "Baserri" (o pueblo de la montaña), integrado por las demás entidades de población» (Basáñez Arrese, Jesús. *Lejona, anteiglesia vizcaína*. La Editorial Vizcaína, Bilbo, 1971, 275. or.).

(1) *Orotariko Euskal Hiztegia*-k (aurrerantzean OEH) dakarren gisan, *eru* «gíron, yero» da gaztelaniaz.

(2) OEHk eta Azkuek biltzen dutenez, Nafarroa Garaiko zenbait hizkeratan *erbil* hitza nekazaritza-tresna jakin baten izena da, zehazki, lur-mokorrak hausteko erabiltzen zen mailu antzekoa. Azkuek izen honetatik eratortitako *erbildu* aditza ere bada-kan. Herrialde bereko beste zenbait tokitan, ordea, zura lantzeko tresna bat izendatzen du, gubiaren antzekoa.

(3) Aurrerantzean *FLV*.

(4) Jon Etxaidek bildutako toponimo batzuen zerrendan, *Urraulgoiti* (Urraul Alto) izeneko ibarrari Parditx-erria esan ohi zitzaioela agertzen da («Uri eta toki-izen batzuen euskal-izendegia, orain arte bildutakoen berri» *Egan*. Donostia, 1961, II. zenb., 223. or.), nahiz, segur aski, oker jasotako txistukariak agertzen den.

(5) Jose Maria Satrustegik ere idatzi du honetaz («A propósito del préstamo lexical «kokoak»» *FLV*, 53, 1989, 61-74. orr., eta «Proceso tribal», in *Antropología y lengua*, Iruña, 1989, 77. or. eta hurr.). *Eritzizundi irukoitzak* «los extranjeros» itzulpena ematen duen arren, norberaren ondoan dauden «besteak» bezala ulertu behar da hitz hori, antropologiaren ikuspegitik. Adiera hau beratu duke Txomin Peillen euskaltzainak emandako *Manexerria* izenak (ahoz 2005/01/27ko Euskaltzaindiaren hilero-ko bilkura), zuberotarrek Nafarroa Beherea izendatzeko erabiltzen dutena.

Hizkuntzak eskaintzen duen eta baliabide aberatsa den erabilera arrunt honen ondorio, «Durango Merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkarte» delakoak bere izen zahar honen ordez «Durangerriko Adiskideen Gerediaga Elkarte» hartu du:

«Se ha sustituido el término administrativo de una época, como era el de merindad, por la denominación Durangerria, que refleja más fidedignamente el nombre original de nuestra comarca que fue el de “Tierra de Durango”» (Elkarteak bidalitako jakinarazpena, 2004/07/07).

5. Aipa litezkeen adibideen artean, badaude eskualde eta udalerriak izendatzeko erabili diren beste zenbait izen propio, besteak beste, Azkuek aipatzen dituen honako hauek:

«**Beterri** (G, Ag. Eracus. 180-25), pueblo de abajo, parte baja de Guipuzkoa: *pays bas, la partie basse du Guipuzcoa*».

«**Goiherri** (BN, L, S), **goierri** (AN, B, G), países altos: *hauteurs, pays hauts, régions hautes*».

«**Txorierri** (B,...), cierta comarca de Bizcaya no bien demarcada, que comprende unos catorce pueblos, como Zamudio, Derio, Asua, Sondika, etc.; lit.: país de pájaros: *certaine contrée de la Biscaye assez mal délimitée, qui comprend environ quatorze villages, tels que Zamudio, Derio, Asua, Sondika, etc.; lit.: pays d'oiseaux*».

Jakina den bezala, Azkuek adierazi ez arren, lehenbiziko izenek, eskualdeak ere izendatzen dituzte. Azken adiera honetan, ez dugu ahaztu behar Mikel Zarate zenak idatzitako lan ezagunaren titulua: *Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierrri-Gran Bilbao* (La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1976). Era berean, Miguel de Unamunok aipatzen du toponimo hau:

«**Chorierrri**, la inmensa calma de la aldea, tierra de pájaros, la tierra de promisión, el campo de los chimbos y chimberos...» (6)

Adiera honetan, arrunki erabiltzen dira zenbait toponimo historiko **Estellerria** (7) (eskualdea), **Deierrri** (udala eta ibarra), **Goñerri(a)** (udala eta ibarra), **Iruñerria** (eskualdea) eta halakoak, **Euskal Herria** bera ere ahaztu gabe, toponimia nagusian *-erri* osagaia tradiziozkoa dela argi eta garbi erakusten dutenak.

6. Azken urte hauetan bide berbera segitu da modu honetako zenbait toponimo eratzeko, hala nola **Enkarterri(ak)**, **Lizarrerri** (Mitxelena, Koldo: *Palabras y textos*, EHU, Gasteiz, 1987) **Lizarrerria** (*Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990, 236. or.), **Sakanerri** (Sartrategi, Jose Mari, *Sakanerri barrena, historia, herri jakintza eta ohiturak*, Nafarroako Gobernua, 1999), **Tafallerria**, **Zangozerria** (8)...
7. Idazleek ere erabili dituzte *-erri(a)* osagaia duten izenak. Hona hemen lekuko horien zenbait adibide:

«Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euskal herrian. Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizkayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian, eta bertce anhitz leccutan» (Agirre, Pedro «Axular»: *Gero*, [Bordele, 1634] Euskaltzaindia (argitalpen faksimila), Bilbo, 1998, 17. or.).

«**Tolos-errian**, **Beterrin**, **Goierrin**, zoko guzietan arto ta baba ta gari txeatu zetunan» (Ormaetxea, Nicolás «Orixe»: *Quito'n arrebarekin*. Klasikoak 20, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1987, 74. or.).

«Gaur itxasaldean, biar legorraldean; orain **beterrian**, urrengoan **goierrin**; gelditu ere gabe zebillen beti aruntza ta onuntza, atzealdetik bere kantuekin poza ta alaia ixuriz» (Agirre, Tomas «Barrensoño»: *Uztaro*, Editorial Vasca, Bilbo [1937], 1950, 202. or.).

Ikusi denez, deklinabidea ezartzean bi modu desberdin (*-erri* eta *-erria*), eta biok aldi berean aurkitzen direla, esan daiteke.

Kasu batean *-erri* osagaia era honetan, mugagabez erabiltzen da eta deklinabidea ere mugatzailerik gabe ezarri ohi da:

«Bada, orain urte batzubenak dirala, atera ziran **Goyerrin** etxetik bi apaiz, ta jun ziran ibilli bidez Ikaztegiatako onduan dagon Aladabako [sic] etxadi edo barriyo aldera» (Soroa, Marcelino: *Baratzan*, Auspua liburutegia, Donostia [1886], 1962, 46. or.).

(6) Unamuno Jugo, Miguel, «Chimbo y chimberos», *La Vasconia*, 1917ko urria, 865. zk. Geroago, 1902an, *De mi país* liburuan berrargitaratua.

(7) *Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990, 236. or. Nafarroako Orkoiaren herria dokumentatzen da *Estellerri bidea* 1864an, *Nafarroako toponimia eta mapagintza*, 58-G liburukia, Nafarroako Gobernua, 1999, 150. or.

(8) Onomastika batzordeak Nafarroako Gobernuarentzat prestatutako proposamena.

Eta beste zenbait kasutan, eutsitako osagai hori mugaturik ageri da:

«Esan daiteke noski ez zela atertu hain oinarritzko dugun Bilboren erdaluntzea aldi horretan barrena, inguruan, Iruñerrian bezalaxe, tinkoago irauten zuelarik euskarak» (Mitxelena, Koldo: *Euskal idazlan guztiak: Hizkuntzalaritza* 1, Klasikoak 21-29, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 54. or.).

«Legazpi ta Urdanetak beren Goierria, Okendok ta Elkanok aldiz Kosterria, itxasoz daramate euskal-Edestia» (Mitxelena, Salbatore: *Arantzazu, euskal-sinismenaren poema*, Ed. Aránzazu, Oñati, 1949, 232. or.).

«Ustea dugu, bestalde, hizkuntzaren aldetik eten, banaketa edo konbergentzia eremu garden gardenik ez den gurea bezalako lurraldeetan –Eguesibar, Izabeibar, Iruñerria, Oltza, Ollibar, Goñerria, Gesalatz inguruaz dihardugu–», «Andiaz harat Goñerria dago eta berehala Gesalatz, Estellerria» (Camino, Iñaki, «Goñerriko hizkera (I)»: *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, 1999, XXXIII-1, 14. eta 15. orr.).

Leku-izen batzuetan, mugatzaile pluralaz lagunduak aurkitu ditugu, paradigma plural arruntarekin deklinaturik:

«Bañan orain Goierrietako necazariac sagardoaren valio andiaz (noizbaiten ere bearda) oarqueturic, equin zaiozca berriór sagastiac ifinteari» (Iztueta, Juan Ignacio: *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, Ignacio Ramón Baroja, Donostia, 1847, 142. or.).

«Urrestietako Batzarretxea eta Enkarterrien museoa. Batzarretxea Bizkaiko monumentu historikorik garrantzitsuenetakoa da, eta Enkarterrietako monumentu nagusia». (Bizkaiko Foru Aldundia, Nekazaritza Saila, *Fitxak*).

«Enkarterrietako bizimoduan sustraituriko kontaerak: hemengo usadio-ekandu, pertsonai-eredu, bizimodu, pentsamolde eta sentierak isladatzen dabezan ipuinak; erdaraz idatzirik egonagaitik, euskal usain gozagarria darien gertakari bilbatuak». (Arejita, Adolfo: *Gordexola bailara saria*, VIII. Ipuin lehiaketa, 6, 1997, hitzaurrea).

«Biamaronean, argiarekin batean, berri txarra ere edatu zan errian, Bortz Errietan, Nabarran eta Gipuzkoan» («Don Javier il zaigu»: *Príncipe de Viana*, euskarazko gehigarria, 1969, 45-46, azarora-abendua, 3. or.).

«Gure Bortz Herritako euskera erabiltzen goaz» (Antton. «Euskal giro berri bat Lesaka ta Bera'n»: *Príncipe de Viana*, euskarazko gehigarria, 1972, 73, Iruñea, 7. or.) (9).

Hala ere, leku-kasu batzuetan deklinatzen denean, beste determinatzaile edo izenondoren bat daramanean, edo postposizio batez hornituta doanean, ez da argi bereizten izenarekin mugatzailea doan ala ez, bi formek itxura bera hartzen dutelako:

«Modu onetan salduzen dan sagardoaren balioa, orain diru asco eguiten daben demporan cerchobait izan arren, ugaritasunac mercatzera dacarrenean, utsera biurtzen da Goierrico sagar-jabe-etara iritsi orduco» (Iztueta, Juan Ignacio: *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, Ignacio Ramón Baroja, Donostia, 1847, 142-143. orr.).

«Maatsa Kokoak aipa orduko, albotik da Zimurrio: udazken eder Beterri artan igarora dala dio» (Ormaetxea, Nicolás «Orixe»: *Euskaldunak poema: XV kantuetan*, Itxaropena, Zarautz [1934], 1950, 381. or.).

«Maite ditu eguzkiak gure mendiok, eta sortaldetik jagiten danean, eurentzat izaten da bere lenengo argi errafluaren txera epela, ta illunabarrean, beterri guztiak, ondamutsuen antzera, añutsu gelditzen di-ran orduan, mendi tontorrenzat izan oi da eguzkiaren azken agur biguna» (Agirre, Domingo: *Kresala*, Durango, 1906, 213. or.).

«Bere hirikoen ordeze bere euskalkiko argitasunak agertzen dizkigu, eta Gipuzkoako euskalki hori be-rak begiz joa da, Beterri aldera» (Mitxelena, Koldo: *Euskal idazlan guztiak: Literaturaz* 2, Klasikoak 21-29, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 97. or.).

(9) Eskualde honek duen beste izendapena, *Bortziria*k, gaur den egunean, behar bada, hedatuago dagoenak, badu oinarriak ere:

«aquel dicho en vascuense, aparentemente definitivo, que la gente ponía en boca sin saberse desde cuando: LESAKAI-CO BORZIRIAC (Las cinco villas de Lesaca) [...] Claro que, Lesaca dejaría reducida esta frase popular, a BORZIRIAC o a BORZIRI NAFARRACOAE» (Idoate, Florencio: *Rincones de la historia de Navarra*, III. liburukia, Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea, 1979, 261-262. orr.).

«Bortz hiriko ama baten deia» (Satrustegi, Jose Maria: *Euskal izenak*, «Amagoia»: *Príncipe de Viana*, euskarazko gehigarria, 1967, 67, Iruñea, 6. or.).

HONEN GUZTIAREN ONDORIOZ, HAU DA -ERRI(A) OSAGAIAREN ERABILERAZ EUSKALTZAINDIAREN ARAUA:

1. Toponimo nagusien zerrenda

1.1. Mugagabea:

- Baserri:** Berango eta Getxoko auzo ofizialak; Ezkabarteko alderdia (10).
Beierrri: Esteribar eta Araizko alderdiak (11).
Deierri: Nafarroako ibarra eta udalerria.
Durangerri: Bizkaiko eskualdea izendatzeko neotonponimoa, analogiaz sortua.
Enkarterri: Bizkaiko eskualdea izendatzeko neotonponimoa.
Ergoienerrri (12): Ergoiena izendatzeko, Arruazu aldean erabilitako era erredundantea.
Goierri: Gipuzkoako eskualdea; Bizkaiko Aulesti, Barrika, Erandio, Garai eta Zaldibarko auzo ofizialak; Nafarroako Esteribarko Eugi, Iragi eta Urtasun aldeak; Araizko Azkarate, Gaintza, Intza eta Uztegi aldeak (13).
Goñerri: Nafarroako ibarra eta udalerria (14), noizbait artikuluearekin ere erabili dena.
Lañerri: Ezkabarteko Arre, Oriakain eta Sorauren alderdia, eremu zelaiko auzoak alegia, *Baserri* izeneko inguruari kontrajarria.
Txorierri: Bizkaiko eskualdea.

1.2. Mugatu singularra (-a):

- Armotxerria:** Foruko auzo ofiziala (15).
Asterria: Zeanuriko auzo ofiziala.
Estellerria: Nafarroako eskualdea.
Goierria: Bolibar-Ziortzako auzo ofiziala.
Iruñerria: Nafarroako eskualdea, noizbait artikulurik gabe ere erabili dena (16).
Kokoerria: *Iruñerria*-ren goitzen peioratiboa.
Lizarerria: *Estellerria*-ren neotonponimoa.
Pardixerria: Nafarroako eskualdea, gehienbat Urraul biak hartzen dituen.
Tafallerria: Neotonponimoa.
Toloserria: Gipuzkoako eskualdea, *Tolosaldea*-ren kidea.
Zangozerra: Neotonponimoa.

1.3. Mugatu plurala (-ak):

- Bortzerriak:** Nafarroako ibarra, *Bortzirak* izenaren kidea.

(10) «[...] top. *Lañerri*, nombre de la parte baja del valle de Ezcabarte (Navarra) contrapuesta a la alta o *Baserri*» (Mixelena Elissalt, Koldo: *Fonética histórica vasca*, Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo, Donostia [1961], 1985, 200-201. orr.). Oraindik bizirik diraute ibar honetan bi izen hauek.

(11) *Beierrri* izena duen alderdiak *Araitz* ibarraren beheko aldeak hartzen ditu: *Arribe*, *Atallu...* Kontrara, *Goierri* izenekoak Aralarko mendien maldetan daudenak biltzen ditu, hau da, *Azkarate*, *Gaintza*, *Intza* eta *Uztegi* (*Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990, 102-103. orr.).

(12) Ahoz *Ergoienerrri* bildua.

(13) Azken haran honetako *Beierrri* izenari kontrajarria.

(14) Urritzola Arakilgo Bautista Etxarren informatzaile euskaldunarengandik bi moduetara jaso zen izen hau, artikulua eta artikulurik gabe.

(15) Ondo dokumentatzen den *Armotxa* izeneko baserriaren ingurua izendatzen du toponimo honek.

(16) *Iruñ-erri* «Cuenca de Pamplona» (Olló, 382. or.) (*Erikizundi Irukoitza*, Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984). Hala ere, ez da gauza segurua egiazki mugagabea jaso izana, horretarako Eusebio Etxalarrek gerra aurrean eginiko inkestan, Frantziako Ollakarizketa informatzaileak deklinatuta nola erabiltzen zuen aztertu beharko bailitzateke.

2. Deklinabide paradigmak

	Mugagabea	Mugatu singularra (-a)	Mugatu plurala (-ak) (17)
NOR	Goierri	Iruñerria	Bortzerriak
NORK	Goierrik	Iruñerriak	Bortzerriek
NORI	Goierriari	Iruñerriari	Bortzerriei
NOREN	Goierriren	Iruñerriaren	Bortzerrien
NOREKIN	Goierriarekin	Iruñerriarekin	Bortzerriekin
NORENGATIK	Goierriengatik	Iruñerria(ren)gatik	Bortzerriengatik
NORENTZAT	Goierrientzat	Iruñerriarentzat	Bortzerrientzat
NORENDAKO	Goierriendako	Iruñerriarendako	Bortzerriendako
NORTAZ	Goierriaz	Iruñerriaz	Bortzerriez
NON	Goierriin	Iruñerrian	Bortzerrietan
NONGO	Goierriko	Iruñerriko	Bortzerrietako
NONDIK	Goierritik	Iruñerritik	Bortzerrietatik Bortzerrietarik
NORA(T)	Goierri(a)r(a)	Iruñerri(a)r(a)	Bortzerrietara(t)
NORAINO	Goierriaraino	Iruñerriaraino	Bortzerrietaraino
NORANTZ	Goierriarantz	Iruñerriarantz	Bortzerrietarantz
NORAKO	Goierriarako	Iruñerriarako	Bortzerrietarako
Partitiboa	Goierriaririk	Iruñerriaririk	Bortzerriaririk
Prolatiboa	Goierriaritzat Goierriaritako	Iruñerriaritzat Iruñerriaritako	Bortzerriaritzat Bortzerriaritako

(Euskaltzaindiak, 2005eko apirilaren 22an, Donostian, onartua.)

(17) Leku honek jasotzen dituen *Bortzerriak* eta *Bortzerriak* izendapenetan *hiri / herri* bikoiztasuna ikus daiteke, gaztelaniazko «villa» eta «tierra»-ren pareko. Adiera horiek kausitzen ditugu Idoatek emandako datuen artean: «Carta escrita en 1576 por el virrey Sancho de Leiva, a LAS CINCO VILLAS DE LESACA [...]». Observamos en los documentos de hacia 1430 y aun siguientes, que no se hacía distinción especial, sino que se habla de la «tierra de Lesaca y Vera»» (Idoate, Florencio: *Rincones de la historia de Navarra*, Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea, 1979, 260. or.).

144

HIZTEGI BATUA

*berrizale - buzuntz***berrizale****berrizalekeria****berrizaleatasun****berrizkatu**, berrizka, berrizkatzen. *du* ad. 'berritu, errepikatu'.**berrizkatuta** iz. *Gip.:* *gaixo dagoen bat gaitzaren berrizkatutarak sarritan hartzen duenean, etsitzen dugu haren osasunaz.*berrizkunde* e. **berrizte**.**berriztaezin** izond.**berriztagarri** izond. 'berrizta daitekeena'.**berriztatu**, berrizta, berriztatzen. *du* ad.**berriztatze****berrizte****berriztu**, berriz(tu), berrizten. *du* ad. 'berriz egin, errepikatu'.**berro** iz. 1 *Ipar.* 'sasia'. 2 'iturri belarra'.**berrogei**: *berrogeita hamahiru; berrogeita hiruak; berrogeita batgarren.***berrogeialdi****berrogeigarren**berrogeikaro* e. **garizuma**.**berrogeina** banatz.**berrogeinaka** adlag.**berrogeira** banatz. *Ipar.* 'berrogeina'.**berrogeitaka****berrope** iz. *g.er.* 'sasipea'.**berrosatu**, berrosa, berrosatzen. *du* ad.**berrotsu** izond. *Ipar. g.er.* 'sasitsua': *oihan berrotsua.***bertako****bertakotu**, bertako(tu), bertakotzen. *da* ad.**bertan****bertan behera** adlag. 'berehala, bat-batean'.**bertan beherako** izlag.**bertan behera laga****bertan behera utzi****bertan gozo**: *ez dute bertan gozo gelditu nahi.***bertantsu****bertantxe****bertaratu**, bertara(tu), bertaratzen. *da* ad.**bertatik** adlag. 1 'berehala'. 2 'hementxetik'.**bertatik bertara****bertikal****bertikalki** adlag.**bertiste** iz. *g.er.* 'esmeralda'.bertize* e. **erpin**.**berton** adlag. *batez ere Bizk.***bertoko** izlag. *batez ere Bizk.***bertsio** iz. 1: *jatorrizko bertsioa*. 2 Bestelakoetan erabil **itzulpen**, **idatzaldi**, etab.

bertso iz.: *bertso berria* ('idatziz ezagutarazitako bertsoa'); *bertso berriak, Xenpelarrek jarriak; bertso jarria* ('bertso berria, idatziz ezagutarazia'); *bertso zaharra: hori bertso zaharra da, honelako garritan paperean jarria*.

bertso(-)jartzaile

bertso(-)saio

bertsotan adlag.

bertsoz adlag. 'bertsotan'.

bertsogile

bertsogintza

bertsoka adlag. *Ipar.* 'bertsotan'.

bertsolari

bertsolaritza

bertsopaper

bertsozale

bertsozaletasun

bertsu 'ia bera'.

bertute

bertutetsu

bertutezko izlag.

bertutos izond. *Ipar. Zah.* 'bertutezkoa; bertutetsua'.

bertz* e. **pertz**.

bertze *Lap.* eta *Naf.* h. **beste**.

bertzun iz. 'errautsa jasotzeko pala'.

beruinatu, beruina, beruinatzen. *du* ad. *Ipar. g.er.* 'mendematu, mahatsa bildu'.

berun

berundatu* e. **beruneztatu**.

beruneztatu, berunezta, beruneztatzen. *du* ad.

beruneztatze

berunkara izond. *g.er.* 'berunaren kolorekoa'.

berunkari* e. **iturgin**.

besabe* e. **besare**.

besabete iz. *g.er.* (besoa, luzera-neurria).

besabetu* e. **besaratu**.

besaburu

besada iz. h. **besakada**.

besagain

besagainka

besahezur

besaka 1 iz. *Naf.* 'besanga'.

besaka 2 adlag. *g.er.* 1 'besagainka'. 2 'karga uztarkidearen gain botaz'.

besakada

besakadaka

besaki iz. 'besoaren babesgarria'.

besalagun iz. *g.er.* '(norbaiti buruz) besotik heltzen diona'.

besalari iz. *g.er.* 'nekazaritzako peoia'.

besaldi iz. 1 'besakada'. 2 (neurria: 1,67 m).

besalki* e. **besaulki**.

besamotz izond. h. **besomotz**.

besana

besanga

besangatsu izond. '(zuhaitz) adartsua'.

besape 1 iz. 'galtzarbea, besazpia'.

besapean adlag.: *badoa, bere ogi handia besapean*.

besape 2 adlag. 'besoa jaso gabe eta behetik gora mugituz': *pilota besape jo*.

besapez 'besoz beso'.

besapeko iz. *Zah.* 'makulua, beso-makila'.

besaratu, besara, besaratzen. *du* ad. 'besareaz lurra harrotu'.

- besare** iz. (are-mota).
besarka 1 adlag. *Ipar.* 'besarkatuz'.
besarka 2 iz. 'besarkada'.
besarkada
besarkadaka adlag. *g.er.*
besarkaldi iz. *Ipar.* 'besarkada'.
besarkarazi, besarkaraz, besarkarazten. *du* ad.
besarkatu, besarka, besarkatzen. *du* ad.
besarkatzaile
besarkatze
besarte
 besartetu* e. **besarkatu**.
besatara iz. *Ipar.* 'besakada'.
besataraka adlag. *Ipar.* 'besakadaka'.
besaulki
besaurre iz. *Anat.*
besazpi
 besazpiz adlag. 'besape': *pilota besazpiz jo zuen*.
beserdi iz. *g.er.* (neurri bat).
 besezur* e. **besahezur**.
 besigu* e. **bisigu**.
besikula iz. *Anat.*
beso
 besoz beso
besobakar izond. *g.er.*
besobakoitz izond. *Zah.* 'besobakarra; besomotza'.
besodun
besoetako izond. eta iz.: *aitona-amonen besoetakoa naiz ni*.
besoetaratu, besoetara(tu), besoetaratzen. *da* ad. 'besoetara joan'.
besoko iz.: *soinean zituzten oinetako eta burugaineko gorriak eta besoko urdinak*.
besomotz
besondo iz.: *besoak eta are besondoak agerian dituela*.
besta iz. *Ipar.* eta *Naf.* 'jaia'.
Bestaberri
bestaburu
bestainez lok. *Zub.* 'bestela'.
bestalde
bestaldetik lok. 'bestalde'.
beste 1
 besteak beste
 beste barik *Bizk.* 'beste gabe(rik)'
 beste behin
 beste gabe(rik) / besterik gabe
 beste hainbat
 beste hainbeste
 beste honenbeste
 beste horrenbeste
 beste orduz
 besterik ezean
 bestetara lok. 'bestela, beste erara': *gehienetan, bestetara jazo ohi da*.
 eta beste
 ez bestea!: *alferra, ez bestea!*
 ez bestena!: *ergela ez bestena!*
 -z beste
 -z bestera
beste 2 *Bizk.* 'adina, bezainbat'.
 bestean 'beste, adina'.

besteko *Bizk.:* zuk besteko indarra badu honek.

bestela 1 'bestenaz'. 2 'gisa diferentean'. 3 'bestalde, gainera'.

bestela baitakoan *Bizk.*

bestela bezala *Gip.*

bestelako

bestelakatu* e. **bestelakotu**.

bestelakotasun

bestelakotu, bestelako(tu), bestelakotzen. *da/du* ad.

bestelakotze

bestelatu* e. **bestelakotu**.

bestenaz *Ipar.*

bestera batez ere *Bizk.* 'bestela'.

-z **bestera**: beren gogoaz bestera ezkonduak.

besterako *g.er.:* Jaunaren gogoaz besterakoa.

besteratu, bestera(tu), besteratzen. *da/du* ad. *g.er.* 'beste batera joan edo eraman': *solasgaitik besteratu zara*.

bestereña!, ez* e. **ez bestena** (eta **ez bestea**).

besterendu, besteren(du), besterentzen. *da/du* ad.

besterenganatu, besterengana(tu), besterenganatzen. *da/du* ad. h. **besterendu**.

besterentzaile

besterentze

bestetar iz.: *gutarrak eta bestetarrak*.

bestetarakotu* e. **besterendu**.

bestetarakotze* e. **besterentze**.

bestetaratu, bestetara(tu), bestetaratzen. *du* ad. 'beste zerbaite egitera behartu': *bizibeharrrak bestetaratatu zuen arte*.

bestetxo *Bizk.*

bestetzuk *Heg.:* batzuek hala diote, eta bestetzuek bestela.

besteiz beste* e. **besteak beste**.

bestia iz.: *Zah. Lapa.* eta *BNaf.* h. **piztia**.

bestiruditu* e. **itxuraldatu**.

bestondo

bestorduz* e. **beste orduz**.

beta iz. *batez ere Gip.* 1 'astia, denbora librea'. 2 'denbora'. 3 'aukera'.

betabilatu* e. **errebelatu, galdu**.

betagin* e. **letagin**.

betalde iz. *Ipar.* 'behi-taldea'.

betan *Ipar.* 1 'batean, batera'. 2 'bat-batean'.

bet-betan *Ipar.* 'bat-batean'.

betantsu adlag. *Ipar.* 'ia batean'.

betar iz. *g.er.* 'erraboila'.

betargi izond. 'alaia'.

betaro adlag. *g.er.* 'astiro, poliki'.

betarraba* e. **beterraba**.

betarte* e. **begitarte**.

betatu* e. **bete**.

betatxatu* e. **petatxatu**.

betatxu* e. **petatxu**.

betaurre* e. **betaurreko**.

betaurreko iz. 1 pl.: *betaurrekoak jarri*. 2 'urrutira ikusteko tresna'.

betaz adlag. *Zah.* 'astiro'.

betazal

betazpi

betazpitsu izond. 'betazpiak dituen'.

bete 1, betetzen. *da/du* ad.

bete-betean

bete-bete egin

bete-beteko**bete izan:** *elkarren bete dira.***bete 2:** *zakua bete egur; kalea bete gizon; katilua bete ur.***betean:** *edozein gauza esanez ahoa betean; negar egiten zuen begiak betean.***beteka:** *esku beteka zilarra botatzen hauteskondeetan garaille izateko.***betez** 'betean': *aho(a) betez mintzo ziren egun oroz.***betealdi****betearazi,** *betearaz, betearazten. du ad.***betearazle****betearazpen****betebehar****beteezin** *izond.***betegailu** *iz. Ipar. g.er. 'betegarria'.***betegarri** *iz. eta izond.***betegin** *izond.***betegintzarre****betekada****beteki** *adlag. Ipar. Zah. 'osoki'.***betekizun****beteko:** *etxea beteko gizona; zuloa beteko gorputza; gizona beteko elurra.***betekor****betelan****betepen*** e. **betetze.****beterano****beteri** *iz. g.er. 'begietako eritasuna'.***beterinario*** e. **albaitari.****beteritsu** *iz. g.er.***betero** *adlag. Zah. 'osoki'.***beterraba** *iz. batez ere Ipar. Beta vulgaris.***betterre** *izond. Sin. begi-erre.***betterri** *iz.: Betterria edo Jerusalemgo zatirik behereena.***betertz** *iz. Sin. begi(-)ertz.***betetasun****betetzaille****betetze****betezpal** *iz. Ipar. 'betazala'.***beti****beti bat****beti-bateko****betidaino****betidanik****beti eta... -ago** *Ipar. 'gero eta... -ago': joaki beti eta aitzinago.***beti eta beti:** *beti eta beti iraungo du.***betitik** *adlag. h. betidanik.***betibizi** *iz.: Sempervivum tectorum, Helichrysum stoechas, etab. Sin. betilore.***betidanikako*** e. **betidaniko.****betidaniko****betiera** *iz. g.er. 'betikotasuna'.***betiere** 1 'beti'. 2 'nolanahi ere'.**betiereko****betierekotz*** e. **betiereko.****betiko** 1 *izlag.: betiko bizitza. 2 adlag.: betiko joan da.***betikoan** (*betikoan izan, egon, iraun...* gisa erabilia): *betikoan da orain ere gure Peru temoso!***betikotzat** *adlag. g.g.er. 'betiko'.***betikor*** e. **betiereko.****betikotasun****betikotu,** *betiko(tu), betikotzen. da/du ad.*

betikoz adlag. *Ipar.* eta *Naf.* h. **betiko**.
betile
betilore iz. *Sempervivum tectorum*, *Helichrysum stoechas*, etab. *Sin.* **betibizi**.
betilun
betilundu, **betilun**(du), **betiluntzen**. *da* ad. *g.er.* ‘tristatu’.
betirako h. **betiko**.
betiraunde iz. *g.g.er.* ‘betikotasuna’.
betiraute
betiro adlag. *g.er.* ‘beti’.
betizu iz. eta izond.
beto
betoker izond. *Sin.* **begi-okor**.
betonatu* e. **asfaltatu**.
betondo iz. *Sin.* **begi(-)ondo**.
betondoko iz. *Sin.* **begi(-)ondoko**.
betor iz. *g.er.* ‘bekatxoa’.
betortz iz. ‘letagina’.
betosko* e. **bekozko**.
betozko* e. **bekozko**.
betroi iz. (behi mota).
betronio iz. (doinu-mota).
betsein iz. *Bizk.* ‘begi-ninia’.
betule* e. **betile**.
betun iz. *Heg.* *Sin.* **ziraia**.
betuste* e. **begirune**.
betxindor* e. **begitxindor**, **bekatxo**.
betzulo iz. *Sin.* **begi(-)zulo**.
bexamel
bezain
bezainbat
bezainbatean adlag. *Ipar.:* a) *nitaz den(az) bezainbatean, ez dut deus loria* (‘niri dagokidanez’);
jendeez bezainbatean (‘jendeei dagokienez’); b) *garbitu zuen, egin zitekeen bezainbatean*.
bezainbateko izlag. ‘adinakoa’: *hura bezainbatekoak izango zarete*.
bezainbeste
bezala
ez bezala: *gauzak lehen ez bezala begietaratzen zitzaizkion*.
ez bezalako: *uste ez bezalako aldakuntzak dakartzate urteek*.
bezalakatu, **bezalaka**, **bezalakatzen**. *da/du* ad.
bezalako
bezalatsu
bezalatsuko
bezalaxe
bezanbat* e. **bezainbat**.
bezanbatean* e. **bezainbatean**.
bezatu, **beza**, **bezatzen**. *du* ad. ‘animaliak hezi’.
bezen* e. **bezain**.
bezeria
bezero
bezin* e. **bezain**.
bezpera iz.
bezperago iz. *Ipar.* ‘bezpera-aurrea’: *ezkontzeko bezperan edo bezperagoan*.
bezperak ‘otoitza, orduen otoitzetan ilunabarrekua’.
beztaille* e. **beltzaile**.
beztasun* e. **beltzasun**.
beztz *Ipar.:* *beltzez beztz agertu da Manex* (‘beltzez jantzita’).
beztiarazi, **beztiaraz**, **beztiarazten**. *du* ad.
beztidura iz. *Zah.* ‘jantzia’.

beztimenda iz. *Zah.* ‘jantzia’.

beztitu, beztitu(tu), beztitzen. *da/du* ad. *Ipar.* eta *Naf.* ‘jantzi’.

beztitzaille

beztitze

beztu* e. **belztu**.

bezuza iz. ‘oparia, erregalua’.

bezuza egin

bhutandar (herritarra).

bi: *bi etxe*; *etxe bi*.

bi-biak 1 ‘biak bakarrik’. 2 ‘biak’.

bi(-)bitara: *buruz buru*, *bi bitara*, *eta lau lauren kontra aritu ziren bertsolariak*.

bien bitartean

bitan

bitara adlag. ‘bi eratan’.

bitariko

bia* e. **biga 2**.

biahore iz. *Ipar.* *Zah.* ‘tarrapata, zalaparta’.

bialdu* e. **bidali**.

bianda iz. *Ipar.* *Zah.* ‘janaria’.

biao iz.: *biaoa egin*. *Sin.* **siesta**.

biasa iz. *Ipar. g.er.* ‘alportxa’.

biatiko iz. *Zah.* ‘elizakoa’.

biba

bibaka

bibalbio izond. eta iz. *Zool.* ‘kuskubikoa’.

bibalbo* e. **bibalbio**.

bibelar

biberoi iz. *Heg.*

Biblia

biblialari

bibliko

bibliofilo

bibliografia

bibliografiko

biblioteka

bibliotekari iz. h. **liburuzain**.

bibolin* e. **biolin**.

bibora* e. **sugegorri**.

bibote

bibotedun

biotetsu izond. *g.er.*

bibrato* e. **vibrato**.

bibratu, bibra, bibratzen. *du* ad. (*nor* kasurik gabea) ‘dardaratu’.

bibrazio iz. ‘dardara’.

biburdina iz. *Teknol.* (ingude-mota).

bida* e. **biga 2**.

bidagile* e. **bidegile**.

bidagin* e. **bidegile**.

bidagi* e. **bidaro**.

bidagurutze* e. **bidegurutze**.

bidaia

bidaiant iz. *Ipar.* ‘bidaiaia’.

bidaia

bidaiatu, bidaia(tu), bidaiatzen. *du* ad. (*nor* kasurik gabea).

bidaide

bidalarazi, bidalaraz, bidalarazten. *du* ad.

bidaldi

bidaldu* e. **bidali**.

bidalguntza* e. **apostolutza**.

bidali 1, bidal, bidaltzen. *du ad.*

bidali 2 iz. 'apostolua'.

bidalketa

bidaltzaile

bidaltze

bidante iz. *g.g.er.* 'bidaiaia'.

bidar iz. *Zub.* 'kokotsa'.

bidari

bidaro

bidarte iz. *g.er.* 'bidegurutzea'.

bidasari* e. **bidesari**.

bidaso iz. *g.er.* 'erreka'.

bidasti iz. *Zah.* 'bide-zatia, bi punturen arteko bitartea'.

bidatu, bida, bidatzen. *du ad. Ipar.* 'gidatu'.

bidatzaile iz. *Ipar.* 'gidaria'.

bidazti

bide 1

bidea galdu

bidea hautsarazi *g.er.* 'bidea galarazi'.

bidea hautsi

bidea(k) ebaki

bideak egin

bidea(k) hetsi *Ipar.*

bidea(k) ireki

bidea(k) itxi

bidea(k) urratu

bidean a) *-tzeko bidean* 1 'moduan, egokieran'. 2 'arriskuan'; b) *-tu bidean* 'beharrean, ordez'.

bide(-)aurreko 'aitzindaria'.

bide batez

bide(-)bazter

bide(-)buru *g.er.* 'bidegurutzea'.

bide egin

bide eman

bide-erakusle

bide(-)erdi

bide(-)ertz

bide izan 'bidezko izan'.

bide(-)seinale

bide-urratzaile

bide-urratze

bidez

bidez bide

bide(-)zorru

bide(-)zoru

dela (direla) **bide**, **zela** (zirela) **bide**.

Done Jakue bidea

bide 2: *izen hori, euskaldunak kristautu baino lehenagokoa bide da.*

bidealdi* e. **bidaldi**.

bideant(e)* e. **bidaiant** (eta *bidante*).

bideazko iz. *Zah.* 'bidezkoa, bidaztia'.

bidebanatze

bidegabe iz. eta izond.

bidegabeko izlag.

bidegabez adlag. 'bidegabeki'.

bidegabekeria

bidegabeki

bidegabetu, bidegabe(tu), bidegabetzen. *da/du* ad. *g.er.* ‘bidea galdu’.

bidegabetztatu, bidegabezta, bidegabetztatzen. *du* ad. *Zah. g.er.* ‘iraindu’.

bidegile

bidegin* e. **bidegile**.

bidegintza

bidegurutze

bidekari iz. *Ipar*.

bidekatu* e. **bidegabetu**, **bidea galdu**.

bideko 1 iz.

bideko 2 izond. ‘bidezkoa, zuzena’.

bidelagun

bidelapur

bidelapurkeria* e. **bidelapurreta**.

bidelapurreta

bidenabar

bideo

bideo(-)joko

bideokamera

bideokasete

bideoklip

bideoklub

bideordain* e. **bidesari**.

bideoteka

bideotex

bideo-zinta* e. **bideokasete**.

bider

bideraezin izond. ‘ezin bideratuzkoa’.

bideragarri

bideragarritasun

bideraketa

biderapen

bideratu, bidera(tu), bideratzen. *da/du* ad.

bideratzaille

bideratze

biderdi* e. **bide(-)erdi**.

biderkadura iz. *Mat*.

biderkagai iz. *Mat*.

biderkaketa* e. **biderketa**.

biderkakizun iz. *Mat*.

biderkari* e. **koefiziente**.

biderkatu, biderka, biderkatzen. *du* ad. *Mat*.

biderkatzaile

biderketa iz. *Mat*.

bidertu* e. **biderkatu**.

bidesari

bidet

bidetasun* e. **bidezktasun**.

bidexendra iz. *Naf*. ‘bidezidorra’.

bidexka

bide-zabal* e. **bidezabal**.

bidezabal iz.

bidezain

bidezaingo

bidezidor

bidezkarri* e. **bidazti** (eta *bidekari*).

bidezki adlag.

bidezko 1 iz. 'bidaztia, erromesa'.

bidezko 2 izond. 'zuzena, legezkoa'.

bidezkotasun

bidezkotu, bidezko(tu), bidezkotzen. *du ad.*

bidezoru* e. **bide(-)zoru**.

bidoi

bidriera* e. **beirateria**.

bidrio* e. **beira**.

bidutzi iz. *g.er.* 'munstroa'.

biela iz. *Autom.*

bielorrusiar (herritarra).

bielorrusiera (hizkuntza).

bienabenturantz iz. *Heg. Zah.* 'zorianbidea, dohatsutasuna'.

bienabenturatu* e. **zorioneko, zoriotsu, dohatsu**.

bienal iz. *Sin.* **biurteko**.

biera iz. *Ipar. h.* **garagardo**.

bierarteko izlag. *Ipar.* 'artekoa, bitartekoa'.

bifokal

biga 1 iz. 'bigantxa', 'txahala'.

biga 2 zenb.: *biga etorri dira; *biga ikasle e. bi ikasle.*

bigamia

bigamo

bigantxa

bigarren 1 ord. 2 iz. 'jai edo egun seinalatu baten ondoko eguna edo biharamuna': *Pazko bigarrena.*

bigarren adlag. 'bigarren aldiz; bigarren lekuan'.

bigarrenez

bigarrengo izlag. eta adlag. *Heg.*

ADIERAZPENAK, HITZARMENAK...

EUSKALTZAINDIA ETA IRUÑEKO UDALAREN HITZARMENA

Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak urte beteko iraupena duen hitzarmena sinatu dute, 2005-02-24an. Udalaren izenean, Ignacio Pérez Cabañas Kultura zinegotzi delegatuak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute. Hitzarmen horren helburuak honako hauek dira:

- Euskaltzaindia Iruñeko Udalari aholku emateko zereginetan aritu ahal-ko da, euskararekin zerikusirik duten hizkuntza aferetan bezainbatean.
- Euskaltzaindiak hiritarrek eskuturiko argibideak eta aholkuak oro eskaintzen jarraituko du, hala bere zerbitzu orokorretan nola Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkaritzan.
- Kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da, elkarlanean.
- Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio guztietatik sei ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, betiere hitzarmenaren esparruari dagozkion aferei buruzkoak baldin badira. Hauek Iruñeko Liburutegi Publikoetara eramanen dira.



Hitzarmen horren bitartez, 6.000 euroko dirulaguntza emango dio Iruñeko Udalak Euskaltzaindiari.



En Pamplona, a 25 de febrero de 2005, reunidos de una parte el Concejal Delegado de Cultura D. Ignacio Pérez Cabañas en representación del Ayuntamiento de Pamplona, y de otra D. Andres, Urrutia Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca.

Ambos se reconocen, respectivamente, competencia y capacidad para suscribir en nombre de sus respectivas instituciones el presente *Convenio* de cooperación, para cuya mayor comprensión

EXPONEN

Que las dos entidades, cada una en su ámbito respectivo, comparten un común interés en la fomento y promoción del vascuence, constituyendo un objetivo común para las dos la consecución de una estima cada vez mayor hacia el euskera por parte de los habitantes de nuestra ciudad, el aumento del número de personas que lo conocen y la potenciación de su uso, tanto en lo que se refiere al número de hablantes como a la calidad lingüística del habla.

Por todo ello, y teniendo en cuenta esta coincidencia de objetivos y de ámbitos de trabajo y dada la especial atención que necesita el vascuence a efectos de la consecución de estos objetivos, se impone reconocer la conveniencia de establecer una relación fluida entre las dos entidades,

Iruñean, 2005eko otsailaren 25ean, ondokoak bildu dira: Ignacio Pérez Cabañas Kulturako Zinegotzi Delegatu jauna, Iruñeko Udalaren izenean, eta Andres Urrutia jaun euskaltzainburua.

Horiek biek *Lankidetza-hitzarmen* hau sinatzeko behar bezainbateko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, betiere ordezkatzan dituzten erakundeen izenean, eta hitzartutakoa hobeki konprenitze aldera, bi aldeek ondokoa

ADIERAZI DUTE:

Bi erakundeek, zeinak bere esparruan, interes bat eta bera dutela, euskara bultzatu eta sustatzeko, eta biek ala biek dituztela helburu gure hiriko biztanleek euskara gero eta estimu handiagoan izatea, euskara eza gutzen duten lagunak gero eta gehiago izatea eta euskararen erabilera sustatzea, hala hiztunen kopuruari nola hizkeraren kalitateari dagokionez.

Horiek horrela, kontuan harturik bi erakundeek bat egiten dutela, hala helburuetan nola lan esparruetan, eta helburu horiek erdiesteko euskarak arreta berezia behar duela, derrigorrezkoa da aitortzea bi erakundeen arteko harreman errazak ezartzeko komenentzia, harreman horiek, betie-

basada en el mutuo respeto y colaboración.

Por otra parte la Ley Foral 18/1986 de 15 de diciembre del vascuence, en su art. 3. 3º designa a la Real Academia de la Lengua Vasca como institución consultiva oficial a los efectos del establecimiento de las normas lingüísticas aplicables en la Comunidad Foral.

Teniendo en cuenta todos estos razonamientos las dos entidades

ACUERDAN

Suscribir el presente *Convenio* con respecto a las siguientes cláusulas:

1.- La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia podrá ejercer labores de asesoramiento al Ayuntamiento de Pamplona en cuestiones de materia lingüística relativas al euskera.

2.- La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia seguirá facilitando, tanto desde sus servicios generales como desde la propia delegación de Navarra en Pamplona, la información y el asesoramiento requeridos por los ciudadanos.

Del mismo modo, impulsará actividades de difusión cultural, cursos, conferencias, etc... en colaboración con las entidades e instituciones correspondientes.

3.- El Ayuntamiento de Pamplona se compromete a aportar a este convenio de colaboración la subvención de 6.000 euros, abonando a la Real

re, elkarren arteko begirunean eta lankidetzan oinarrituta.

Beste aldetik, abenduaren 15eko Euskarari buruzko 1986/18 Foru Legeak, 3.3 artikuluan, Euskaltzaindia izendatzen du erakunde aholku-emai-le ofiziala, Foru Erkidegoan indarra edukitzekoak diren hizkuntz arauak ezartze aldera.

Horiek guztiak kontuan harturik, bi erakundeek Hitzarmen hau izenpetzea

ERABAKI DUTE,

ondoko klausula hauekin bat erabaki ere:

1.- Euskaltzaindia Iruñeko Udalarri aholku emateko zereginetan aritu ahalko da, euskararekin zerikusirik duten hizkuntza aferetan bezainbatean.

2.- Euskaltzaindiak hiritarrek eskaturiko argibideak eta aholkuak oro eskaintzen jarraituko du, hala bere zerbitzu orokorretan nola Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkaritzan.

Halaber, kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da, elkarlanean.

3.- Iruñeko Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honetarako 6.000 euro paratzeko, diru-laguntza gisara, eta kopuru hori ordaintzen dio

Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia esta cantidad, que se compromete a aplicar al cumplimiento de este convenio y a la consecución de los fines que con este convenio se pretenden. El importe de la subvención se abonará a la firma del presente Convenio.

La Real Academia de la Lengua Vasca, por su parte, se compromete a presentar, una vez producido el vencimiento del ejercicio anual, la memoria de actividades y económica en la que queden justificados, al menos, gastos por el importe de la aportación municipal.

4.- La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia entregará al Ayuntamiento de Pamplona seis ejemplares de las publicaciones, revistas y diferentes ediciones que promueva la entidad y versen sobre temas incluidos en el ámbito del presente convenio. Estos irán destinados a las Bibliotecas Públicas de la ciudad de Pamplona.

5.- Procederá el reintegro de la cantidad percibida y la exigencia de interés de demora desde el momento del pago en los siguientes casos:

- a) Incumplimiento de la obligación de la justificación.
- b) Incumplimiento de las condiciones y cláusulas establecidas en el presente Convenio.

Procederá el reintegro parcial de las cantidades cuyos gastos no hayan sido justificados, incrementándose con los intereses de demora que corresponda aplicar.

Euskaltzaindiari. Erakunde horrek, bere aldetik, konpromisoa hartzen du kopuru hori hitzarmen hau betetzen erabiltzeko, bai eta hitzarmen honen bitartez lortu nahi diren helburuak gauzatzen ere. Diru-laguntza Hitzarmen hau sinatutakoan ordainduko da.

Euskaltzaindiak, bere aldetik, konpromisoa hartzen du, behin urtealdia amaituta hala oroitidazki ekonomikoa nola jardueren gainekoa aurkezteko, halako eran non bertan justifikaturik azaldu behar baititu, gutxienez, Udalaren ekarpena berdintzeko adina gastu.

4.- Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio guztietatik sei ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, betiere Hitzarmen honen esparruari dagozkion aferei buruzkoak baldin badira. Hauek Iruñeako Liburutegi Publikoetara eramanez dira.

5.- Ondoko kasuetan zilegi izanen da jasotako diru-kopurua itzularaztea, baita berandutze-interesa eskatzea ere, diru-laguntza ordaindu denetik aitzina:

- a) Justifikatzeko beharra betetzen ez bada.
- b) Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak eta klausulak betetzen ez badira.

Zilegi izanen da zenbait gastu justifikatu ez eta horiei dagozkien diru-kopuruak itzularaztea, betiere haiei aplikatu beharreko berandutze-interesak gehituta.

6.- Las infracciones y sanciones en materia de subvenciones y ayudas públicas se regirán por lo establecido en la Disposición Transitoria segunda, punto 4. de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en el Título IV de dicha Ley.

7.- El presente convenio tendrá vigencia desde el 1 de enero a 31 de diciembre del año 2005.

8.-El presente convenio de colaboración tiene naturaleza administrativa, por lo que el Ayuntamiento de Pamplona tiene la facultad de interpretarlo en primer término y contra las resoluciones administrativas cabrá interponer los siguientes recursos:

- Recurso de reposición ante el órgano municipal autor de acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente de la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra.
- Recurso alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo del mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.
- Recurso contencioso administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia de Navarra en el plazo de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

6.- Diru-laguntza eta laguntza publikoen inguruko arau-hauste eta zigorrak azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren bigarren xedapen iragankorraren, 4. puntuaren eta IV. Atalaren arabera izanen dira.

7.- Hitzarmen honek 2005eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hartuko du indarra.

8.- Lankidetzakontratu honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena, hori lehenik interpretatzeko. Administrazio-ebazpenen kontra ondoko errekurtsioak paratzen ahalko dira, aukerak:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintza Udaltzen zein organok gauzatu eta hori zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, halakorik bada, argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Y en prueba de conformidad con todo lo arriba expresado, firman el presente Convenio por triplicado ejemplar, en el lugar y fecha anteriormente señalados.

**Por Euskaltzaindia /
Real Academia de la Lengua Vasca,**

Andres M. Urrutia Badiola,
presidente

Por el Ayuntamiento de Pamplona,

Ignacio Pérez Cabañas,
concejal de Cultura

Eta hitzarmen honetan azaldutako guztiarekin bi erakundeak bat datozela adierazirik, Hitzarmen honen hiruna ale izenpetu dituzte ondokoek, arestian aipatu datan eta lekuan:

Euskaltzaindiaren izenean,

Andres M. Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Iruñeko Udalaren izenean,

Ignacio Pérez Cabañas,
Kultura zinegotzia

NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEAN
2005. URTERAKO EGINDAKO HITZARMENA. 2002KO EKAINAREN 27AN
SINATURIKO ESPARRU-HITZARMENAREN ERANSKINA.

BILDURIK

Batetik:

PEDRO PEGENAUTE GARDE jauna, Nafarroako Gobernuako Unibertsitateetarako
eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.

Bestetik:

ANDRES URRUTIA BADIOLA jauna, Euskaltzainburua.

2002ko ekainaren 27an Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean
sinaturiko Hitzarmenak lankidetzarako oinarri orokorrak ezarri zituen eta bi erakunde
sinatzaileen arteko konpromiso finantzario eta materialen esparrua arautu ere. Haren
bigarren puntuan ezarritakoari jarraikiz,

HITZARTZEN DUTE

1.- Euskaltzaindiak, bere batzordeek egiten dituzten jardueren barruan, Nafarroako
Gobernuarendako, 2005. urtean egin asmo ditu ondoko eginkizun hauek:

1.1. Berariazko izaera duten jarduerak:

- a) Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egiteko Nafarroako 3 herritako (Aniz,
Dorreo eta Etxaleku) grabazioak euskarritan paratu eta ematea, beti ere
informazioaren pribatasuna errespetatuz.
- b) Jose Maria Satrustegiren artxibategietako katalogazio lanak:
Aurreko urtean (2004) hasitako lanekin jarraitu eta bukatu.
- c) Argitalpenak:
 - *Batzango mintzoa. Gramatika eta Hiztegia*
 - *"Príncipe de Viana"* euskarazko gehigarri osoa.(Argitalpen digitala)
 - Gramatika berri bat egiteko kudeaketa eta proposamena.
- d) *Ahozotasuna* gaiaren inguruko Jardunaldiak prestatzea.

- e) Euskal Corpus Onomastikoa.

Hainbat urtetan egin beharreko lana. Nafarroari dagozkion lanen hasiera: Toponimia.

- f) Alde biek adosturik, erabakitzen den edozein lan.

1.2. Euskaltzaindiak egiten dituen izacra orokorreko gainerako jarduerak, aurrekoen euskarri direnak.

2.- Aipaturiko eginkizunak aurrera eramateko, Nafarroako Gobernuak, 2005. urtean, gehienez ere, 134.627 euro, Euskaltzaindiaren esku utzi eta hari ordainduko dio. Kopuru hau Nafarroako Gobernuaren 2005. urteko Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmena Euskaltzaindiarekin" izeneko 430000-43000-4816-334100 kontusailaren kargura ordainduko da, 2005. urterako Hitzarmena sinatu ondoren.

Hitzarturikoa hala ager dadin dokumentu hau sinatzen dute, hirukoitzez.


Iruñean, bi mila eta bosteko martxoaren hamaseian.

Pedro Pegenante Garde



UNIBERTSITATEETARAKO ETA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO
ZUZENDARI Nagusia

Andrés Urrutia Badiola



EUSKALTZAINBURUA

ERANSKINA

Lanak	Aurrekontua €	Oharrak
Nafarroako herrietako grabaketak	8.923,37	Aniz, Dorrao, Etxaleku
Satrustegiren artxiboa: katalogazioa	34.133,44	Bi urterako lana, 2004an hasitakoa. Jarraipena eta amaiera.
Argitalpenak	27.927,00	– <i>Baztango Gramatika</i> – <i>Príncipe de Viana</i> euskarazko osagarri osoa. (Argitalpen digitala) – Kudeaketak – Gramatika berri bat egiteko lehen urratsak eta proposamena
Euskarari buruzko Jardunaldiak	13.368,54	Gaia: <i>Ahozkotasuna</i>
Euskal Corpus Onomastikoa	50.274,65	Zenbait urteren zehar egiteko lana. Nafarroari dagozkion lanen hasiera: Toponimia
GUZTIRA	134.627,00	

ACUERDO ENTRE EL GOBIERNO DE NAVARRA Y LA REAL ACADEMIA
DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA PARA EL AÑO 2005 ANEXO
AL ACUERDO MARCO FIRMADO EL 27 DE JUNIO DE 2002

REUNIDOS

De una parte:

D. PEDRO PEGENAUTE GARDE, Director General de Universidades y Política Lingüística del Gobierno de Navarra.

De otra parte:

D. ANDRÉS URRUTIA BADIOLA, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

De acuerdo con lo establecido en el punto segundo del Acuerdo suscrito entre el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia el 27 de junio de 2002 por el que se establecen las bases generales de colaboración y por el que se regula el marco de compromisos financieros y materiales entre las dos instituciones firmantes,

ACUERDAN

1º.- La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia realizará durante el año 2005, encuadradas dentro de las actividades que desarrollan sus diferentes Comisiones, para el Gobierno de Navarra, las siguientes tareas:

1.1. Actividades de carácter específico.

- 
- a) Montaje en soporte y entrega de las grabaciones de 3 pueblos de Navarra (Aniz, Dorrao y Etxalcku) que se recogieron para la elaboración del "Atlas de las variedades locales del Vascuence-Euskararen Herri Hizkeren Atlas", respetando, en todo caso, la privacidad de la información.
 - b) Trabajos de catalogación de los archivos de José María Satrustegi: Continuación y finalización de los trabajos comenzados en el año anterior (2004).
 - c) Publicaciones:

.. *Baztango mintzoa: Gramatika eta Hiztegia.*

- Suplemento completo en euskera de “*Príncipe de Viana*”. (Edición digital)
- Comienzo de las gestiones y propuesta para la elaboración de otra Gramática.

d) Preparación de unas jornadas en torno al tema: “*La transmisión oral-Ahozketasuna*”.

e) Corpus Onomástico.

Trabajo a realizar en varios años. Comienzo de los trabajos referidos a Navarra: Toponimia.

f) De común acuerdo, cualquiera que se determine.

1.2. Las demás actividades de carácter general que desarrolla la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y que sirven de soporte a las anteriores.

2º.- Para la realización de las tareas descritas, el Gobierno de Navarra destinará y abonará a la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, en el año 2005, hasta 134.627 euros con cargo a la partida presupuestaria 430000-43000-4816-334100 denominada “Acuerdo con Euskaltzaindia” de los Presupuestos Generales del Gobierno de Navarra de 2005, una vez se haya firmado el Acuerdo para el 2005.

Para que así conste lo acordado se suscribe este documento por triplicado.


En Pamplona, a dieciséis de marzo de dos mil cinco.

Pedro Pegenante Garde



DIRECTOR GENERAL DE UNIVERSIDADES
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Andrés Urrutia Badiola



PRESIDENTE DE LA REAL ACADEMIA DE
LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA

ANEXO

Trabajos	Presupuesto €	Anotaciones
Grabaciones de tres pueblos de Navarra	8.923,37	Aniz, Dorrao, Etxaleku
Catalogación de los archivos de Satrustegi	34.133,44	Trabajo para dos años, comenzado en 2004. Continuación y finalización.
Publicaciones	27. 927,00	– <i>Baztango Gramatika</i> – Suplemento completo en euskera de <i>Príncipe de Viana</i> (Edición digital) – Gestiones. – Comienzo trabajos elaboración de otra Gramática
Jornadas sobre el euskera	13.368,54	Sobre el tema de la Tradición Oral
Corpus Onomástico (Vasco)	50.274,65	Trabajo a realizar en varios años. Comienzo de los trabajos referidos a Navarra: Toponimia.
TOTAL	134.627,00	



Bilbon, 2005eko apirilaren 12an.

BILDU DIRA

Alde batetik,

Joxemari Muxika Arrieta jauna, Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren lehendakaria,

Eta bestetik,

Andres Urrutia Badiola jauna, Euskaltzainburua.

AZALDU DUTE

Euskaltzaindia 1918. urtean sortu zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien ekimenez. Erakunde horren helburu nagusia da, hain zuzen ere, euskara ikertzea eta arautzea.

Otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuak aitorten ofiziala eman zion erakunde horri, Euskararen Errege Akademia gisa; harrezkero, Euskaltzaindia da euskararen arloko erakunde eskuduna, hizkuntza bera ikertu eta babesteko. Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Euskara Legeak beren beregi aitortu dute Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala dela, euskarari dagokionez.

Topagunea Euskara Elkarten Federazioa 1997. urtean sortu zen, herri eta eskualdeetan euskararen erabileran eragiteko jarduerak antolatzen dituzten euskara elkarten ekimenez. Federazioaren helburu nagusia euskararen erabileran eragitea eta federazioko bazkideei zerbitzuak eskaintzea da. Federazioak bost lan sailetan burutzen ditu bere jarduerak: euskarazko kultura, haur eta gazteen eskolaz kanpoko jarduerak, entitateak euskalduntzeko hitzarmenak, euskara-ikasleekin mintzapraktikak eta euskarazko hedabideak.

Euskaltzaindiak eta Topagunea Euskara Elkarten Federazioak, erakunde bakoitzak bere aldetik, burutzen dituzten jarduerak elkarlanean aritzeko aukerak eskaintzen dituzte.

HITZARTU DUTE

Euskararen erabilera egokian eragin nahian eta Euskaltzaindia zein Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren helburuak betetzeko xedearekin, bi erakundeok, bakoitzaren prozedura-arauak onartuz, honako hitzarmena sinatzea erabaki dute, hurrengo baldintzok:

- 1.- Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak aitortu egiten du, euskaraz denaz bezainbatean, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala.
- 2.- Euskaltzaindiak aitortu egiten du, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak arlo ezberdinetan euskaldunon artean euskararen erabilera sustatzen egiten duen lana.
- 3.- Bi erakundeon arteko elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da. Egitasmo hauetan Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak eta proposatutako gomendioak zabalitzeko konpromisoa hartzen dute bi erakundeok.



Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak bereziki kontutan hartuko ditu arau eta gomendio horiek euskarazko tokiko hedabideen artean zabalitzeko eta entitateak euskalduntzeko egiten diren hitzarmenetan aplika daitezkeen gomendioak egiteko. Era berean haur eta gazteei zuzendutako eskolaz kanpoko ekintzetan, euskara-ikasleekin burutzen diren mintzapraktikarako egitasmoetan eta kultur sorkuntzaren inguruan proposatzen diren programetan ere Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak bertatzeko bideak aztertuko dira.

4.- Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak bere bazkideei zuzendutako ikastaro, jardunaldi, mintegi, aholkularitza eskaintzan, eta bereziki hizkuntzaren erabilerrari dagokion prestakuntzan, Euskaltzaindiaren gramatika, lexiko, ortografia, toponimiari eta euskalkien erabilerrari buruzko irizpideak aintzat hartuko ditu eta hauek zabalitzeko moduak landuko ditu. Prestakuntza arlo horretan Euskaltzaindiaren parte hartzea Jarraipen Batzordean adostuko da.

5.- Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Euskaltzaindiari egingo dizkio gramatika, lexiko, ortografia, toponimia eta euskalkien erabilerraren inguruko kontsultak, eta Euskaltzaindiak kontsulta horiei erantzuna emango die. Jarraipen Batzordean zehaztuko dira kontsulta horiek egiteko mekanismoak. Era berean, Federazioaren edo Federazioko bazkideen jardueran aipatutako arloetan sortzen diren hutsune eta beharrak jaso eta Euskaltzaindiari jakinarazteko konpromisoa hartzen du Topaguneak.

6.- Bi erakundeok argitaratzen dituzten argitalpenak elkartrukatzeke konpromisoa hartzen dute.

7.- Erakunde biok egoitza nahiz azpiegitura erabiltzeko aukera elkarri eskaintzeko asmoa aitortzen dute.

8.- Jarraipen Batzordeak horrela erabakita, elkarlaneko beste egitasmo batzuk adostu ditzakete erakundeok Hitzarmen honen babesean.


9.- Aipatutakoak betetzeko, Euskaltzaindiak eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Jarraipen Batzordea osatuko dute; batzorde horrek 4 kide izango ditu, eta Hitzarmena sinatzen duen erakunde bakoitzak horietatik 2 hautatuko ditu. Jarraipen Batzordea urtean behin bilduko da.

10.- Hitzarmen honek 5 urteko iraupena izango du. Iraupen bereko ondoko epealdietan luzatu ahal izango da Hitzarmena, baldin eta erakunde sinatzaileetatik batek ere ez badu berau salatzen, indarrean dagoen hitzarmena bukatu baino 3 hilabete lehenago.

Hitzarmen honen testua irakurri ondoren, eta behean sinatzen dutenak testuarekin ados daudenez gero, goian aipatutako toki eta egunean sinatu egiten dute, bikoiztuta, eurek ordezkatzan dituzten erakundeen izenean.



Andres Urrutia Badiola jauna,
euskaltzainburua



Joxemari Muxika Arrieta jauna,
Topagunea Federazioaren lehendakaria

BERRIAK

EUSKALTZAINDIAREN 2005EKO BATZAR-EGUTEGIA

Donostia, 2005-I-12

Pello Telleria, idazkariordea

Urtarrilaren 12an, Donostian, Euskaltzaindiaren ordezkaritzan, 2005eko batzar-egutegia aurkeztu zuen Erakundeak komunikabideen aurrean. Hauek dira, Euskaltzaindiak 2004ko abenduaren 17ko osoko batzarrean onartu zuen egutegiaren arabera, 2005. urtean zehar Akademiak gauzatzea begiz jotako ekitaldi ezberdinak:

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urtarrila	27 28	Egoitza	Kargu aldaketa Batzar arrunta
Otsaila	25	Donostia	Batzar arrunta
Martxoa	18	Egoitza	Batzar arrunta
Apirila	22	Donostia	Batzar arrunta
Maiatza	26 27 28	Argomaiz Ozeta Larrea	– Batzar arrunta – XIV. Barne-Jardunaldiak – Joan Perez Lazarragaren heriotzaren IV. Mendeurrena
Ekaina	23 24	Bilbo	– Batzar arrunta – Adolfo Arejitaren sarrera-hitza
Uztaila	21 22	Iribarri	– Jean-Pierre Arbelbideren eta Francisco Laphitz-en heriotzen mendeurrena – Batzar arrunta
Iraila	23	Altsasu	– Batzar arrunta – <i>Nafarroa Oinez</i> : J. M. Satrustegiri omenaldia – Juan Goikoetxearen jaiotzaren mendeurrena

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urria	21	Mungia-Laukiz	– Batzar arrunta – Esteban Urkiaga «Lauaxeta»ren jaiotzaren mendeurrena
Azaroa	24, 25	Donostia	– Batzar arrunta – VIII. Herri-Literatura Jardunaldiak
Abendua	16	Egoitza	- Batzar arrunta – IX. <i>Jagon</i> Jardunaldiak

Euskaltzaindiaren XIV. Barne Jardunaldiak

Maiatzaren 27 eta 28an egitea aurreikusita daude Jardunaldi hauek Araban. Euskaltzaindiak bi urtez behin egiten ditu Barne-Jardunaldiak, eta besteren artean, hurrengo bi urteetarako batzordekideak izendatzen ditu. Beraz, aurren, 2005 eta 2006. urteetarako batzordekideak izendatuko dira.

Joan Perez Lazarragaren heriotzaren IV. Mendeurrena (1550-1605)

Maiatzaren 28an egingo da mendeurren honen ospakizuna Araban, Barundiako Larrean. 2004an ezagutzera eman zuen Gipuzkoako Diputazioak aurkitu berri zuen Joan Perez Lazarragaren eskuizkribua. Eskuizkribua plegu laurdenean egin dago. 51 orriz (102 orrialdez) osatua. Lehenengo 4ak ez dauka osorik, urratuak izan dira. Esku bakarreko zirriborroa edo lanerako alea dela esan daiteke. Joan Perez Lazarragak, Larrea Dorretzeko Jaunak euskaraz idatzitako bertso, kanta eta maitasun-kontuen bilduma da. Horiez gain, garai hartan gogoko zuten kontakizun mitologiko luze bat dago.

Adolfo Arejita euskaltzainaren sarrera-hitzaldia

Ekainaren 24an ageriko batzarra egingo du Euskaltzaindiak, Adolfo Arejita euskaltzain oso izendatu berriak sarrera ofiziala egin dezan, sarrera-hitzaldia irakurritz. Euskaltzain oso, 2004ko ekainaren 25eko batzarrean izendatua izan zen, martxoan hil zen Andolin Eguzkitzaren hutsartea betetzeko.

Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905) eta Francisco Laphitzen (1832-1905) mendeurrenak

Uztailaren 21ean omenaldia egingo die Euskaltzaindiak Nafarroa Behereko bi idazle hauei:

Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905)

Zaron jaio zen 1841eko abenduaren 22an, eta Baionan hil, 1905eko urtarri-laren 27an. Eliz gizona izan zen eta hauek dira euskaraz argitaratu zituen lan nagusiak:

- *Bokazione edo Jainkoaren deia*, 404 orrialdeko liburua, 1887an, Lillen argitaratua.
- *Erlisionea: Eskual-herriari dohazkon egarik beharrenak*, 480 orrialdeko liburua, 1890ean, Lillen argitaratua.
- *Kalbarioa*, 1892an, Lillen argitaratua.
- *Igandea eta Jaunaren eguna*, 226 orrialdeko liburua, Lillen argitaratua.

Libururik ezagunena *Erlisionea: Eskual-herriari dohazkon egarik beharrenak* da, hain zuzen iaz Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak berrargitaratua.

Francisco Laphitz Arriada (1832-1905)

Arizkunen jaio zen eta Argentinan, Platan, hil.

Gurasoen merkataritza-lanagatik eta ama hangoa zelako Arizkunen jaio bazen ere, Nafarroa Behereko Irisarrin bizi izan zen. Ikasketak Hazparneko ikastetxean egin zituen, eta ondoren, Uztaritzeko seminario txikian sartu zen, eta geroago Baionara joan. Apaiztu ondoren, 1857an, Baigorriara igorri zuten apaiz laguntzaile bezala, eta 1866an Zuberoako Altzaira. Berehala, bere herritarra zen San Mixel Garikoitzek sortu berri zuen betarramiten ordena erlijiosoan sartu zen, eta misiolari moduan joan Hego Ameriketara, Paraguai eta Argentinara, eta han hil zen.

Hau da idatzi zuen liburu garrantzitsuena: *Bi saindu hescualdunen bizia, San Inazio Loiolacoarena eta San Francisco Zabierecoarena*, Baionan, 1867an argitaratua. Luis Villasanteren ustez, euskaraz idatzi den libururik ederrenetakoa da.

Nafarroa Oinez-05

Aurten Altsasun egingo da *Nafarroa Oinez*, Nafarroako Ikastolen Elkar-teak urtero antolatzen duen jaia. Euskaltzaindiak aurten ere han izan nahi du, Nafarroako Ikastolen Elkar-teak gonbidaturik, azken urteotako ohiturari jarraiki (2004an Lizarran, 2003an Irunberrin, 2002an Tuteran eta 2001ean Lodosan).

Euskaltzaindiak irailaren 23an egingo du Altsasun iraileko batzarra eta, *Nafarroa Oinez* dela eta egingo duen ageriko bilkuran, Juan Goikoetxearen

jaiotzaren mendeurrena ospatuko du (1905-1973). Juan Goikoetxea Zabalo euskaltzain urgazlea izan zen eta urte luzetan Arbizuko erretore.

Esteban Urkiaga «Lauaxeta» (1905-1937)

Urriaren 21ean ospatuko du Lauaxetaren mendeurrena Euskaltzaindiak, Mungia eta Laukizko udalekin batera.

Lauaxeta Laukizen jaio zen 1905eko abuztuaren 6an eta umetan familia-rekin Mungiara aldatu zen, eta Durango eta Loiolako Jesuiten ikastetxeetan ikasi zuen. Loiolan klasikoak ikastearekin batera, euskara eta euskal kultura-rekiko zaletasun-giroa bizi izan zuen. Euskal Jai eta olerki-saioetan sari asko irabazi zuen. Hizlari trebea izan zen eta herriz herri ibili zen mitin eta jaialdi askotan parte hartuz. Espainiako Gerra Zibilean, 1937an, atxilotu egin zuten eta Gasteizen eduki zuten kartzelan, harik eta 1937ko ekainaren 24an Gasteizko kanposantuan fusilatu zuten arte.

Egunkari eta aldizkari ugaritan idatzitako artikuluez aparte, *Bide barriak* (142 olerki, 1931), *Arrats beran* (40 olerki, 1935) eta *Olerkiak* (1974an argitaratua) olerki-bildumak egin zituen. Berea izan zen garaiko euskal lirika Europako korronteetan txertatzeko ahaleginik zabalena eta lortuena.

VIII. Herri Literatura Jardunaldiak

Azaroaren 24an eta 25ean egingo dira Jardunaldi hauek, Donostian. Herri literaturari buruzko jardunaldiak aldiro-aldiro egiteko ohitura du Euskaltzaindiko Herri Literatura azpibatzerdeak eta, aurren, «herri-prosa» izango da aztergai.

IX. Jagon Jardunaldiak, Bilbon

Abenduaren 16an egingo ditu Euskaltzaindiak jardunaldi horiek, Bilboko Elizbarrutiak euskarari eman dion trataera aztertzeke. Jardunaldi hauek, aurreko hiru urteetako beste hiruen segida izango dira, 2002an Hendaian, Baionako eta Oloroetako elizbarrutietako egoera aztertu baitzen eta, 2003an Irunberin, Iruñea eta Tuterakoak eta, 2004an Gasteizen, Gasteizko elizbarrutikoa.

BITORIANO GANDIAGA ZENAREN KOADROA EUSKALTZAINDIARI ESKAINTZEAN

Bilbo, 2004-XII-16

Bitoriano Gandiaga poeta eta ohorezko euskaltzainaren erretratua jarri zen, 2004ko abenduaren 16an, Euskaltzaindiaren batzar gelaren atarian. Egun horretan, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak bilera egin zutela aprobetxatuz, bertara joan ziren erretratuaren egilea, Xabier Egaña eta Mari Jose Zurita bere emaztea. Ricardo Badiola Euskaltzaindiko Argitalpen eragileak eskerrak eman zizkion egileari Akademiaren izenean, eta haren ibilbide artistikoa gogora ekarri zien bertan bildutakoei.



Hala bada, Xabier Egaña 25 urtez bizi izan zela Arantzazun aipatu zuen Badiolak, Gandiaga hurbiletik ezagutu zuelarik. Euskaltzaindian jarritako koa-droa, 1983an egina da eta Euskaltzaindiak erositia, Ricardo Badiolak aipatu zuenaren arabera. Ondoren, pintorearen ibilbideaz jardun zuen, hark egindako lanaren garrantziari erreparatuz.



MANUEL LEKUONA SARIA

JEAN HARITSCHELHAR EUSKALTZAINBURU OHIARI

Baigorri, 2005-V-21

2005eko maiatzaren 21ean, Baigorriko Herriko Etxean, Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak 2004ko Manuel Lekuona saria jaso zuen, Javier Regi Eusko Ikaskuntzaren buruaren eskutik. Jean-Baptiste Lambert Baigorriko auzapeza eta Jean-Claude Larronde Ipar Euskal Herriko Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea ere han izan ziren. Bestalde, Beñat Oihartzabal buruordeak, Andres Urrutia euskaltzainburuaren atxikimendu mezua irakurri zuen.

Haritschelharren senitartekoak, lagunak eta Euskaltzaindiko kide asko joan ziren ekitaldira, besteak beste, Xabier Kintana, idazkaria; Beñat Oihartzabal, buruordea; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Emile Larre, Txomin Peillen eta Piarres Xarriton euskaltzainak hor izan ziren.

Baigorriko auzapezak ireki zuen ekitaldia, «Baigorriko eta euskal kulturaren semea» agurtuz eta Haritschelharren ibilbidea gogoratuz, eta ondoren Jean-Claude Larrondek eta Beñat Oihartzabalek omenduaren alboan pasatako garaiak oroitu eta hark euskararen ikerketaren alde erakutsi duen jarrera go-raipatu zuten. «Jean Haritschelharren lanen helburuetako bat izan dela luzaz euskaldun herritar xumeen artean bizi izan den euskarazko kultura hau uni-bertsitateko erakaskintza alkietara ekartzea, eta ezagut- eta maitaraztea, mundu berrian euskarak ez baitzezakeen gerorik izan, herritarrek ez bazekarkioten atxikimendu eta errespeturik euskarazko kultura horri», esan zuen Euskaltzaindiko buruordeak.

MANUEL ETA JUAN MARI LEKUONA GOGOAN

Haritschelharrek gogoan izan zuen Manuel Lekuona: «Lau urtez, bera euskaltzainburu eta ni euskaltzainburuorde izan ginen. Orduan sortu zen buruordetza eta pentsatu zen Iparraldekoen batek hartu behar zuela bere gain». Eta Juan Mari Lekuona ere aipatu nahi izan zuen, berarekin lotura handia baitu, esan zuenaren arabera.

Ekitaldian, Haritschelharren omenez egindako bideoa ere erakutsi zuten. Euskaltzainaren bizitza laburbiltzen duen bideo horretan Xabier Kintana, Aurelia Arkotxa eta Jean Fagoaga agertzen dira, besteak beste. Bestetik, Piarres Xarrittonek paratutako 100 bat orrialdeko liburua banatu zen. Omenaldia Lakaren bertso hauekin amaitu zen:

Euskaltzainburu izanak dira Lekuona Oiartzuarra
Ta berantago Jean Haritschelhar etorkiz Baigorriarra
Manuel zagon pertsularien goraipatzale bakarra
Jean-ek Etxahun zenaz egin du lehen liburu ederra.

Mail goreneko erakaskuntzan Bordalen arizan zinen
Baionan Euskal Erakustoki hartan lan ainitz baziren
PIZKUNDEA-ren baitan zonbaitzu zure gibeletik ginen
Argi daukat zu han ez izanez deus gutti zela eginen.

Zer ikasia badago ere maiz telebista leihotik
Baliosenak Gehexan Ponttok aipatzen ditu ondotik.
Zure luma gatz biperdun hori laket baitzaigu errotik
Horrela luzaz jarrai dezazun opa dizugu gogotik.

LEKUONA SARIA

Baigorri, 2005-V-21

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburu ohia*

Baigorriko auzapez jauna,
Eusko Ikaskuntzako zuzendaria eta kideak,
Gipuzkoako diputatu nagusia,
M. le Président du Conseil Général,
Euskaltzain adiskideak,
Jaun-Andereak, agur.

Eskerrak zuri lehenik Baigorriko jaun mera utzi baitiozu Eusko Ikaskuntzari Herriko etxeko gela hau ene omenaldiko. Alabaina, zenbat eta zenbat oroitzapen enetzat gela hau eskola izanez ene haurtzaroa, hemen iragan ditudala sei urte oso eta gero, hor gainean, lehen solairuan, bederatzi urte auzapez gisa, Baigorri eta baigorriarren zerbitzuko. Aipatu dituzu denbora haietan egin izan diren lanak, hor daude oraindik garai baten lekuko.

Milesker haundi bat Iparraldeko Eusko Ikaskuntzako kideei, ene alde hau-tua eginik eta aurkezturik. Halaber esker mila zuri ere Retegi jauna, Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzak onartu duelakotz Iparraldekoek eginikako proposamena. Jakin zazue, Retegi jauna eta Jean-Claude Larronde Iparraldeko zuzendaria ene ohoretan egin dituzuen mintzaldiak hunki nautela eta orain bertan hartu dudana *Lekuona Saria* munta haundikoa dela enetzat. Nola ez eskerrak bihurtu Beñat Oihartzabal euskaltzainburuorde adiskideari. Laudorioz bete-a izan da egin duzun mintzaldia. Ez dakit merezi ditudan, pentsatzen baitut bete dudala ene eginbidea, bertze anitzek betetzen duten bezala.

Esker mila zuri ere Piarres Charritton euskaltzain adiskidea. Idatzi duzu ene bio-bibliografia, euskaraz lehenik zilegi den bezala eta frantsesera itzuli. Anitz lan eman dizut eta bihotzaren zolatik eskertzen zaitut.

Jendez bete-a den gela honetan ikusten ditut Bilbotik, Gasteiztik, Donostiatik, Iruñetik eta, erran gabe doa, Iparraldetik etorriak diren euskaltzainkideak, haien artean zu ere Miren Azkarate anderea, Eusko Jaurlearitzako Kultura

Sailburua eta ere literatura ikerketa batzordeko kide batzuk. Euskaltzainburu berriak ezin etorri egun, igorri du bere mezua, Beñat-ek irakurria oixtion. Eskertzen dut bihotzez, hala nola eskertzen ditudan Video-ko hiru lekukoak: Xabier Kintana, Aurelia Arkotxa eta Jean Fagoaga.

Hona, beraz, Euskal Herriko zazpi hegaletik jinikako jendea ene ohoretan, ahantzi gabe ene familiakoak, baigorriarrak eta bertze adiskideak

Behar dizuet aitortu nola hunkitua izan naizen jakin nuelarik hartuko nuela *Manuel Lekuona* saria. Iparraldeko laugarrena naiz! Gogoan daukat lehena Eugene Goyheneche, gutarik urrundua eta bizi luze bat opa diet bertze biei, biak euskaltzainak Xabier Diharce «Iratzeder» eta Piarres Charritton.

Alabaina Lekuona familiarekin ukan ditut harreman sendoak. Don Manuel-en ezagutza egin nuen Euskaltzaindian sartu nintzelarik, jadanik banenkiela haren obra miresgarriaren berri. Euskaltzainburu izendatua izan zelarik, izendatu ninduten euskaltzainburu-orde, pentsatzen baitzuten Euskaltzaindiak behar zuela ezagutua izan Iparraldean, horretarako orduan sortua izan baitzen kargu hori. Elgarrekin lanean arizan gara lau urtez.



Ez ditut sekulan ahantziko Don Manuel-en ehorzketak. Bilduak ginen Oihartzungo elizan jendez mukurru betea, berrehun bat apez aitzinean Setien apezpikua buru. Don Manuel-en kutzaren aurrean Setien apezpikuak barkamena eskatu zion Elizaren izenean, Eliza ixilik egon zelakotz erbestera igorri

zutelarik Don Manuel gerlaren ondotik eta bereziki frankistek tirokatu zutelarik Martin Don Manuel-en anaia apeza. Urte latzak izan ziren orduan, latzak bereziki Lekuona familiarentzat.

Don Manuel-ek hutsik utzi zuen aulkiaren betetzeko hautatu genuen haren iloba Juan Mari, olerkari fina, jakintsu haundia hura ere. Bere sarrera mintzaldia egin zuelarik Oihartzunen, nik erantzun nion, berak hautatu baininduen aitatxi gisa. Ohore haundia enetzat.

Duela hamasei urte Euskaltzainburu izendatua izan nintzelarik, euskaltzainburu-ordea Juanito San Martin izan zen, baina laster utzi zuen kargua Autonomia Erkideko Ararteko izendatua izan eta. Geroztik kasik hamaika urtez Juan Mari Lekuona izan da Euskaltzainburu-ordea. Beti izan da beharrezkoa nuen aholkulari ona baino hobea. Zenbat eta zenbat aldiz, Bilbora ginoalarik, Donostian hartzen bainuen, ari izan gara elgarrekin Euskaltzaindiaren kudeaketan gogoan, nola behar ginen jokatu Zuzendaritzakoekin gurutzatzen ginela gero erabakien hartzeko. Ez dut ahantzi nahi ere urte luzez lan egin dugula elgarrekin Literatura Ikerketa batzordean, batzorde horren buru Juan Mari zelarik.

Orain, egun eder honetan, dakidalarik osagarri eskasean dela Juan Mari, betetzen dut hitzeman diodana atzo. Deitu dut eta erran diot nola ematen zidaten *Manuel Lekuona* saria Baigorri eta hitzeman diot nola gogoan ukanen nituen eta ez bakarrik aipatuko baina gorai patuko osaba eta iloba, hitz batez Lekuona familia osoa.

Hitza hitz. Bururatzen dut ene mintzalditxo hau, aitortuz besta eder bat dela enetzat eta eskertuz honat etorri diren jende guziek erakusten baitidate elgarrekin ditugun lokarriak, halaber beren ezin etorria jakinarazi didatenak. Deni, milesker.

MANUEL LEKUONA SARIA

Baigorri, 2005-V-21

Lekuona Saria (2005)

(Doinua: *Urrundik ikusten dut*)

1

Urrun dauka Baigorrik Urduze-Bastida
Biak herri horrentzat larre patar dira
Halere Haritschelhar egun Baigorrira
Lekuona Saria gatik etorri da.

2

Etzinen ez hemen, Jean, guretzat arrotza
Auzapez zinitugun prezatua ontsa
Geroztik atsedanak dakizu nun goza
Izan ezik euskaltzain buru ta bihotza.

3

Denaden hemen ziren zure hastapenak
Aitatxi-amatxiak, Urduzen zirenak
Errients bipil hartaz mintzo ziren denak
Bazuen nundik etor gure euskaltzainak.

4

Berak aita jostuna, ama Iholdiko
Seme hau pilotari, atxiki ttipiko
Ikasketak ez ditu ere ahantziko
Eta Lafitt' biderat zaio etorriko.

5

Villasanteren segi Euskara Batua
izan zen mende hunek ekarri hautua
Han Bizkaiera eta hor zuberokoa
Plaza barriraturik gaztelondokoa

6

Hogoi ta laueko da orai zenbakia
Guzien kopurua gaur Euskaltzaindia
Horietan bakotxak du bere tokia
Haritschelharrena hor gaineko alxia.

Emile Larrek egina

OLENTZARO, SAN NIKOLAS ETA BESTE

Henrike Knörr (*)

Señoras y señores, amigos todos:

Voy a empezar tranquilizando al auditorio: mi alocución no será larga. Mi modelo no es exactamente el tipo de discursos de cuatro horas de ese conocido gobernante del Caribe. ¡Ni mucho menos! Mi pregón será breve, y que otros juzguen si será bueno, cualidades ambas que, como se sabe, producen doble bondad (*Bonum si breve, bis bonum*).

Todavía quedan pregoneros en Vasconia, aunque al parecer no en Álava. Recuerdo muy bien la última vez que vi a uno de ellos, en Urdiain, en la Baranca navarra. Había ido yo a recoger a José M^a Satrústegui, nuestro llorado amigo. De repente, reconoció al pregonero municipal dirigiéndose a una de las esquinas del pueblo para iniciar su labor. Como empujado por un resorte, Satrústegui volvió a entrar en casa, y, magnetófono en mano, grabó el pregón, en euskera, precedido y terminado con un toque de trompetilla. Era un aviso del Ayuntamiento sobre una reunión aquel día. El testimonio queda guardado, sin duda, en el rico archivo del académico, archivo ahora en proceso de catalogación por Euskaltzaindia.

Muchas veces he pensado en aquel pregonero, sesentón, una pieza más, pero pieza importante, en unos modos de vida mucho más humanos que los nuestros, y, sobre todo, más comunicativos. A muchos se les llena la boca con la monserga esa de *la sociedad de la comunicación*. Es confundir la increíble proliferación de aparatitos con la verdadera comunicación, la comunicación entre personas, inmediata, cercana, la auténtica, pues, volviendo a echar mano del venerable latín, *communicare* es «participar, tener parte (en algo común)». Porque comunicación es el concejo abierto, y la vereda o *auzolan*, y la conversación franca, y tantas cosas sin que esté de por medio algún cacharro de esos fabricados en China o vaya usted a saber dónde.

Este pregonero, a decir verdad, llega un poco tarde, y hace como esos empleados de los tiovivos, que se montan en marcha. En efecto, el ciclo de Navidad ya ha empezado. No, no me refiero a todo ese despliegue de anun-

(*) Testu hau irakurri zuen egileak Gasteizko *Principal* antzokian, 2004ko abenduaren 18an.

cios y publicidad del comercio, ni a esas luces e imagería que nos plantaron ya a mediados de noviembre. No. Hablo de San Nicolás, que vino el 6 de diciembre, y cuya fiesta se sigue celebrando entre el alborozo de niños y mayores.

En Agurain, por ejemplo, ya han cantado aquello de:

*San Nicólas coronado,
que el obispo es muy honrado;
si nos dais o no nos dais,
aquí no os detengáis,
porque somos escolanos
del glorioso San Nicólas.
Aquí estamos cuatro,
cantaremos dos;
una limosnita
por amor de Dios, etc.*

Y en la canción de Zaldondo se cita un objeto muy importante de la petición:

*Angelitos somos,
del cielo venimos
a pedir andamos
naranjas y limones
para honrar estos pendones,*

donde vemos que los pendones tienen fieles valedores, los cuales, por cierto, terminan la canción:

San Nicólas tris-tras,

a voz en grito, porque así lo dice la partitura, y se lee esta indicación entre paréntesis: «Gritando». (Por lo demás, habrán notado ustedes que se dice «San Nicolás», por la influencia de la vieja y joven lengua vasca, que evita las sílabas agudas, y hay que recordar que se dice «San Róman», etc.)

Sí, ya vistieron a un niño de «obispillo», normalmente el alumno más aventajado. Y ese pequeño San Nicolás, que sólo puede serlo un año, desfiló con su comitiva, y se hizo la fiesta. Viejas tradiciones, seculares, cuyo rastro es con frecuencia difícil de seguir, pues, como dice bellísimamente Thomas Mann al principio de *José y sus hermanos*, «es profundo el manantial del pasado. ¿No debiéramos llamarlo insondable?» («*Tief ist der Brunnen der Vergangenheit. Sollte man ihn nicht unergründlich nennen?*»).

No es extraño que San Nicolás estuviera desde siempre destinado a una perdurable relación con los niños. Aquel obispo que fue de Myra, en Asia Menor, en el siglo IV, es designado en muchos libros como santo amigo de los niños. Obsequió en vida a niños y jóvenes, como en el caso de las tres bolsas de oro que lanzó de noche otras tantas veces por la ventana de la casa de

un hombre, noble pero venido a menos, sin medios con que dotar a sus hijas casaderas. Y en muchos lugares de Europa, el día de San Nicolás los niños encuentran en casa o en los caminos frutas y golosinas. Por otro lado, San Nicolás es el ejemplo de la criatura tocada de la mano divina ya desde tempranísima edad. En *La leyenda dorada*, la famosa obra de Jacobo de Vorágine, el santoral del Medievo en que se han inspirado miles y miles de artistas y escritores, vemos un hecho ciertamente milagroso: a los pocos días de nacer, Nicolás se sostuvo por sí mismo, de pie, dentro de la palangana en que le estaban lavando.

Todo el mundo sabe que después los restos de San Nicolás fueron trasladados a la ciudad italiana de Bari. Sin embargo, a San Nicolás no se le reconoce como merece. Es más: se ha producido una confusión, que se diría por transexualidad, en *Santa Claus*. Nada de eso, desde luego. Todo se explica sencillamente porque los holandeses, marineros cuyo patrono es San Nicolás, fueron los primeros colonizadores de Nueva Amsterdam, lo que después se llamó Nueva York, y llevaron allí la devoción de ese santo, que en neerlandés se documenta desde 1299 como *Senterclaus*, y hoy se dice *Sinterklaas*, escrito junto, como *Santiago*.

Las transfiguraciones de San Nicolás no se limitan, sin embargo, a Santa Claus y su representación anunciando Coca-Cola y otros brebajes. En Francia, en 1845, ya se documenta *Père Noël*, y más tarde *Papa Noël*. ¡Pobre San Nicolás desposeído! Y además, ¡desposeído del afecto y del amor de los niños! ¿Puede haber mayor pérdida?

Tirando del hilo, sabemos que este *Noël* francés viene de la antigua palabra *Naël*, que es el latín *Natalis*, se entiende «días natales del Señor». Y en 1548 se atestigua *noël* significando también «villancico». De ahí nuestros hermanos vascoaquitanos tomaron prestada la palabra, que está presente ya en el título del libro de Joanes Etxeberri de Ziburu, *Noelak eta bertze kanta espiritual berriak* («Villancicos y otros cantos espirituales nuevos»), de 1630. Uno de los villancicos de Etxeberri es el célebre *O Eguberri-gaua*, hermosísima composición que R. M.^a Azkue recogió en Sara, y cuya primera estrofa dice:

*O Eguberri-gaua,
bozkariozko gaua,
alegeratzen duzu
bihotzean kristaua.*

(«Oh, Nochebuena,
noche de gozo,
tú alegras
en el corazón al cristiano»).

Pero la palabra *Noël* hizo en nuestra lengua vasca una segunda recalada. Se trata del primer elemento de *Olentzaro*, que procede de **Noel-(t)zaro*, «época de Navidad». El segundo elemento es *-aro*, *-zaro*, el mismo que vemos,

en *Subilaro*, literalmente, «época del tronco», por el madero que se quema en Navidad. Las formas atestiguadas de *Olentzaro* con mayor antigüedad nos llevan a pensar en esa relación con **Noel-tzaro*, y entre ellas está *Onenzaro*, que trae el historiador Isasti. Hay que lamentar la derivación *Olentzero*, sin duda por influencia del sufijo castellano *-ero*, de *panadero*, etc., y hay que lamentar todavía más ese empleo de *el Olentxéro*.

De cualquier modo, *Olentzaro* no es un personaje tan ajeno a Álava, pues se conocía en su muga, en la Barranca navarra, antes de su proliferación en Vitoria hace 38 años.

Así que ya estamos en las fiestas, que empezaron por San Nicolás, el marginado, y siguen con otras, como la de hoy mismo, *Día de la Expectación de Nuestra Señora*. Y después vendrá la Nochebuena, el *Gabon* que ha pervivido en pueblos alaveses donde el euskera ha retrocedido. Y al día siguiente la Navidad, en nuestra otra lengua *Eguberri*, literalmente el «Día Nuevo». Bueno sería, dicho sea de paso, que nos felicitáramos en esta lengua con un *Eguberri on*, dejando de una vez ese *Zorionak*, ejemplo claro de un estrepitoso servilismo (de *Felicidades*, claro). En fin, que el ciclo seguirá, con la Epifanía, los Reyes, y finalmente la Candelaria, el 2 de febrero, o sea, la presentación de Jesús en el templo.

Este largo ciclo lo conocen muy bien, entre otros muchos, los vecinos de Laguardia, pues coincide casi punto por punto con la muestra del célebre belén de figuras articuladas, que en determinados días se mueven y bailan en la iglesia de Nuestra Señora de los Reyes.

Ahora cabría preguntarse: ¿Qué sabe hoy la gente de todas estas celebraciones y de toda su carga cultural? ¿Qué saben nuestros escolares? Y ¿qué saben sus profesores? «¡Eso es cosa de curas!», puede decir algún listillo, como oí una vez a alguien que guiaba a unos alumnos en una iglesia. ¡Como si para saber eso uno tiene que haber recibido órdenes sagradas o haber hecho los votos de monja!

Señoras y señores: ante nosotros tenemos el resultado de una terrible incultura, una de cuyas causas, aunque no la única, es el haber confundido *cultura religiosa* e *instrucción religiosa*. Pero la cuestión está clarísima: sin cultura religiosa la gente se convierte en marcianos. Cientos, miles de cosas, se les escapan en iglesias, museos, libros, películas, o paseando por pueblos y ciudades. *El beso de Judas*, *Herodes*, *el buen samaritano*, etc., etc., son elementos de nuestra cultura, y es absurdo atribuirlo a ser clérigo o creyente. *Llorar como una Magdalena*, contrariamente a lo que pensaba una muchacha, no se dice porque en el horno las magdalenas echan esos hilos como lágrimas, sino por la pecadora arrepentida del Evangelio.

Es hora de que lo digamos sin rodeos: aquí ha habido una desidia terrible, una dimisión colectiva de responsabilidades, y ante todo en los dos pila-

res sociales de más importancia: la familia y la escuela. Hay desde luego otros males, pero éste es particularmente grave. Es un deplorable corte en la transmisión de unos conocimientos básicos. ¿Qué sentido tiene aquel nombre de *Educación General Básica*, si parte de la base se excluye?

La dejación, o para hablar más claramente, la dimisión de responsabilidades, abarca, sin duda alguna, otros campos. Es la sociedad la que debe articularse mejor, consciente del bien común, y consciente de todo el peso cultural, rico y complejo, del pasado y del presente. Es la sociedad, sobre todo, la que ha de encararse a los problemas, conflictos, resquemores, procurando que nada importante quede soterrado, por efecto del miedo o el resentimiento. Porque no es bueno silenciar conflictos y temores, por la razón que fuere. Tampoco por cuestiones de lengua, como en esa iglesia próxima en que se *desampara* al euskera, desoyendo el deseo de la familia, como hace unos días, en un funeral.

No son malos estos días para volver a soñar con esa ciudad amable, cálida, multifacética, pero ante todo humana. Ciudad de caminar y charlar. Ciudad para desearse felicidad de viva voz. El pregonero invita al gozo, al canto de las viejas canciones, no a la mera recepción de la música (por llamarla así) dictada por la implacable industria internacional de la diversión. El pregonero invita también a recordar a los ausentes. E invita a ver el mundo, si quiera por una vez, con los ojos de los niños, quienes todos los días nos enseñan cómo se puede ser feliz.

A todos Feliz Navidad. Eguberri on.

Post scriptum sobre San Nicolás

A las pocas horas de leer mi pregón de Navidad, Mikel Ezkerro, bilbaino transplantado a Buenos Aires, me escribió un mensaje electrónico, en el que se leía este interesante párrafo:

«Tu pregón me trajo también recuerdos muy gratos, porque en Bilbao, allí por 1943-1944, mi finado padre, vestido de San Nicolás, me visitaba en mi habitación totalmente a oscuras, llevando una bandeja con regalos y preguntando con una voz de bajo (aunque no fuese la del bueno de José Mar-dones) cómo me había portado durante el año, si estudiaba, etc., etc.».

MIKEL ZARATEREN ERREGENEZ

14-XI-2004

Patsi Oroz
Sindelfinger Str. 77
D - 72070 Tübingen

Xabier Kintana Urkiaga
Euskaltzaindia
Plaza Barria 15
48005 Bilbo

Querido amigo:

No puedes figurarte la alegría que me ha causado tu noticia de que Euskaltzaindia me ha nombrado „Oborezko euskaltzain“.

Durante mi vida he disfrutado, dedicándome en la medida en que mis ocupaciones me lo permitían, a cuestiones relacionadas con el euskera. Ha sido una afición que heredé de mi padre, que solía explicarme muchas palabras no castellanas que empleábamos en Beráin, o muchos términos toponímicos de mi pueblo por medio de esa lengua: Anderete, bilgarro, abea, birica, chistorra, chingarra, chierinta, malcarra, chungur, maustur, linar, zuin, zugarro, ipurdi, zulo, zumarica, y muchas más entre las primeras, Cunchuchos, Sario, Zaldualde, Gesalaga, Ibartes, Bular, Iparberoki, etc. entre los nombres de lugar.

Siguieron varios años en los que estuve completamente alejado „del mundanal ruido“, intentando imitar a San Francisco Javier. También en esta época despertaba de vez en cuando el amor a mi tierruca, como cuando dieron en el Colegio Español de Roma un concierto y escuché el *Ator mutil etetera* de Guridi. Recuerdo que conseguí entonces la partitura de esa canción, de la que jamás he vuelto a separarme, que he cantado varias veces con el coro Romania Cantat y que publiqué hace cinco lustros en el homenaje homónimo a Gerhard Rohlf.

Al llegar a Tübinga tras saltar tapias y escollos, conocí a mi excelente maestro y amigo Antonio Tovar, que es el que despertó mi amodorrada inclinación de joven y me introdujo en el estudio de la filología vasca. Entonces comencé a formarme una pequeña biblioteca euskérica y a trazar los primeros pinitos filológicos en la lengua de mis abuelos. Ha habido años en los que he dedicado todo el tiempo que mis ocupaciones profesionales me dejaban libre a preparar algún artículo sobre algún topónimo, a buscar alguna etimología, a relacionar el euskera con el ibérico, a desentrañar alguna frase vasca perdida en textos latinos de tiempos pasados. E intenté introducirme en los sustratos lingüísticos. Tal vez conozcas alguna de estas elucubraciones.

También con la música popular vasca he disfrutado, siguiendo el ejemplo de R. M. de Azkue o de J. A. Arana, presentándola en conferencias y conciertos al público germano o dedicándole algún humilde estudio y la antología *Gernika*.

He disfrutado verdaderamente con estas ocupaciones vascófilas, y ahora Euskaltzaindia, por añadidura, me honra por estos placeres. Os lo agradezco ex abundantia cordis ex qua cor meum loquitur.

Se mezcla con todo una gota, un chorro de acibar en esta alegría. Apenas recibir vuestra invitación para el próximo viernes, mi hijo Adrián me buscó el vuelo más conveniente: Stuttgart -

Bilbao el día 17 por la mañana, y regreso el lunes siguiente. Antes no podía ir porque el 16 cantamos con el coro Romania Cantat, que todavía dirijo, canciones de Navidad en Tubinga, entre otras *Alor* y *Aspaláko*.

Desgraciadamente me veo obligado ahora a cancelar por motivos de salud ese viaje. El viernes pasado, cuando estaba jugando con tres colegas al tenis, me dio un desmayo y tuvieron que llevarme urgentemente a la clínica universitaria. Los médicos han tenido dos sospechas: Podría tratarse de una hemorragia del aparato digestivo (como la que tuve hace año y medio), o de un infarto. Sin embargo, todos los análisis al respecto han resultado negativos, y voy recuperando el humor y el apetito de costumbre. Esta mañana he ido al médico de cabecera, que ha vuelto a examinarme sin encontrar nada. Le he preguntado si podría ir el viernes a Bilbao, y me ha prohibido salir de viaje mientras no se obtenga claridad sobre la causa del achaque que nos alarmó. El viernes por la mañana volverán a hacer un electrocardiograma en esfuerzo. Lástima.

Presuponiendo conformidad de parte vuestra, he hablado con mi sobrino Bittor Oroz, que vive en Atáun, y que es euskaldún, y le he preguntado si podría asistir a la reunión del viernes. Mé ha dicho que lo haría con mucho gusto. Esta me parece la mejor solución, y espero que estéis de acuerdo. Yo me acercaría más tarde a Euskaltzaindia, tal vez en primavera.

Xabier, casualmente recibí, el mismo día que tu notificación, la felicitación de Euskaltzaindia para Navidad y Año Nuevo, con la poesía de Mikel Zarate „Erregenez“. Vuestro nombramiento ha sido para mí un regalo de reyes. Y para corresponder modestamente, le he puesto una melodía sencilla al texto de Zarate, y he preparado dos armonizaciones fáciles de cantar, una para coro de hombres, otra para coro mixto. Pensaba distribuirlas entre los Académicos el viernes.

Te mando ahora por correo un ejemplar de ambas armonizaciones, para que veáis si creéis conveniente repartirlas el viernes. A Enrike Knörr también se las mando, aunque me figuro que el correo llegará más rápidamente a Bilbo que a Gasteiz.

Christa acaba de llevar a correos esa canción de reyes. Espero que llegue a tiempo. Luego te mando la carta que voy a intentar enviar también por correo electrónico, si consigo pasar el texto de mi viejo Mac al ordenador moderno.

Un fuerte abrazo, y eskerrik asko, por vuestra amistad, y por el honor que me concedéis. Patxi.

ERREGENEZ

Euskaltzaindiari

2004ko abenduaren 17a

blotter

H. Mikel Zarate

M.: Pakti Orog. Association

[illegible]

11 *U* - ga lu, p^o - tain, a - ma - t^o - re - kin, a - ga lu, p^o - tain,
U - ga lu, p^o - tain, a - ma - t^o - re - kin, a - ga lu, p^o - tain
U - ga lu, p^o - tain, a - ma - t^o - re - kin, a - ga lu, p^o - tain

12 a - ma - t^o - re - kin, i - lu - di - lu - di - tu - re - i - lu - di - lu - di - tu - re,
a - ma - t^o - re - kin, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re,
i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re

13 ga - lu, a - ga lu, a - ga lu, a - ga lu, a - ga lu, a - ga lu, a - ga lu, a - ga lu,
i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re,
i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re

14 i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re,
i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re,
i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re

15 i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re,
i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re,
i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re

16 i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re,
i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re,
i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re, i - lu - di - lu - di - tu - re

EUSKARAREN INGURUKO JARDUNALDIAK EGIN DIRA OÑATIN

Oñati, 2005-IV-26-29

*Xabier Kintana eta Henrike Knörr izan dira,
Euskaltzaindiaren izenean*

Apirilaren 26tik 29ra bitartean, Elkar Hezi Ikastetxeko batxilergoko bigarren mailako ikasleek antolatuta, euskararen gaineko jardunaldiak egin dituzte, Oñatin. Beste baturen artean, Xabier Kintana eta Henrike Knörr euskaltzainek hartu dute parte.

Hau izan da egitaraua:

- Apirilaren 26a, asteartea: Xabier Kintana eta Jurgi Kintana aritu dira. Gaia: «Euskararen jatorria eta bilakaera historikoa».
- Apirilaren 27a, asteazkena: Gerardo Elortza, Roberto Altuna eta Asier Sarasua. Gaia: «Deba Ibarreko azpieuskalkien inguruko gainbegiratua. Gure azpieuskalkiaren, oñatieraren, ezaugarriak. Grafiaren auzia. Oñatiera baturik, bai ote?»
- Apirilaren 29a, ostirala: Pello Zabalak eta Paulo Agirrebaltzategik: «Kandido Izagirre, Luis Villasante eta Bitoriano Gandiagaz, batetik, eta oñatieraren gainean, bestetik», hitz egin dute. Henrike Knörr izan da, Euskaltzaindiaren izenean.

EUSKARA, EUSKALKIAK, ZENTZUA

Henrike Knörr

Oñatieraren inguruko Jardunaldien bukaera honetan Euskaltzaindiaren izenean hitz batzuk esan ditzadan eskatu didate. Halaxe egingo dut, ezin etorrian gertatu den Andres Urrutia euskaltzainburu jaunaren ordeztu eta partez.

Ekitaldian lau gizon gogoratu eta omendu nahi izan dituzte antolatzaileek: Luis Villasante, Kandido Izagirre, Ignazio Omaetxeberria eta Bitoriano Gandiaga. Arrazoi osoz, esango nuke, eta areago Oñatin izaki. Zeren mundu guztiak baitaki laurak frantziskotarrak izan zirela, eta Arantzuzuko fraideak. Zein bere nortasunarekin, zein bere isuri eta zaletasunekin, baina nabari da, ordenakide izateaz gain, lokarri estuak bazirela haien artean. Besteak beste, Villasante izan zen Kandiko Izagirreraren dialektologia lan bikain baten edizio-gile. Izan ere, «El vocabulario vasco de Aránzazu – Oñate y zonas colindantes» deritzana Luis Villasantek prestatu zuen, hitzaurre on batez hornitu eta moldiztegitira eramanez, Izagirre hil ondoren, eta *Anuario del Seminario de Filología Julio de Urquijo* aldizkarian 1970ean argitaratu.

Lau gizon horietaz mintzatu zaizkigu Paulo Agirrebaltzategi eta Pello Zabala. Nik ez nuke deus erantsi nahi. Bakar-bakarrik, hauxe: Luis Villasanteren aldizkako taxilaria izan nintzela, Euskaltzaindiaren batzarretara eramateko edota haietatik ekartzeko. Ezin ordainduzkoak ziren bidaia haiek, mila berri interesgarri eskuratzeko aukera paregabeak. Zinez laburregi irizten nien nik kilometro haiei.

Euskalkiak eta euskara batua izan dira egunotan hizpide. Hizpide ere izaten dira maiz euskaldunen artean. Agian ez beti beharrezko dugun orekarekin eta zentzuarekin, nik uste. Zergatik diot nik hori?

Duela bi urte, Bizkaiko herri handi bateko alkateak esan zidana gogoan dut: «Nik ez dut euskara batuaren beharrik». Garbi zegoen zer esan nahi zuen: egunoroko harremanetarako, euskalkia zein gaztelania. Besterik ez.

Itsuenak ere ikus dezake bide horretatik etorkizun beltza izango lukeela euskarak. Udalaren aurrekontua, etxegintza-enpresa batekiko kontratua eta antzeko gauzak tratatzeko, euskalkia ez da aski, ez du balio. Orduan, bietariko bat: edo norberak lantzen du euskara, euskara batua, gai horietaz mintzatzeko eta eztabaidatzeko, edo beti izango dugu gaztelania, gure hutsen sendagarri eta

betegarri. Eta Udaletik ateratzean gehiago: politikaz, filosofiaz, literaturaz, zeinahi gaiz hitz egiteko, euskara batua behar da, ez gaitezen ergelak izan.

Ez nauzue euskalkien aurkako, inola ere ez. Beste hau defendatzen dut, ordea: mailak eta mintzaguneak bereizi beharra, noiz nola jokatzeko jakin. Eta, egia osoa esateko, euskalkikeria dut kezka-iturri. Ongi dago arbasoengandiko ondarea gordetzea, eta hondamenditik salbatzea. Baina gaurko munduak, mundu zail honek, euskaldun guztion arteko hizkuntza-tresna eskatzen du. Eta batzuetan alderantzizko norabidean goazela dirudi. Eredutik emaile izan behar dutenek berek (irratian, telebistan, hitzaldi-aretoetan, elizetan), maila jasoa nahitaezkoa denean ere, zabarkeriaz hitz egiten dute: *laister, derrigor, bueltatu, bueno, ikusi dizut, Ondarru, Biruatú*, eta abar, eta abar. Akademiaren arauak kontu gutxi egiten dute askok eta askok. Eta batzuek azken txokokeriak altxatzen dituzte, lekuz kanpo, hori gure hizkuntzaren muina balitz bezala.

Gure Herriak euskararen ibai zabala behar du. Eta ibai eder guztiek bezala, euskararenak ere ibai-adar ugari eta oparoak behar ditu (Oñatiko euskara da ibai-adar horietako bat). Euskara batua, guztion euskara hori, horren premian dago: hitzen eta esamoldeen premian, mendez mende bildu den altxorren premian, aspaldiko garaien oihartzunaren premian, idazle hobereenen uztaren premian. Eta beste hau ahortzi gabe: dotoretasuna eta jendetasuna. Utikan behingoz arlotekeria eta zarpailkeria! Gure hizkuntzaren besalagun txarrak dira horiek. Zeren, Kirikiñok zioen moduan, *euskarak kapelua jantzi behar du*. Ez erakusteko inor baino gehiago garelako, baizik besteak baino gutxiago ez garelako. Horrela, eta bakarrik horrela, aurre egin diezaiokegu geroari.

(Testu hau *Elkar hezi* ikastetxetxeak antolaturiko Oñatieraren inguruko 1. Jardunaldien bukaeran irakurri zuen egileak, Oñatin, Santa Ana teatroan, 2005eko apirilaren 29an.)

ETXEPARE LITERATUR SARIAK BANATU DIRA IRUÑEAN

Iruñea, 2005-V-05

*Xabier Kintana:
«Era honetako sariak mintzairaren erabilera
eta lantzea bultzatzen dute»*

Alberto Ladron eta Ruben Ruiz izan dira Nafarroako udal euskara zerbitzuek antolatu duten I. Etxepare Literatur Sariaren irabazleak. Ladron *Tunguska* izeneko zientzia fikziozko lanarekin nagusitu da helduentzako literatura sailean, eta Ruizen *Nora doa argia?* narrazioa izan da haurrentzako lanen artean irabazlea.

Sortu berri diren sari hauekin, besteak beste, Nafarroako literatur lehia-keten alorrean zegoen hutsunea bete nahi izan dute antolatzaileek. Sari-emate ekitaldia maiatzaren 5ean izan zen, Iruñean. Udal ordezkariekin batera, Xabier Kintana eta Andres Iñigo euskaltzainak izan ziren ekitaldian.

Honela mintzatu zen Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria:

Euskaltzaindiaren izenean, Etxepare literatur sari honen antolatzaileoi eskerrak eman nahi dizkizuet honako inbitazioagatik. Gure euskaltzainburuari, zoritxarrez, gaur ezinezkoa gertatu zaio etortzea eta, beraz, haren ordezkoa nauzue. Ohore pozgarria da hemen zuekin egotea gure hizkuntzaren aldeko ekitaldi honetan. Euskaltzaindia, dakizuenez, hizkuntzaren arautze eta ikertzeaz gainera, batez ere hizkuntzaren biziaz arduratzen da, eta beraz begi on-onaz dakuski era honetako ospakizunak, mintzairaren erabilera eta lantzea bultzatzen dutelako.

Gure ustez, hizkuntzak, harreman eta zeregin formaletarako ez ezik, atseginerako eta gozamenerako ere izan behar du, eta literatur lanek bete-betean egin dezakete funtzio hori. Hiztunari gozatzeko parada ematen ez dion hizkuntzak nekez eginen du aurrera.

Ahokotasuna garrantzitsua izan da oso gure literatur tradizioan. Gaur egun ere, ahokotasuna berriz indartzen ari dela dirudi. Horren ondoan, idatzizko jarduna ere ezinbestekoa da, eta idatzizkoaren barruan literatura ezin-

besteko osagaia dugu. Hizkuntza ororentzat da mesedegarri idatzizko literatur lanak sortu eta hedatzea.

Euskarazko literaturak mendetako ibilbidea egina dauka. Ibilbide horretan, euskara batuaren sorrera eta hedatzea, Euskaltzaindiak gidatuta, mugarri garrantzitsua izan da. Horren erakusgarri dira, esaterako, gaur egun sortu eta argitaratzen diren hainbat lan, baita gisa honetako sarietara aurkezten direnak ere. Euskaltzaindiak txalotu egiten du honelako ekimenetan egiten den ahalegina.

Literatur Sariak hainbat idazleren lanaren pizgarri izan dira eta gure aurrekoek ere arras ongi zekiten hori, Anton Abadia zuberotarrak adibidez, XIX. mendean Iparraldean Lore-Jokoak antolatu zituenean. Literatur deialdi hauek oso egokiak izaten dira, alde batetik, idazle berriak euskal alorrera erakartzeko, eta, aldi berean, lehenagotik lanean ari zirenak ere beren lanean bermatu eta aitzinatzen.

Ez dezagun ahantz idazleak hitzaren, mintzairaren artistak direla. Beraiei esker hizkuntzak bide, forma eta tankera berriak eskuratzen ditu, ez-ohiko soinetan jantzen zaigu, hitzunen begi-belarrietarako are ederrago, are interesgarriago, are erabilgarriago, bihurtuz. Hortaz, euskarazko literatura, sormena, produkzioa... euskararen normalizazioaren bultzatzaile dira.

Euskara bultzatu, sustatu eta laguntzeko bideak asko dira, eta guztioek geure eguneroko bizimoduan, nahi izanez gero behintzat, beti topa dezakegu baten bat: adibidez, seme-alabei euskal izenak ezartzea, gure txartel pertsonala, denda edo elkartearen izena eta jatetxeko kartak elebidun jartzea, euskarazko argitalpenak erostea, errentaren aitorpena euskaraz egitea, eta batez ere, gure artean euskaraz mintzatuz, ingurukoei etsenplua eta, zergatik ez, inbidia motibagarria ere emanez. Eta sustatze-bide horretan literatur sariak ere lagungarri gertatzen dira, lehen esan dudan bezala, gure hizkuntzari sormenaren bide berriak irekitzen dizkiotelako.

Gure Bernardo Atxagak zuhurki esan bezala, hizkuntzak dira zenbat eta erabiliago are aberatsago bihurtzen diren gauza bakarrak. Hortaz, darabilgun euskara, eta erabilera horrek, ahoz, idatziz zein irakurritik, indartu, bultzatu eta edertu egingo du gure hizkuntza. Eskerrik asko guztioi, eta zorionak, bihotz-bihotzez, idazle sarituei.

EUSKALTZAIN OHOREZKO BERRIEI DIPLOMAK EMATEA

Bilbo, egoitza, 2004-XII-01

Abenduaren 17an, ohorezko euskaltzain berriei diplomak banatu zizkien Euskaltzaindiak. Ekitaldia, Bilboko egoitzan egin zen, Martin Ugalde eta Augustin Zubikarairen omenezko hilberri txostenak –Joan Mari Torrealdaiak eta Andres Urrutiak eginak, hurrenez hurren– irakurri ziren egun berean.

Orotara, 11 ohorezko euskaltzain berri izendatu zituen Akademiak, azaroaren 26an, Gasteizen eginiko osoko bilkuran. Gehienak izan ziren ekitaldian, gutxi batzuk Bilbora joaterik izan ez zutelarik.



Hauek dira ohorezko euskaltzain berriak:

1. Alvarez Enparantza, Jose Luis, «Txillardegi» (*)
2. Apezetxea, Pello
3. Artola, Koldo
4. Barrenengoa, Federico
5. Camino- Hasquet, Josep
6. Dirassar, Jean-Baptiste
7. Intxausti, Joseba
8. Lopategi, Jon
9. Oroz, Patxi
10. Orpustan, Jean-Baptiste
11. Rotaetxe, Karmele

(*) Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu arren, Jose Luis Alvarez Enparantza, «Txillardegi»k ez du onartu izendapena.

AURKEZPENAK

**BILBAO BIZKAIA KUTXA – EUSKALTZAINDIA.
PREMIOS LITERARIOS / LITERATURA SARIAK, 1958-2003**

Bilbo, egoitza, 2004-XII-02

2004ko abenduaren 2an, **Bilbao Bizkaia Kutxa – Euskaltzaindia. Premios Literarios / Literatura Sariak, 1958-2003** izeneko liburua aurkeztu zen Euskaltzaindiaren egoitzan. Liburua Aitor Arana idazleak prestatu du, Ricardo Badiola laguntzaile izan duela. BBK Fundazioaren eta Akademiaren arteko lankidetzari esker argitaratu da eta aurkezpenean, bi erakunde hauen ordezkariak izan ziren: Gorka Martinez, BBK-ren Fundazioko burua, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, Joserra Bilbao, BBK-ren Elebitasun Zerbitzua eta, haiekin batera, Aitor Arana, egilea.

BBK-k eta Euskaltzaindiak antolatzen dituzten literatur sariak 45 urte bete dituztela aitzakia hartuta, literatur sarien historia jasotzen duen liburua ar-



gitaratzea egoki ikusi zuten bi erakundeek. Gorka Martinezek esan zuen bezala, «memoria egin behar dugu eta lehendabizi, 1958. urtea oso urte zaila izan zela gogoan izan behar dugu: zaila, askatasunaren ikuspuntutik ikusita, eta zaila ere euskararentzako. Horregatik, proiektu hauek guztiak aurrera ateratzeko, euren askatasuna eta dirua arriskuan jarri zituztenak ere badirela gogorarazi behar dugu».

Historia jaso behar zen, beraz, eta holaxe egin da liburu honetan. Aitor Arana egileak azaldu zuen liburuan zer aurkituko dugun:

Bost sariei izena ematen dieten euskal literaturako bost autore ezagunen biografia –Txomin Agirre, Felipe Arrese Beitia, Toribio Altzaga, Mikel Zarate eta R. M. Azkue– eskaintzen da liburuan, sari bakoitzari dagokion atalaren atarian. Ondoren, beti kronologikoki ordenatuta, urtez urte sari bakoitza jaso duten idazlanen informazioa ematen da, informazio hori denboraren joanak galarazi ez digunean, hau da, agiriak galdu ez direnean edo jaso gabe geratu ez direnean. Sari eta alor bakoitzeko epaimahaien osaera, urte bakoitzean aurkeztutako idazlanen kopurua edo sarien diru kantitatea bezalako datuak ematen dira aurrenik sistematikoki. Jarraian, idazlan sarituen laburpena eta iruzkina irakur daitezke. Edizio argitaratuen argazki bana ere jarri da, liburuaren apaingarri.

IZEN HANDIAK LITERATURAN

Informazioa Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkaritik eta BBKren artxibotik jaso da nagusiki, baina baita komunikabideek bere garaian emandako albisteetatik ere. Izen ezagun ugari agertzen dira irabazleen artean eta hala azpimarratu zuen Jean Haritschelharrek:

Sari horiek arrakasta handia izan dute eta dute, idazle askok parte hartu baitute eta saridunen artean agertzen baitira idazle ezagunak: Txillardegi, Eusebio Erkiaga, Jon Etxaide, Txomin Peillen, Gotzon Garate, Augustin Zubikarai, Xabier Lete, Martin Ugalde, Mikel Zarate, Jon Kortazar eta bertze.

Liburua elebiduna da eta BBK Fundazioaren eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren hitzaurreak irakur daitezke. Gogoeta sakona egiteko hasiera urratsa izan daiteke ere, eta hala adierazi zuen Joserra Bilbaok:

Ez dakit nik momentu hau den egokiena azterketak egiteko, edo hobeto izango den bost urte itxarotea, sariketa hauen 50. urteurrenara arte, liburu hau berrargitaratzeko eta gaur egun katalogo antzekoa dena, saiakera bihurtzeko eta hausnarketa egiteko. Ea bost urte barru, 50. urteurrenean, ahalegintxo bat egiten dugun eta liburu hau berrargitaratzen dugun, hutsune batzuk osatuz eta batez ere, hausnarketa eta azterketa eginez, urte horietan euskal literatur sariketa hauek zelako gora-beherak izan eta zelako bideak jorratu dituzten jakiteko.

BBK - EUSKALTZAINDIA SARIAK LIBURUAREN AURKEZPENA

Egoitza, 2004-XII-01

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Jaun Andereak, egun on.

Ongi etorri egoitza honetan bildua den jende guziei, liburu hau daukagularik eskuetan *BBK eta Euskaltzaindia sariak* deritzana, 45 urteren historia kontatzen duela.

Gero eta gehiago ikusten da ekonomiak sustatzen dituela kultura eta hizkuntza gure Euskal Herrian, izan dadien Hegoaldean ala Iparraldean. Egia da Hegoaldea izan dela eredu diru-laguntzetan. Adibidez badu orain 45 urte harremanetan sartu zirela Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindia, literatura sariak sortuz, bakoitzak ematen zuela berea, Kutxak diruz hornituz saridunak eta lanak argitaratuz, Euskaltzaindiak aldiz hautaketak eginez etortzen ziren lanen artean.

Ez dezagun ahantz 1958. urtean garela frankismo garaian beraz, lotarik atzartzen dela euskal literatura eta oldar berri bat sortzen ari dela. Izan ere, utzirik alde batera Iparraldea, Hegoaldean udaberria balitz bezala lore xumeak jalgitzen dira: *Egan, Karmel, Anaitasuna, Jakin, Euskera, Zeruko Argia...* aldizkariak denak, eta ere argitaletxeak: Itxaropena, Kuliska sorta eta Auñamendi...

Duela kasik mende erdi bat euskal literaturaren sustatzeko sortzen dira literatura sariak edozein literaturak dauzkan eremuak hartzen dituela, lau izen ospetsu hautatuz: eleberriarentzat Txomin Agirre, olertiarentzat Felipe Arrese Beitia, antzertiarentzat Toribio Altzaga, eta geroago sortua saiakerarentzat Mikel Zarate. Azkenik gazteentzat, idazle berriei bidea idekitzeko nola ez hauta Resurrección Maria Azkue, lehenbiziko euskaltzainburua.

Holakorik ez zen izanen ez balute bere garaian lan egin sari horien sortzeko, gogoan ditudala Roberto Gereño, Bizkaiko Aurrezki Kutxa-ren zuzendari nagusia, Alfonso Irigoien zena, orduan idazkariordea zela, bai eta ere, bide nabar Jon Manzisidor jauna, Jose Luis Lizundia eta bertze.

Derragun ere arrakasta haundia ukan dutela eta badutela sari nagusi horiek, idazle askok parte hartu baitute eta saridunetan agertzen baitira idazle ezagunak, nahas-mahas: “Txillardegi”, Eusebio Erkiaga, Jon Etxaide, Txomin Peillen, Gotzon Garate, Augustin Zubikarai, Xabier Lete, Martin Ugalde, Mikel Zarate, Jon Kortazar... denok deitura ezagunak euskal literaturan.

Baina, iragana utziz, goazen geroari buruz, sekulan baino gehiago sendotuz jadanik dauzkagun harremanak, iraunkorrak izan daitezen eta segi dezaten hasi lana behar den itxura eta hornidura emanez lau sari nagusiei, aiantzi gabe idazle gazteen sustengua, horiek baitira euskararen eta euskal literaturaren geroa.

Azkenik nahi nuke eskerrik beroenak eskaini ene ondoan dauden BBK-ko Fundazioaz arduratzen diren Gorka Martinez eta Jose Ramon Bilbao jaunnei, segi dezagun elgarrekin luzaz hain ederki hasi den lana, bai eta ere merezi dituzte eskerrik bizienak Aitor Arana eta Rikardo Badiola jaunek, haien bilketa lana eta taiuketari esker agertzen baita egun aurkezten dugun liburu eder hau.

BBK - EUSKALTZAINDIA SARIAK LIBURU AURKEZPENA

Egoitza, 02-XII-2004

Gorka Martínez

Estamos hoy ante un hecho importante para nuestra literatura, importante porque hay una historia que pensábamos que había que contar, que estaba por hacer y en este momento, cuando tenemos plenamente consolidados los premios literarios BBK-Euskaltzaindia y otras publicaciones en euskara, por parte sobre todo de las generaciones jóvenes, se suele tener tendencia a no acordarse de que no siempre todo ha sido así. Por eso creo que es necesario refrescar la memoria y recordar que el año 58 era un año difícil; era un año difícil para las libertades y era un año difícil para el euskara. Y acordarse de que en aquel momento hubo personas que arriesgaron su libertad, su dinero muchas veces, por sacar adelante todos estos proyectos. Éste es el primer punto que habría que considerar y es de justicia reconocer todo esto.

Por otra parte, también se trataba de poner un poco de orden en toda la historia de los premios, porque precisamente por estas circunstancias difíciles de esos años de la dictadura, ha habido momentos y publicaciones que no se situaban muy bien, que no conocíamos con seguridad, teníamos también lagunas en algunos años, incluso por no saber si el concurso se había realizado o no.

Entonces nos pusimos manos a la obra la Academia y la BBK. Se encargó hacer un trabajo de investigación a Aitor Arana; Aitor Arana desbrozó los archivos de Euskaltzaindia, los de la BBK, todo lo que encontró por todas partes, hasta conseguir terminar su trabajo. De él se desprendía que ha habido más de 80 autores premiados, que entre ellos está toda la élite de nuestra literatura actual, me refiero a 80 escritores, sin contar a los premios actuales Azkue, juveniles e infantiles.

Una vez obtenido el estudio nos planteamos realizar la publicación y decidimos que fuera bilingüe, porque también nos parecía importante dar a conocer, tanto a la comunidad castellano parlante de nuestro País, como a los castellano parlantes de otros lugares, toda la labor realizada a lo largo de to-

dos estos años y la importancia artística desde el punto de vista literario de las obras premiadas.

Creo que al final el libro cumple con creces su finalidad y, de todos modos, será el público y todos vosotros quienes juzgaréis si está bien hecho, si hay cosas mejorables, aunque creo que se ha realizado a conciencia.

Por último, sólo me queda pasar al capítulo de los agradecimientos y habría que agradecer en primer lugar a Aitor Arana su magnífico trabajo de investigación, agradecer también a los autores de todos estos años, tanto a los premiados, como a los no premiados, su participación y el empeño que han puesto; por supuesto, a las personas de los distintos jurados que han participado durante todo este tiempo. Y por último también quería destacar a dos personas, que sin ellas estos premios no serían lo que han sido, uno es el tristemente fallecido Jose Mari Larrarte y el otro Leopoldo Zugaza que está aquí entre nosotros, este titán de la cultura vasca tanto en el terreno literario, como en otros muchos al que nuestra sociedad tanto debe, y cómo estas cosas hay que decirlas públicamente. Eskerrik asko, Leopoldo. Por supuesto, y para terminar, a todas las personas de la Academia, a sus distintos presidentes y en concreto a Jean Haritschelhar, presidente actual, que ha creído plenamente en los premios, los ha apoyado, los ha difundido y prueba de ello es que estamos aquí hoy. Nada más. Eskerrik asko.

BBK-EUSKALTZAINDIA LITERATURA SARIAK 1958-2003

Bilbo, 2004-XII-02

Aitor Arana

Gauza jakina da Bilbao Bizkaia Kutxa izen horrekin sortu zenetik Euskal Herrian zaharrena den euskal literaturako saria lankidetzan babesten eta bultzatzen dutela Aurrezki Kutxa honek eta Euskaltzaindiak. BBK bera 1990ean sortu zen lehenagoko Bizkaia Aurrezki Kutxaren eta Bilbo Aurrezki Kutxaren bateratzearen eraginez. Ez du horrek esan nahi, ordea, BBKren eta Euskaltzaindiaren lankidetzak ordutikoa denik: askozaz zaharragoa da, Akademiak *Txomin Agirre* lehiaketa bideratzeko babesa izan baitzuen Bizkaia Aurrezki Kutxaren eskutik, 1958tik hasita. Lehenago ere izan ziren biek babes-tutako sariketak, baina zalantzarik gabe euskaldunen gogoan ongien gordetzen dena *Txomin Agirre* izenekoa da.

Txomin Agirre eleberri saria, ordea, ez zen luzaroegi izan bakarrik. *Felipe Arrese Beitia* Saria sortuko zen gerora olerki alorrean, *Toribio Alzaga* Saria antzerkian geroago, eta *Mikel Zarate* Saria saioan, luzamendu handirik gabe. Gainera, 1991tik aurrera, ordura arte helduentzat izandako *R.M. Azkue* Saria gaztetxoentzako ipuin eta olerki alorretako sari bihurtu zen. Harrezkero, bost sari hauek urtero-urtero gauzatu eta eskaini ahal izan dira, esan bezala, BBKren eta Euskaltzaindiaren lankidetzari esker.

Honen guztiaren berri jaso daiteke Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan aurkeztu den *BBK-Euskaltzaindia literatura sariak. 1958-2003* liburuan. Eta, oro har, liburu honen helburua bost sari garrantzitsu eta ezagun hauen nondik norakoen berri ematea bada ere, ez da hori bertan aurki daitekeen informazio bakarra. Dagoeneko berrogeita bost urte bete dituen sariketaren berri emateaz gain, saritu eta argitaratu diren egileen eta euren idazlanen aurkezpen txukuna egiten zaigu bertan.

Liburua elebiduna da –euskaraz eta gaztelaniaz– eta egitura sinplea du irakurlearen kontsulta edo irakurketa errazteko asmoz. Bost sariei izena ematen dieten euskal literaturako bost autore ezagunen biografia eskaintzen da liburuan, sari bakoitzari dagokion atalaren atarian. Ondoren, beti kronologiko ki ordenatuta, urtez urte sari bakoitza jaso duten idazlanen informazioa ematen da, informazio hori denboraren joanak galarazi ez digunean, hau da, agiriak

galdu ez direnean edo jaso gabe geratu ez direnean. Sari eta alor bakoitzeko epaimahaien osaera, urte bakoitzean aurkeztutako idazlanen kopurua edo sari-
rien diru kantitatea bezalako datuak ematen dira aurrenik sistematikoki. Ja-
rrian, idazlan sarituen laburpena eta iruzkina irakur daitezke. Edizio argita-
ratuen argazki bana ere jarri da, liburuaren apaingarri.

Orain artean deskribatu dugunak liburuaren muina eta hezurdura osatzen
ditu, baina «Sarrerako» hitzak irakur daitezke horrez gain eta, garrantzitsua-
goa dena, Jean Haritschelhar euskaltzainburu jaunaren «hitzaurrea».

Liburuaren atzealdean, berriz, eta dagoeneko aipatu dugun muinaren on-
doren, helduentzat diren lau sarietan urtetik urtera irabazle azaldu diren egile-
en biografiak ere topatuko dira. Azkenik, egile hauen beraien aurkibide ono-
mastikoa ere kontsulta daiteke.



Liburua eta beraren ezaugarriak alde batera utzita, ezin aipatu gabe utzi
lan honen eta, azken batean, BBK-Euskaltzaindia sari-
en alde gizatiarra: sari-
antolatzaileak, epaimahaikideak, eta idazlanen egileak. Asko dira berrogeita
bost urteotan sari hauen aitzakian Euskaltzaindiaren egoitzatik igaro diren egi-
leak, laurogeitik gora bai: batzuk ezezagunak zaizkio irakurleari, beste asko
ezagunak ditu, eta idazle profesionalak ere badira tartean. Ezinezkoa da he-

men denak aipatzea eta, horregatik, agian arrasto handiena utzi dutenak aipa genitzake hemen, hori egiteak beti ekarri ohi duen arriskuarekin.

Egile onak eta ahantzezinak aipatzen hasita, ezin ahaztu Augustin Zubikarai eta Martin Ugalde. Bi hauek *Txomin Agirre* eta *Toribio Altzaga* sariak jasotakoak izateaz gain, aurtan joan zaizkigu eta bihoakie gure gomutarik bihotzekoena. J. L. Alvarez «Txillardegia», Txomin Peillen, Patri Urkizu, Jon Kortazar eta Xipri Arbelbide, besteak beste, sari hauek merezi izan dituzten egileak dira. Egileen alorrera etorri garenez, aipa dezagun –bitxikeria moduan eta jaiotza dataren arabera emanik– nortzuk diren literatura sariketa hauetan gehien saritu diren egile helduak: Txomin Peillen, Patxi Ezkiaga, Aitor Arana eta Xabier Mendiguren dira, hurrenez hurren. Epaimahaikideen lan eskergaitza ere ez da ahaztu behar, eta eskerrak eman behar zaizkie garai zailetan literatura sari hauek aurrera modu duinean eramaten lan eskerga egin duten gizon-emakume guztiei. Hala biz.

BBK-EUSKALTZAINDIA LITERATURA SARIAK: 1958-2003

04-XII-02

Jose Ramon Bilbao

Egun on guztioi. Hemen orain arte esandakoa apur bat biribiltzeko-edo, nik historia zatitxo bat gehituko dut, zeren esaera zaharrak dioen moduan «ba-koitzari berea, Jaungoikoaren legea».

Sasoi haietan, orain dela 45 urtetaz gabiltza berbetan, gaur egun Bilbao Bizkaia Kutxa dena, aurrezki kutxa desberdin bi ziren, bata Bizkaiko Aurrezki Kutxa eta bestea Bilbo Aurrezki Kutxa, eta Euskaltzaindiaren sari-
ketok sustatzen zituen, Bizkaiko Aurrezki Kutxa zen, beraz harena da meri-
tua. Sasoi hori 1958tik 1991ra doana dela esango nuke.

Aldiz Bilbo Aurrezki Kutxak erdarazko sari indartsu bat zeukan, «Premio Villa de Bilbao» zeritzona, eta 1975ean, euskarazko sariketa bat antolatzea era-
baki zuten, «Azkue sariketa» sortuz. Sariketa hau lehenengoko 3-4 urteetan
zarata handi barik pasatu bazen ere, gerora indarra hartu zuen eta aztertzea
merezi duen gauza bat gertatu zen: sariketa berri hau indartzen joan zen hei-
nean, Euskaltzaindiaren sariketan hutsune antzeko bat gauzatu zen eta 1979tik
1989ra doazen urteetan, eleberri sariketak hutsik gelditu ziren. Bitartean,
Azkue sariketak, gaur aurkezten dugun liburu honen bigarren partean agertzen
denak, egungo euskal literaturan asko entzuten diren izenak bereganatu zituen.
Irabazle batzuk aipatzearren: Joan Mari Irigoien, Joseba Sarrionaindia, Gotzon
Garate, Jean-Louis Davant, Tere Irastorza, Xabier Amuriza, Juan Cruz Igera-
bide, Juan Luis Zabala, Jon Casenave, Laura Mintegi, Edorta Jimenez, Mario
Onaindia, Patziku Perurena, Patxi Ezkiaga, Eukene Martin, Eduardo Gil Bera
eta azkena Aitor Arana, gaurko liburuaren egilea bera.

Gero, 1990ean aurrezki kutxa biok bat egin zuten eta Bilbao Bizkaia Ku-
txa sortu eta literatur sariketak ere bateratzea erabaki zen. Ondorioz, 1991etik
aurrera Euskaltzaindiko sariak baino ez ziren gelditu.

Ez dakit nik momentu hau den egokiena azterketak egiteko, edo hobeto
izango den 5 urte itxarotea, sariketa hauen 50. urteurrenara arte, liburu hau
berrargitaratzeko eta gaur egun katalogo antzekoa dena, saiakera bihurtzeko
eta hausnarketa egiteko. Hau da, gaur aurkezten dugun liburu honetan, datu

bilketa bat dator eta hutsuneren bat ere badu, gizakiok egiten ditugun gauza guztiek duten moduan, Azkue sariketaren irabazleen artean, esate baterako.

Aipatzekoa da, Azkue sariketak 3 atal zituela, bi literaturazkoak (eleberria eta olerkia) eta beste bat «ikerlana» zeritzona. Geroago gazteei zuzendutako atal bat ere izan zuen. Aurrezki kutxa biok bat egitearekin batera, sariketak batu zirenean, ikerlanari dedikatutako atala desagertu egin zen. Egia esan, gaur egun ez dakit funtzio handirik edukiko lukeen, baina sasoi hartan behintzat, euskaraz buruturiko tesi eta tesinak saritzeak merezi zuen, egileen adorea eta euskararen gaurkotze bidean egiten zuten lan handia saritzen baitkenuen. Saritutako batzuk, urrats handiak egin dituzte ordutik hona eta euren artean, euskal gizarteari eta hizkuntzari ekarpen garrantzizkoak egindakoak daude. Aipatu egingo ditut: Iñaki Antiguada, Juan Mari Agirregabiria, Ana Mari Zubiaga, Pello Salaburu, Martxel Ensunza, Martin Olazar, Jose Ramon Etxebarria, Patri Urkizu, Iñaki Irazabalbeitia, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Eusebio Osa, Jose M^a Pitarke eta Andoni Sarriegi. Esan dudanez, sariketa hori desagertu egin zen eta sarritan galdetu izan digute, ea berriz ez genuen aterako eta nire erantzuna beti izan da berbera: urte haietan lekua zeukala, baina gaur egun unibertsitatean gauzak asko aldatu direla eta agian beste bide batetik jo beharko genukeela.

Amaitzeko lehen esan dudana errepikatu gura dut: ea 5 urte barru, 50. urteurren horretan, ahalegintxo bat egiten dugun eta liburu hau berrargitaratzen dugun, hutsune batzuk osatuz eta batez ere, hausnarketa eta azterketa eginez, urte horietan euskal literatur sariketa hauek zelako gora-beherak izan eta zelako bideak jorratu dituzten jakiteko. Besterik ez. Eskerrik asko.

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARIAK

Bilbo, egoitza, 2004-XII-10

2004ko abenduaren 10ean, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak batera antolatzen dituzten eleberri, antzerki, olerki eta saiakera-sarien irabazleen izenak jakinarazi ziren. Sari-ematea Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, egin zen.

Ondoko hauek izan ziren 2004ko deialdiaren irabazleak, sariak eta epaimahaikideak:

- **Txomin Agirre eleberri-saria:** Juan Jose Ispizua Hormaetxea. Lana: *Harizpeko neskaren afera*
Saria: 8.000 euro.
Epaimahaikideak: Maria Jose Olaziregi, Txomin Peillen eta Ana Toledo.



- **Toribio Altzaga antzerki-saria:** Pantxo Hirigarai. Lana: *40 urteak*
Saria: 5.000 euro.
Epaimahaikideak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- **Felipe Arrese Beitia olerki-saria:** Aintzane Galardi Portu. Lana: *Itoti urdinaren azpian*
Saria: 5.000 euro.
Epaimahaikideak: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- **Mikel Zarate saio-saria:** Xabier Agirre Urteaga. Lana: *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?*
Saria: 6.000 euro.
Epaimahaikideak: Aurelia Arkotxa, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Esan bezala, sari-ematea Euskaltzaindiaren egoitzan egin zen, Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren gidaritzapean. Harekin batera, Gorka Martinez BBK-ren Fundazioko burua, Joserra Bilbao BBK-ren Elebitasun Zerbitzuburua eta Txomin Peillen euskaltzaina eta Literatura Ikerketa azpibatzerdeko kidea izan ziren.

Lau sari nagusiak iragarri ziren ekitaldi berean, epaimahaikideek sari guztiak emateko arrazoia azaldu zuten. Hala bada, Txomin Agirre sariaren epaimahaikideen izenean, Txomin Peillenen

misteriozko gertakariak kontatzeko eta ez kontatzeko orduan –isiltasuna oso garrantzitsua baita– idazleak erakutsitako maitasuna

azpimarratu zuen, Juan Jose Ispizuaren *Harizpeko neskaren afera* izeneko eleberrian.

Toribio Altzaga antzerki sariaren Patri Urkizu epaimahaikidea, aldiz, horrela mintzatu zen Pantxo Hirigarairi *40 urteak* lanaz:

40 urteak antzerkia oso barrutik ezagutzen duen pertsona baten lana dela antzeman genuen berehala. Trufa eta seriotasuna oso ongi nahasten ditu eta gainera, oso euskara bizia du.

Ondoren, Lourdes Otaegik hartu zuen hitza, Aintzane Galardiren *Itoti urdinaren azpian* lanaz jarduteko:

Urruntasunari, nostalgiari eta mugagabetasunari buruzko poemak biltzen dituen lana

dela esateaz gain, abangoardiako obratzat jo zuen Otaegik,

letra moten baitan egindako eraldaketa piktorikoagatik ere. Oso testu artistikoa da. Edukia, berriz, franko iluna da: desolazioa, mina eta iruditeri onirikoa nagusitzen dira.

Xabier Agirreren *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?* liburuaren kasuan, berriz, Adolfo Arejitak irakurri zuen Antton Aranburuk idatzitakoa:

Askatasuna eta berdintasuna kontzeptu filosofiko gisa aztertu ondoren, gaurko pentsamendu politikoaren kezka eta erronka nagusi den pluralismoaren kudeaketa da liburuko aztergai berezietako bat. Bi horien ondoren, giza eskubideak dira hirugarren kontzeptu nagusia. Demokraziaren oinarri teoriko baterako hurbilpen bat genuke liburua; halaber hurbilpen teorikoa, egile beraren ondorengo lanen batean aipatu kontzeptu guztiok egungo errealitatean nola aplikatu daitezkeen ikusteko zain.

BIGARREN SARIA

Horren ostean, Joserra Bilbaok hartu zuen hitza eta zera adierazi:

Sariketa guzti hauek, idazle berriak ezagutzera emateko balio izan dute eta lehenengoz sarituak izan diren asko, gero euskal literaturako izen handi bihurtu izan dira. Adibiderik ez dut aipatuko, sarritan egin izan dugulako, baina euskal literaturako egile handienak hantxe agertzen dira eta zuei ere gauza berbera opa dizuet, hemendik urte batzuetara Euskal Herriko idazle handi bihur zaitezten.

Bestalde –esan zien saridunei– kontuan izan, irabazi duzuen sariketa hau ez dela edozein sariketa, zeren batetik, Euskaltzaindiaren izena baitaroa, euskal erakunde gorenarena, eta bestetik, epaimahaikoek nortzuk diren ikustea baino ez dago, sari hori ez dizuela edonork eman jakin dezazuen.

Bukatzeko, aurretiaz Joserra Bilbaok egin bezala, saritutako lanak argitaratzen direla gogora ekarri zuen Jean Haritschelharrek:

Nik uste dut idazle batentzat, lehenik sari bat ukaita eta gero, ikustea bere liburua publikatua, argitua, beretzat, hori bigarren sari bat da.

BBK-EUSKALTZAINDIA:
R. M. AZKUE LITERATURA SARIKETA

Bilbo, egoitza, 2005-III-02

2005eko martxoaren 2an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, 2004ko Resurreccion Maria Azkue Literatura sariak irabazi zituzten idazle gazteen izenak jakinarazi ziren, baita sariak banatu ere. Gauza jakina denez, Euskaltzaindiak berak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak dira.

Hauxe izan zen edizio honetako partaidetza kopurua:

A mailan, narrazioan: 79 lan.

A maila, olerkian: 33 lan.

B maila, narrazioan: 96 lan.

B maila, olerkian: 47 lan.

EPAI MAHAIKOAK

Urtero bezala, aurtan ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, beti ere Euskaltzaindiak izendatuta. Aurtengo epaimahaikoak hauek izan dira:

A mailan: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni eta Amagoia Lopez de Larruzea Zarate.

B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

SARIDUNAK

A mailako epaimahaikoek honako sariak emateko erabakia hartu dute:

Narrazio alorrean

– Lehen Saria: *Ama*. Egilea: Enma Arestegi (Hazparne, Lapurdi). Kanboko Xalbador ikastetxeko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

- Bigarren Saria: *Denboran barrena*. Egilea: Laida Zabala (Donostia, Gipuzkoa). Donostiako Lauaizeta ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Maria Eugenia Lozano.
- Hirugarren Saria: *Patuaren menpe*. Egilea: Sara Insausti (Ordizia, Gipuzkoa). Urdaneta eskolako ikaslea. Laguntzailea: Maixabel Aristimuño.

Olerki alorrean

- Lehen Saria: *Bihotza uhinetan, uhinak bihotzean*. Egilea: Enma Ares-tegi (Hazparne, Lapurdi). Kanboko Xalbador ikastetxeko ikaslea. Laguntzailea: Pruden Sudupe.
- Bigarren Saria: *Hegoa (Ilobaño zenduari)*. Egilea: Lorea Sabarots (Hiriburu - Lapurdi). Kanboko Xalbador Kolegioko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.
- Hirugarren Saria: *Soka artean*. Egilea: Iraitz Ugalde (Lezo, Gipuzkoa). Lezoko Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Jon Puy.

B mailako epaimahaiakoek, berriz, honako erabakiak hartu dituzte:

Narrazio alorrean

- Lehen Saria: *Triste nago*. Egilea: David Fernandez (Santurtzi, Bizkaia). Asti Leku ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Victoria Fernandez.



- Bigarren Saria: *Askatasunak larrosa usaina du, baina...* Egilea: Garazi Ansa (Oiartzun - Gipuzkoa). Haurtzaro ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.
- Hirugarren Saria: *Harresi gorriak*. Egilea: Antton Alberdi (Elgoibar, Gipuzkoa). Elgoibar Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Andres Alberdi.

Maila honetan, epaimahaikoek ondoko lanak argitaratzeko gomendioa eman dute:

- *Ispilu atzeko deabrua*. Egilea: Amaia Rodriguez (Bergara, Gipuzkoa). Aranzadi ikastolako ikaslea.
- *Mugagabearen mugatasun irreal*a. Egilea: Ane Badiola (Oiartzun, Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.

Olerki alorrean

- Lehen Saria: *Engoitik Ithakan*. Egilea: Miren Estibaliz Vivanco (Bilbo, Bizkaia). Lauro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Leire Arantzamendi.
- Bigarren Saria: *Bakarrizketan diharduten zuhaitzetako hosto lehorrak*. Egilea: Olatz Mitxelena (Oiartzun, Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.
- Hirugarren Saria: *Aspaldi alde egindako eta oraindik gogoan dudan aitonari*. Egilea: Haritz Casabal (Pasai Antxo, Gipuzkoa). Pasaia-Lezo Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Julen Ezkurdia.

Epaimahaiko kideek ondoko lanak argitaratuak izatea eskatzen dute:

- *Itsas aparrak narama*. Egilea: Garazi Ansa (Oiartzun, Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.
- *Nortasunaren saski oparoa*. Egilea: Ane Badiola (Oiartzun, Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.

Esan bezala, sari-emate ekitaldia Bilbon egin zen, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Gorka Martinez BBK-ren Fundazioko buruak eta Joserra Bilbao BBK-ren Elebitasun Zerbitzuburuak parte hartu zutelarik. Bestalde, Igone Etxebarriak eta Jabier Kaltzakortak, epaimahaikideen izenean hitz egin zuten.

Horiek guztiek idazle gazteei zorionak eman eta animatu zituzten

–«Euskal Herriaren bazter eta lurralde guztietatik datoz idazle berri horiek eta euskarak duen bizitasunaren seinale argiak dira»,

esan zuen Euskaltzainburuak– eta hilabete batzuen buruan liburua argitaratu-ko dela gogorarazi zien. Joserra Bilbaoren hitzetan,

«gogoratu, gaurkoa sariaren erdia baino ez dela. Beste erdia, hemendik hilabete batzuetara hartuko duzue, Euskaltzaindiaren babesaren duen liburua batean zuen lana argitaratuta ikustean».

ZALDUTIK ZALDIBARRERA, Onomasticon Vasconiae, 24

Zaldutik Zaldibarrera. Toponimian barrena izeneko liburua bi aldiz aurkeztu zen: martxoaren 9an, Euskaltzaindiaren egoitzan, eta bi egun geroago, martxoaren 11n, Zaldibarko Udaletxean. Lehenengo aurkezpenean, Nerea Garitagoitia Zaldibarko alkateordea, Jose Luis Lizundia Onomastika batzordekidea eta Alberto Errazti egilea izan ziren. Bigarrenean, aldiz, Igor Barrenetxea-Arando Zaldibarko alkatea, Gotzon Lobera Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendaria, Patxi Goenaga Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Jose Luis Lizundia eta Alberto Errazti izan ziren.

Liburua Zaldibarko Udalaren enkarguz gauzatu ahal izan da. Alberto Erraztirekin batera baina maila teknikoan, Euskaltzaindiak hala izendatua, Fernando Aranberri aritu izan da lanaren gainbegirale gisa. Zaldibarko Udala, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Saila, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa izan dira argitalpenaren babesleak.

Aurkezpenetan azaldu zen bezala, *Zaldutik Zaldibarrera. Toponimian barrena* izeneko liburua Euskaltzaindiak argitaratzen duen *Onomasticon Vasconiae* bildumaren 24. liburukia da. Zaldibarko toponimo historikoak eta egun bizirik dirautenak biltzen dituen liburu honen esparrua Zaldibarko udalerria izan da eta haren helburua ondoko hauxe: Zaldibarko leku izenak biltzea, arautzea eta kokatzea. Liburua, orain dela hiru urte hasitako ibilbide baten azken emaitza dugu. Alberto Errazti berak azpimarratu zuen legez,



«belaunaldi zaharrenekin batera betiko leku izenak galtzen ari direna ez dago ukatzerik eta kezka hori gero eta zabalagoa zen bertako euskararen aldeko taldeetan».

Ikerlanaren metodologiaz hau esaten zuen egileak, metodologia globalaren aldekoa dela, hots, baliabide teknikoek eskaintzen dituzten aukera guztiak baliatuz, horien bidez toponimoen konplexutasun osoa aztertzearen aldekoa. Hauxe da, hain zuzen ere, liburu honetan aurkeztzen dena: leku izenen zerrendak auzoz auzo, XVII. mendeko dokumentuetatik zelan bilakatu diren, gaur eguneko kokapena eta nola ahozkatzen diren, berriemaileen kontakizunak eta, datu guztiak apaintzeko, hainbat urtetako 300 argazki.

NORMALIZATZEN LAGUNDU

Bestalde, Jose Luis Lizundiak, liburuaren garrantzia azpimarratze aldera, hala esan zuen:

«Toponimia nagusiaz gain, hots, herri eta auzo izenez landa, argitalpen honek leku izen txiki eta handi aztertzen eta finkatzen ditu. Azken baten ikertzaile baten lana, euskal toponimia, askotan baztertua, normalizatzen laguntzea da eta egia esan, saiatu bakarrik ez, lortu ere egin du. Euskara orainsu arte, 1982 arte, hain zuzen, ofiziala izan ez denetik, arlo honetan ere normalizatze/normatibizatze/arautze premia larrian izan da eta, horretarako, ezinbesteko lanabes dira honelako ikerketa eta argitalpenak. Zeren eta, ikerketarik gabe ezin da hizkuntza bat ondo normalizatu, ez arautu».

Erraztiren esanetan, *Zaldutik Zaldibarrera. Toponimian barrena* liburuaren ekarpenik garrantzitsuenetakoa dokumentuen arloan datza, orain arte egin ez den bezala, katastro zahar eta berriko datuak kontuan hartu eta eskrituretatik ateratakoekin uztartu direlako.

Alberto Errazti, Euskal Filologian lizentziatua da. Euskal hizkuntza eta literatura irakaslea da, Durangoko Institutuan. 1989tik Deustuko Unibertsitateko Deiker Instituturako ahozko toponimiaren bilketa-lanak egin ditu Araban eta Bizkaian. Haren argitalpenen artean *Bizkaiko Bira* (1990) mendi gidaliburua dugu bai eta *Iurreta elizateko euskara eta toponimia* (1994) ikerlana ere.

BERTSOAK

Zaldibarko Udaletxean egin zen aurkeztearen hasieran, Garikoitz Sarriguarte Onaindiak honako bertso hauek kantatu zituen:

Arratsaldeon, ondo etorri
ez dago esan beharrik
señalatuta gendun egun hau
ez madrildarrek bakarrik

gure herriko toponimiaz
osatu da lan edarrik
gaur ezin leike triste sentidu
Zaldibarko herritarrik.

Liburu batek zenbateraño
leiken pertsona alaittu
egillearen hiru urteko
lana behar da jarraitu
datu guztiak sailkatuz hasi
liburu bataz amaittu
dirurik ez dau ekarri baña
asko aberastu gaittu.

Azken bertsoa esker emonaz
doa komeni dalako
Euskaltzaindiai lelengo ta behin
argitarau dabelako
datu-emoille ta erakundeei
bardiñ eskertu beharko
ta amaitzeko egilleari
Alberto eskerrik asko.

HIL BERRIAK

JOSE MARI LARRARTE ETA JOSE GARMENDIA GOGOAN

*Jose Antonio Mujikak eta Jose Luis Lizundiak
eginiko hilberri-txostenak irakurri ziren joan den ostiralean
Gipuzkoako Foru Aldundian*

Apirilaren 22an, arratsaldeko 5etan, Gipuzkoako Foru Aldundian, ageriko bilkura egin zuen Euskaltzaindiak, hilberri-txosten hauek irakurtzeko:

- Jose Antonio Mujikak, Jose Mari Larrarte euskaltzain ohorezkoaren hilberri-txostena egin zuen.
- Jose Luis Lizundiak, Jose Garmendia euskaltzain urgazlearena egin zuen.

Jose Mari Larrarte (1926-2004)

«Langile isila baina nekagaitza izana zen Jose Mari bere bizitza guztian; isila, baina emaitzetan oparoa». Jose Antonio Mujikak ez ezik, horrela ikusten zuten inguruko guztiek Jose Mari Larrarte zena. Mujikak esan zuenez, hiru aldi handi bereiz daitezke Jose Mariren ibilbide profesionalen: lehenbizikoa, gaztetxoan irakasle, pasiotarren ikastetxeetan batez ere (1951-1976); bigarrena, helduen irakasle Iruñean (1976-1981); eta hirugarrena, itzultzaile Gasteizen (1981-1991).

Lehen etapan, pasiotarren etxean jardun zuenean, euskararen irakaskuntzari lotu zitzaion. Eta irakaskuntzaren bitartez, azpimarratu zuen Mujikak,

ikusten dira argi haren lanak, bere bizitza guztian izan zituen ezaugarri bi: praktikotasuna eta apaltasuna. Helburuari zuzen lotzen zitzaion irakaskuntza zen harena: ikasle euskaldunek etxetik zekarten euskara, aurrerantzean jakinaren gainean eta, behar bazen, zuzenduta menderatzea zen orri haien helburua, eta hartara jotzen zuten zuzenean, bestelako azalpen eta betelanean nahasi gabe. Eta apaltasuna, bestalde. Ez zen Jose Mari bere burua erakutsi zalea. Ez zen ohore-gose eta txalo-bila ibiltzen diren horietakoa. Besteei eskainitako zerbitzua, horixe zuen nahiko sari.

Pasiotarren Gabiriako eta Eubako, Zornotzan, ikastetxeetan irakasle ibili ondoren, Irunen eta Urretxun izan zen, harik eta Iruñera bidali zuten arte. Orduantxe hasten da, Larrarteren bizitzan, Jose Antonio Mujikak bereizten duen bigarren etapa.

Udako ikastaroak antolatzeraz eta eskolak emateraz joateko eskatu zioten –esan du txostengileak– eta gero, 1977tik aurrera ardura berriak izan zituen. Iruñeko Irakasle Eskolako Euskararen katedraren arduraduna izan zen lau urtez, 1977. urtean hasita; eta Hizkuntza Eskolako irakaslea ere izan zen, hau sortu ze-

netik, hau da, 1977. urtetik aurrera. Eskola horretarako material didaktikoa ere sortu zuen, Euskara Bizitik izenekoa.

Hirugarren etapa 1980an hasi zen, Gateizen

Iruñera bezala Gasteizera ere bestek deituta joan zen. Ohargarria da hori: bera ez zen inoiz postu bila lehiatu,

Legebiltzarreko itzultzaile gisa. Hamar urte egin zituen bertan. Gero, erretiroa hartuta, Erromara bidali zuten agintariek, artxibistika ikastera urtebetez. Handik Deustura etorri zen, kongregazioko artxiboan lan egitera.

Irakasle, itzultzaile, artxibista..., ondo betea izan zuen beti, esan bezala, eguna. Denbora gutxi geratzen zitzaion, tamalez, gustuko zituen beste eginkizun batzuetan aritzeko.

Euskaltzaindiaren baitan, gogorarazi zuen Mujikak, Gramatika batzordeko kidea izan zen Larrarte, baita Azkue Biblioteka eta Lexiko Ebazpen Finkapenerako batzordeetako ere. Gramatika batzordean lanean diharduen Jose Antonio Mujikak esan duenez,

ziurtasuna ematen zigun, euskararen ezagutza sakona baitzuen.

* * *

Jose Garmendia (1925-2005)

Jose Garmendiaren zenbait datu biografiko aipatu ostean, Sevillan igarotako urteak bereziki inportantetzat jo zituen Jose Luis Lizundia, euskaltzain osoak, «ikerketarako bidea zabaldu baitzituen». Ezaguna den bezala, Indietako Artxiboak ikertu zituen modu sakonean. Hori dela eta, Euskal Herrian ez ezik, Andaluziako ikerleek ere ezagutzen dute Jose Garmendia, Lizundiak azpimarratu zuenaren arabera. Hala bada, orain dela sei urte Puerto de Santa Marian zegoela, Garmendiaren berri eman ziotela azaldu zuen:

Durango kalea ikusi eta Udaletxera deitu nuen; hiriko kronistarekin mintzatu eta honek, berehala, Garmendiarekiko ezagupidea azaldu zidan. Zaldibiarrari deitu eta biengandik enteratu nintzen euskaldun askok partaidetza izan zutela Puerto de Santa María hiri aberatsaren historian.

Cadiz eta Sevilla hiriek euskal exonimoak izan omen zituzten: *Karize* eta *Sibilia*. Bada, Lizundiak esan zuenez,

Inork ikertu baditu Sibilia eta Karizeko merkataritza eta itsas harremanak, batez ere giputz-bizkaitarrekin, gure goierritarra izan da. Noski, *Boga boga* kantak esango lukeen bezala, Indietara joandako zientoka euskaldunen testamentu, gutun, dokumentu, aberastasun, nahiz pobrezia, hark estudiatu ditu.

Eta eskaria agertu zuen ondoren:

Gaur eta hemen, hainbeste liburuki eta aldizkaritan sakabanatutako bere idazlanak norbaitek batzea eta argitalpen bilduma baten paratzea eskatuko nuke, foru erakundearen babespean. Aitorpenik hoberena litzateke, Euskal Herriaren historiaren alderdi ez hain ezagutua eskura izango baikenuke.

Jose Garmendiak, Juan Inazio Iztueta Zaldibiako idazle eta dantza ikerlearen bitzita eta lana ere sakon ikertu zituela gogora ekarri zuen Jose Luis Lizundiak:

Inork aztertu, ikertu eta argitaratu badu zaldibiar famatu hura, Jose Garmendia izan da. Zinetan deitu genezake *iztueto*logo nagusia.

Euskaltzalea zen Garmendia,

Gipuzkoaren historian ugari izan diren ideologia tradizionalistako gizon jakitun eta kezkatsu andanaren azkenetarikoa izan dela esango nuke,

esan zuen hizlariak. Eta modu honetan amaitu zuen:

Euskal Herriak eta, bereziki, Gipuzkoak eta Zaldibia haren jaioterriak, euskalari jakintsu bat, ikerle trebe bat, galdu dute aurtengo neguan. Gipuzkoarren Etxe Nagusi honetan esan dezaket, Probintziak –berari esatea gustatzen zitzaion bezala– zor diola oroimen koskor hau baino zerbait gehiago. Gauza bera, Zaldibiako Udalak ere, zeren eta bertako seme argienetariko bat izan baita.

JOSE MARI LARRARTEREN HERIOTZEAN (*)

Hil-ez kilak entzun dira euskaldunen lurraldean. Jose Mari itzali zaigu. Berriak ez gaitu ezustean harrapatu oraingoan, edo ez osoki ezustean. Eri baitzen aspaldixko gure adiskide ona. Ber-berak hitz egiten zuen bere osasun hauskorraz elkar ikusten genuenetan. Lasai, ordea, irriñoa galdu gabe. Barneko indarra zuen laguntza eta oinarri, eta, segur aski, San Pauloren hitz ezagun haiek zerabiltzan gogoan: «Heriotza, non dago zure garaipena? Heriotza, non dago zure eztena?» (1 Kor., 55).

Langile zintzo nekaezina genuen Jose Mari. Bizitza egokitu zitzaion leku guztietan (eta ez ziren gutxi izan) nabarmendu zen haren lana, lan isila, irakasten, iker-tzen, itzultzen. Euskaltzaindian urte askotan aritu izan da zenbait batzordetan, beti eskuzabal, beti gogotsu. Haren iritziak eta aholkuak estimatuak ziren. Hizkuntza ezagutzen zuen erro-errotik, eta euskararen sena, sen segurua, aintzat hartzen genuen.

Bizitzak horrelako gauzak ditu, eta azken eskatu genion iritzia haren herriaren izenaz izan zen. *Bidania* eta *Goiatz* izen zahar jatorrak, ahota eta paperetan betidanik ibiliak, nahi baikenituen defendatu (eta *Bidegoian* berrikeria, sasiko sorkaria, behingoz baztertu). Atseginenez entzun zidan Jose Marik Gasteizen, 16 eta 17. mendeetan *el Licenciado Bidania*, *El Lic. Bidanico* eta *el Licenciado Vidinia Medico* ageri dela Udaletxean kargudun.

Merezimendu osoz, 1987an izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle Jose Mari Larrarte, eta 2002an ohorezko euskaltzain. Haren hutsunea larria izango da. Inoiz ez dugu ahaztuko euskaltzainkide prestu eta langilea.

Betiereko atsedenean gerta dadila.

Henrike Knörr

(*) Testu hau egileak, euskaltzainburuordeak, Jose Mari Larrarte pasiotarraren hiletan irakurri zuen, Urretxun, 2004ko urriaren 25an.

JOSE MARI LARRARTE (1926 - 2004)

Joan den urriaren 25ean, Urretxuko pasiotarren elizan, azken agurra egin genion egun bi lehenago hila zen Jose Mari Larrarte euskalari zintzoari. Lagun asko bildu ginen eliza hartan eta, halakoetan egin ohi diren gogoeten artean, honako iruzkin hau entzun nien inguruan nituen guztiei: langile isila baina nekagaitza izana zela Jose Mari bere bizitza guztian; isila, baina emaitzetan oparoa.

Euskaltzaindiko Gramatika batzordean urte luzetan haren lankide, eta lagun, izana naizenez, niri egokitu zait hilberri-txosten hau idaztea eta haren oroitzapena gaur zuen aurrera ekartzea. Esan beharrik ez daukat gogoz egingo dudala.

* * *

JOSE MARI LARRARTE GARMENDIA Bidanian jaio zen, «haize handiak ibiltzen diren» Gipuzkoako goi hartan, 1926ko urtarrilaren 4an. Gaztetan joan zen pasiotarretara, osaba pasiotar baten eskutik, eta han fraideen bizitzan ohikoa zen ibilbidea egin zuen.

Ikasketak bururatu eta apaiz eginik, urtebete Gabirian irakasle egon ondoren, Afrikara joan behar izan zuen, Melillara, soldadu. Denbora alferrik samar galtzeko lekua izaten zen maiz soldadutza, baina Jose Mari ez zen alferkerian egon: soldadu eskolagabeei eskola ematen aritu zen, eta, apaiza zenez, baita kristau doktrina irakasten ere. Lan hori eginez bete zuen, bestela hutsean joango zitzaion alferreko urtea.

Handik etorrita, irakasle jarri zuten berriro agintariek, bere bizitzaren zatirik handiena beteko zuen zereginean.

Hiru aldi handi bereiz daitezke Jose Mariren ibilbide profesionalean: lehenbizikoa, gaztetxoan irakasle, pasiotarren ikastetxeetan batez ere (1951-1976); bigarrena, helduen irakasle Iruñean (1976-1981); eta hirugarrena, itzultzaile Gasteizen (1981-1991).

Aurrena, bada, pasiotarren ikastetxeetan jardun zuen. Gizon ikasia zenez, gai bat baino gehiago irakastea tokatu zitzaion. Latina, grekoa eta beste zenbait gai irakatsi zituen (1). Laster ekin zion, halere, gogobeteko zuen lanbideari, euskararen irakaskuntzari. Horrela aitortu zion Juan Luis Goikoetxeari, honek *Karmel* aldizkarian esaten di-

(1) Txosten hau Euskaltzaindiko bileran irakurri nuenean Jose Mari Iriondok esan zidanez, frantsesa eta gregorianoa ere irakatsi omen zituen Jose Mari Larrartek; oso trebea omen zen musika gregorianoaren irakaskuntzan.

gun moduan (2): «Bizitzan egin diran gauza guztien artean, harrotasuna euskara irakasteagaitik, hor mugitu naz ni eta». Horrela dio, halaber, Jose Mari hil zenean, kongregazioio arduradunak pasiotarrei bidali zien agiriak ere: «A partir de este año –lehen meza eman zuen urtetik aurrera, alegia– el P. Luis Mari –izen hori zuen, antza, kongregazio barruan– se dedicará básicamente a la enseñanza, a la educación y a la investigación de *temas euskérico[s]*, principalmente al estudio de la gramática euskelduna y todos los destinos que recibió giran casi en su totalidad en torno a esta actividad».

Hasieran, Gabiriako eta Eubako ikastetxeetan aritu zen euskara irakasle.

Nik Gramatika batzordeko bileretan ezagutu nuen aurrez aurre Jose Mari. Baina, elkarren berri gehiago izan genuenean, ohartu nintzen aspalditik egina nuela haren ezagutza, zeharka eta oharkabean bada ere. Erroman ikasle nintzela, euskaldun batzuk biltzen hasi ginen, geure euskara traketsa txukundu eta hobetzeko asmotan. Norbaitek –ez dut gogoan nork, baina gerora pasiotarren nagusi jenerala izango zen Jose Agustin Orbegozo izan zela uste dut– euskal aditza ikasteko orri batzuk ekarri zizkigun. Hain konplexua eta askorentzat zaila den aditzaren morfologia modu egokian ikasteko bidea eskaintzen zuten orri haiek. Ohikoa zen urte haietan euskaldunek, euskara lantzen hasita, aurren-aurrena aditzaren paradigma konplexuak ikasteari ekitea. Eta ikasbide bat baino gehiago sortu zen horretarako. Orri haiek ere horixe zuten helburu: aditz-morfologiaren bideetan barrena aise eta lasai ibiltzeko modua eskaintzea; morfemekin jokatzu, *nuen-etik nien, nizkien eta nizkieke* formetara, edo *nauzu*—tik *ninduzun, nazazun, nintzazun* edo *nazakezu* formetara erraz eta eroso pasatzen erakustea. Aspaldi galduak ditut orri haiek; ez zait ahaztu, ordea, hain egokiak izanik, zein laguntza handia eskaini zidaten. Eta beste zerbaite ere badut gogoan: egile-izenik gabeko orriak zirela. Inork eginak ez balira bezala ibili ziren, antza, eskutik eskura. Gerora jakin dut Jose Mariren eta beste lankide batzuen lanaren emaitza zirela (3). Haiek beren ikasleentzat egin eta, gero, hortik zehar zabaldu zirela.

Jose Mariren lanaren erakusgarri delako ekarri dut gogora gertakari hori. Hor ikusten baitira argi haren lanak, bere bizitza guztian, izan zituen ezaugarri bi: praktikotasuna eta apaltasuna. Helburuari zuzen lotzen zitzaion irakaskuntza zen harena: ikasle euskaldunek etxetik zekarten euskara, aurrerantzean jakinaren gainean eta, behar bazen, zuzenduta menderatzea zen orri haien helburua, eta hartara jotzen zuten zuzenean, bestelako azalpen eta betelanean nahasi gabe. Eta apaltasuna, bestalde. Ez zen Jose Mari bere burua erakutsi zalea. Ez zen ohore-gose eta txalo-bila ibiltzen diren horietakoa. Besteei eskainitako zerbitzua, horixe zuen nahiko sari.

Irakasle utzi dugu, bada, Jose Mari, pasiotarren Gabiriako eta Eubako ikastetxeetan. Euban batxiler-ikasketen arduraduna izan zen, eta, beste lan askoren artean, euskara ikasteko unitateak emendatu egin zituen. Ez hori bakarrik. Ikasleak euskaraz idazten treba zitezen aldizkariak sortu zituen: *Bidez* izenekoa ikastetxe barnerako eta *Laiaketan* izenekoa kanporako. Berak *Ilaunbe* eta *Lur-Gar* ezizenak erabili zituen.

(2) Juan Luis Goikoetxea Arrieta: «Jose Mari Larrateri», *Karmel*, 248.zenb., 2004-4.

(3) Jose Mariren lehengusu Aita Sarasola ere tarteko izan omen zen lan horretan, Juan Jose Zearretak jakinarazi didanez.

Hazia ereitea ere bada, jakina, irakaslearen lana, hau da, irakasten diren gaietarako zaletasuna sortzea ikasleengan. Jose Mariren orduko ikasleen artean badira euskara eta kultura-munduan lan ona egin dutenak eta egiten ari direnak, bat baino gehiago. Haien artean daude, esate baterako, Jose Mari Iriondo eta Jose Mari Zeberio kazetari ezagunak, Amerikako Estatu Batuetan irakasle ari den Joseba Zulaika, Xabier Mendiguren Bereziartu euskalaria, Euskaltzaindi honetan ari diren Ricardo Badiola eta Juan Jose Zearreta eta beste asko eta asko. Zerbait esateko balukete horiek, seguru, Jose Mariren lanari buruz...



Euban hamabi bat urte egin ondoren Iruna bidali zuten, osasunagatik, atsedena hartzeko agindu baitzion medikuak. Atsedena hartuko zuen, beharbada, bai, Irunen igarotako urtean, baina ez zen egonean egon han ere. Jose Marik ez zekien geldi egoten. Ikastola sortzeko ahaleginean zebiltzan irundar batzuk, eta haiekin aritu zen bera ere. «Ni beti ibili naz beharrean» aitortu zion Juan Luis Goikoetxeari, aipatu elkarrizketan.

Irundik, berriz, Urretxura joan zen, han ere, besteak beste, ikastolako irakasle izatera. Euskara eta kristau doktrina irakatsi zituen han zortzi urtez. Ez hori bakarrik: orduko gaztea ez bazen ere, goi mailako ikasketak egiteari ekin zion, aspaldi bereganatua zuen euskararen ezagutza sakonari jakintza eta oinarri sendoagoak emateko. Filologia Erromanikoa ikasi zuen, Donostian, Deustuko Unibertsitatean. Egunez irakasle ikastolan eta arratsean ikasle Unibertsitatean, eguna ondo betetzeko. «Ni beti ibili naz beharrean», orduan ere.

Urretxun zegoela, Iruñetik hartu zuen deia. Eta orduan hasi zen Jose Mariren ibilbide profesionalaren bigarren aldi nagusia. Udako ikastaroak antolatzen eta eskolak ematera joateko eskatu zioten. Nafarroako Diputazioak eratzen zituen Alfabetatze-ikastaro horiek eta Jose Mari aukeratu zuten antolatzaile eta irakasle. Urte askotan jardun zuen lan horretan. Gero, berriz, 1977tik aurrera ardura berriak izan zituen Nafarroako hiriburuan. Irakasle Eskolako Euskararen katedraren arduraduna izan zen lau urtez, 1977 urtean hasita; eta Hizkuntza Eskolako irakaslea ere izan zen, hau sortu zenetik, hau da, 1977 urtetik aurrera. Eskola horretarako material didaktikoa ere sortu zuen, *Euskara Bizitik* izenekoa.

Gogotik eta sasoi betean aritu zen Jose Mari Iruñeko aldi horretan. Gerora, pozik gogoratzen zituen han pasatako urteak. Egoera berezia zen ordukoa: frankismoaren tunel luzetik irten berriak, zabal zebilen euskaltzaleasuna; gogo bizia agertzen zuten ikasle askok euskara ikasteko. Eta jakina da ez dagoela motibazioa bezalako lagunarririk irakaskuntzan gustura aritzeko.

Gogoan itsatsita geratu zitzaion Jose Mariri Iruñeko aldi hori. Askotan aipatzen eta berritzen zuen lagunekin zituen solasetan.

* * *

1980an Gasteizko aldia hasi zuen. Itzultzaile lanetan murgildu zen handik aurrera, irakasle lanik handienak eginda, artean Bergarako UNED-en eskola batzuk eman bazituen ere. Iruñera bezala Gasteizera ere bestek deituta joan zen. Ohargarria da hori: bera ez zen inoiz postu bila lehiatu. «Nik ez dot goserik emon toki bila», esan zion Juan Luis Goikoetxeari. Gasteizera Josu Oregik deitu zuen, Legebiltzarreko itzultzaileen arduradunak. Euskara ondo menderatzen zutenak behar zituen lan berri eta garrantzitsu horretarako, eta ez zuen batere zalantzarik izan: Jose Mari aukeratu zuen, beste batzuekin batera. Hamar urte egin zituen Legebiltzarrean lanean, erretiroa hartu arteko hamar urteak. Lehenbiziko bostak itzultzaile, bai bat-batekoa bai testu idatzita-koa ere, eta beste bostak testu idatzien zuzentzaile.

Horretan ari zela, Euskal Filologiako ikasketak bururatu zituen Gasteizko Fakultatean, 1985ean.

Erretiroa hartuta ere ez zuen atsedenerako asti handirik izan: Erromara bidali zuten agintariek, artxibistika ikastera urtebetez. Handik Deustura etorri zen, kongregazioko artxiboa lan egitera. Eta hortxe bete zen Jose Mari Hegoaldeko lau lurraldeetan zehar egindako ibilbidea: Bizkaian eta Gipuzkoan hasi zen; handik Iruñera joan zen; Gasteizen jarraitu zuen; eta Bizkaira itzuli zen, azkenean, zikloa amaitzeko. Erretiroa hartuta ere, berriro ibili zen Tafalla, Gasteiz eta Deustura bueltan. Hegoaldeko Euskal Herria ondo ezagutzeko moduan izan zen.

Irakasle, itzultzaile, artxibista..., ondo betea izan zuen beti, esan bezala, eguna. Denbora gutxi geratzen zitzaion, tamalez, gustuko zituen beste eginkizun batzuetan ari zeko.

Gaztetan, Gabirian zegoela, saio batzuk egin zituen olerkigintzan. Orixeri erakutsi zizkion olerki haiek, eta Orixek Lizardiren ikutua zutela esan omen zion. Ez da nolanhiko iritzia!

Ikerkuntzan ere gustura aritu zen Jose Mari, hartarako egokiera izan zuenean. Tamalez, berak nahi baino gutxiagotan izan zen hori, bestelako lanek hartzen baitzioten denborarik gehiena. Gramatika-gaiak aztertzea maite zuen, batez ere. Hori erakusten du K. Mitxelenaren gidaritzapean egin zuen tesinak: «*Bait- Tartasen Ontsa Hiltzeko Bidean*». Hori, halaber, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordean egindako lan bikainak ere.

Gramatika batzordearen emaitza nagusia *EGLU* laburduraz ezagutzen ditugun *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* liburuak dira. Taldelanean egindako liburuak dira horiek, atzean hamaika bilera, eztabaida, idazketa eta orrazketa dituztenak –eztabaida beroak eta biziak ez gutxitan–. Taldelan horretan batzordekideen izenak ezkutuan bezala geratzen dira askotan. Kapitulu edo atal bakoitzak, ordea, bere egilea du, bere txostengilea, lehen idazketa egin eta batzordearen aurrean irakurri ondoan, hango eztabaidetan jasotako ohar eta iradokizunen arabera berridatzi duena. Kapitulu gehienek, hain zuzen, hiru edo lau idatzaldi –edo are gehiago– izan dituzte, txostengileek eginak. Horretan ere aritu zen Jose Mari: ohar-egile liburuki guztietan eta txostengile batzuetan. Lehen liburukiaren eranskinean, esate baterako, *-ko* atzizkiak ari den kapitulurako txos-

tena berak idatzi zuen; eta bosgarrenean, orain arte argitaratu den azkenean, perpaus osagarrietako *ezen* lokailuaren erabilerari dagokion txostena egin zuen. Eta tartean beste batzuk.

Garaiz iristen zen beti bileretara. Donostian egin ohi ditu bilerak Gramatika batzordeak, eta urrutitik etorri arren, hantxe izaten zen bera, bertakoak baino lehen iritsia askotan. Batzordearen lanari zion begirunearen seinale, noski. Bileretan ez zen gehien hitz egiten zutenetakoa, horretan ere apala baitzen. Esan beharreko zerbait zue-nean, bazekien hitza eskatzen eta hartzen, jakina. Baina berariaz galdetu behar zitzaion askotan, bere iritzia entzungo bagenuen. Egitura edo esaldi bat zuzena ote zen zalan-tza genuenean, iritzia eskatzen genion, eta baita aintzat hartu ere gehienetan. Ziurtasuna ematen zigun, euskararen ezagutza sakona baitzuen. Gipuzkera ez ezik, bizkaiera ere ondo menderatzen zuen, dakitenek aitortu dutenez.

Batzordeko beste lanetarako ere prest izaten zen beti. JAGONetik etorritako galderei erantzuteko, esate baterako, ez zuen inoiz laguntza ukatzen. Batzordeko idazkariaren hitzak dira: «txosten bat prestatzea zela, besteren txosten bati oharra egitea zela, inoiz gutxitan ikusi izan dut ezetz esaten, eta halakoetan, bere umiltasunagatik izaten zen gehiago, lanari ekiteko gogo faltagatik baino (“nik nola egingo dut ba halako txosten mardula?”, zen halakoetan esaten zuena)».

Lanbidez euskara-zuzentzailea zenez, euskara zuzena zuen gogoko. Nekez izango da egokia euskara, esaten zuen, zuzena ez bada. Maite zuen horrelako iruzkinak egitea, bilera-tarteetan eta. Orain oso aipatuak, eta gaitzetsiak, diren *gol berri bat*, *falta garbia* eta horrelakoez aspaldi ohartua zen. Nola izango da, bada, garbia falta? –esaten zuen–, faltak gauza zikina dira beti. Behin, txosten bat prestatzen ari nintzela, gaiari zegokion Ebanjelioaren pasarte hau ekarri zidan: *Eta [hura] etxean zegoeneko berria zabaldu zen* (Mk. 2,1). Bibliaren bertsio horretako itzulpena oso egokitzen zuen Jose Mari, baina testu horretan ez omen zuen itzultzaileak asmatu: zer da, izan ere, *etorri zeneko berria* hori, «noizko» berria? Ez, hor esan nahi dena da *etxean zegoelako berria* zabaldu zela. Beste behin serioxeago agertu zen: «Jesusen Nekaldia» «Jesusen grina» bilakatu omen zuen itzultzaile trakets edo bromazale batek, pasio mota batetik beste pasio mota batera salto eginez. Jose Mari, pasiotarra zena, hau da, *Jesusen Nekaldiaren* jarraitzaile, *Jesusen grinaren* jarraitzaile bilakatu zuen kolpe batez *traduttore traditore* hark. Beste behin eztabaida luzea izan genuen gure artean: Jose Mariren ustez, sarriegi erabiltzen omen dugu *beranduago* hitza *geroago*-ren lekuan, erdarazko *más tarde* eta *plus tard* esaldien eraginez. Bi lagun etorri badira berandu, orduan esan omen daiteke, bai, bat bestea baino *beranduago* etorri dela; bat *berandu* eta bestea *beranduago*, alegia. Baina lehenbizikoa ez bada berandu etorri, nola etorriko da bestea hura baino beranduago? Nabardura asko aipatu ziren eztabaidan, *EGLU* V-eko 400. orritik aurrera jasoak geratu direnak.

Bestela ere lagundu zion Jose Mari Euskaltzaindiari. Beste bi batzordetan ere aritu zen, zekiena eskaintzen: Azkue Biblioteka batzordean eta Lexiko Ebazpen Finkapenerako batzordean –non, besteak beste, hitzen *Eratorpenaz* izeneko txostena landu zuen–. Eta *Euskera* agerrikari lanak ere berak zuzentzen zituen.

Horregatik, bada, eta euskararen alde egindako lan guztiagatik, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1986an eta ohorezko euskaltzain, merezimen-

du osoz, 2002an. Pozbide izango ahal zuen ordurako mendean hartua zuen gaixoaldian!

Ondo eta oparo egindako lanaren saria izan zen hura, euskararen alde aritzeko eta laguntzeko beti prest egon zen Jose Marirentzat.

Donostia, 2005-IV-22

Jose Antonio Mujika

JOSE GARMENDIA ARRUEBARRENA (1925-2005)

Jose Garmendia Arruebarrena 1925ean jaio zen Goierriko Zaldibia herrian. Gasteizko Seminarioan ikasi zuen eta 1950. urtean apaiztu ostean, Erromara joan zen, Teologia Doktorego eta Espiritualitatearen Historia ikasketak egitera. Gero, urte askotan Andaluzian finkatu zen, lehendabizi, Huelvako Mazagon herrian, kapilau izan zen. Ondoren, Sevilla, Huelva eta Cadiz probintzietako hainbat herritan ibili zen, misiolari bezala, 11 urtez. 1960. urtean, Buenos Airesera bidali zuten eta, gero, berriro Andaluziara itzuli zen. 1967tik 1969ra bitartean, Sevillako Unibertsitateko kapilau izan zen Garmendia eta 1969tik aurrera, 21 urtez, erlijio irakasle izan zen, Utrerako Institutuan, jubilatatu zen arte. Orduan itzuli zen Euskal Herrira, hiri honetara, hain zuzen, 1990ean.

Sevillan igarotako urte luzeek, hain zuen ere, ikerketarako bidea zabaltu zioten. Berak azaltzen zuen bezala,

Euskaldunek, XVI, XVII eta XVIII. mendeetan Amerikarako bidean garrantzi handia izan zuten. Prestatutako jendea izatearen ospea zuten. Irakurtzen eta idazten zekiten gaztetandik eta dirutza handiak egin zituzten. Indietako Artxihoan horren inguruko datu asko zegeen, ia inork aztertu ez zituenak oraindik, eta horretan hasi nintzen.

Izan ere, Indietako Artxihoak ikertu zituen, dedikazio osoz. *ABC* egunkariaren Sevillako edizioan gai horren inguruko artikulua ugari argitaratu zituen, horietatik 35 artikulutan euskaldunek Sevillan bete zuten lanaren ingurukoak azaltzen zituela. *Real Sociedad de Amigos del País*-en Buletinean ere 129 artikulua idatzi zituen, gai horri buruzkoak.

Bestalde, Juan Ignazio Iztueta Zaldibiako idazle eta dantza ikerlearen bizitza eta lana sakon ikertu zuen Garmendiak. Batez ere, horregatik izan zen ezaguna Garmendia. Horren emaitza dira, besteak beste, *Iztueta*ren *olerkiak*, *Iztueta*, *dantzarien maisu* eta *Miscelanea* eta *Iztueta al descubierto* izeneko liburuak. Iztueta

ren jaiotzaren men-deurren ospakizunak -1945ean- Garmendiak berak antolatutako zituen, Zaldibian.

Euskera Akademia honen agerkarian argitaratutako txosten eta artikulua andana ere oso interesgarria da, hain zuzen, haren ikerketen norabidea jakiteko. Ez bakarrik Iztueta

ren buruzko doenerdi lan, baita ere gutxi aztertutako gaiak, hala nola: «El euskera en el Archivo General de Indias; Euskaldun abizenak Sevillan eta Cadizen; El euskera en el valle de Cigoitia (Alava); Textos inéditos de autores vascos, Francisco Inazio Lardizabal-en lan eta idazkiez ezagutzen ez diren berri eta gauza batzuk; Dos salmos inéditos de Francisco Ignacio de Lardizabal; Algunas noticias inéditas sobre Agustín Pascual Iturriaga; Los restos de la biblioteca de Francisco Ignacio de Lardizabal; Jose Antonio de Azpiazu, euskerólogo»; Aizkibel azkoitiar jakintsuari buruzko hiru artikulua.

Sevillako Centro Vasco-Navarro izeneko elkarteak sortu zuen, 1972an.

Eusko Ikaskuntzaren, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Diputazioaren edota Euskaltzaindiaren agerkarietan ere argitaratu izan zituen lanak.

* * *

Jose Garmendia ezagutzeko parada Aita Luis Villasanteren bidez izan nuen Arantzazun, hara gutxienez hilerio Euskaltzainburuarekin «despatxatzera» joan ohi nintzenetariko batean. Hura, oporretan zegoen. Elkarrekin bazkaldu eta hiru-ok egun gogoangarria igaro genuen. Ondo aprobe txatu nuela uste dut, zeren eta handik gero-ra gure arteko adiskidetasun beroa sortu baitzen, gutun harreman iraunkor eta guzti. Euskaldunok Ameriketara utzitako lorratzei buruz egindako ikerketa eta bibliografiaz nabarmenduko bagenu norbaitzuek, bi azpimarratuko nituzke, Jon Bilbao Azkarreta, getxoztarra, nahiz eta Puerto Rico sortua eta, Jose Garmendia Arruebarrena, zaldibiarra.



Garmendia Arruebarrena ez bakarrik ezagutzen genuen euskalgintza edo euskal kultura mundukook, baita ere Andaluziako ikerleek ere. Orain maiatzean etorriko dira sei urte opor hamabostaldia Sanlúcar de Barramedan pasatu genuela. Egun baten, Puerto de Santa Mariara joan, beste zenbait euskal izenen artean Durango kalea ikusi, Udaletxera deitu, hiriko kronistarekin mintzatu eta honek, berehala, Garmendiarekiko eza-gupidea azaldu zidan. Zaldibiarri deitu eta biengandik enteratu nintzen, ez bakarrik durangar ospetsu bat, portu agintaria berau baizik eta euskaldun andana bat agertzen zela Puerto de Santa Maria hiri aberatsaren historian

(Oraindik kontserbatzen da haren hilobia aldare propio batean, familiaren eskudu eta guzti. Argitu nien, artxibozainari eta Jose Garmendiari, armarria, Izurtzako herriarena zela, beraz, pertsonaia Durangaldekoa bai, baina izurtzarra).

Biak gelditu ziren ikertzekotan. Cadiz hiriburuan pare bat egunetan izan ginen, baina han euskaldunak utzitako aztarna, kapera, erretaula eta jauregiren aurretiaz onura ateratzeko, ezinbestekoa suertatu zitzaidan Garmendia Larrañagaren idazlanak irakurrita izatea.

Cadizek izan omen zuen euskal exonimoa, gaur egun ahantzia, **Karize**, Sevillak ezagunagoa zuen bezalaxe, **Sibilia**. Honen aldaera bat Ihurreta eta Garaiko «Egun Zuri» erronda kantetan agertzen dela adierazi nion Garmendiari, hain zuzen, Antton Mari Aldekoa-Otalaria, Gerediaga Elkarteko lehendakari-ohiak argitaratua: *Aratosteak Durangaldean / El carnaval en la Merindad de Durango*, Diversos autores, Durango, 1985. Berehala apuntatu zuen, doinu eta guzti:

Sibirija ta Granada,
urdaizpikoa ona da,
urdaizpikoa ona da baina,
hiru lukainkaz hoba da.

Eta exonomastika apur bat aztertu dugunok badakigu: «harremana non, exonimoa han». *Sibilia* eta *Karizeko* merkataritza eta itsas harremanak, batez ere giputz-bizkaitarrekin, inork ikertu baditu gure goierritarra izan da. Noski, «Boga boga» kantak esango lukeen bezala, Indietara joandako zientoka euskaldunen testamentu, gutun, dokumentu, aberastasun, nahiz pobrezia Hark estudiatu ditu. Gaur eta hemen, hainbeste liburu eta aldizkaritan sakabanatutako haren idazlanak norbaitek batzea eta argitalpen bilduma baten paratzea eskatuko nuke, foru erakundearen babespean. Aitorpenik hoherena litzateke, Euskal Herriaren historiaren alderdi ez hain ezagutua eskura izango genuke eta.

Indietako Artxiboa, Sevilla eta Cadiz portu frankoak izan baziren ere Andaluzia-ko haren lan egonaldi luzeko ikerketa fruituak, ezin dut haren beste uztza nagusia aipatzeke utzi, Juan Inazio Iztueta herrikidea, alegia. Inork aztertu, ikertu eta argitaratu badu XVIII.–XIX. mendeko zaldibiar famatu hura, Jose Garmendia izan da. Zinetan dei genezake «iztuetologo» nagusia. Berak argitaratuko obra nagusiak aztertzea aski da, baita artikulu andana bat ere.

Ezagutzen nuen neurrian ez dut uste abertzalea zenik, baina bai euskaltzalea. Esango nuke Gipuzkoaren historian ugari izan diren ideologia tradizionalistako gizon jakitun eta kezkatu andanaren azkenetarikoa izan dela. Zoritxarez, azkenetarikoa esango nuke, «kasta» hau agortzera doala baitirudi. Euskal Herriarekiko kezka haren esaldi famatu baten mugatuko nuke, bai Villasantek ere askotan gogoratzen zuena eta, baita ere, Henrike Knörrek eta biok, berari entzunda, maiz komentatu duguna, bestalde: «euskaldunaren begia txikitu, laburtu da / el ojo del vasco se ha empequeñecido». Urrretxuarraren «eman da zabal zazu munduan fruitua» edo garaztarraren beste hura: «euskara jalgi hadi mundura» nahiago zituen, dirudienez.

Euskaltzaindiak, 1979ko abenduaren 20an izendatu zuen euskaltzain urgazle. 2005eko urtarilaren 18an zendu zen, hemen, Donostian.

Euskal Herriak eta, bereziki, Gipuzkoak eta, Zaldibia haren jaioterriak, euskalari jakintsu bat, ikertzaile trebea, galdu dute aurtengo neguan Jose Garmendia Arruebarrenarekin. Gipuzkoarren Etxe Nagusi honetan esan dezaket, Probintziak, berari esatea gustatzen zitzaion bezala, zor diola oroimen koskor hau baino zerbait gehiago. Gauza bera, Zaldibiako Udalak ere, zeren eta bertako seme argienetarikoa izan baita.

* * *

Argitaratutako lan aipagarrienak

a) Gipuzkoaz eta beste

- «Francisco Ignacio de Jáuregui autor de Galbarioco Bidea». *La gran Enciclopedia Vasca*, 1968 (III); 74-88.
- «Carta de antología de un vasco. De D. Juan Idiáquez a su hijo (1587)». *La gran Enciclopedia Vasca*, 1968 (III); 305-306.
- «Alegría de Oria en una monografía del siglo XVIII [de F.X. de Iriarte Artano]». *BSVAP*, 1974 (XXX); 431-464.
- «Índice de la producción literaria crítico-musical de don Norberto Almandoz». *BSVAP*, 1974 (XXX); 493-503.
- «Librería de Irisarri». *BSVAP*, 1975 (XXXXI); 589-590.
- «Sobre el autor de Testamentu zar eta berrico condaira [F. I. Lardizabal]». In: *Le-kuona'tar Manuel jaunaren omenezko idazki-bilduma*. Tolosa: Juan José Garmendia, Técnicas de Difusión, 1977, T. III; 157-168.
- «Mandato sobre predicación en lengua vasca [Uxue, Nafarroa]». *BSVAP*, 1977 (XX-XIII); 578-579.
- «Antonio de Gaztañeta Yturrialzaga, capitán y pilotu mayor de la Real Armada del mar Océano». *BSVAP*, 1979 (XXXV); 272-278.
- «Precisiones en torno al procedimiento de *Maragato* [Pedro Piñeiro] por Fray Pedro [de Argaya] de Zaldivia». *BSVAP*, 1979 (XXXV); 288-294.
- «Apuntes históricos sobre el cultivo del vascuence». *BSVAP*, 1979 (XXXV); 554-556.
- «El azcoitiano Juan López de Recalde». *BSVAP*, 1980 (XXXVI); 402-405. «Addenda a la nota sobre López de Recalde». *BSVAP*, 1981 (XXXVII); 609.
- «Pedro Angel de Albisu, un arquitecto desconocido». *BSVAP*, 1980 (XXXVI); 406-407.
- «Noticias desconocidas sobre Francisco Ignacio de Lardizabal». *BSVAP*, 1980 (XXXVI); 407-408.
- «Francisco Inazio Lardizabal-en lan eta idazkiez ezagutzen ez tiren berri eta gauza batzuk». *Euskera*, 26. libk. (1981, 2); 795-797.
- «Apellidos vascos poco frecuentes». *ASJU*, 1982 (16); 247-261.
- «Correspondencia con los jueces de arribadas en San Sebastián». *Bol. Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 1982-1983 (16-17); 657-689.
- «Alava en las congregaciones o hermandades vascas fuera de las provincias». In: Congreso de Estudios Históricos, [Gasteiz]: Diputación Foral de Alava = Arabako Foru Aldundia, [1985].

- «Andres de Poza en Flandes: una etapa de su vida casi desconocida». *Euskera*, 33. libk. (1988, 2); 569-621.
- «Encargo de armas a las Reales Fábricas de Plasencia en el año 1687». *BSVAP*, 1988 (XXXXIV); 233-238.
- «Diego de Iparraguirre, apuntes sobre su obra». *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria*, 1989 (6); 227-238.
- «Textos inéditos de autores vascos». *Euskera*, 38. libk. (1993, 1); 151-65.
- «El euskera en el Valle de Cigoitia (Alava)». *Euskera*, 28. libk. (1993, 3); 471-476.
- «Un inédito de Aizquibel». *Euskera*, 39. libk. (1994, 2); 487-499.
- «Jose Antonio de Aspiazu euskerólogo». *Euskera*, 40. libk. (1995,1); 417-425.
- «Los restos de la biblioteca de Francisco Ignacio de Lardizabal». *Euskera*, 41. libk. (1996, 3); 1001-1005.
- «Dos salmos inéditos de Francisco de Lardizabal». *Euskera*, 42.libk. (1997, 3); 713-715.
- «Algunas noticias inéditas sobre Pascual Iturriaga». *Euskera*, 42. libk. (1997, 3); 717-720.
- «Cristobal de Rojas y Sandoval: un Arzobispo ilustre de Fuenterrabía». *BSVAP*, 1998 (LIV); 421-434.
- «Juan Bautista de Zuloaga». *BSVAP*, 2000 (LVI); 159-166.

b) Iztuetaz

- *Obras inéditas de Iztueta (poesía, correspondencia, testamentos)*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.
- «Guipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira». *La gran Enciclopedia Vasca*, 1970 (IV); 715-757.
- «Noticias sobre Iztueta en los Resgistros de las Juntas Generales de Gipuzkoa». *BSVAP*, 1974 (XXX); 467-470.
- «Sobre unos originales de *Guipuzcoa-co Condaira* de Iztueta». *ASJU*, 1976 (X); 199-208.
- «Documentos relacionados con Juan Ignacio de Iztueta y sus familiares». *BSVAP*, 1976 (XXXII); 589-592.
- «Relacion de los curas de Guipúzcoa. Un Trabajo inédito de Juan Ignacio de Iztueta». *BSVAP*, 1977 (XXXIII); 179-203.
- «Una dedicatoria inédita de Gipuzcoa-co dantza». *BSVAP*, 1977 (XXXIII); 545-549.
- «En torno a las letras del libro de las melodías de las danzas». *Guipuzcoa*, 1977 (nº 25); 12-13.
- Iztueta'ren olerkiak. Tolosa: Librería Técnicas de Difusión, L.G. 1978.
- «Iztueta, credibilidad de su Gipuzkoa-ko dantzak: su influencia en el folklore de su tiempo» *Cuadernos de sección. Folklore*. 1983 (1); 29-45.
- «Andoain en la obra de Iztueta». *Leyçaur*, 1990 (6); 249-253.
- «Iztuetaren *Gipuzkoako condaira*-ren inguruan». *Euskera*, 38. libk. (1993, 1).

- «Aizquibel e Iztueta». *Euskera*, 39. libk. (1994, 2); 501-503.
- *Juan Ignazio Iztueta, dantzarien maisu & miscelánea*. Zaldibia: Iztueta Fundazioa, 1995.
- «Iztueta y sus estrofas acerca de las cabras». *Euskera*, 40. libk. (1995, 2-3); 1059-1064.
- «Iztueta y el euskera». *Euskera*, 41. libk. (1996, 3); 1007-1011.
- «Aspectos de la personalidad de Iztueta». *Euskera*, 41. libk. (1996, 3); 1013-1021.
- «Dos personajes enfrentados, Juan Ignacio de Iztueta y el Rector de Azpeitia». *Euskera*. 42. libk (1997, 3).
- «Iztueta «afrancesado» en Azpeitia y en San Sebastián». *Bol. de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 1999 (33); 591-606.
- «Mujeres e hijos de Iztueta». *BSVAP*, 2000 (LVI); 295-300.
- «El folklorista Iztueta, maestro de niños». *BSVAP*, 2001 (LVII); 109-121.

c) Amerika eta Andaluzia

- «Libros de hidalguías vascas en el Archivo Municipal de Cádiz». *BSVAP*, 1974 (XXX); 467-170.
- «Cargadores vascos a Indias en Sevilla». *BSVAP*, 1976 (XXXII); 582-584.
- «Nómina de Indianos en el Archivo Municipal de Villafranca de Ordizia». *BSVAP*, 1977 (XXXII); 250-252.
- «Títulos y cargos de vascos en Cádiz». *BSVAP*, 1977 (XXXIII); 267-268.
- «La Cofradía del Santísimo Cristo de la Humildad y Paciencia de los vascos en Cádiz de 1700 en adelante» *BSVAP*, 1978 (XXXIV); 375-412.
- «La Cofradía del Santísimo Cristo de la Humildad y Paciencia de los vascos en Cádiz. Índice algunos cofrades». *BSVAP*, 1979 (XXXV); 119-140.
- «Dos hijos ilustres de Vergara [Miguel Arricruz eta Juan Bautista Elústiza Ganchequi, Cadizen]». *BSVAP*, 1979 (XXXV); 283-285.
- «El Caballero Domingo de Urbizu». *BSVAP*, 1979 (XXXV); 285-288.
- «Documentos inéditos de la Congregación de los Vizcaínos en Sevilla». I. *BSVAP*, 1979 (XXXV); 405-442 – II. *BSVAP*, 1980 (XXXVI); 219-233.
- «Los Ibarburu y Galdona de Motrico». *BSVAP*, 1979 (XXXV); 279-283.
- «Exportación y exportadores vascos a las Indias». *BSVAP*, 1979 (XXXV); 561-569.
- «Vascos en Lebrija». *BSVAP*, 1980 (XXXVI); 423-426.
- «Los vascos en algunas guías de Cádiz». *BSVAP*, 1980 (XXXVI); 426-436.
- «Presencia vasca en Sevilla durante el siglo XVIII (1698-1785)». *BSVAP*, 1981 (XXXVII); 429-512.
- «Euskaldun abizenak Sevilla'n eta Cadiz'en». *Euskera*, 26. libk. (1981, 1); 245-278.
- *Catálogo de los vascos en el Archivo General de Indias (Sevilla)*. San Sebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 1983-1984.
- «Comerciantes vascos en la segunda mitad del siglo XVIII en Cádiz». *BSVAP*, 1986 (XXXIX); 686-688.

- «El euskera en el Archivo General de Indias (Sevilla)». *Euskera*, 31. libk. (1986, 1); 191-193.
- *Vascos en Cádiz (siglos XVII-XVIII)*. San Sebastián-Donostia: Doctor Camino de Historia Donostiarra, 1986.
- «La Compañía de Caracas y familias donostiarras (1784-1798)». *Bol. de Estudios Históricos sobre San Saebastián*, 1987 (21); 517-540.
- «Documentos de donostiarras en el Archivo de Indias». *Bol. de Estudios Históricos sobre San Saebastián*, 1988 (22); 435-453.
- *Cádiz, los vascos y la carrera de Indias*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1989.
- *Diccionario biográfico vasco: méritos, servicios y bienes de los vascos en el Archivo General de Indias*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1989.
- «Cartas de M Eusebia de Eliza a Veracruz». BSVAP, 1989 (XXXXV); 119-145.
- *Tomás Ruiz de Apodaca, un comerciante alavés con Indias (1709-1767)*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, Kultura Saila, 1990.
- «Algunos iruindarras de la diáspora». *Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria*, Año 8, n. 9 (dic. 1991), 59-70.
- «Documentos sobre el País Vasco en el Archivo de Protocolos de Sevilla». *RIEV*, 1993 (año, 41, t. 38); 220-245.
- «Donostiarras en Cádiz y San Fernando». *Bol. de estudios Históricos sobre San Saebastián*, 1996 (30); 627-663.
- *Guía de vascos en el Archivo General de Indias de Sevilla*. Madrid: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Delegación en Corte, 1999

Donostian, 2005eko apirilaren 22an

Jose Luis Lizundia

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX

Euskaltzaindiaren kargu-aldaketa	9
* * *	
Euskaltzaindiaren XIV. Barne-Jardunaldiak	23
* * *	
Joan Perez Lazarraga (1550-1605) idazlearen IV. mendeurrena: 1605-2005	121
* * *	
<i>Iker saila</i>	171
Onomastika	173
* * *	
<i>Jagon saila</i>	205
Euskaltzaindiaren barne-historia (VII)	211
* * *	
Euskaltzaindiaren Agiriak	275
Batzar-Agiriak	277
Euskaltzaindiaren <i>Arauak</i>	301
Adierazpenak, Hitzarmenak... ..	349
* * *	
Berriak	367
Aurkezpenak	399
* * *	
Hil Berriak	423